DIAGNOSTIKO ESTRATEGIKORAKO

AURREPROPOSAMENA

E2030DSS

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

ESTRATEGIA 2030 DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

aurkibidea

00 SARRERA 05

01 HIRIAREN ESPARRUA: PERTSONAK 09

02 JARDUERA EKONOMIKOA, GARAPEN IRAUNKORRERAKO BALDINTZA 67

03 ZIENTZIA, EZAGUTZA AURRERATUA ETA BERRIKUNTZA 105

04 HIRIKO BIZI KALITATEA 133

05 INGURUMENA ETA IRAUNKORTASUNA 177

06 GIZARTE ERLAZIONATUA: MUGIKORTASUNA, IRISGARRITASUNA, KOMUNIKAZIOA 199

07 GLOSARIOA 221

08 ERANSKINAK 235

00
Sarrera

Esparrua

Diagnostikoari PERTSONEN eta HIRIAREN ikuspegi zentraletik ekin zaio, 2020DSS Estrategiaren eguneraketan jasotako ikuspegi estrategikoari jarraituz. Aintzat hartu beharreko garrantzizko alderdien artean hauek nabarmentzen dira:

- Hiritarren bizi kalitatea bermatuko duen bizitzeko hiria, donostiarren egungo eta, bereziki, etorkizuneko bizi kalitatea bermatuko duena.
- Pertsona guztientzako hiria, hau da, askotarikoa eta inklusiboa (hiri “atsegina”, bereizketarik egingo ez duena adinaren, sexuaren, jatorriaren, auzoaren, errenta mailaren eta abar arabera), kohesionatua (gizarte kapitala, balioak, sareak, lurraldearen eta auzoen oreka eta artikulazioa, berdintasuna, ongizatea,…) eta iraunkorra (ingurumena/energia, gizartea/berdintasuna, hezkuntza, ekonomia/berrikuntza, jakintza).
- Erresilientea, etorkizuneko erronkei aurrea hartzen saiatzen dena, betiere gerta daitezkeen krisialdiak edo ekitaldi disruptiboak saihesteko, krisialdi edo ekitaldi horietara egokitzeko, edo horietatik ahalik eta hobe eta azkarren lehengoratzeko.
- Hiritar ikasiak, jakintzaren aldeko kezka dutenak eta hiriaren aldeko lankidetza adimendunerako gauza direnak (ezagutza, euskara, kultura, sormena, jarduera berritzaileak, aukera sektoreak, teknologiak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak…), hau da, hiriak bizitzeko eta lan egiteko duen erakargarritasunaren alde egingo dutenak, eta bisitatzeko eta pertsona gisa modu iraunkorrean “hazteko” hiriak duen erakargarritasunaren alde egingo dutenak (demografia, ekintzailetza, parte hartzea, kultura, aisia, natura…).
- Horrenbestez, hirien (pertsonen, enpresen, administrazioen, unibertsitateen, kultura eta ezagutza zentroen, ekitaldien…) hurbileko eta urruneko sareetan txertatzen den hiria, barruan zein nazioartean konektatuta dagoena.





Ohar metodologikoak

- Donostiako diagnostikoari ekiteko garaian, kontuan hartu da: hiriaren egoera eta bilakaera osoa; auzoaren mailako analisia, baldin eta eskura dagoen informazioak ahalbidetzen badu; eta lurralde esparrua, euskal ingurunearen barruan eta Estatuko eta Europako erreferentziako hirien aurrean.
- Jasotako arloetako bakoitza sakontasunez aztertu da, eskura dagoen informazioaren arabera; haatik, ondorio praktikoetarako, dokumentu honetan Donostiaren errealitatea ulertzeko beharrezkoak diren alderdirik adierazgarrienak islatzen dira, hiriaren egungo eta epe ertainerako erronkak eta aukerak identifikatzera begira.
- Nabarmendu behar da zaila dela beharrezko desagregazio maila duten Donostiari buruzko estatistika datu eguneratuak lortzea. Hori dela eta, informazio kuantitatiboa osatzen da zeharkako iturrietako, azterketetako eta analisi monografikoetako informazioarekin (batzuetan hiria baino lurralde eskala handiagokoak dira), baita informazio kualitatiboarekin ere, dokumentuan islatuta geratu den moduan.
- Hainbat iturri ofizial erabiltzean, agerian geratzen da iturri desberdinetako datuen artean dauden aldeak. Analisiaren inkoherentziak saihesteko helburuarekin, arreta handiz tratatu da informazioa, ahal den heinean erreferentziatzat hartuz zuzeneko iturbururik hurbilena —modu egokian aipatuz—.
- Halaber, hiria beste hiri edo lurralde batzuekin alderatzean, datu horiek bilduko dituen iturri ofizial bat erabili da, hiriaren estatistika balioak testuinguruan kokatzeko.





Iturri nagusiak

- Estatistika iturri ofizialen artean daude: EUSTAT, INE eta EUROSTAT.
- Kontsultatutako erakundeen informazioa abiapuntu izanik estatistikak landu dira. Kontsultatutako erakundeak dira, besteak beste, LANBIDE, Gipuzkoako Foru Aldundia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteak, Gipuzkoako Teknologia Parkea eta Innobasque.
- Hiriaren osotasunari dagozkion estatistika eta informazio iturrien artetik udalaren sailak eta sozietateak nabarmendu behar dira (batik bat, Informazioko Udal Unitatea, Ingurumen Zuzendaritza, Donostia Sustapena, Donostia Turismoa, Donostia Kultura eta Etxegintza).
- Zenbait alderditan dauden informazio mugak azpimarratu behar dira; datu ofizial eguneratuen desagregazio mailak (generoaren arabera, auzoen begirada…) arras baldintzatzen ditu diagnostiko honetan bildutako informazioak eta prozesu honetan egin diren gogoetak.
- Donostiako 2030 Estrategiarako zabaltzen den gogoeta estrategikoko prozesuak aintzat hartzen du diagnostiko “kuantitatiboko” aurretiazko proposamen horretan bildutako informazioaren egiaztatze kualitatiboa. Horrenbestez, Plan Estrategikoaren batzordearen egiaztapenekin eta ekarpenekin eta lantaldeetako adituen hausnarketekin osatuko da —edo osatzeko lagungarriak izango dira— Donostiako Diagnostiko Estrategikoa.










N MARTIN



01
HIRIAREN ESPARRUA: PERTSONAK

Hirian bizi den populazioa

- Donostia, populazioaren bilakaera eta ezaugarriak
- Proiekzio demografikoak
- Donostiako populazioa jatorriaren arabera

Prestakuntza, gizartea eta balio partekatuak

- Donostiako populazioaren prestakuntza
- Donostiako gizartearen kezkak eta pertzepzioa
- Donostiako balioak eta kapital soziala

Gizartea: lurralde kohesioa, gizarte inklusioa

- Gizarte eta lurralde kohesioa
- Enplegua, gizarte kohesioaren euskarri

Hirian bizi den populazioa


Donostia, populazioaren bilakaera eta ezaugarriak

POPULAZIOA EGONKOR MANTENTZEN DA

NEURRIZKO DINAMISMO DEMOGRAFIKOA DU


- Donostia Europako hiri ertain bat da, **186.377 biztanle dituena**, 329.435 biztanleko eremu metropolitar batean eta 712.809 biztanleko eskualde batean, Gipuzkoan (Iturria: EUSTAT eta Donostiako Udala, 2016). 2017ko abenduaren 31n, 186.667 biztanle zituen (Iturria: Donostiako Informazioko Udal Unitatea).
- Azken bi hamarkadetan, populazioaren bilakaerak **hazkunde demografiko eutsi handi samarra** erakusten du (Δ% 5,3, 1996 eta 2017 artean), aldakuntza txikiekin; nolanahi ere, azken hamarkada honetan intentsitateak behera egin du, eta azken urteotan populazioa ia egonkor mantendu da (2016-2017 aldian Δ% 0,2). 1996-2017 aldirako adierazitako hazkunde tasa Gasteizi dagokion hazkunde tasatik urrun dago (Δ% 15,3); alabaina, Bilboko hazkunde tasaren gainetik dago (-Δ% 3,8), Bilbok aldi horretan populazioa galdu baitu (Iturria: EUSTAT eta Donostiako Informazioko Udal Unitatea).
- **Generoaren araberako populazioaren banaketa** ere egonkor mantentzen da, aldakuntza txiki batekin: 2008an gizonak % 46,9 ziren eta emakumeak % 53,1; eta 2016an, gizonak % 46,8 ziren eta emakumeak % 52,9 (Iturria: Eustat)

DONOSTIAKO POPULAZIOAREN BILAKAERA



Iturria: EUSTAT. Udal errolda. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

POPULAZIO DIMENTSIOA. EUROPAKO HIRIAK, 2014



Iturria: EUROSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoan landua, EUROSTATean oinarrituta.

EUROPAKO HIRI ERTAINA

- Donostiako **hazkunde begetatiboko tasak** (1.000 biztanleko jaiotzak/heriotzak) balio negatiboak ditu milurteko honetan. 2016an, adibidez, -‰ 2,86koa izan zen (metropoliaren testuinguruan tasa positiboa da, ‰ 0,7); Bilbon ere negatiboa da -‰ 3,72, Gasteizen ez bezala, ‰ 1,65. Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa -‰ 1,36koa da eta Gipuzkoako batez bestekoa -‰ 1,6koa (Iturria: Eustat)

Donostiako zahartze demografikoa


- 2017an Donostiako populazioaren **batez besteko adina** 45,7 urtekoa zen (43,6 urtekoa gizonezkoetarako eta 47,5 urtekoa emakumezkoetarako) (Iturria: Donostiako Informazioko Udal Unitatea).
- Bilakaera demografikoak populazioaren zahartze progresiboa ekarri du. **Piramide demografikoak** grafikoki irudikatzen du inguruabar hori: adin handieneko multzoaren bizitza luzera areagotzen da eta adin txikieneko oinarria estutzen da.
- **Adin multzo handien araberako egiturak** islatzen du 65 urtetik gorako populazioa, 1981. urtean populazio osoaren % 12 izatetik, 2016. urtean % 23 izatera pasa dela; eta 20 urtetik beherako populazioa aldi horretan bertan % 31,7 izatetik, 1981ean, % 17 izatera, 2016an, murriztu dela (iturria: Eustat, 2016).
- **Gainzahartzeak** (% ≥75 urte) modu progresiboan egin du gora, % 11,54ra iritsiz (2016an). Emakumezkoen artean (% 14,2), gizonezkoen artean (% 8,5) baino pisu handiagoa du. .

POPULAZIOAREN ZAHARTZE PROGRESIBOA

BIZI ITXAROPEN HANDIA ETA GERO ETA HANDIAGOA

GAINZAHARTZEAREN HAZKUNDE HANDIA


POPULAZIOA ADIN MULTZOEN ARABERA, 1981-2016



Iturria: EUSTAT. Populazio erroldak. Estrategia Bulegoak landua.

Populazioaren banaketa, adinaren eta sexuaren arabera

DONOSTIA POPULAZIO DEMOGRAFIKOAREN PIRAMIDEA, 2017



Iturria: Donostiako Udala, Informazioko Udal Unitatea. Estrategia Bulegoak landua

Bizi itxaropen handia eta gero eta handiagoa

- Jaiotzean, **bizi itxaropenak** modu progresiboan egin du gora: 2001ean, batez beste 77,7 urtekoa zen Euskal Autonomia Erkidegoan (76,6 gizonen artean eta 78,9 emakumeen artean); hamarkada batean (2011) 82,1 urtean kokatu da (78,9 gizonen artean eta 85,4 emakumeen artean), Estatuaren batez bestekoa baino pixka bat txikiagoa (82,5) eta Europar Batasunekoaren gainetik (EB28an 80,2).
- Bost pertsonatik bat iristen da 65 urtetara edo gainditzen ditu 65 urteak; eta hogeita lau pertsonatik batek gainditzen ditu 85 urteak, % 4,1ek 2016an (10 urte lehenago % 2,6 zen). Batez ere emakumezkoak dira; izatez, 85 urteko edo gehiagoko lau pertsonatik ia hiru dira emakumezkoak (Iturria: EUSTAT).

Ezaugarri demografikoak

- **Zahartze indizeak** (>65 urteko populazioa, <15 urteko populazioari dagokionez) gorako joera jarraitzen du; 2017an 188,6ko batez besteko globala zen, 2011n 167,3 zenean. Agerian geratzen da, halaber, zahartze indizean emakumeek duten garrantzia, emakumeen artean 231,4koa da, gizonen artean 147,8koa denean (Iturria: Donostiako Udala, Informazioko Udal Unitatea).
- **Amatasunaren** atzerapen progresiboa eta seme-alaba kopuru txikiagoa (garrantzia dute familia bizitza eta lana bateragarri egiteko zailtasunek) konstante orokorrak dira euskal gizartean —mendebaldeko gizartearen isla—, eta areagotu egiten dute hiriko bilakaera begetatibo negatiboa. Ez dugu ahaztu behar **ezkontza indize sintetikoaren** beherakada; izatez, 1989/91 aldian 66,9koa zen gizonen artean eta 64,1ekoa emakumeen artean, eta 2010/11 aldian 47,9koa zen gizonen artean eta 53,2koa emakumeen artean. Era berean, ez dugu ahaztu behar **ezkontzeko batez besteko adinaren** atzerapena (aldi horietan bertan 26,6tik 35,2ra gizonen artean eta 24,3tik 33ra emakumeen artean) (Iturria: Eustat, adierazle demografikoak).
- Euskal Autonomia Erkidegoko **ugalkortasunaren indize sintetikoak** behera egin du 1975/76 aldiko 2,67tik 2010/11 aldiko 1,33ra (nabarmendu behar da **populazio ordezkapena** ziurtatzeko 2,1eko balioa hartzen dela aintzat). Halaber, **amatasunaren batez besteko adina** 28,6 urtetik 32,4 urtera pasa da aldi horretan bertan.
- Ezaugarri demografiko adierazgarrienei dagokienez, aditzera eman behar da Donostiako **jaiotza tasa** arian-arian murriztu dela azken hamarkadetan (2008ko ‰ 9,9tik 2016ko ‰ 7,28ra, eta 2017ko ‰ 7ra). Antzeko joera izan da Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunean (1975eko ‰ 19,1etik 2016ko ‰ 8,4ra), eta Europar Batasunaren azpitik kokatu da (EB28 ‰ 10).

ADIERAZLE DEMOGRAFIKOAK

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Haurtzaroa(%)	12,55	12,59	12,71	12,78	12,79	12,77	12,75	12,71	12,68
Zahartze indizea*	160,16 (2007)	164,87		167,32	170,21	174,08	177,73	180,34	183,39
Zahartzea (%)	20,09	20,38	20,67	21,08	21,39	21,73	22,2	22,56	22,87
Gainzahartze indizea	10,62	10,89	11,1	11,29	11,39	11,45	11,49	11,44	11,54
Gizona	-	-	7,96	8,13	8,26	8,35	8,4	8,36	8,52
Emakumea	-	-	13,88	14,08	14,16	14,2	14,22	14,18	14,22
Ordezkapen indizea	87,96	84,64	81,15	77,88	75,35	72,69	70,2	67,77	65,8
Erabateko mendekotasun indizea	48,47	49,18	50,11	51,19	51,92	52,68	53,74	54,52	55,13
Bizi itxaropena jaiotzean	81,87	82,27	82,79	82,79	82,91	83,1	83,35	83,15	-
Jaiotza tasa gordina (‰ biztanle)	8,43	8,07	8,14	8,07	8,37	7,65	8,07	8,08	7,28
Gizona	9,68	9,2	8,81	9	9,6	8,26	8,62	8,37	7,85
Emakumea	7,35	7,09	7,62	7,26	7,28	7,13	7,58	7,82	6,78
Heriotza tasa gordina (‰ habitantes)	9,67	9,8	9,44	9,47	9,88	9,9	10,17	10,79	10,11
Gizona	10,37	9,8	9,47	9,66	9,56	10,01	9,75	10,29	10,13
Emakumea	9,11	9,8	9,45	9,31	10,16	9,81	10,53	11,24	10,1
Amatasun indizea	18,02	17,99	18,12	18,35	18,48	18,65	18,57	18,8	19,02
Ugalkortasun tasa globala	-	-	35,45	35,47	37,24	34,43	36,84	38,91	34,7

Iturria: Eustat, Donostia Sustapena, Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea.

ZAHARTZE DEMOGRAFIKOA,

AMATASUN BERANTIARRA, JAIOTZA TASA TXIKIA,

MENDEKOTASUN INDIZE HANDIAGOA,

ORDEZKAPEN INDIZEAREN BEHERAKADA

Zahartze demografikoak garrantzi handiko ondorio sozioekonomikoak eragingo ditu ongizate sisteman eta pentsio sisteman, gero eta eskari handiagoak ekarriko ditu gizarte eta laguntza zerbitzuetan eta osasunaren arloan. Era berean, inpaktu handia izango du lan merkatuan, familietan, aisialdian, egoitza eskarietan, irisgarritasunean, ikerketan…

- **Mendekotasun indizea** 2003an % 56,48koa zen, 2010ean % 59,67koa eta 2017an % 67,71koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako hiriburuetan baino handiagoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik (% 65,76 2016an).

Auzo eskalako begirada

- Populazioa udalerriaren erdialdean eta ekialdean metatzen da.
- Banaketari erreparatuta, ia populazioaren erdia metatzen da Amaran (biztanle gehien duen auzoan, 30.261 biztanle, % 16,3), Erdialdean (% 11,7), Altzan (% 10,9) eta Grosen (% 10). Biztanle gutxien duten auzoak dira Zubieta (289 biztanle, % 0,2) eta Igeldo (% 0,6).
- Azken bosturtekoan, populazioak bilakaera desberdina izan du. Auzo batzuetan gora egin du populazioak: Miramon-Zorroagan (Δ% 16), Amaran (Δ% 5,1), Ibaetan (Δ% 2,7) eta Igeldon (Δ% 2,2) izan dira ehuneko hazkunderik handienak (2013-2017 aldian hiriak batez beste izan duen Δ% 0,3ko hazkundearen gainetik). Aitzitik, beste auzo batzuetan behera egin du populazioak, eta galerarik nabarmenena izan da Landerbasoko landagunean (-Δ% 23,5) eta, gero, Martutenen (-Δ% 4,4), Grosen (-Δ% 3,1) eta Intxaurrondon (-Δ% 2,7). Epe ertainean (2002-2017), bilakaerak hazkunde nabarmena erakusten du Miramon-Zorroagan (Δ% 151, hiri garapenen ondorioz batik bat) eta, hein txikiagoan, Zubietan (Δ% 75,2). Aitzitik, beste auzo batzuetan populazioa galdu da: Landerbason (-Δ% 64,9), Grosen (-Δ% 10), Erdialdean (-Δ% 9,7) eta Ategorrieta-Ulian (-Δ% 8,7) (Iturria: Donostiako Udala, Informazioko Udal Unitatea).

DONOSTIA. POPULAZIOAREN BILAKAERA, 2002-2017




Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea. Estrategia Bulegoak landua

POPULAZIOAREN LURRALDE METAKETA (ERDIALDEA ETA EKIALDEA)


BILAKAERA DESBERDINA: MARTUTENEK, GROSEK ETA INTXAURRONDOK POPULAZIOA GALTZEN DUTE ETA MIRAMON-ZORROAGAK, AMARAK, IBAETAK ETA IGELDOK GEHITZEN DUTE.

POPULAZIOAREN BANAKETA, 2016



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea, Estrategia Bulegoak landua


DONOSTIA. POPULAZIOAREN BILAKAERA. 2013-2017



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea, Estrategia Bulegoak landua


- Ibaeta auzoan soilik gainditzen du gazte populazioak adineko populazioa (<18 urteko biztanleak % 18,4 dira eta ≥65 urteko biztanleak % 16,1). Miramonen (% 20,1), Aieten (% 19,9), Martutenen (% 18,5) eta Ibaetan (% 18,4) ere handia da **populazio gaztearen (<18 urteko biztanleen)** presentzia. Beste auzo batzuetan, Igeldon (% 17,9), Zubietan (% 17,7), Altzan (% 16,2), Loiolan (% 15,9), Ategorrietan (% 17,1) eta Añorgan (% 16,4) ere 18 urtetik beherako biztanleen ehunekoak udalerriko batez besteko ehunekoa (% 15,5) baino handiagoak ziren 2016an (Iturria: Donostiako Udala. Donostia Sustapena, 2016).
- Erdialdeak (% 11,7) eta Grosek (% 11,9) zuten 2016an 18 urtetik beherako biztanleen ehunekorik txikiena; auzo horiek ziren auzorik zahartuenak, **65 urte edo gehiagoko biztanleen** ehunekorik handiena zutenak (% 30,1 eta % 29,4 hurrenez hurren). Hala islatzen da, halaber, 2017ko **zahartze indizean** (>65 urteko populazioa, <15 urteko populazioarekiko); indize horri dagokionez, Erdialdean (297,8) eta Grosen (292,4) lortzen dira baliorik handienak, eta ondoren Antiguan (227,4) eta Egian (204,6), udalerriko batez bestekoaren oso gainetik 188,6. Emakumezko populazioari erreparatuta, indize horrek zahartzerik handienak islatzen ditu Erdialdean (383,6) eta Grosen (368,2) (Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea

POPULAZIO GAZTEAREN BANAKETA



Iturria: Donostiako Udala. Populazio errolda. Estrategia Bulegoak landua.

POPULAZIOAREN ZAHARTZEA



Iturria: Donostiako Udala. Populazio errolda. Estrategia Bulegoak landua.

ZAHARTZEAREN LURRALDE METAKETA (ERDIALDEA ETA GROS)

ETA GAINZAHARTZEA (ERDIALDEA, GROS ETA ZORROAGA-MIRAMON), EMAKUMEZKOEN ARTEAN BATIK BAT

- Erdialdea eta Gros auzoek dute **batez besteko adin** handiena (49,24 eta 49,14 urte, hurrenez hurren), eta Aiete eta Ibaeta auzoek dute batez besteko adin txikiena (41,61 eta 41,71 urte, hurrenez hurren). Hiriaren osotasunerako batez besteko adina 45,51 urtekoa da (gizonen artean 43,3 urtekoa eta emakumeen artean 47,39 urtekoa). Erdialdea eta Gros auzoez gain, Amarak (45,58), Egiak (46,93) eta Mirakruzek (46,63) gainditzen dute Donostiako batez bestekoa (Iturria: Donostiako Udala. Donostia Sustapena, 2016).
- **Populazioaren gainzahartzea** (≥85 urteko populazioa) udalerriaren ipar-ekialdean metatzen da, batez ere Erdialdean (% 6,1), Grosen (% 6), Miramon-Zorroagan (% 5,4), Ategorrieta-Ulian (% 5,3) eta Egian (% 5,2), eta, hein txikiagoan, baina udalerriaren batez bestekoaren gainetik, (% 4,1) Amara, Antigua eta Mirakruz-Bidebieta auzoetan. Aiete, Altza, Ibaeta, Igeldo eta Zubieta auzoek dituzte ehuneko txikienak (% 2 eta % 2,8 artean).

DONOSTIA ZAHARTZE INDIZEA, 2017



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea.

EMAKUMEZKOEN ZAHARTZE INDIZEA, 2017



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea.

Hirien eta lurraldeen benchmarkina

LURRALDE KONPARAZIOAK AGERIAN UZTEN DU DONOSTIAKO GIZARTEAREN ZAHARTZEA ETA GAZTERIAREN GABEZIA

- Indize demografikoa lurraldearen testuinguruan kokatzean, agerian geratzen da Donostiako gizartearen zahartzea erreferentziako hirietan eta lurraldeetan baino handiagoa dela.
- 2016an Donostiako adin handiko populazioaren pisuak (% 22,9) Donostialdeko batez bestekoa gainditzen du, % 19,5, baita gutxigatik Gipuzkoakoa (% 21,3) eta Euskal Autonomia Erkidegokoa (% 21,4), eta zenbait puntugatik Europar Batasuneko batez bestekoa (EB-28, % 19,2). Balio horiek oso urrun daude Irlanda gisako herrialdeen batez bestekoetatik —Irlanda da zahartze txikieneko herrialdea (% 13,2 ≥65 urte)—, eta oso hurbil daude Italia (% 22), Grezia (% 21,3) edo Alemania (% 21,1) gisako herrialdeen batez bestekoetatik (Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT).
- Donostiako **65 urteko edo gehiagoko pertsonen** ehunekoa eta Bartzelona, Oviedo edo Iruñea gisako hirietako ehunekoa antzekoa da (baina zertxobait handiagoa); Bilbok eta Gijonek populazio profil zahartuagoa dute; aitzitik, balio txikiagoak dituzte Gasteiz, Sevilla eta, batez ere, Girona gisako hiriek (azken honetan adin handiko pertsonen ehunekoa 15 urtetik beherakoen ehunekoa baino txikiagoa da, % 15 eta % 17) (Iturria: Eustat, INE, Eurostat).


	Bartzelona	Bilbo	Donostia	Gijon	Girona	Oviedo	Iruña	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
Bizi den populazioa (pertsona kop.) 2016	1.608.746	345.122	**186.064**	273.422	98.255	220.567	195.650	172.656	690.566	790.201	244.634	661.108
0-14 urteko populazioa (%) 2016	12,6	12,13	**12,68**	11,36	17,24	12,18	13,95	11,93	15,13	13,83	14,74	14,31
15-64 urteko populazioa (%) 2016	65,77	64,25	**64,45**	64,03	67,73	66,5	64,22	64,65	66,24	66,04	65,3	65,05
>65 urteko populazioa (%) 2016	21,63	23,62	**22,87**	24,8	15,03	21,32	21,83	23,42	18,63	20,14	19,96	20,64
Populazioaren batez b. adina (urte) 2016	43,56	47,24	**46,79**	47,91	39,59	46,04	44,53	47,43	42,61	43,84	43,8	44,31
Jaiotza tasa gordina (‰) 2015	8,79	7,50	**8,09**	6,00	11,24	7,39	8,48	6,98	9,58	8,28	10,10	9,21
Heriotza tasa gordina (‰) 2015	9,96	11,43	**10,80**	12,28	7,62	10,78	9,45	11,33	9,38	9,52	8,34	9,76

Iturria: INE, Hiri adierazleak. Estrategia Bulegoak landua.

- **Donostiako adin txikieneko populazioa (0-14 urte)** populazio osoaren % 12,7 da; eremu metropolitarreko batez bestekoaren azpitik dago (% 15,4 Donostialdean, eta % 15,48 Bidaso Beherea gabe), baita Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik (% 14) edo Estatuko (% 15,1) eta Europar Batasuneko (EB28 % 15,6) batez bestekoen azpitik. Oso gainetik daude Irlandako (% 21,9), Frantziako (% 18,5), Erresuma Batuko edo Suediako batez bestekoak (% 17,7 eta % 17,4 hurrenez hurren) eta, hein txikiagoan, Alemaniako (% 13,2) edo Italiako (% 13,7) batez besteko balioak.
- Estatuko erreferentziako hirien artean, Gijonek (% 11,4) eta Santanderrek (% 11,9), eta, gero, Bilbok (% 12,1) eta Bartzelonak (% 12,6) Donostiak baino ehuneko zertxobait txikiagoak dituzte populaziorik gazteenari dagokionez (≤15 urte), eta oso urrun daude Girona (% 17,2), Sevilla (% 15), Gasteiz (% 14,7) eta Zaragoza (% 14,3).
- **Batez besteko adinak** (46,79) berriro kokatzen du Donostia hiririk zahartuenen artean, Santanderrek eta Bilbok soilik gainditzen dute, eta oso urrun daude Gironako batez bestekoa (38,59) eta Gasteizko (43,8), Sevillako edo Valentziako batez bestekoak.
- Donostiako **jaiotza tasa** (2015ean ‰ 8,1) Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da (‰ 8,9), eta urrun samar dago Europar Batasuneko batez bestekoa (EB28 ‰ 10,1) —Frantzia (‰ 12,2), Erresuma Batua (‰ 12) eta, batik bat, Irlanda (‰ 14,6) nabarmentzen dira—. Donostiako jaiotza tasa herrialderik zahartuenetako batzuen batez bestekoaren antzekoa da, hala nola Italiakoaren antzekoa (‰ 8,3, pixka bat txikiagoa) eta Greziakoaren antzekoa (‰ 8,5). (Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT).
- Erreferentziako hirien artean, Gironak (‰ 11,2) eta Gasteizek (‰ 10,1) dituzte jaiotza tasa handienak, eta, aitzitik, Gijonek (‰ 6), Santanderrek (‰ 7), Bilbok (‰ 7,5) eta Oviedok (‰ 7,4) Donostiako balioak baino balio txikiagoak dituzte (‰ 8,1).
- Euskal Autonomia Erkidegoko **ugalkortasun tasa** osoa edo ugalkortasun indize sintetikoa (2011n ‰ 1,33) Europar Batasunekoa baino txikiagoa da (EB28 ‰ 1,59, eta 2015ean ‰ 1,58) eta Estatuko batez bestekoaren antzekoa (‰ 1,34, eta 2015ean ‰ 1,33), baita Greziako (‰ 1,39), Alemaniako edo Italiako (biak ‰ 1,4) batez bestekoen antzekoa ere. Hungariak (‰ 1,23) soilik ditu Euskal Autonomia Erkidegoko tasak baino balio txikiagoak. Aitzitik, Frantzia (‰ 2,01), Islandia (‰ 2,02) edo Irlanda (‰ 2,03) populazio ordezkapenerako zenbatetsitako balioetara hurbiltzen dira. (Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT).
- Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen **batez besteko amatasun adina** 32,4 urtekoa da (2011), eta Estatuko (31,4) eta Europako (EB28 30,1; 2015ean 30,5) batez bestekoa baino handiagoa da, baita Frantziakoa (30), Alemaniakoa edo Greziakoa (30,5) eta Italiakoa (31,4) baino handiagoa ere. Aitzitik, Ekialdeko Europako herrialdeek dute amatasun gazteena, hala nola Errumaniak (27,1), Letoniak (28,7) eta Lituaniak edo Poloniak (biak 28,9). (Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT).

LURRALDE KONPARAZIOAK AGERIAN UZTEN DU DONOSTIAKO GIZARTEAREN ZAHARTZEA ETA GAZTERIAREN GABEZIA

JAIOTZA TASA GORDINA. EUROPAKO HIRIAK, 2014



Iturria: Eurostat. Donostiako Estrategia Bulegoak landua, Eurostatean oinarrituta


DONOSTIAKO UGALKORTASUN ETA JAIOTZA TASAK EUROPAKO TXIKIENEN ARTEAN DAUDE ETA AMATASUNA BERANTIARRENEN ARTEAN

Proiekzio demografikoak

2030erako proiektatutako piramideek irudikatzen dute


- Zahartze demografiko jarraitua
- Bizitza luzera handiagoa (bizi itxaropen handiagoa)
- Populazio gazteenaren pisu txikiagoa
- Aktiboa izan daitekeen populazioaren galera
- Aurreikuspenak immigrazio kualifikatuko eta ez-kualifikatuko prozesu baten eraginpean egon daitezke, enplegu beharrak estaltzeko.

GIPUZKOAKO POPULAZIOAREN PIRAMIDE DEMOGRAFIKOA. 2016




Iturria: INE. Proiekzio demografikoak. Donostia Estrategia Bulegoan landua.

GIPUZKOAKO POPULAZIOAREN PIRAMIDE DEMOGRAFIKOA. 2030ERAKO PROIEKZIOA




Iturria: INE. Proiekzio demografikoak. Donostia Estrategia Bulegoan landua.

EAE-KO POPULAZIOAREN PIRAMIDE DEMOGRAFIKOA. 2016



Iturria: INE. Proiekzio demografikoak. Donostia Estrategia Bulegoan landua.

EAE-KO POPULAZIOAREN PIRAMIDE DEMOGRAFIKOA. 2030ERAKO PROIEKZIOA



Iturria: INE. Proiekzio demografikoak. Donostia Estrategia Bulegoan landua.

Donostiako populazioa jatorriaren arabera

Donostiarren jatorria


- Donostian **131 lurralde desberdinetako** 186.667 **pertsona bizi dira**. Donostiako biztanleen erdiak baino gehiago hirian bertan jaio dira (% 58). Ia lautik hiru Euskal Herrikoak dira.
- 2016an, Donostiako populazioaren % 72,9 Euskal Autonomia Erkidegoan jaio zen (2001ean % 75,2 ziren). Beste autonomia erkidego batzuetatik datorren populazioak pixkanaka galdu du pisua, eta populazioaren % 16,9 da (1981ean populazioaren % 28,3 zen eta 2001ean % 21,7). Aitzitik, atzerrian jaiotakoen kopuruak arian-arian gora egin du (1981ean populazioaren % 1,8 zen, 2001ean % 3,1 eta 2016an % 10,2) (Iturria: EUSTAT).

Immigrazioa

- Atzerriko populazioa gero eta ugariagoa da, hazkunde erritmo bizian egin du gora, nahiz eta krisialdiak erritmoa moteldu duen. **Populazio immigratzailea** populazioaren % 1,7 zen 2001ean eta % 7,1 zen 2017an (13.173 atzerritar erroldatuta zeuden 2017ko abenduaren 31n) (Iturria: Donostiako Udala, Informazioko Udal Unitatea).
- Donostiako immigrazioak profil zertxobait femeninoa izan du. 2017an, generoaren araberako banaketari erreparatuta, immigratzaileen % 54,4 emakumezkoak ziren eta % 45,6 gizonezkoak (2002an, immigrazio femeninoa % 49,8 zen) (Iturria: Donostiako Udala, Informazioko Udal Unitatea).


KULTURA ANIZTASUNA, IMMIGRAZIOAREN GORAKADA, —KRISIALDIAN GELDIALDI BAT IZAN ONDOREN HAZTEN ARI DEN PROZESUA—

DONOSTIAKO ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIOA



Iturria: IKUSPEGI. INE estatistikak. Donostia Estrategia Bulegoan landua.

DONOSTIAKO POPULAZIOAREN JATORRIA, 2016



Iturria: INE eta Donostia Sustapena, Udal errolda. Donostia Estrategia Bulegoan landua.

DONOSTIAKO IMMIGRAZIOAREN BILAKAERA



Iturria: EUSTAT eta Donostiako Udala Informazioko Udal Unitatea (2010). Donostia Estrategia Bulegoan landua (urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak)

- Populazio immigratzailea bertako populazioa baino gazteagoa da (33,8 urte batez beste) eta, aktiboa izan daitekeen populazioan, feminizazio maila handiagoa du (% 54,7koa da 16 eta 65 urte artean). Adin tarteen arabera aktiboa izan daitekeen populazio immigratzailea % 83,5 da eta 16 urtetik beherako populazioa % 12,6; immigratzaileen % 3,9 dira 65 urte edo gehiagokoak (Iturria,: INE eta udal errolda).
- Migrazio prozesua, hein handi batean, Europar Batasunaz kanpoko populazioak osatzen du. 2017an, **atzerriko jatorriko** lau pertsonatik hiru (erroldatutako immigratzaileen % 75) **28 herrialdeko Europar Batasunaz** kanpokoak dira, eta hiriko populazioaren % 5,1 dira. Immigratzaileen % 24 dira **Europar Batasunekoak**, eta hiriko populazio osoaren % 1,7 dira (Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea).
- Hiri honetan bizitzea erabaki duten atzerriko jatorriko pertsona gehienak Erdialdeko Amerikakoak eta Hegoaldeko Amerikakoak (% 47, batez ere Honduraskoak % 13,5 eta Nikaraguakoak % 11,2) eta Europar Batasunekoak dira (% 24, batez ere Italiakoak % 4,9, Errumaniakoak % 4,2, Frantziakoak % 3 eta Portugalgoak % 2,8); alabaina, Afrikatik etorritakoak ere badaude (% 10, batez ere Afrika iparraldetik, Marokotik % 6,7), baita Europako beste alde batzuetatik (% 8, Ukrainiatik % 4) edo Asiatik ere (% 9,2, batez ere Txinatik % 3,6).






- **Genero begiradak** bestelako perspektiba eskaintzen digu. Atzerriko jatorriko populazio femeninoan, Latinoamerikako jatorria oso adierazgarria da, % 54,7 (% 16,8 Honduras eta % 15,7 Nikaragua), eta hein handi batean zaintzarekin eta etxeko zerbitzuarekin lotzen diren lanak egiten dituzte. Era berean, Europar Batasunaz kanpoko Europako herrialdeetatik datozenen artean ere emakumeek pisu handiagoa dute (% 9). Aitzitik, Afrikatik datorren populazioari dagokionez, emakume guztien artean % 5 dira eta gizon guztien artean % 16,8, eta horien artean bereziki adierazgarria da Marokotik datorren populazioa (emakumeen % 3,3 eta gizonen % 21,6 dira) (Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea).
- 2016an Donostian bizi den atzerriko populazioaren bosten bat (2.637 pertsona) 3 urte baino gutxiago darama Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzen. Era berean, zenbatetsi da Euskal Autonomia Erkidegoko populazio immigratzailearen % 13k ez duela bertan bizitzeko txartelik edo baimenik (1.600 pertsona inguruk) (Iturria: Estrategia Bulegoa, *Donostiako Inklusio Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa*, 2016).


DONOSTIAKO IMMIGRAZIOAREN JATORRI NAGUSIA EUROPAR BATASUNAZ KANPO DAGO, LATINOAMERIKAN ETA AFRIKA IPARRALDEAN, ETA BIZTANLERIA GAZTE SAMARRA DA.

DONOSTIAKO IMMIGRAZIOAREN BANAKETA, 2016




Iturria: INE eta Donostia Sustapena. Donostia Estrategia Bulegoan landua.

DONOSTIAKO ATZERRIKO POPULAZIOA 2017



Iturria: INE, Udal errolda. Donostia Estrategia Bulegoan landua.

DONOSTIAKO ATZERRIKO POPULAZIOA (JATORRIAREN ETA GENEROAREN ARABERA) 2017




Iturria: EUSTAT eta Donostiako Udala Informazioko Udal Unitatea (2010). Donostia Estrategia Bulegoan landua (urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak)

Auzo eskalako begirada

- 2016an, auzoen araberako begiradak adierazten du Erdialdean (% 9,1), Grosen (% 8), Amara Berrin (% 7,7), Loiolan (% 7,3), Egian eta Altzan (bietan % 6,8) metatzen direla **atzerriko populazioko** ehunekorik handienak, Donostiako batez bestekoaren gainetik (% 6,8) (Iturria: Donostia Sustapena).
- **Europar Batasunaz kanpoko atzerriko populazioari** dagokionez, Erdialdean (% 6,8), Amaran (% 6,3), Grosen (% 6), Egian (% 5,7), Loiolan (% 5,9) eta Altzan (% 5,2) daude Europar Batasunaz kanpoko populazio immigratzaileko tasarik handienak, Donostiako batez bestekoaren gainetik (% 5). 2017an, metaketa handi hori gehitu egin da; Erdialdean % 7,3ra iritsi da, eta Donostiako batez bestekoa % 5,8ra. Era berean, nabarmendu behar da zenbait auzotan jatorriaren araberako immigrazioa metatu dela; hartara, Marokotik datorren populazioaren erdia Altzan eta Intxaurrondon metatu da, eta Latinoamerikako populazioa Erdialdean, Egian, Grosen eta Amaran (Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea).
- Azken hirurtekoan (2014-2016), eta zenbateko absolutuei erreparatuta, atzerriko populazio gehiago dute Altzak (148 pertsona), Intxaurrondok (62), Mirakruz-Bidebietak (55) eta Amarak (32); aitzitik, Egiak (-107) eta Grosek (-52) galdu dute atzerriko populazio gehien (Iturria: Donostia Sustapena).
- 2016an, **immigrazioak generoaren arabera** auzoetan duen **banaketari** erreparatuta, ikus daiteke feminizazioa handiagoa dela Zubietan (immigratzaileen % 64,6 dira emakumezkoak), Amara Berrin (% 58,1), Ategorrietan (% 57,6) eta Erdialdean (% 57,2). Aitzitik, Loiolan (% 46,1), Intxaurrondon (% 46) eta Igeldon (% 48,9) handiagoa da immigrazio maskulinoaren pisua.

DONOSTIA EB-KOA EZ DEN ATZERRIKO POPULAZIOA




Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea






ATZERRIKO POPULAZIOAREN BANAKETA 2016 (%)



Iturria: Donostia Sustapena. Populazio errolda. Estrategia Bulegoak landua

ATZERRIKO POPULAZIOA GENEROAREN ARABERA 2016



Iturria: Donostia Sustapena. Populazio errolda. Estrategia Bulegoak landua

AUZOEN ARABERAKO IMMIGRAZIOAREN BANAKETA DESBERDINA

AUZO BATZUETAN JATORRIAREN ARABERAKO IMMIGRAZIOAREN METAKETA

Donostia testuinguruan: hirien benchmarkina

- Donostian **atzerriko populazioaren** presentzia Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren antzekoa da, eta metropoliaren batez bestekoa baino zertxobait handiagoa. Edonola ere, Bilboren (% 7,4) eta Gasteizen (% 8,54) ehunekoen azpitik dago. 2016an, lau immigratzailetik ia hiru Europar Batasunaz kanpokoak dira Donostian (% 74) eta Bilbon (% 75), eta Gasteizen % 86 dira (Iturria: EUSTAT).
- Erreferentziako hirien testuinguruan, Donostiak 2016an duen atzerriko populazioaren ehunekoa (% 6,6) neurrizkoa da; soilik Gijon edo Sevilla gisako hirien gainetik dago (% 4,5 bietan), eta oso urrun daude Girona (% 18,3) eta Bartzelona (% 16,6) (Iturria: INE).
- Donostiako atzerriko populazioaren ehunekoa (2014an % 6,7) oso urrun dago Geneva (% 47,6), Lugano (% 37,4), Brusela (% 34,3), Riga (24,7%) edo Viena eta Munich (% 23) gisako Europako hirien ehunekoetatik. Beste muturrean daude, eta Donostiako ehunekoaren antzeko ehunekoekin, Helsinki (% 8,6), Bordele (% 6,5) edo Livorno (% 6,1) (Iturria: EUROSTAT).
- **Europar Batasunaz bestelako jatorria duen atzerriko populazioa** Donostiako populazioaren % 5 da, eta oso antzeko ehunekoa dute Maribor, Mons eta Helsinki hiriek; eta txikiagoa dute Bordele (% 4,1) gisako hiriek. Dena dela, oso alde handiak daude Riga (% 24,2), Tallinn (% 19,9), Geneva (% 17), Viena (% 13,6) edo Genoa (% 8,1) gisako beste hiri batzuekin alderatuta.


	Bartzelona	Bilbao	Donostia	Gijon	Girona	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
Nazionalak populazio osoarekiko (%) 2016	83,45	92,61	93,38	95,54	81,74	94,32	90,77	92,9	95,54	87,84	91,46	90,59
Nazioan jaioak populazio osoarekiko (%) 2016	77,52	89,6	90,22	91,46	78,74	89,69	83,94	88,67	93,08	83,33	88,5	87,78
Atzerrian jaioak populazio osoarekiko(%) 2016	22,48	10,4	9,78	8,54	21,26	10,31	16,06	11,33	6,94	16,67	11,5	12,22
Atzerritarrak populazio osoarekiko (%) 2016	16,55	7,39	6,62	4,46	18,26	5,68	9,23	7,1	4,46	12,16	8,54	9,41

Iturria: INE, Hiri adierazleak. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

IMMIGRAZIOAREN PISU TXIKIA DONOSTIAN, EUROPAKO HIRIEN OSOTASUNAREKIN ALDERATUTA

EUROPAR BATASUNAZ KANPOKO IMMIGRAZIOAREN PISU HANDIA

IMMIGRAZIOAREN DIMENTSIOA. EUROPAKO HIRIAK 2014



Iturria: EUROSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua, EUROSTATean oinarrituta

Prestakuntza, gizartea eta balio partekatua


Donostiako populazioaren prestakuntza

Prestakuntza eta ikasketa maila

- Donostiako populazioak prestakuntza maila handia du ezaugarri: 2016an, **alfabetatze tasa** % 98,4koa zen (Iturria: Donostiako Udala, Informazioko Udal Unitatea).
- Ia lau pertsonatik hiruk (10 urtetik gorako herritarren % 73k) osatu dituzte Bigarren Hezkuntzako ikasketak (igoera handia 2006ko % 59ren edo 1996ko % 49ren aldean) (Iturria: EUSTAT).
- Udal behatokiaren datuen arabera (2016), 10 urtetik gorako donostiarren % 26,6k Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzte, % 38k maila ertaineko ikasketak dituzte (% 23,4k Bigarren Hezkuntzako ikasketak eta % 14,6k lanbide ikasketak) (Iturria: Donostiako Udala, Informazioko Udal Unitatea).
- **Lanbide ikasketei dagokienez**, nabarmendu behar da Donostiako balioak (% 15) Bilbokoaren parekoak direla (% 14) eta Gasteizkoak zertxobait handiagoak direla (% 17). Industria lurraldea den aldetik, eremu metropolitarreko, hots, Donostialdeko populazioaren % 21ek lanbide ikasketak ditu (Iturria: EUSTAT).
- % 34k **unibertsitate ikasketak** ditu (1996an % 17,3 ziren eta 2006an ia % 25). Ehuneko horrek arras gainditzen ditu Bilboko eta Gasteizko datuak (% 29,4 eta % 24,7, hurrenez hurren), eta Europar Batasunaren eta Espainiaren batez bestekoaren gainetik dago (Iturria: EUSTAT).En relación a las ciudades de referencia (2011), DSS destaca por el porcentaje de niños entre 0 y 4 años en guarderías (81,6%), a notable distancia de los valores de las restantes ciudades (entre el 63,5% de Bilbao y el 39,2% de Oviedo).

PRESTAKUNTZA MAILA HANDIKO POPULAZIOA

DONOSTIAKO POPULAZIOAREN IKASKETA MAILA, 2016



Iturria: Donostiako Udala. Behatokia. Estrategia Bulegoak landua


- Gipuzkoako osotasunerako datuekin osatutako **generoaren araberako begiradak** (Iturria: EUSTAT 2015) erakusten du, prestakuntza estratu bakoitzean, emakumeen oso aldekoa dela gizonen/emakumeen proportzioa, lanbide ikasketen kasuan izan ezik (lanbide ikasketetan % 60,8 gizonak dira eta % 39,2 emakumeak). Era berean, bereziki adierazgarria da aldea prestakuntza mailaren bi muturretan: batetik, populazio alfabetatu gabean edo ikasketarik gabean (emakumeak dira % 63,3, baina, hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik dago % 65,2), eta, bestetik, unibertsitate ikasketak dituen populazioan (emakumeak dira % 58, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino zertxobait handiagoa, % 57,3).

Hirien eta lurraldeen benchmarkina

- Erreferentziako hirien aldean (2011), Donostia nabarmentzen da haurtzaindegietan dauden 0 eta 4 urte arteko haurren ehunekoan (% 81,6), gainerako hirietatik oso alde handira (Bilboko % 63,5 eta Oviedo % 39,2 artean daude hiri horiek).
- **Unibertsitate ikasketak** dituen 25-64 urte arteko Donostiako populazioaren pisua (2011n % 52) erreferentziako hirietakoa baino handiagoa da, ondoren datoz Bartzelona (% 49), Iruñea (% 47) edo Bilbo (% 45) (Iturria: INE).
- 2014ko datuei erreparatuta, eta Euskal Autonomia Erkidego osoari dagokionez, Bigarren Hezkuntzako ikasketak gainditu dituen 20 eta 24 urte arteko populazioak (% 86,7, Euskal Autonomia Erkidego osorako) Europar Batasuneko batez bestekoa gainditzen du (% 82,3), baita nabarmen Estatuko batez bestekoa ere (% 65,8) (Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT).
- Populazio gaztearen artean (30-34 urte), Donostian goi mailako ikasketak amaitu dituztenen ehunekoak (2014an % 60,7) beste euskal hiriburuetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa gainditzen du (2016an % 56,9), baita Europar Batasuneko (EB28 % 39,1) eta beste autonomia erkidegoetako batez bestekoa ere (Nafarroa % 54,3 eta Madril % 47,9). Era berean, erraz gainditu ditu **Europako 2020 Estrategiaren** helburuak.

	Bartzelona	Bilbo	Donostia	Gijon	Girona	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
Haurtzaindegian dauden 0-4 urteko haurrak, 0-4 urteko populazioari dagokionez (%)	61,27	63,51	**81,55**	47,76	67,24	39,21	48,74	55,59	56,84	59,63	67,22	56,72
ISCED 0, 1 edo 2 ikasketa maila gehienez duen 25-64 urteko populazioa (%) Lehen Hezkuntza	28,46	33	**26,12**	37,94	37,56	31,69	31,06	35,99	38,76	33,78	36,34	36,56
ISCED 3 edo 4 ikasketa maila gehienez duen 25-64 urteko populazioa (%) Bigarren Hezkuntza	22,34	22,26	**21,57**	24,02	21,51	24,66	21,74	24,47	19,98	22,6	20,23	24,24
ISCED 5 edo 6 ikasketa maila gehienez duen 25-64 urteko populazioa (%) Hirugarren Hezkuntza/Unibertsitatea	49,05	44,61	**51,99**	37,89	40,72	43,53	46,93	39,42	41,11	43,55	43,13	38,83

GOI MAILAKO IKASKETAK DITUEN POPULAZIOA. EUROPAKO ESKUALDEAK, 2016




Iturria: EUROSTAT Donostiako Estrategia Bulegoak landua, EUROSTATean oinarrituta

PRESTAKUNTZA MAILA ONA ERREFERENTZIAKO HIRIEKIN ALDERATUTA. GOI MAILAKO IKASKETAK DITUEN POPULAZIO EHUNEKO HANDIA

- **Eskola garaia baino lehen uztearen tasa** (18 eta 24 urte arteko populazioa) % 6,1ekoa zen Donostiarako 2016an (2011n % 6,3 zen), Europar Batasunaren batez bestekoaren azpitik (EB28 % 10,7) eta Estatukoaren azpitik (% 19); halaber, autonomia erkidegoen osotasunaren oso azpitik dago (Nafarroa % 13,4, Katalunia % 18, Andaluzia % 23,1) eta erraz gainditzen ditu Europako 2020 Estrategiaren helburuak (% 10). Haatik, urrun dago Kroazia (% 3) edo Polonia (% 5,5) gisako herrialdeetako batez besteko tasetatik (Iturria: Donostiako Udala, EUSTAT eta EUROSTAT).

- Donostiako **generoaren araberako banaketak** (Euskal Autonomia Erkidegorako datuetatik estrapolatuta) agerian uzten du eskola garaia baino lehen uzten dutenen tasa handiagoa dela gizonezkoen artean (% 8,2 —emakumezkoen artean % 6,8 denean—) (Iturria: Donostiako Udala eta EUSTAT).
- **Auzoen araberako begiradak** (2011) erakusten du **eskola garaia baino lehen uztearen tasak** Loiolako % 12,5etik Añorgarako % 1,2ra bitartean daudela; Loiolak, Intxaurrondok (% 9,2), Martutenek eta Altzak (% 9%), Grosek (% 7,6), Mirakruzek (% 7,5) eta Egiak (% 6,8) gainditzen dute hiriko batez bestekoa (Iturria: Estrategia Bulegoa. *Donostiako Inklusio Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa*, 2016).


DONOSTIA. ESKOLA GARAIA BAINO LEHEN UZTEA, 18 - 24 URTEKO POPULAZIOAN, 2011



Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa, Gizarte inkluziorako diagnostikoa.

ESKOLA GARAIA BAINO LEHEN UZTEAREN NEURRIZKO TASA, ERREFERENTZIAKO BESTE LURRALDE BATZUEKIN ALDERATUTA. ERAGIN HANDIAGOA GIZONEZKOEN ARTEAN, ETA ALDE HANDIAK AUZOEN ARTEAN

ESKOLA GARAIA BAINO LEHEN UZTEAREN TASA. EUROPAKO ESKUALDEAK, 2016



Iturria: EUROSTAT Donostiako Estrategia Bulegoak landua, EUROSTATean oinarrituta

Unibertsitatekoak ez diren ikasketak

- 2016an **Donostian unibertsitatekoak ez diren** 35.448 **ikasle zeuden**, azken bosturtekoan kopuru hori aldaketa txikiekin mantendu eta gero.
- **Hezkuntza mailen arabera** Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan biltzen dira ikasleen % 52, eta Bigarren Hezkuntzan % 22. Nabarmendu behar da Helduen Hezkuntzan izan den beherakada eta Lanbide Heziketan izan den gorakada (2010eko % 7,6tik 2016ko % 9,8ra).

Haur Hezkuntza funtsezko elementua da hezkuntza arrakastan, batez ere ingurune kaltetuetan. Europar Batasunak, 2020rako helburu gisa proposatzen du lau eta sei urte arteko haurren % 95, gutxienez, Haur Hezkuntzan egotea. Euskal Autonomia Erkidegoko 4-6 urteko eskolatze tasa % 100ekoa da (2015-2016 ikasturtean) (Hezkuntza eta Kultura Ministerioa), eta jada betetzen du Europar Batasunaren 2020rako helburua.

DONOSTIA. UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN EZAUGARRIAK (2010-2016)

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
IKASLEAK GUZTIRA	35.297	35.601	35.438	35.870	35.723	35.684	35.448
HEZIKETA MAILA							
- Haur Hezkuntza	8.072	8.164	8.177	8.141	8.059	7.759	7.662
- Lehen Hezkuntza	10.808	10.969	11.027	11.063	11.079	10.794	10.740
- Bigarren Hezkuntza	7.068	7.257	7.455	7.558	7.625	7.702	7.786
- Helduen Hezkuntza	2.667	2.461	1.720	1.801	1.387	1.682	1.500
- Batxilergoa	3.594	3.570	3.669	3.684	3.808	3.793	3.871
- Lanbide Heziketa	2.672	2.750	2.969	3.158	3.338	3.497	3.464
- HLKP*	416	430	421	465	427	457	.
HIZKUNTZA EREDUA							
- Gaztelaniazko irakaskuntza	8.989	8.813	8.296	8.423	8.123	8.601	8.185
- Irakaskuntza elebiduna	9.414	9.103	8.688	8.215	7.599	6.899	6.633
- Euskarako irakaskuntza	16.894	17.685	18.454	19.232	20.001	20.184	20.630
IKASTETXE MOTA							
- Publikoa	14.869	14.995	14.565	14.850	14.688	14.465	14.198
- Pribatua	20.428	20.606	20.873	21.020	21.035	21.219	21.250

- **Hizkuntza ereduaren** araberako matrikulazioan gero eta pisu handigoa hartu du euskarazko irakaskuntzak (D ereduak) —2016an % 58,2 zen eta 2010ean % 47,9—, gaztelaniazko irakaskuntzaren kaltetan (% 25,5etik % 23,1era murriztu da) eta, batez ere, eredu elebidunaren kaltetan (% 26,7tik % 18,7ra pasa da).
- Ikastetxe pribatuetako eskolatzea (2016an % 59,9) ikastetxe publikoetako eskolatzearen gainetik dago (% 40,1), eta zertxobait egin du gora (ehuneko 2 puntu)

UNIBERTSITATEKOA EZ DEN EUSKARAKO PRESTAKUNTZAREN GORAKADA ETA LANBIDE HEZIKETAREN GORAKADA.

IKASTETXE PRIBATUEN PISU HANDIAGOA

PRESTAKUNTZA EUSKARAZ EGIN DUTEN IKASLEEN GORAKO BILAKAERA

Euskara

- Donostiako biztanleen artean **euskararen ezagutzak eta erabilerak etengabe** egin du gora. Euskara mailaren araberako 2011ko banaketak (biztanleen % 40,6 euskaldunak, % 28,6 ia euskaldunak eta % 30,8 erdaldunak) eta 2016ko banaketak (% 49,20 euskaldunak, % 18,77 ia euskaldunak eta % 32,03 erdaldunak) islatzen dute euskara etengabe ari dela hedatzen Donostiako gizartean (EUSTAT, 2016).
- **Populazio euskalduna** % 27,1 zen 1991n eta % 34,7 zen 2001ean, eta nabarmendu behar da 5 eta 19 urte arteko gazteen % 78k “ondo ulertzen eta hitz egiten dutela” euskaraz.
- 2 eta 19 urte arteko populazio osoaren % 93 da euskalduna edo ia euskalduna. Edonola ere, etxean hitz egiten den hizkuntzari erreparatuta, euskararen erabilera mugatuagoa da; etxeetan gaztelania da nagusi.


- Udal Behatokiaren datuen arabera, udal langileen % 68,46k egiaztatu dute euskara dakitela (Iturria: Donostiako Udala, Informazioko Udal Unitatea).
- Saltokietan euskararen erabilerari dagokionez, Donostiako 1.247 establezimendu atxiki zaizkio "*Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz*" proiektuari, eta arreta euskaraz hartzeko aukera dagoela identifikatzen duen bereizgarria dute (Iturria: Donostiako Udala. Euskara Zerbitzua, 2017).

EUSKARA MAILA, DONOSTIAKO POPULAZIOA 2011



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

SALTOKIAK ETA EUSKARA. DONOSTIA




Iturria: Donostiako Udala. "Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz" proiektua

- Udal Behatokiaren datuen arabera, 2016an populazioaren % 15,9k **erabili ohi du euskara kalean** (Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea).
- Soziolinguistika Klusterrak euskararen kaleko erabilera neurtzean, Donostian % 15,2ko erabilera neurtu du (2016), 2011ko aurreko erreferentziaren antzeko erabilera. Epe luzera (1989-2016) joera positiboa izan da (Iturria: Soziolinguistika Klusterra).

- Adin multzo handien araberako euskararen kaleko erabilerari erreparatuta, ikus daiteke haurrek gehiago erabiltzen dutela (% 45), gazteek eta helduek antzeko erabilera egiten dutela, % 22, eta adinekoen artean erabilera txikiagoa dela (% 11).
- **Auzoen araberako begiradak** auzo batetik bestera euskararen kaleko erabilera oso desberdina dela erakusten du. Igeldo auzoa nabarmentzen da (% 75,4), eta oso urrun ditu atzetik Añorga (% 46,2) —adin tarte guztietan erabilera handia du—, eta Aiete-Miramon-Zorroaga (% 26,1), Antigua eta Ibaeta (% 22 biak). Oro har hiriaren mendebaldea. Aitzitik erabilera txikiagatik nabarmentzen dira, Altza (% 4,2), Bidebieta (% 7,9) eta Intxaurrondo (% 9,7).
- **Herritarrek euskararen normalizazioaren inguruan duten pertzepzioa** positiboa da, eta normalizazio hori 7,48 punturekin balioztatu da (10 puntutik) (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa, pertzepzio inkesta, 2017).

EUSKARAREN BILAKAERA KALEAN



	Erabil. %
1989	10,3
1993	9,5
1997	14
2001	15,8
2006	18,2
2011	15,2
2016	15,2

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

EUSKARAREN KALEKO ERABILERAK EZ DU GORA EGITEN

EUSKARAREN EZAGUTZAREN ARLOAN ARRAIL HANDIA DAGO GAZTEEN ETA ADINEKO PERTSONEN ARTEAN

	Guztira	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Aiete-Miramon Zorroaga	26,1	35,5	7,4	23,2	19,7
Altza	4,2	9,9	4,3	3,9	1,1
Amara	17,6	26,8	17	16,4	11,2
Amara Berri	18,2	31,5	14,1	17,1	7,1
Antigua	22,3	30,4	29,3	20,6	13,5
Añorga	46,2	61,5	55,5	36,2	30,6
Bidebieta	7,9	13,7	10,3	6,3	2,6
Egia	14,2	29,3	13,5	13,7	2,2
Erdialdea	12,1	23,5	6,1	11,2	8
Gros	13,2	27,4	12	11,8	7,3
Ibaeta	22,8	36,1	4,3	19,6	14,5
Igeldo	75,4	87,5	83,3	76,9	22
Intxaurrondo	9,7	14,1	5,2	11,2	1,4
Loiola	11	16,8	3,8	9,7	7,5
Loiolako Erribera	12,7	19	0	10,4	6,4
Martutene	13,9	22,9	10,7	11,7	0,6
Alde Zaharra	12,1	31,4	8,36	10,1	5,4
Ulia-Ategorrieta	16,1	33,3	13,6	17	4,6

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Donostiako gizartearen kezkak eta pertzepzioa

Zer kezka dute donostiarrek?

- 2008an, **euskal herritarren kezkak** oinarritzen dira lan merkatuan (langabezian, pertsona guztientzako lan duinean,…) eta etxebizitzan (eskuragarritasunean, etxegabetzeetan,..), eta, hein txikiagoan, egoera ekonomikoan. Urrun daude indarkeria, terrorismoa, egoera politikoa eta euskal gatazka. 2016an lan merkatuari dagozkion arazoak (enplegu duina, pertsona guztientzat,…) dira euskal herritarren kezka nagusiak, alde handiarekin. Gutxiago aipatu dira ekonomia, gatazka politikoa, ustelkeria, iruzurra edo immigrazioa. 2017an, herritarren % 77,3k aipatu dute **langabezia** dela EAEko **arazo nagusia** (Iturriak: Eusko Jaurlaritza. Euskal soziometroa 61, 2016 eta Ikuspegi barometroa 2017).
- Euskal populazioak 10etik 7,6 punturekin balioztatu du bere bizimoduarekiko gogobetetasuna. 2014ko aurreko erreferentziarekiko balorazioa (7,1) hobetu da (Iturria: EUSTAT. Norberaren ongizate inkesta - NOI 2017). Ildo beretik, **euskal gazteria** gogobeteta dago norberaren egoerarekin (6,7ko balorazioa, 10etik) eta oso baikor dago norberaren etorkizunarekin. Lan merkatua eta enplegua eskuratzea dira haien kezka nagusiak, eta atzetik daude arazo ekonomikoak, egoera politikoa eta etxebizitzarekin lotzen diren arazoak. Kezka horiek bat datoz **adineko pertsonen** pertzepzioarekin, horiek ere gogobeteta daude haien bizimoduarekin, eta horien kezka nagusia dira Gizarte Segurtasuna eta osasunaren arreta (norberaren mailan), eta kezka horiei gehitzen zaie lan merkatuaren eta pentsioen gaineko kezka, eta oso atzetik arazo ekonomikoak eta egoera politikoa (Iturria: Eusko Jaurlaritza. *Gazteen argazkiak*, 2017 eta *Euskal soziometroa,* 64 adineko pertsona, 2017).
- 2017an, donostiarrak gogobeteta zeuden norberaren egoerarekin (batez beste 7,23 puntu 10etik), bizi diren lekuarekin (8,1 puntu) eta haien bizimoduarekin (7,7 puntu); egoera profesionalari dagokionez, pertzepzioa positiboa bada ere, txikiagoa da puntuazioa (6,7 puntu), eta gauza bera gertatzen da finantza egoerarekin (6,4 puntu).


LANA DA KEZKA ITURRI NAGUSIA, ETXEBIZITZAREKIN BATERA

OSO GUSTURA DAUDEN HERRITARRAK

KEZKA NAGUSIAK



EGOERA PERSONALAREKIKO GOGOBETETASUNA, 2017



Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa, Hiritarren pertzepziori buruzko inkesta.

- Hiriari dagokionez, donostiarren **kezka nagusia** etxebizitza da (etxebizitzaren prezioa); lana eta etxebizitza ere aipatzen dira. Lan egoerak, langabeziak eta zailtasun ekonomikoek eragin negatiboa dute **norberaren egoerarekiko gogobetetasun orokorraren** gaineko balorazioan. Bestalde, emakumezkoen balorazioa negatiboagoa da egoera profesionalari eta finantzarioari dagokionez (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa, Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta, 2017).
- **Erreferentziako hiriekin** alderatuta (Europako hiriak, pertzepzio inkesta, Urban Audit, 2015), Donostiako herritarrek norberaren egoerari buruzko balorazioa positiboa egiten dute aldagai guztietan (10etik 7,68ko batez besteko balorazioa, Urban Auditeko 7,32ko batez bestekoaren aldean). Nabarmentzen dira, alde handiarekin: bizi diren ingurunearekiko gogobetetasuna (8,05), hirien multzoan 45/88 posizioarekin; norberaren bizimoduarekiko gogobetetasuna (34/88 posizioa); finantza egoerarekiko gogobetetasuna (33/88 posizioa) eta egoera profesionalarekiko gogobetetasuna (29/88 posizioa).

Hiriaren gaineko pertzepzioa

- Donostiarren pertzepzioari arreta jarrita, inkesta erantzun duten pertsona gehienek adierazi dute **gogobeteta daudela hiriarekin**, eta gogobetetasun maila 9,13 puntutan balioztatu dute (10etik) —gora egin du 2008ko baloraziotik (8,96)—. Bost donostiarretik ia lauk (% 79k) adierazi dute gogobeteta daudela hiriaren bizi kalitatearekin. Ehunetik soilik lau ez daude gogobeteta. Gogobetetasun hori adierazgarriagoa da hiriaren mendebaldean (batez ere Ibaetan, Igaran,…) eta txikiagoa da Erdialdean. Generoaren arabera ez da alderik hautematen, baina bai adinaren arabera. Gazteen artean (16-29 urte) eta adinekoen artean (≥65 urte) jaso dira emaitzarik onenak (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa, Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta 2017).

HERRITARRAK DONOSTIAKO BIZI KALITATEAREKIN GUSTURA DAUDE (9,13 PUNTU 10ETIK)

- Era berean, herritarren hirutik bik (% 66k) adierazi dute **gustura daudela Donostian bizitzearekin**, eta gainerako herenak adierazi du nahiko gustura dagoela; ia inork ez du aditzera eman hirian bizitzeaz batere gustura ez dagoela. Gogobetetasun horren kuantifikazioa 8,73 puntutan neurtu da, baina askoz ere handiagoa da ikasten ari direnen artean, hil amaierara iristeko zailtasunik ez dutenen artean eta haien auzoan 10 urtetik gora bizitzen daramatenen artean, eta txikiagoa da hiriaren erdialdean bizi direnen artean (Mirakontxa, Erdialdea eta Alde Zaharra).
- **“Norberaren auzoan” bizitzearen gogobetetasunari** dagokionez, % 57,5 pozik dago, % 36,8 nahiko pozik dago eta % 4,8k adierazi du ez dagoela oso pozik. Gogobetetasun horren batez besteko balorazioa 8,37 puntutan zenbatetsi da. Auzoen araberako begiradak berriro erakusten du gogobetetasuna nabarmen handiagoa dela hiriaren mendebaldean (Antiguan, Ondarretan, Benta Berrin,..) eta Grosen, eta txikiagoa dela hiriaren erdialdean bizi direnen artean.

ZER BALIOZTATZEN DUZU GEHIEN DONOSTIAN / ZURE AUZOAN?
ERANTZUN LIBREA:



- Oro har, herritarrek adierazi dute **pozik daudela azpiegiturekin eta ekipamenduekin**, oro har, 10etik batez beste 6,77ko puntuazioarekin; nabarmentzen dira garraio publikoa (7,7) eta osasun eta ospitale asistentzia (7,53); puntuazio handia lortzen dute, halaber, berdeguneek, kultura espazioek, espazio publikoek, ostalaritzak eta hezkuntza sareak.
- Hiriaren errealitatearen beste alderdi batzuetan ikuspuntu desberdinak hauteman dira (segurtasunean, hiriko eta hiriaz gaindiko garraioaren arteko konexioetan, kultura eta aisialdi eskaintzan, udal kudeaketan, bizi aukeretan, oro har), batez beste 5,58ko balorazioarekin. Eta balorazio negatiboa jaso da hiriaren bizimoduaren garestitzearen arloan eta etxebizitza zentzuzko prezioan aurkitzeko zailtasunen arloan.
- Oro har, herritarrek balioztatzen dute **bizi kalitatea,** hiriaren tamaina eta hiri erosoa, irisgarria eta bizitzeko lasaia izatea; era berean, bertako jendea, ingurunea, ingurumen eta hiri kalitatea eta kultura eta zerbitzu eskaintza balioztatzen dituzte.

Donostiako balioak eta kapital soziala

Balioak

- **Herritar** aktiboak, demokratikoak, kulturaniztunak, solidarioak eta arduratsuak izatera zuzentzen den hezkuntza da gizartearen eta **hezkuntza** sistemen erronka nagusietako bat.
- **Balioen hezkuntza** da, herritarren iritziz, hezkuntzaren funtsezko alderdietako bat, eta gizarteak berak sustatu eta bultzatu beharko du, betiere gizarteratzearekin, askatasunarekin, ekitatearekin eta eskubide indibidualekin eta kolektiboekin batera.
- **Hiritar balioak** dira gizabanakoak pertsona hobeak izatea eragiten duten portaerak; norberaren portaera moduetan islatzen dira balio horiek (kulturaren eta moralaren alderditik alderdi afektibora eta sozialera): tolerantzia, errespetua, erantzukizuna, zintzotasuna, elkartasuna, lankidetza, konpromisoa, parte hartzea, justizia, gardentasuna,…
- Donostiarrek 10etik 7,73 puntutan balioztatu dute **hirian balioak sustatzearen** garrantzia (elkartasuna, zintzotasuna,…); emakumeen % 59,9k (eta gizonen % 54,2k) garrantzi handikotzat jotzen dute. (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa, Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta, 2017).


- Donostiako gizartea, oro har, plurala, prestatua, zentzuz tolerantea, parte hartzailea eta solidarioa da. Ingurumenaren eta kulturaren gaineko kezka du, alderdi guztietan. Donostiarrek kulturaren eta kirolaren arloko ardura dute; haien hiriaz eta nortasunaz harro daude eta haien bizi kalitatearekin pozik.

Berdintasuna

EAEKO DATUETAN, GENERO BERDINTASUNEKO INDIZEAK HOBETZEN JARRAITZEN DU ETA EUROPA IPARRALDEKO HERRIALDEKOETARA HURBILTZEN

- **Genero Berdintasunaren Indizea (GBI)** Genero Berdintasunerako Europako Institutuak definitutako adierazle sintetiko bat da, emakumeen eta gizonen artean oraindik dauden desparekotasunak laburbiltzen dituena —ongizatean eta garapen pertsonalean eragina duten desparekotasunak hain zuzen ere—. Indize hori 26 adierazlek osatzen dute, eta adierazle horiek modu hierarkikoan antolatu dira sei dimentsiotan (enplegua, dirua, ezagutza, denbora, boterea eta osasuna). Euskal Autonomia Erkidegoan, Genero Berdintasunaren Indizea 69,3 puntutan kokatzen zen 2015ean (2012ko 58,5 puntuak hobetuz). Irlandaren zertxobait gainetik dago (Europar Batasuneko herrialdeen sailkapenean 8. posizioan dagoen herrialdea), baina pixka bat urrun daude Suedia, Finlandia, Danimarka (herrialderik berdinzaleenak), Herbehereak eta Frantzia (guztiek gainditzen dituzte 72,5 puntuak); edonola ere, Europar Batasunaren batez bestekoaren gainetik dago (EB 28ren batez bestekoa 66,2 da) (Iturria: EUSTAT, Genero Berdintasunaren Indizea).

GENERO BERDINTASUNAREN INDIZEA GBI DIMENTSIOAREN ARABERA, 2015




Iturria: EUSTAT. Genero Berdintasunaren Indizea. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Donostiako *emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 2018ko diagnostikoaren txostena* amaitzeko zain, Donostiako emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 2013ko diagnostikoak generoaren banantze horizontala nabarmentzen du. Banantze horizontala estereotipoekin eta genero rolekin lotzen da (denboraren erabilera…), baita enpleguarekin, gizarte inklusioarekin, hirigintzarekin eta mugikortasunarekin ere. Alderdi horiek, erabilgarri dauden datuek horretarako aukera eman dutenean, gogoan izan dira dokumentu honetan.

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI

Gizarte Ekintzan arreta eman zaien biktimen guztizko kopurua




2017KO BIKTIMAK



Iturria: Donostiako Udala. Gizarte Ekintza (urteko txostena). Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOA. EAE

Erregistratutako kasu kopurua



Iturria: Eusko Jaurlaritza. EMAKUNDE. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Duen garrantzia kontuan izanik, egokia izan daiteke genero indarkeriaren gaiari erreparatzea. Donostiako Udalaren (Gizarte Ongizatearen Zuzendaritza) *Genero Indarkeriaren Biktimei Zuzendutako Arreta Programak* informazioa eta laguntza eskaintzen die genero indarkeriaren biktimei; programaren txostenak arreta eman zaien pertsona kopuruaren bilakaera jasotzen du (salaketa bideratu dutenena zein salaketarik jarri ez dutenena); bilakaera gorabeheratsua izan da azken urteetan eta gora egiten ari da pixkanaka 2015. urtetik aurrera. Ofizialki Ertzaintzak (Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila) biltzen dituen emakumeen aurkako indarkeriaren datuak aztergai dituen *"EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa"* azterlanaren arabera (iturria: Eusko Jaurlaritza, Emakunde, 2016), Euskal Autonomia Erkidegoan bildutako kasu kopuru globalak etengabe gora egin du 2015 arte eta hortik aurrera behera egiten hasi da, 2016. urtean nabarmenago. Zehazki, Donostian 369 biktimizazio kontabilizatzen dira 2016. urtean, hots, emakumeen ‰ 37,46 (biktimatzat hartzen dira aldi jakin batean zehar ez zilegi penalaren xede izan diren emakumeak; datuak gizonek, bikotekideak, bikotekide ohiak, familiako kide batek edo beste gizon batek eragindako indarkeriari buruzkoak dira); proportzio hori Gasteizko baliokidea (‰ 31) baino handiagoa eta Bilbokoa (‰ 43,75) eta Gipuzkoakoa (‰38,49) baino txikiagoa da.
- Udal aurrekontuak genero ikuspegitik aztertuz gero, ikus daiteke aurrekontuen **gastu eraldatzailea** (generoaren arloko desparekotasunak sostengu dituen oinarrizko egiturak apurtzen eta desparekotasun hori eratu eta errepikatzen duten mekanismoak desmuntatzen laguntzen duen gastu gisa ulertua) 2018. urtean aurrekontu osoaren % 0,41 dela kalkulatzen da. Horrek adierazten du 2017. urteko aurrekontuarena (udal aurrekontu osoaren % 0,38) baino handixeagoa dela (ehuneko 0,03 puntu) (Iturria: Donostiako Udala. Udal Aurrekontuen Azterketa Genero Ikuspegitik).
- Donostiako testuinguruan **garrantzizko karguak berdintasunez eskuratzeari** dagokionez, udalbatzak 27 kide ditu, eta horietatik 15 gizonezkoak dira eta 12 emakumezkoak, hau da, % 55,6 eta % 44,4 hurrenez hurren. Gorabehera txikiekin mantendu da bilakaera (2007-2011 aldian 14 gizon / 13 emakume; 2011-2015 aldian 17 gizon / 10 emakume, 2015-… aldian 15 gizon / 12 emakume). Era berean, nabarmendu behar da Sailen, erakunde autonomoen eta udal sozietate publikoen zuzendaritzetan (udalaren konfiantzako karguetan) 29 pertsona daudela, eta horietatik soilik 6 direla emakumeak (% 24,7), lautik ia bat; hortaz, generoaren araberako nolabaiteko banantze bertikala dagoela adieraz daiteke (Iturria: Donostiako Udala. Udal webgunea, 2017-03-16, eta Informazioko Udal Unitatea).

Balioak: Tolerantzia, Immigrazioa

- Euskal gizarteak atzerriko populazioarekiko **jarrera anbibalentea** duela hauteman da, halaxe islatzen da IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokiak ezarritako **immigrazioaren gaineko tolerantzia indizearen** bilakaeran (58,5eko batez besteko globala 2017an). Populazio sektorerik toleranteenak 72,25 puntutara iristen dira, moderatuenak 55,54 puntutara eta intoleranteenak 37,14 puntutara). Emaitza horiek oso lotura estua dute krisialdiko eta ezkortasuneko egoerarekin eta konfiantzako/mesfidantzako, baikortasuneko edo ziurgabetasuneko giroarekin (Iturria: Ikuspegi barometroa 2017).
- Gizartearen gehiengoak ez du immigratzaileen presentzia gizarte arazotzat jotzen, ezta arazo pertsonaltzat ere; edonola ere, 2017an % 12,6k, bat-batekotasunean, immigrazioa arazo bat dela adierazi zuen —2007an % 15 izan zen— eta % 5,2k arazo pertsonaltzat jo zuen. Lanaren eta ekonomiaren esparruetan sortzen da immigrazioaren presentziaren gaineko kezkarik handiena.
- Donostiako herritarren iritzi **atzerritarren presentzia ona da hiriarentzat** (10etik 6,27ko balorazioa); hirian **ondo integratuta dauden** galdetuta, balorazioa txikiagoa lortzen da (5,75 puntu 10etik) (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa. Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta, 2017).
- Generoaren arabera, emakumeek atzerritarren presentziaren gaineko balorazio zertxobait txikiagoa egin dute (6,21 puntu, eta gizonezkoena 6,32). Era berean atzerriko pertsonen integrazioaren gaineko pertzepzioa ere handiagoa da gizonen artean (5,97 puntu gizonen artean eta 5,52 puntu emakumeen artean).

DONOSTIAKO GIZARTEA, ORO HAR, IMMIGRAZIOAREKIKO TOLERANTEA DA, NAHIZ ETA PERTZEPZIO INTOLERANTE BATZUK IKUS DAITEZKEEN.

IMMIGRAZIOAREN GAINEKO TOLERANTZIA INDIZEA (EAE)



Iturria: IKUSPEGI, Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Hiriko etorkizuneko beharren arabera immigratzaileak erakartzearen garrantzia balioztatzean, donostiarrek 10etik 5,1 puntuko garrantzia eman diote.
- **Erreferentziako hirien** begiradak (Urban Audit, 2015, inkestaren emaitzetan oinarrituta) islatzen du Donostiak okerrago balioztatzen duela atzerritarren presentzia (Europar Batasuneko hirien batez bestekoa 6,58koa da eta Estatuko hirien batez bestekoa 7,24koa). Integrazio mailari dagokionez, Donostiako balorazioa (5,75) Europako hirien batez bestekoa baino zertxobait positiboagoa da (5,41) eta oso hurbil dago Estatuko gainerako hirien batez bestekotik (5,78 puntu 10etik). 88 hirien multzoan Donostiak 37. posizioa izango luke immigratzaileen integrazio mailaren balorazioari dagokionez (Iturria: Estrategia Bulegoa 2017 eta Urban Audit 2015, Hiritarren pertzepzioari buruzkoaren inkesta).

Donostiako kapital soziala

Zer da kapital soziala?

KAPITAL SOZIALA OINARRITZEN DA ELKARTE EHUNA ETA LAGUNTZAKO KOMUNITATE SAREAK SORTZEN DITUEN ETA LURRALDE BATEN GARAPENERAKO PROIEKTUAK SUSTATZEN DITUEN KONFIANTZAN ETA LANKIDETZAN

- **Kapital soziala** lagungarria da konfiantzaren eta elkarrekikotasunaren bitartez ekintza kolektiboa eta gizarte erantzukizuna sustatzeko; sare sozialek eta komunitarioek gizartearen onurarako ekintza kolektiboa eta lankidetza errazten dute.
- Kapital sozialaren testuinguruan, *Robert Putnam*-ek balio handia ematen die **sare sozialei** eta haien ondoriozko elkarrekikotasun eta konfiantza arauei, eta gizabanakoen arteko harreman objektiboak aztertzen ditu, baita erkidego baten barruan hain artean ezartzen diren loturak ere.
- **Kapital soziala**: harremanetako eta parte hartzeko dimentsioen multzoa da, eta horien artean daude sare sozialak eta komunitarioak (familiarenak, lagun artekoak, auzokideena,…), pertsonen eta erakundeen gaineko konfiantza, gizarte partaidetza, lankidetza, komunikazioa, kohesioa edo gizarte inklusioa. Bereziki, gizarte edo kolektibo batek baliabideak mobilizatzeko duen ahalmen espezifikoa eta gizarte harremanetarako sareen eskuragarritasuna.
- Nola neur daiteke kapital soziala?



Konfiantza

- Donostiarren iritziz, “oro har, hiriko jende gehienarekin fida daiteke”, 10etik 7,31ko balorazioarekin (gizonen artean emakumeen artean baino handixeagoa da pertzepzio hori, 7,44 eta 7,19 hurrenez hurren). Konfiantza maila zertxobait handiagoa da auzoko pertsonei dagokienez, 7,44 (berriro ere gizonezkoen balorazioa, 7,49, emakumezkoena baino positiboagoa da, 7,40) (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa, Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta, 2017).
- Erreferentziako Europako hirien testuinguruan (Urban Audit, 2016 inkesta), Donostia bi kasuetan dago Europako batez besteko balioen gainetik; Europar Batasuneko batez bestekoa 5,77koa da hiriko jendearen gaineko konfiantza orokorrari dagokionez (Donostia 88 hirietatik 6. postuan egongo litzateke) eta 6,88koa auzoko jendearen gaineko konfiantzari dagokionez (Donostiak 26. postua hartuko luke 88 hirien barruan). Ildo beretik, *Norberaren Ongizate Inkestaren (NOI)* arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek pertsonengan duten konfiantza 6,5ekoa da (Iturria: EUSTAT, Norberaren Ongizate Inkesta, 2017).
- Donostiarrek, oro har, konfiantza dute Administrazio Publikoetan, eta konfiantza hori 6,06 puntutan balioztatu da (10etik); gai horri dagokionez, aztertutako hirien Europako batez bestekoa (*Urban Audit*) 5,59 puntutara iristen da (Donostiak 88 hirien sailkapenean 29. postuan egongo litzateke). (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa eta Urban Audit 2015, Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta, 2017 eta 2015). *Norberaren Ongizate Inkestak* 4,5 punturekin balioztatu du Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek botere publikoetan duten konfiantza (Iturria: EUSTAT, Norberaren Ongizate Inkesta 2017).


Herritarren parte hartzea

- **Herritarren parte hartzeari** dagokionez, eta eskura dagoen tokiko informazio kuantitatiboaren arabera, udal hauteskundeetan izan den parte hartzearen bitartez aztertu da parte hartze zibikoa eta politikoa; 2015ean % 66,7ko parte hartzea izan zen (Euskal Autonomia Erkidegoaren batez bestekoa baino handiagoa, % 63,8, eta Bilboko eta Gasteizko batez bestekoen gainetik, % 59,3 eta % 64,8, hurrenez hurren). Parte hartzearen ehuneko horrek gorabeherak izan ditu azken hamarkadan (Donostian, 2003an % 66,5; 2007an % 54,9; 2011n % 60 eta 2015ean % 66,7), eta zertxobait egin du gora azken udal hauteskundeetan (Iturria: EUSTAT).
- Herritarren pertzepzioak agerian uzten du herritarrak pozik daudela **udal kudeaketan parte hartzeko dituzten bideekin** (inkesta erantzun dutenen % 9k soilik ez daude pozik); emakumeen artean (% 84,8) gizonen artean (% 78,8) baino handiagoa da gogobetetasun hori. Parte hartzeko bideen inguruan ezjakintasun handia dago (inkesta erantzun dutenen erdiek baino gehiagok ez dituzte parte hartzeko bideak ezagutzen). Ezagu tzen dituztenen artean % 82 pozik daude bide horiekin eta % 18 ez daude pozik. Pozik ez egotearen arrazoien artean aditzera eman dira: udalak benetako parte hartzearekiko duen interes falta, konexio gabezia, bizkortasun gabezia, ezagutzarik eza, kontsulta gutxi egotea intereseko gaietan eta herritarren parte hartze txikia (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa. Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta, 2017).
- Inkesta erantzun duten bost herritarretik hiruk (% 60k) uste dute **Udalak behar bezala erabiltzen dituela teknologia berriak herritarrekiko harremanetan** (% 22k ezetz uste dute eta % 18k ez dakite edo ez dute erantzun).

HERRITARREK NEURRIZKO PARTE HARTZEA DUTE HIRIAREN KUDEAKETAN

PARTE HARTZEKO BIDEEKIKO GOGOBETETASUNA ETA/EDO EZJAKINTASUNA

DONOSTIAKO HERRITARREN PARTE HARTZEA, 2017



Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa. Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta, 2017


- **Udal kudeaketan parte hartzeko interesari eta borondateari** dagokionez, kontsultatutako hiru pertsonatik batek (% 30,6k) adierazten du interesa duela, eta hirutik bik diote ez dutela interesik (% 67,3k). Generoaren araberako aldeak hauteman dira; gizonek (% 32,8) emakumeek (% 28,5) baino interes handiagoa azaldu dute. Udal gaietan sare sozialen bitartez parte hartzeko interesa antzekoa da; inkesta erantzun dutenen % 27k adierazi dute sare sozialen bidez parte hartzeko interesa dutela, eta emakumeen artean handiagoa izan da interes hori (inkesta erantzun duten emakumeen % 29,1ek hori adierazi dute eta gizonen % 25,7k).
- **Parte hartzea**: inkesta erantzun dutenen % 19k parte hartu dute udalak herritarrei egindako kontsultaren batean edo tokian parte hartzeko organoren bateko kide dira (hala nola hiriko Gizarte Kontseiluko kide, kontseilu sektorialetako kide,…). Gizonen artean (% 20,6) emakumeen artean (% 17,8) baino handiagoa da parte hartze hori (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa, Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta, 2017).

Elkartasuna, asoziazionismoa

DONOSTIAKO GIZARTEAREN NEURRIZKO INPLIKAZIOA BOLUNTARIOTZAKO ETA ELKARTASUNEKO EKINTZETAN; PARTE HARTZE HANDIAGOA KULTURAN ETA KIROLEAN


- Herritarrek jarrera solidarioekin duten konpromisoa islatzen da, hein handi batean, boluntariotza formaleko edo informaleko ekintzetan parte hartzearekin. Europari zuzendutako begiradak agerian uzten du Europa iparraldeko herrialdeetako herritarren ehuneko handi batek parte hartzen duela horrelako ekintzetan, nabarmentzen dira Norvegia (2015ean, 16 urte edo gehiagoko populazioaren % 48k parte hartzen zuen modu formalean edo informalean boluntariotza ekintzetan), Herbehereak (% 40,3) eta Danimarka (% 38,7). Europar Batasuneko (EB20, % 19,3) edo Estatuko (% 10,7) batez bestekoen oso gainetik daude (Iturria: EUROSTAT).
- Ildo horretan, Donostiako populazioaren hamarren batek (% 9,7k) elkarlanean dihardu, hein batean edo bestean, gobernuz kanpoko erakundeekin. Gizonen artean (% 12,9) emakumeen artean (% 6,5) baino handiagoa da parte hartze hori. Askotariko asoziazionismo moduek populazioaren zati handi bat hartzen dute barnean, hala nola gastronomia, kultura, kirol edo lanbide elkarteek.
- **Donostiako udal erregistroan inskribatuta dauden elkarteen** kopuruak etengabe egin du gora nabarmen (Δ% 39,6, 2001-2010 aldian) eta ‰ 5,95 biztanleko ratiora iritsi zen 2017an (2010ean ‰ 4,6 biztanlekoa zen).
- **Euskadiko Elkarteen Erregistroaren** arabera, inskribatutako 2.402 elkartek dute Donostian egoitza 2018an (horietatik 37 federazioak dira eta gainerakoak elkarteak adiera hertsian). Euskal hiriburuen konparazioak erakusten digu Donostiako 1.000 biztanleko elkarteen proportzioa (‰ 12,9) Bilbokoaren (‰ 12,8) eta Gasteizkoaren (‰ 11,4) antzekoa dela, pixka bat handiagoa bada ere (Iturria: EJ. Euskadiko Elkarteen Erregistroa, 2018/04/10eko bilaketa).

HERRITARREN ELKARTE EDO ERAKUNDE BATEKO KIDEA AL ZARA?



Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa. Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta, 2017

DONOSTIAKO ELKARTEEN TIPOLOGIA, 2018



Iturria: EJ. Euskadiko Elkarteen erregistroa. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Donostiako elkarteen erdiak baino gehiago kultura elkarteak dira (% 55,6; horien artean gastronomia elkarteak —elkarte guztien % 3,1— bizitza sozialeko garrantzi handiko ardatzak dira, baita musikarekin lotzen direnak ere, % 11,5). Elkarte sozioekonomikoak, berriz, elkarte guztien % 20,1 dira. Laguntzako elkarteak % 7,8 dira, gazte elkarteak % 3,2, familiaristak % 3 eta auzo elkarteak gainerako % 4,2.
- Kirol jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopuruaren gorakada (31.358 pertsona ziren 2011n eta 35.577 ziren 2016an) edo Donostia Kulturako erabiltzaileen (bazkideen) gorakada (2011n 75.354 pertsona ziren eta 2016an 97.182 ziren) har daitezke Donostiako herritarrek hiriko bizitza sozialean eta kulturalean duten parte hartzearen adierazletzat (Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea).

Gizartea: lurralde kohesioa, gizarte inklusioa

Gizarte eta lurralde kohesioa

Gizarte kohesioa: testuinguruan jartzea

- **Gizarte kohesioa** ulertu behar da gizarte batek bere kide guztien ongizatea ziurtatzeko, desparekotasunak minimizatzeko eta gizarte polarizazioa saihesteko duen ahalmenaren testuinguruan. Gizarte kohesionatu bat elkarri lagunduko dion erkidego bat da, helburu komun horiek bitarteko demokratikoz lortu nahi dituzten pertsona libreez osatuta dagoena. (Europako Kontseiluaren "*European Strategy for Social Cohesion*" www.coe.int).
- Ildo horretan, ongizate estatuaz harantzago, gizarte ekitatearen printzipioak ere hartzen ditu barnean, betiere garapen baztertzaile baten ondorioak arintzeari dagokionez (adibidez, gizarte eta lurralde garapen desberdina, aberastasunaren banaketa desberdina, ordainsari eta kultura arrailak areagotzea eta gizarte polarizazioa eta bazterkeria).
- Hiriko gizarte eta lurralde kohesioaren analisian, askotariko dimentsioak edo esparruak hartu behar dira aintzat: sozioekonomikoa, lanekoa, hezkuntzakoa, demografikoa, bizitegikoa, hirikoa, soziosanitarioa, kulturala, harremanetakoa, herritarrena eta norberarena, oro har.

Aditzera eman behar da zaila dela gizarte kohesioarekin lotzen diren arlo jakin batzuei buruzko Donostiako estatistika datu eguneratuak behar besteko banantze mailarekin lortzea; hartara, hirirako informazioa, batzuetan, lurralde esparru handiago baterako dokumentaziotik estrapolatzen da, eta dokumentuan behar bezala geratuko da jasota.



Donostiako gizarte eta lurralde kohesioa

- *Donostiako Gizarte Inklusiorako Diagnostikoa* hartu da erreferentziatzat (Iturria: Donostiako Udala eta Donostiako Estrategia Bulegoa, 2016). Bertan jasotako datuak atera eta, eskuragarritasunaren arabera, eguneratu dira, eta datuak alderatzeko beste iturri batzuk ere txertatu dira.
- Hiriaren eta herritarren egoeran alderdi kritiko edo desoreka adierazgarriak dauden aztertu nahi da, betiere arlo hauei dagokienez:
- Diru sarrerak eta egoera ekonomikoa
- Etxebizitza eta ingurunea
- Lana eta lan merkatua, osasuna
- Gizarte arretako zerbitzuen eskuragarritasuna
- Gizarte harremanak eta parte hartzea
- Donostiarren egoera pertsonala
- Hirian dauden lurralde desberdintasunak eta desorekak hauteman nahi dira, erreferentziazko esparruarekin alderatuta.

KOHESIOA, GIZARTE INKLUSIOA: ARLOAK ETA FAKTOREAK



Diru sarreren banaketa eta egoera ekonomikoa

BATEZ BESTEKO FAMILIA ERRENTA ESTATUKO HANDIENETAKO BAT DA

ABERASTASUNA EZ ZAIE GUZTIEI NEURRI BEREAN IRISTEN (GENEROAREN ARABERAKO DESBERDINTASUN HANDIAK)

- Udal Behatokiaren arabera, Donostiako **batez besteko familia errenta** 45.987€-koa zen 2016an (Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea).
- Donostiako familien aberastasun mailak gorabeherak izan ditu azken hamarkadetan. Nabarmen hazi zen krisialdiaren ondorioak nabaritu aurreko urteetan (2001 eta 2009 artean **batez besteko familia errentaren** gehikuntza Δ% 44,9koa izan zen, eta 2009an 49.539€-tara iritsi zen). Hurrengo urteetan aberastasun mailak behera egin zuen (2009-2013 aldian -Δ% 7,1,) eta 2014an berriro hasi zen gora egiten, 46.358€-tan kokatzeko (Iturria: EUSTAT eta Donostia Sustapena).
- **Errenta pertsonalaren** bilakaera antzekoa da, Δ% 54,8ko igoera adierazgarria izan zuen 2001-2009 aldian (23.054€-koa zen 2009an), eta, gero, hurrengo urteetan aberastasun mailak behera egin zuen (-Δ% 3,4, 2009-2013 aldian, 2013an batez besteko errenta pertsonala 22.268 €-tan geratu zen). 2014tik aurrera berriro egin zuen gora (22.583€) (Iturria: EUSTAT eta Donostiako Sustapena).
- Lurralde erreferentziaren testuinguruan, Donostiako familien **batez besteko familia errenta** da Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuen arteko handiena, eta Estatuko handienetako bat. 2014rako INEren datuen arabera, familien urteko batez besteko errenta garbia 37.539€-koa zen, Estatuko batez bestekoaren oso gainetik (26.154€), eta Madrilgoa (37.231€), Bartzelonakoa (35.874€) eta erreferentziako gainerako hirietakoa baino handiagoa. Autonomia erkidegoei erreparatuta, INEk Euskal Autonomia Erkidegoko **batez besteko errenta pertsonala** 14.345€-tan kalkulatu zuen 2016rako, eta atzetik zuen Nafarroa, 13.408€-rekin (Estatuaren batez bestekoa 10,704€-koa zen). (Iturria: INE eta INE hiri adierazleak).
- Oinarri hartuta EAE=100 dela, Donostiarren **batez besteko errenta pertsonala** 116,53koa zen 2014an, eta balio hori Euskal Autonomia Erkidegoko beste hiriburuen batez bestekoa baino nabarmen handiagoa zen (Bilbo 101,97 eta Gasteiz 100,92), baita Donostiako eremu metropolitarraren batez bestekoa baino nabarmen handiagoa ere 97,3 (Iturria: EUSTAT).
- **Generoaren araberako errenta pertsonalean** desparekotasun adierazgarriak hautematen dira: 2014an emakumeen batez besteko errenta pertsonala 18.562€-koa zen eta gizonena 27.292€-koa (Iturria: EUSTAT).
- Errentaren arloan, hau da, batez besteko errenta pertsonalean, generoaren arloko **desparekotasun indizeak** behera egin zuen 2009 eta 2011 artean —62,7 izatetik 53,6 izatera pasa zen—, eta 2014an 68ra igo zen. Batez besteko errenta pertsonal erabilgarria aintzat hartzen bada, are handiagoa da aldea (2014an 70 puntuko desparekotasun indizea kalkulatu zen) (Iturria: EUSTAT eta Donostia Sustapena).
- Era berean, aditzera eman behar da Donostian emakumeen eta gizonen arteko batez besteko errenta pertsonalean dagoen desparekotasuna (gizonen errenta pertsonala/emakumeen errenta pertsonala) 1,5ekoa dela eta Gipuzkoaren osotasunean (1,6) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (1,7) jasotakoa baino txikiagoa dela (Iturria: EUSTAT).











- Auzoen araberako begiradan alde handiak hauteman dira **batez besteko familia errentan**. Auzorik aberatseneko errenta (Miramon-Zorroaga, 83.533€, 2016an) errenta txikieneko auzokoa baino 2,6 aldiz handiagoa da (Altza, 32.545€).
- Zazpi auzok dute udalerriko batez besteko familia errenta (45.987€) baino errenta txikiagoa: Añorgak, Intxaurrondok, Egiak, Loiolak, Mirakruz-Bidebietak, Martutenek eta Altzak; beste lau auzok % 20 baino gehiago gainditzen dute hiriko batez besteko familia errenta (Miramon-Zorroagak, Aietek, Antiguak eta Ibaetak). Errenta mailak nolabaiteko ekialde/mendebalde zatiketa egiten du hirian.
- **Errenta pertsonal** totalak auzoen arabera duen banaketa batez besteko familia errentaren banaketaren antzekoa da; nolanahi ere, higiezinen kapital errenta, jardueren araberako errenta eta transferentzien araberako errenta aztertzean, lurralde mailako desberdintasun horiek desagertzen dira (Iturria: EUSTAT).

DONOSTIAKO AUZOEN ARABERAKO BANAKETA, ERRENTA PERSONALA 2015



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


DONOSTIAKO 2016KO BATEZ BESTEKO FAMILIA ERRENTA, €



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

AUZOEN ARTEKO DESBERDINTASUN HANDIAK ERRENTAREN BANAKETAN

DONOSTIAKO BATEZ BESTEKO FAMILIA ERRENTA 2016 (€)



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Desparekotasuna, pobrezia eta prekarietate ekonomikoa

- Errenta banaketan gertatzen den desparekotasuna aztertzeko elementuen artean **80/20 ratioa** nabarmendu behar da (diru sarrera gehien duen populazioaren % 20aren eta diru sarrera gutxien duen populazioaren % 20aren arteko erlazioa). 2015ean, Donostiarako 80/20 ratioa 3,0an zenbatetsi zen, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiona baino txikiagoa zen (4,1), baina Gipuzkoakoa baino handiagoa (2,2) (balio handiagoek desparekotasun handiagoa adierazten dute) (Iturria: bertan landua EUSTATen errenta pertsonalaren eta familia errentaren estatistika abiapuntu izanik).
- 80/20 ratioa (2016) beste lurralde batzuetako ratioarekin alderatuta, ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoan (3,9ko indizearekin) Estatuan (6,9) eta Europan (EB28 5,2) baino desparekotasun maila txikiagoa dagoela (Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT).

DESPAREKOTASUNA ERRENTAN – 80/20 RATIOA, 2015

	Sarrera txikiena duten pertsonen % 20ren batez besteko errenta	Sarrera handiena duten pertsonen % 20ren batez besteko errenta	80/20 ratioa (%)
EAE	127	52.108	4,1
Gipuzkoa	242	52.443	2,2
Donostialdea	246	54.944	2,2
Donostia	209	63.551	3,0

Iturria: bertan landua, EUSTATen errenta adierazleak abiapuntu izanik.

DONOSTIAKO POPULAZIOAREN % 4,5, GUTXIENEZ, DAGO POBREZIA LARRIKO ARRISKUAN, ETA % 10,7K SARRERA TXIKIAK DITU

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkesta* (2014) abiapuntu izanik, zenbatetsi da Donostiako populazioaren % 4,5 (8.375 pertsona inguru) dagoela **pobrezia larriko egoeran** —pobrezia larriko egoeran dauden pertsonen errenta garbia ez da pertsonen kontsumo unitateko batez besteko errentaren % 40ra iristen eta, beraz, hilean 568,3€ baino gutxiagoko diru sarrerak dituzte—. Era berean, populazioaren % 10,7 (19.915 pertsona inguru) dago **diru sarrera txikiko egoeran** —pobrezia erlatiboko arrisku egoera dauden pertsonen errenta garbia ez da pertsonen kontsumo unitateko batez besteko errentaren % 60ra iristen, hilean 852 euro baino gutxiagoko diru sarrerak dituzte—. Bi egoera horietan dagoen Donostiako populazio tasak Gipuzkoako osotasuneko tasak baino txikiagoak dira (% 5,4 eta % 15,6 hurrenez hurren).

- *Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkesta* ez da udal mailan adierazgarria, eta, hartara, laginketan errore handiak egon daitezke; hori dela eta, datu horiek ardura handiz hartuta, eta 2016ko pobreziari eta gizarte desparekotasunei buruzko inkestatik ateratako datuekin alderatu ostean, ikus daiteke pobrezia erlatiboaren eraginpean dagoen Donostiako populazioa erreferentziako lurraldeetakoa baino txikiagoa dela (Euskal Autonomia Erkidegoan 15,4; Europar Batasunean, UB20, 17 eta urrutixeago Estatuko batez bestekoa 22,1); dena dela, pobrezia larriko arriskuan dagoen populazioaren ehunekoa askoz ere antzekoagoa da, txikiagoa izanik ere (Estatuaren kasuan izan ezik, populazioaren 11,2an du eragina).

POBREZIA ARRISKUARI BURUZKO KONPARAZIO HURBILKETA

2014 /2016	Donostia	Gipuzkoa	EAE	Espainia	EB 28
Pobrezia arriskuko tasa	10,7	15,6	16,4	22,1	17,0
Pobrezia larriko tasa	4,5	5,4	4,9	11,2	6,3

Iturria: Donostiako inklusio planerako beharrei buruzko diagnostikoaren egokitzapena (2014ko Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkesta abiapuntu duena) eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Inkesta 2016. Donostiako Estrategia Bulegoa

- **Mantentze pobreziako eta prekarietateko arrisku egoerak**, edo metatze pobreziakoak, zuzenean lotzen dira familien diru sarreren gutxiegitasunarekin, hau da, oinarrizko beharrei erantzuteko gutxiegitasunarekin (**pobrezia erreala**) edo, zentzu zabalagoan, gurearen moduko gizarte batean espero den ongizate minimoa mantentzeko beharrezkoak diren gastuei erantzuteko gutxiegitasunarekin (**ongizatearen gabezia**). *Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (2016)* bidez, Donostialdearen osotasunean azken urte hauetan izan den pobrezia eta prekarietate errealeko egoeren jarraipena egin daiteke.
- Inkestaren datuetatik ondorioztatzen da egoera horiek Donostialdean ez dutela eragin handirik; egoera horien eragin txikiena duen eskualdeen artean dago Donostialdea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik dago. Nolanahi ere, joeraren bilakaerak agerian uzten du krisialdiaren inpaktua, gora egin baitu prekarietate egoera guztietan eraginpean dauden biztanleen bolumenak. Azken datuek hobekuntza erlatiboa erakusten dute (nahiz eta eraginpean dagoen populazioaren ehunekoa 2008koa baino handiagoa den). Metatze eta mantentze pobrezia murriztu da, baina pobrezia errealeko egoeran dagoen populazioa egonkor mantendu da, eta eskualde honetan gora egin du ongizate gabeziak.

POBREZIARI ETA GIZARTE DESPAREKOTASUNEI BURUZKO INKESTA, 2016

(%etan)	DONOSTIALDEA				EAE			
	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016
Mantentze pobrezia	4,7	6,9	7,0	5,1	5,7	7,3	8,2	7,1
Metatze pobrezia	0,4	0,8	1,6	0,3	1,5	1,4	2,0	1,6
Pobrezia erreala	3,1	4,1	4,0	4,0	4,2	5,3	5,9	5,7
Ongizate gabezia erreala	6,6	8,7	7,7	8,6	8,2	10,1	11,5	10,8

Iturria: EJ. Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Inkesta 2016.

ERREFERENTZIAKO LURRALDEETAN BAINO ERAGIN TXIKIAGO DU BERTAN POBREZIAK ETA BAZTERKETAK

- Euskal Autonomiaren osotasunerako bildutako adierazleek posizio positiboa islatzen dute, Europako batez besteko mailekin eta, batik bat, Estatuko batez bestekoekin alderatuta.
- Ildo horretan, Europar Batasunean **pobrezia eta gizarte bazterketako arriskuan dagoen populazioaren** adierazle sintetikoak (AROPE adierazleak) *Europa 2020 Estrategiaren* pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurkako borrokaren gizarte helburuaren testuinguruan kokatzen du hiria. AROPEren definizioak, pobrezia arriskuko egoerez gain (batez bestekoaren % 60), aintzat hartzen du lan intentsitate txikiaren inpaktua eta oinarrizko zerbitzuetako edo ondasunetako batzuen eskuraezintasuna. Euskal Autonomia Erkidegoko **AROPE tasak** gora egin zuen 2008ko % 17,9tik 2014ko % 22,7ra, eta 2016an berriro murriztu zen % 20,6ra —edonola ere, krisialdiaren aurreko mailen gainetik kokatzen da—. Antzeko bilakaera ikus daiteke Europako eta Estatuko balioetan (Iturria: Eusko Jaurlaritza. *Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta - 2016). Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren* arabera (GFA, 2014) Europar Batasunerako (EB28) balioak % 24,5ean zenbatetsi dira, Estaturako balioak % 29,2an, Euskal Autonomia Erkidegorako balioak % 22,7an, Gipuzkoarako balioak % 19,5ean eta Donostiarako balioak % 10,1ean.
- **Gini indizeak**, hots, diru sarrera erabilgarriak abiapuntu izanik desparekotasuna aztertzeko gehien erabiltzen den beste adierazle batek (0 - 100. 100=desparekotasun maximoa), Estatuko eta Europako batez bestekoak baino desparekotasun txikiagoa islatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan.


POBREZIA ETA BAZTERKETAKO ADIERAZLEAK, 2016

	EAE	Espainia	EB28
AROPE tasa	20,6	28,6	23,7
GINI koefizientea	25,8	34,6	31
80/20 ratioa	3,9	6,9	5,2
Pobrezia arriskuko tasa	16,4	22,1	17
Pobrezia larriko tasa	4,9	11,2	6,3

Iturria: EJ. Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Inkesta 2016.

- Gabezia ekonomikoko egoerak kuantifikatzeko beste iturri bat **diru sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) hartzaileei** buruzko datuak dira (datu horiek kontu handiz hartu behar dira, laginaren ordezkagarritasun baldintzatzaileen ondorioz).
- LANBIDEren datuen arabera, 2018ko apirilean donostiarren % 2,1ek espediente bat zuten aktibo (3.806 pertsonek). Donostian prestazio hau jasotzen duten titularren kopuruari dagokionez, urte hauetan bilakaera irregularra izan du diru sarrerak bermatzeko errentak. Datu horrek argi islatzen ditu krisialdi ekonomikoaren inpaktua eta ekonomiaren eta lan merkatuaren inpaktua, baita errenta hori eskuratu ahal izateko eskakizunetan izandako aldaketak ere. Igoera progresibo baten ostean, 2016tik joera alderantzikatu da eta hartzaileen kopuruak behera egin du, hil batetik bestera gorabehera txiki batzuk izan diren arren.
- 1.000 biztanleko **diru sarrerak bermatzeko errentaren onuradunen** tasak etengabe egin du gora 2016. urtera arte. 2003an hiriaren osotasunerako ‰ 7,75eko tasa zenbatetsi zen (tasa hori, bestalde, Bilbokoa, ‰ 21,6, edo Gasteizkoa, ‰ 11,2, baino dezente txikiagoa zen), eta 2016an ‰ 21,8koa zen (‰ 46,9koa eta ‰ 32,3koa Bilbo eta Gasteizerako, hurrenez hurren) (Iturria: EUSTAT). Donostian, gizonak baino gehiago emakumeak dira diru sarrerak bermatzeko errentaren titular (‰ 17,9 eta ‰ 25,2 hurrenez hurren).


DONOSTIA. BATEZ BESTEKO FAMILIA ERRENTAREN ETA DSBE-AREN TITULARREN ARTEKO ERLAZIOA



Iturria: EUSTATeta LANBIDE. Donostiako Estrategia Bulegoak landua..
*2016ko Errentaren datuak, 2018ko apirileko DBSEaren datuak.

- Donostian **diru sarrerak bermatzeko errentaren lurralde banaketari** erreparatuta, ikus daiteke gehiago baliatzen dela Intxaurrondon, Altzan, Mirakruz-Bidebietan eta Loiolan (hiriko batez besteko hartzaileen ehunekoa % 40tik gora gainditzen duten auzoak), eta gero Martutenen eta Egian, horietan ere Donostiako batez bestekoaren gainetik. Miramon-Zorroagak eta Zubietak dituzte tasarik txikienak.
- Diru sarrerak bermatzeko errentak jasotzen dituzten herritarren banaketa ez ezik, batez besteko familia errentaren banaketa ere kontuan izanik, ikus daiteke, oro har, bi horien arteko erlazioa alderantziz proportzionala dela, hots, batez besteko errenta txikieneko auzoetan daude diru sarrerak bermatzeko errentaren hartzaile tasarik handienak.

DONOSTIA. DBSE-AREN TITULARRAK, 2018KO APIRILA



Iturria: LANBIDE. Donostiako Estrategia Bulegoak landua..


- Diru sarrerak bermatzeko errentaren barruan aktibo dauden espedienteen % 78,4 (2018ko apirilean) oinarrizko modalitateari dagozkio eta gainerako % 21,6 lan osagarriei dagozkie (Iturria: LANBIDE).
- Donostian diru sarrerak bermatzeko errentaren hartzaile diren hirutik ia bi (2018ko apirilean) emakumeak dira (% 65,5) eta lautik batek 65 urte edo gehiago ditu (% 25,5). Diru sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileen % 57,5ek oinarrizko prestakuntza maila dute (nahitaezko ikasketak) lan eskarian, % 23k Bigarren Hezkuntzako ikasketak dituzte eta % 6,2k unibertsitate ikasketak. Jatorriaren arabera, % 67,5 Estatukoa da, % 16 Hego Amerikakoa, % 8 Afrikakoa, % 2,9 Europar Batasunekoa, eta % 2,8 Europako beste leku batekoa (Iturria: LANBIDE).
- Diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzearen bidez **prekarietate ekonomikoan** sakonduz, *Donostiako Inklusio Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoak* (2016) egoera horren **kronifikazioa** aipatzen du: diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten familien % 48,7 (Donostiako familien % 2,5) diru sarrera txikiko egoera iraunkor batean daude; izatez, duela 3 urtetik edo gehiagotik hona, modu etenean izaten dituzte diru sarrerak (pentsiodunak ez direnen % 35ek).

BALIABIDE EKONOMIKOEN BANAKETAK ERAGINA DU POBREZIAREN IRISMENEAN ETA SAKONTASUNEAN.

- Diagnostiko horretan, zenbatetsi da Donostian haien kargura adin txikikoak dituzten familien % 5,5 diru sarrerak bermatzeko errentaren onuradun direla; bestalde, Donostiako guraso bakarreko familien % 28,3k diru sarrera txikiak dituzte eta errenta hori jasotzen dute.
- Hirian bizi diren atzerritarren % 7,08k jasotzen zuten 2016an diru sarrerak bermatzeko errenta (Bilborako, % 16,9, eta Gasteizerako, % 15,06, zenbatetsitakoa baino gutxiago).

POBREZIARAKO ARRISKU HANDIAGOA DUTE: ATZERRITARREK, HAURREK, GURASO BAKARREKO FAMILIEK (EMAKUMEAK EDO 45 URTETIK BEHERAKOAK BURU DITUZTENEK) ETA DIRU SARRERA MINIMOAK DITUZTEN ADINEKOEK

DONOSTIAKO DSBE-AREN TITULARRAK 2018KO APIRILA




Iturria: LANBIDE. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- **Diru sarrerak bermatzeko sistema lagungarria da errenta jasotzen duten pertsonen/familien zati batek pobrezia saihesteko**, eta, aldi berean, aditzera eman behar da laguntza horiek jasotzen dituzten pertsonen/familien zati batek laguntza horiek behar dituela bizirauteko, nahiz eta pobrezia larriko egoeran ez egon (aintzat hartzen diren adierazleen arabera). Erantsi behar da, Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestak zenbatesten duenaren arabera, Gipuzkoan pobrezia larrian dauden familien % 25ek ez dutela diru sarrera bermatzeko errenta jasotzen, askotariko arrazoiak tarteko (Iturria: *Donostiako Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa*).
- **Pobreziaren aurrean kolektibo kalteberenen** ezaugarrien arabera (*Donostiako Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa*, 2016), zenbatetsi da atzerriko populazioa (kualifikatu gabea) pobreziarekiko kalteberatasun bereziko egoeran dagoela (pobrezia larria 6,2 aldiz handiagoa da kolektibo horretan); haurrak ere egoera horiek jasateko arrisku handiagoan daude (1,6 aldiz handiagoa), baita emakume bat edo 45 urtetik gorako pertsona bat buru duten guraso bakarreko familiak ere (populazio orokorrak baino 1,24 eta 1,68 aldiz arrisku handiagoa, hurrenez hurren).

Osasunarekin lotzen diren problematikak

- Osasuna funtsezko elementua da pertsonen ongizaterako eta gizarte bazterketako arrisku faktore bihur daiteke. Osasunerako determinatzaileen artean daude bizi eta lan baldintzak, faktore psikosozialak, gizarte babesa, osasun mentala eta osasunarekin lotzen diren eta bizi kalitatean eta itxaropenean eragina duten jokabideak (ariketa fisikoa, tabakismoa, alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa, obesitatea…).
- **Osasunaren** arloan egon daitezkeen **desberdintasun sozioekonomikoen** analisia jasotzen da *Donostiako Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoan* (2016), betiere bizi itxaropeneko adierazlea abiapuntu izanik (*Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta 2013).* Egiaztatu da 2006-2010 aldian osasunaren arloko oinarrizko zonen artean bizi itxaropenean 4,8 urteko arraila dagoela gizonentzat eta 4 urtekoa emakumeentzat.
- Donostiako zonen arteko bizi itxaropen desberdina Bilbokoa eta Gasteizkoa baino txikiagoa da.
- **Osasunaren autobalorazioa** oso lotuta dago, antza, pobreziako eta gizarte bazterketako egoerekin (*Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta*). Donostiako gizonen % 18,6k eta emakumeen % 16,7k haien osasunari txarra edo oso txarra dela iritzi diote (33.600 pertsona inguruk). Batik bat 75 urtetik gorako pertsonak dira (% 45, eta gazteen artean % 4).

DONOSTIAKO BIZI ITXAROPENA



Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa, Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa. Eusko Jaurlaritza, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta 2013

DESBERDINTASUN SOZIOEKONOMIKOAK POPULAZIOAREN OSASUNEAN

LURRALDE DESBERDINTASUNAK BIZI ITXAROPENEAN

33.600 PERTSONA INGURUK USTE DU BERE OSASUNA TXARRA EDO OSO TXARRA DELA (BITIK IA BATEK DU 75 URTE EDO GEHIAGO)

- **Nork berak hautemandako osasun txarraren** prebalentzia estandarizatuari adinaren arabera erreparatzen badiogu, ikus dezakegu Donostian beste hiriburuetan baino handiagoa dela gizonen artean (% 18) eta nabarmen txikiagoa emakumeen artean (% 14,2). Oro har, txarragoa da hiriaren ekialdean.
- Gizonen % 3,8k eta emakumeen % 4,2k adierazten dute laguntza behar dutela eguneroko bizitzako jarduerak egiteko (Iturria: Eusko Jaurlaritza. Osasun Inkesta, 2013).
- **Osasun mentaleko** arazoak gizarte bazterketaren kausa eta ondorio izan daitezke (gaixotasun mentala duten pertsonek zailtasunak dituzte gizarte, hezkuntza eta lanbide bizitzan parte hartzeko, eta zailtasun horiek pobrezia, isolamendua, sufrimendua eta bazterketa eragiten dute). Era berean, muturreko bazterketako egoerek, definizioz, osasun mentalerako kaltegarriak diren bizi baldintzak eta bizi ohiturak eragiten dituzte.
- Donostian, **osasun mentaleko indizea** 100etik 73,3 puntutan zenbatetsi da gizonen artean eta 69,47 puntutan emakumeen artean. Bilbok osasun mentaleko indize txarragoa izango luke (72,4 gizonen artean eta 66,3 emakumeen artean) eta Gasteizek hobea (76,7 eta 70,18, hurrenez hurren) (Iturria: *Donostiako Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa*, Osasun Inkesta, 2013).
- Donostiako populazioaren % 18k (gizonen % 17,2k eta emakumeen % 20,3k) antsietate eta/edo depresio sintomak izan ditzake.
- Nahasmendu mental larriek (2014an sare publikoan diagnostikatuek eta tratatuek) populazioaren % 0,51n dute eragina (200 donostiarretik batengan), eta eragin handiagoa du gizonezkoen artean (gizonen % 0,59 eta emakumeen % 0,44) (Iturria: *Donostiako Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa*, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea).

Osasuna, adikzioak eta gizarte bazterketa

- *Donostiako Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoak* (2016) osasun mentalaren, droga eta/edo alkohol kontsumoaren eta gizarte bazterketako arriskuaren arteko lotura estua nabarmentzen du. Diagnostiko horretan, Osasun Inkestako datuak (2013) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun mentaleko Sarearen datuak jaso dira, informazio hori osatzen duten iturrien gabezian:
  - 2014an 614 donostiarrek (populazioaren % 0,33k) adikzioen ondoriozko arreta jaso zuten osasun mentaleko sarean (% 78 gizonak izan ziren).
  - Txikia da tratamendu horien arrakasta tasa: 2009an medikuaren alta zuten pertsonen % 25ek ez zuten berriro tratamendua jaso 5 urtetan (kopuru txikiak dira).
  - Inkestaren datuek —nolabait edariarekin lotzen diren arazo asko ez hautematearen arriskuarekin— aditzera ematen dute donostiarren % 22k epe luzera osasunerako arriskutsutzat jotzen diren alkohol kontsumoak izan ditzaketela (kontsumitzen den kantitateagatik); gizonen artean (% 26,7) emakumeen artean (% 12,8) baino handiagoa da ehunekoa, eta Bilbon (% 20) eta Gasteizen (% 18) baino zertxobait handiagoa da Donostian.
- Nabarmendu behar da ez dagoela substantziarik gabeko adikzioekin, hala nola joko patologikoarekin edo Interneterako adikzioarekin, lotzen diren problematikei buruzko tokiko informaziorik; haatik, zenbatetsi da populazioaren % 2,8k arrisku jokabideak dituela jokoaren inguruan, % 1,2k Interneten erabilera problematikoa duela eta beste % 1,8k Interneten arrisku erabilera duela. Bestalde, % 6,7k uste du sarean nabigatzen behar baino denbora gehiago ematen duela.

Bakardadea eta gizarte harremanak


- Sare sozial eta familiar baten presentzia funtsezko elementua da garapen pertsonalean. Kolektibo kalteberenetan inklusiorako/bazterketarako giltzarri faktore bat da.
- *Donostiako Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoan* (2013) —Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun inkestan oinarrituta— hautematen denez, 15 urteko edo gehiagoko Donostiako populazioaren % 2,9k iritzi dio kalteberatasun pertsonaleko edo sozialeko unetan ez duela gustatuko litzaiokeen babes sozialik. Gizonengan (% 3,1) emakumeengan (% 2,8) baino handiagoa da babes sozial konfidentzialaren gabeziako pertzepzio hori. Donostiako populazioaren laurden batek babes sozial afektiboaren gabezia sentitzen du (gizonen artean % 26,1ek eta emakumeen artean % 23k adierazten dute afektu eta maitasun gabezia hori). (Iturria: Eusko Jaurlaritza, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta, 2013).
- Kolektibo kalteberen artean, >75 urteko populazioa nabarmendu behar da (Donostian % 11,7), horiengan bakardade sentsazioak kalteberatasun arrisku erantsia ekar baitezake. Pertsona horien % 6,4 bakarrik bizi dira edo adineko (>75 urteko) beste pertsona batzuekin, hau da, kolektibo horren erdiak baino gehiago (% 54,8); >75 urteko pertsonen % 3,4 bakarrik bizi dira (kolektiboaren % 29,4) (Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea).
- Horrez gain, 75 urtetik gorako emakumeen artean babes konfidentzialeko gabeziaren pertzepzio handia hauteman da, agian emakume horien kalteberatasunaren beraren ondoriozko pertzepzioa da edota alargun diren adineko emakumeen proportzio handiagoaren ondoriozko pertzepzioa.
- Era berean, erantsi behar da 85 urtetik gorako populazioaren % 33,8 bakarrik bizi dela eta horien % 17k ez dutela harremanik gizarte zerbitzuekin (Iturria: *Donostiako Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa*).

BOST DONOSTIARRETIK BATEK IZAN DITZAKE ANTSIETATE ETA/EDO DEPRESIO SINTOMAK

ALKOHOLAREKIN ETA DROGEKIN DAUDEN ARAZOAK KUANTIFIKAGAITZAK DIRA

BAKARRIK BIZI DIREN >75 URTEKO PERTSONAK 2018


	> 75 bakarrik bizi	% > 75 bakarrik bizi
Aiete	182	19,3
Altza	538	28,2
Amara Berri	1.148	31,0
Añorga	47	24,5
Antigua	519	27,5
Ategorrieta - Ulia	114	23,1
Erdialdea	1.186	34,0
Egia	610	28,9
Gros	966	34,6
Ibaeta	163	23,4
Igeldo	16	18,8
Intxaurrondo	343	25,6
Loiola	155	30,8
Martutene	69	28,2
Mirakruz - Bidebieta	355	29,4
Miramon - Zorroaga	11	4,7
Zubieta	7	26,9
Donostia guztira	**6.429**	**29,4**



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea

BAKARRIK EDO >75 URTEKO BESTE PERTSONA BATZUEKIN BIZI DIREN >75 URTEKO PERTSONAK 2018

	> 75 bakarrik edo > 75 pertsonekin bizi	% > 75 bakarrik edo >75 pertsonekin bizi
Aiete	406	43,1
Altza	1.006	52,8
Amara Berri	2.178	58,7
Añorga	99	51,6
Antigua	1.019	53,9
Ategorrieta - Ulia	228	46,2
Erdialdea	2.022	58,0
Egia	1.222	57,9
Gros	1.638	58,7
Ibaeta	329	47,3
Igeldo	28	32,9
Intxaurrondo	675	50,4
Loiola	279	55,4
Martutene	119	48,6
Mirakruz - Bidebieta	673	55,8
Miramon - Zorroaga	39	16,7
Zubieta	15	57,7
Donostia guztira	**11.975**	**54,8**



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea

- Bakarrik bizi diren > 75 urteko pertsonak auzo hauetan metatzen dira batik bat: Gros (% 34,6), Erdialdea (% 33,99), Amara Berri (% 30,95) eta Loiola (% 30,75). Auzo horiek dira hein handi batean auzorik zahartuenak. Horiei >75 urteko beste pertsona batzuekin bizi direnak gehitzen badizkiogu, berriro nabarmentzen dira Gros eta Amara Berri (% 58,7 biak) eta Erdialdea (% 57,95), baita Egia (% 57,9) eta Zubieta (% 57,7) ere. (Iturria: Donostiako Udala Informazioko Udal Unitatea).


Bizitegi prekarietatea eta desparekotasuna

ETXEBIZITZAREKIN LOTZEN DIREN PROBLEMATIKEK GIZARTE ETA LURRALDE KOHESIOAN DUTE ERAGINA, ETA GIZARTE BAZTERKETAKO FAKTORE GARRANTZITSU BAT DIRA

- Ingurune egokian etxebizitza duina eskuratzea inklusiorako/bazterketarako funtsezko faktore bat da eta lurralde kohesiorako giltzarria. Etxebizitzarekin lotzen diren problematiken artean nabarmendu behar da etxebizitzak dagokien kostuan eskuratzeko zailtasuna edo ezintasuna, etxebizitzak norberaren premietara/inguruabarretara ez egokitzea, hala nola zahartzearekin lotzen direnetara edo irisgarritasun arazoekin lotzen direnetara.
- Salmentako zein alokairuko etxebizitzaren prezioen igoerak eraginda, donostiar askok ezin dute baldintza egokietan eskuratu etxebizitza; Donostiako inklusiorako diagnostikoan zehazten denez, egoera horretan daude gazteak zein Donostian pobrezia arriskuan dauden 20.000 pertsonak. Horren lekuko, Udalak 2014an emandako Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) % 54 etxebizitza gastuetara bideratu ziren.
- 2011ko etxebizitzen osotasunerako konfort globaleko indizean 100etik 74 puntu lortu diren arren, etxebizitzaren arloko askotariko arazoak hauteman dira. Lehenik, populazioaren zahartze progresiboa irisgarritasun arazoak dituen etxebizitza parke zahar batean; izatez, herritarren % 43,6 erabat irisgarriak ez diren eraikinetan bizi dira, eta horien barruan, 17.115 herritar 65 urtetik gorako pertsonak dira (Iturria: INE, populazioaren eta etxebizitzaren errolda, 2011). Irisgarritasun ezak edo egokitzapen ezak bereziki eragina du arazo horiei aurre egiteko baliabiderik ez duten adineko pertsonengan eta Donostian adineko pertsona ugari bizi da igogailurik ez duten eraikinetako goiko solairuetan.
- Erantsi behar da Donostiako populazioaren % 8 bizi dela pertsona bakoitzeko 15 m^2 erabilgarri baino gutxiago duen etxebizitza batean eta % 0,3 bizi dela aurri egoeran edo egoera txarrean dauden eraikinetan.
- Energia pobreziako egoerak, 2014an, Donostiako populazioaren % 11,4an du eragina, hein batean edo bestean, baita Gipuzkoako populazioaren % 16,4an ere (Iturria: Donostiako Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa). Oinarrizko energia beharren kostuari aurre egiteko ezintasuna da energia pobrezia, eta horretan zenbait faktorek izan dezake eragina (familia sarreren gainbeherak edo sarrerarik ezak, energiaren prezio handiak, energia efizientziaren alorrean etxebizitzek duten kalitate txikiak,…). 2015ean energia gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten eta gizarte larrialdietarako laguntzarik edo diru sarrerak bermatzeko errentarik jasotzen ez duten familientzako laguntza sortu zen.
- Donostiako Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoaren arabera, 2014an, hirian 49 etxebizitza zegoen hipoteka betearazteko prozesuan.
- Problematikarik larrienen artean, bizitegiaren arloko bazterketa egoera larriak ebatzi beharko dira; eskura dagoen informazioaren arabera, 2014an Donostian 439 pertsona zeuden bizitegiaren arloko bazterketa egoera larrian (populazioaren % 2,3), horietatik 89k kalean egiten dute lo (Iturria: Kale Gorrian, 2014).
- Gizarte zerbitzuen eskariek talderik kalteberenen beharrak ere islatzen dituzte. Oro har, 2016an 14.670 familiek jaso zuten Udalaren Gizarte Zerbitzuen arreta; Donostiako familien ia % 20k ekonomia edo gizarte arriskuan egoteagatik jaso zuten Gizarte Zerbitzuen arreta pertsonalizatua. Eskariak eta arreta tasak handiagoak dira hiriko ekialdeko auzoetan (Intxaurrondon, Bidebieta-Herreran, Larratxo-Altzan....); izatez, auzo horietan metatzen dira langabezia tasarik handienak eta errenta txikieneko populazio tasak (Iturria: Donostiako Udala. Gizarte Ongizateko Zuzendaritza).
- *Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoaren* arabera, gizarte laguntzako eskaeren % 80 laguntza ekonomikoko eskaerak dira, % 16 gizarteratzeko ekintzen eskaerak, % 4 larrialdiko bizitegien arlokoak eta gainerakoak immigratzaileen bitartekaritzaren, eguneko zentroen edo bazterketaren arlokoak. Nabarmendu behar da, era berean, populazioaren gero eta ehuneko handiago batek jasotzen dituela oinarrizko laguntza ekonomiko hauek: diru sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak 2010ean 3.920 izatetik 2016an …. izatera pasa ziren (Δ% 26,8, 2010-2016 aldian) eta Donostiako familien % 6,5 ziren; aldi horretan bertan, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak 2.518 izatetik 2016an 2.695 izatera pasa ziren (Δ% 7) (Iturria: Donostiako Udala. Gizarte Ongizateko Zuzendaritza).

- Eskaerei jarraituta, Gizarte Zerbitzuen laguntza etengabe ari da igotzen, betiere baliabideen arabera: 2017an adineko pertsonei zuzendutako gizarte arretako tasa % 46ra iritsi zen >65 urtekoen artean eta % 91ra >85 urtekoen artean (2011n ehunekoak txikiagoak ziren % 42 eta % 76, hurrenez hurren). 2015ean adineko pertsonentzako zentroetako erabiltzaileak 1.306 ziren, eta adinekoentzako eguneko zentroetako erabiltzaileak 365. Nabarmendu behar da 2015ean 162 adingabe zaudela hartuta egoitzetan (93 ziren 2011n, Δ% 72,4); era berean, telelaguntzako zerbitzuak 3.764 onuradun izan zituen 2015ean (Δ% 81,7, 2011-2015 aldian).

GIZARTE LAGUNTZAK ESKATZEN DITUEN POPULAZIOA



Iturria: Donostiako Udala. Ongizate Zuzendaritza. Estrategia Bulegoak landua.

- Gizarte babeseko neurriak (prestazio ekonomikoak, asistentziakoak…) lagungarriak dira pobrezia eta bazterketako egoerak murrizteko, eta, aldi berean, gizarte eta lurralde kohesiorako tresnak dira.
- Euskal Autonomia Erkidegoko errenta bermatuen ereduari dagokionez, aurrez aditzera eman dugu dimentsio anitzekoa dela (diru sarrerak bermatzeko errenta, gizarte larrialdietarako laguntzak, enplegurako estimuluak, inklusio hitzarmenak eta prestazioen banaketarako egitekoa), eta azpimarratu da pobreziaren eta desparekotasunaren arriskua murrizteko garaian duen eragina; haatik, gabeziak ere baditu. Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren % 9 diru sarrerak bermatzeko errentaren eskatzaile izan daitekeen arren, populazioaren % 2,8k ez du hori baliatzen eta % 6,3k bai. Prestazio horiei esker, onuradunen % 63,2 pobrezia egoeratik irteten dira (Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren % 3,3); haatik, % 36,8 ez dira egoera horretatik irteten (Iturria: Eusko Jaurlaritza. Pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko Inkesta, 2016).

GIZARTE TRANSFERENTZIEN ERAGINKORTASUNA POBREZIA LARRIAREN MURRIZKETAN

GERO ETA ESKARI ETA PRESIO HANDIAGOA GIZARTE ZERBITZUEN GAINEAN

Enplegua, gizarte kohesioaren euskarri


- Inklusiorako bidean, **enplegua funtsezko euskarria da kohesiorako**. Edonola ere, eta aurrez aditzera eman den moduan, enplegua izateak ez du pobrezia arriskua behin betiko urruntzen; aitzitik, **enplegurik ez izateak are larriagoa egiten du kalteberatasun ekonomikoa eta pobreziako eta gizarte bazterketako arriskua**.
- Langabeziak eragin handiagoa du kolektiborik kalteberenetan; kolektibo horiengan, hain zuzen ere, egiaztatu da krisialdi ekonomikoaren ondorioen eraginik handiena. *Gizarte Inklusioko Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoaren* arabera, langabeek populazio orokorrak baino pobrezia tasa handiagoak dituzte (adin aktiboan kiderik ez duten edota, lan egiteko adinean egonik, enplegua duen kiderik ez duten familietan, pertsonen % 40,2 pobrezia larriko egoeran daude). Lan prekarietatea ere kalteberatasun elementu bat da, lana duen populazioaren % 6,2 pobrezia erlatiboko egoeran dago (2014), eta eragin berezia du lanaldi partzialean lan egiten dutenen artean (pobreen artean lanaldi partzialeko enplegu tasa % 33,8koa da, eta populazio osoa aintzat hartuta % 14,4koa da).

- Azken hamarkadetan, langabeziaren bilakaerak agerian uzten du krisialdi ekonomikoak zer eragin handia izan duen langabezia tasetan: 90eko hamarkadaz geroztik beherako joera nagusi izan zen (2005ean iritsi zen indizerik txikienera, % 6,2) krisialdiaren ondorioak agerikoak egiten hasi zirenera arte; orduan, langabeen kopuruak eta langabezia tasak igoera handia izan zuten eta 2014an izan ziren kotarik handienak (Donostian % 14ko batez besteko langabezia). Orduz geroztik, langabezia tasak behera egin du etengabe, eta 2018ko apirilean % 9,2ra iritsi zen (Iturria: LANBIDE).
- Langabeen kopuruaren bilakaeraren barruan, generoaren araberako begiradak agerian uzten du langabeziak eragin handiagoa izan duela emakumezkoengan; izatez, emakumezkoen langabezia tasa beti egon da gizonezkoen langabezia tasaren gainetik. 2018ko apirilean, emakumezkoen langabezia tasa % 9,8koa zen eta gizonezkoena % 8,5ekoa (Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea).

Lan merkatuaren prekarietateak (ordainsari txikiak, kontratatzeko modu berriak, behin-behinekotasunak, lanaldi partzialak,…) enpleguaren inklusio ahalmena higatu du

Langabeziak eragin handiagoa du zenbait kolektiborengan; itxuraz, zenbait faktorek bat egiten du horiengan (prestakuntzak, adinak, generoak)

DONOSTIAKO LANGABEZIAREN BILAKAERA




Iturria: LANBIDE. Donostiako Estrategia Bulegoak Landua. 8urteko 1. hiruhileko datuak)

Langabeziaren ezaugarriak

- LANBIDE), % 55,6 emakumeak dira (4.661 langabe) eta % 44,4 gizonak (3.723 langabe). Langabe horien % 1,9k 20 urte baino gutxiago dute, % 22,7k 21 eta 35 urte artean dute, % 37k 36 eta 50 urte artean dute eta gainerako % 38,4k 50 urte baino gehiago dute. 56 eta 60 urte arteko kolektiboa da ugariena (populazioaren % 15) eta emakumeak % 55,5 dira.
- Langabeen % 7,8k ez dute aurrez beste enplegurik izan eta lautik hiruk zerbitzu sektorean egin dute lan (% 76,6k), batez ere merkataritzan eta ostalaritzan, % 30ek, edo finantza eta aseguru sektorean, % 21ek. Bestalde, % 8,6k industrian egin dute lan eta % 5,2k eraikuntzan.
- Enplegua eskatzen duten langabeen erdiek oinarrizko ikasketak dituzte (% 50ek), % 32k erdi mailako ikasketak egin dituzte (lanbide heziketaren edo batxilergoaren adarrean), eta % 18k unibertsitate ikasketak dituzte.


- Enplegua eskatzen duten langabeen % 11,7 atzerritik etorri dira.
- 2018an, luzaroko langabeziak enplegua eskatzen duten langabeen % 49 hartzen du (4.000 langabe inguru Donostian), horietatik % 59 emakumeak dira.
- Enplegua eskatzen duten langabeen % 31,8k prestazio ekonomikoak jasotzen zituzten 2018ko apirilean (horrek esan nahi du hiru langabetik bik ez zutela prestazio ekonomikorik jasotzen); 2.580 pertsona horietatik, % 63k ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen zuten, % 33k langabezia sorospena jasotzen zuten eta gainerako % 3,8k gizarteratzeko errenta aktiboa (Iturria: LANBIDE).

DONOSTIAKO ENPLEGU ESKATZAILEAK 2018




Iturria: LANBIDE. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

DONOSTIAKO ENPLEGU ESKATZAILEEN PRESTAKUNTZA, 2018



Iturria: LANBIDE. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

LANGABEAK JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA, 2018KO URTARRILA




Iturria: LANBIDE. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Auzo eskalako begirada

- Langabeziaren lurralde banaketak eragin handiagoa du hiriaren ekialdean. Intxaurrondon, Altzan, Mirakruz-Bidebietan eta Egian metatzen dira langabeen ehunekorik handienak, Donostiako batez bestekoaren gainetik (Iturria: LANBIDE).
- Azken urteetan izan den langabeziaren beherakada hiriko auzo guztietara hedatu da, baina intentsitate aldakorrez.
- 2018an, Mirakruz-Bidebietako eta Altzako langabeen erdiak baino gehiago luzaroko langabeak dira (ehunekorik handienak); luzaroko langabeak gutxienez % 44 dira gainerako auzoetan, Igeldon izan ezik (% 39).

LANBIDEN ERREGISTRATUTAKO BIZTANLERIA LANGABEA (2018 APIRILA)




Iturria: LANBIDE. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

HIRIKO EKIALDEKO ZONAN METATZEN DIRA LANGABEZIA TASARIK HANDIENAK, BAITA LUZAROKO LANGABE ETA ATZERRIKO LANGABE KOPURURIK HANDIENAK ERE

- Añorga da 55 urte edo gehiagoko langabeen proportzio handiena duen auzoa (% 40,8), eta atzetik daude Erdialdea (% 33,4), Gros (% 31), Aiete (% 30,9) eta Intxaurrondo (% 30); aitzitik, proportziorik txikiena Ategorrieta-Uliak (% 21,8) eta Igeldok (% 21,2) dute.
- Altzan (% 16,8), Ategorrieta-Ulian (% 15), Erdialdean (% 12,8), Añorgan (% 12,7), Miramon-Zorroagan eta Intxaurrondon (biak % 12), hots, hiriaren ekialdeko zonan batez ere, metatzen dira atzerritar langabeen ehunekorik handienak (Iturria: LANBIDE).
- Hiriaren ekialdean daude langabezia tasarik handienak; Altza (% 14,2), Mirakruz-Bidebieta (% 14) eta Intxaurrondo (% 13,3) auzoek dituzte langabezia tasarik handienak, eta, gero, Egiak (% 11,6), Ategorrieta-Uliak (% 10,8) eta Loiolak (% 10,3) —guztiak daude hiriko batez besteko langabezia tasaren gainetik (% 10,6, 2016an)—. Aitzitik, Aiete eta Igeldo auzoek (biek % 8,2) dute langabezia tasarik txikiena, atzetik daude Añorga eta Ibaeta auzoak (biak % 8,9) (Iturria: Donostia Sustapena).

LANGABEZIA TASA ZENBATETSIA, 2016



Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


Hirien eta lurraldeen benchmarkina

- Lurralde testuinguruan, Donostiako langabezia tasa (% 9,2 2016an) Estatuko erreferentziako hirien langabezia tasaren azpitik dago, Gasteiz (% 12,4) eta Bartzelona (% 12,5), eta oso urruti daude Sevilla (% 23,3) edo Valentzia edo Gijon (biak % 18,6ren gainetik) (Iturria: INE).
- Europan langabeziak duen eraginari (16-74 urte) erreparatuz gero, ikus daiteke oro har iparralde/hegoalde banaketa duela; langabezia intentsitate handiagoak neurtu dira hegoaldeko herrialdeetan eta eskualdeetan. 2016an, Europar Batasuneko (EB28) batez besteko tasa % 8,6koa da (handixeagoa da emakumezkoena, % 8,8); Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa % 13,4koa da (emakumeen kasuan % 13,6), eta zertxobait txikiagoa Gipuzkoakoa, % 11 (emakumeen kasuan % 11,9). Espainiak ditu langabezia tasarik handienak, % 19,6, (emakumeen kasuan % 21,4) eta gero Greziak, % 23,6 (emakumeen kasuan % 28,1); beste muturrean daude Txekiar Errepublika, % 4, (emakumeen artean % 4,7), edo Alemania % 4,1 (nabarmentzekoa da emakumezkoen artean txikiagoa dela tasa, % 3,8) (Iturria: EUSTAT).
- Euskal Autonomia Erkidegoan luzaroko langabeziaren batez bestekoa (% 8,9, eta Gipuzkoan % 6,9) oso urrun dago Europar Batasunaren batez bestekotik (EB28 % 4) —Txekiar Errepublikan eta Alemanian % 1,7koa da—, baina Estatuaren batez bestekoaren azpitik dago (% 9,5).

	Bartzelona	Bilbo	Donostia	Gijon	Girona	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
Langabezia tasa (%) 2016	12,52	16,18	**9,21**	18,83	16,53	16,33	14,15	15,59	23,34	18,66	12,4	15,59

Iturria: INE, Hiri adierazleak. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

LANGABEZIA. (15 URTETIK GORA) EUROPAKO ESKUALDEAK, (2015)



Iturria: EUROSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua, EUROSTAT eta EUSTAT oinarri.

DONOSTIAKO LANGABEZIA TASAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA GIPUZKOAKO BATEZ BESTEKOEN AZPITIK DAUDE ETA ERREFERENTZIAKO HIRIEN ETA LURRALDEEN BALIOETATIK URRUN.











Oinarrizko adierazleak

	2001	2009	2016
Biztanle kopurua	181.065	185.357	186.667 (2017)
Zahartze indizea, %	% 19,48 (2003)	% 20,38	% 22,8
Gainzahartze indizea, %	% 9,22 (2003)	% 10,89	% 11,5
Gainzahartze indizea, emakumea (≥75 urte), %	% 11,9 (2003)	% 13,64	% 14,2
Gazteria indizea, %	% 12,09 (2003)	% 12,59	% 12,7
Populazio immigratzailea, %	% 1,7	% 6,5	% 7,1 (2017)
Batez besteko familia errenta, €	34.255	49.539	45.987
Batez besteko errenta pertsonala, €	14.895	23.054	22.583 (2014)
Batez besteko errenta pertsonala, emakumeak, €	10.645	18.400	18.564 (2014)
Elkarte kopurua, ‰		‰ 4,6 (2010)	‰ 5,59 (2017)
Udal hauteskundeetako parte hartzea, %	% 66,46 (2003)	% 54,86 (2007)	% 66,65 (2015)
Diru sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileak, ‰	‰ 7,7 (2003)	‰ 9,06 (2007)	‰ 21,79
Gizarte larrialdietarako laguntzaren hartzaileak (bizik. unit.), ‰	‰ 11,5 (2003)	‰ 13,9 (2007)	‰ 14,7
Donostialdeko pobrezia tasa erreala, %	% 2,2 (2004)	% 3,1 (2008)	% 4
Langabezia tasa, %	% 7,3	% 9,1	% 9,2 (2018 apir.)
Langabezia tasa, emakumeak, %	% 11,2	% 9,7	% 9,8 (2018 apir.)
Langabe kopurua	5.788	8.954	9.283 (2016)
Eskola garaia baino lehen uztearen tasa, %	% 6,3		% 6,1 (2011)
Euskal hiztunak, %	% 34,7		% 69,4 (2011)
Unibertsitate ikasketak dituen populazioa,%	% 21,5	% 32,2	% 34

Hausnarketarako puntuak

- Europako hiri ertaina, **populazioa egonkor mantentzen duena**, neurrizko dinamismo demografikoarekin.
- **Populazioaren zahartze progresiboa eta gainzahartzea**, handiagoa emakumezkoen artean.
- **Bizi itxaropen handia eta gero eta handiagoa**.
- **Donostiako ugalkortasun eta jaiotza tasak Europako txikienen artean** daude eta amatasuna berantiarrenen artean.
- Mendekotasun indize handia, **ordezkapen indizearen beherakada**.
- **Zahartzea hiriko zenbait eremutan metatzen** da (Erdialdea eta Gros), baita **gainzahartzea ere** (Erdialdea, Gros eta Zorroaga-Miramon),
- Kultura aniztasuna, **immigrazioaren gero eta presentzia handiagoa**.
- Donostiako immigrazioaren **jatorri nagusia Europar Batasunaz kanpo** dago, Latinoamerikan eta Afrika iparraldean. Kulturan hurbilekoa?
- **Populazio immigratzailearen gaztetasuna**.
- Auzoen araberako immigrazioaren banaketa desberdina.
- **Immigrazioaren pisu txikia Donostian, Europako hirien osotasunarekin alderatuta**.
- **Prestakuntza maila ona eta eskola garaia baino lehen uztearen neurrizko tasa,** erreferentziako beste lurralde batzuekin alderatuta.
- **Unibertsitatekoa ez den euskarako prestakuntzaren gorakada** eta **Lanbide Heziketaren gorakada**.
- **Euskararen ezagutzak etengabe gora** egin du, baina euskararen **kaleko erabilerak ez du gora egin**.
- **Lana kezka** iturri nagusia, **etxebizitzarekin batera**.
- **Oso gustura dauden herritarrak**, baita Donostiako bizi kalitatearekin ere (9,13 puntu 10etik).
- **Immigrazioarekin nahiko tolerantea den gizartea**, nahiz eta pertzepzio intolerante batzuk hautematen diren.
- Kapital soziala: ehun eta sare sozial finkatuetan oinarritzen den baliabidea, lurralde baten garapenean laguntzen duena.
- **Herritarren neurrizko parte hartzea hiriaren kudeaketan.** Oro har, parte hartzeko bideekiko gogobetetasuna eta/edo ezjakintasuna.



- **Batez besteko familia errenta** Estatuko **handienetako** bat da.
- Aberastasuna ez zaie guztiei neurri berean iristen (**generoaren araberako desberdintasun handiak**). Auzoen arteko desberdintasun handiak errentaren banaketan.
- Donostiako populazioaren **% 4,5, gutxienez, pobrezia arriskuan** dago, eta % 10,7k sarrera txikiak ditu.
- **Erreferentziako lurraldeetan baino eragin txikiago du bertan pobreziak eta bazterketak.**
- Baliabide ekonomikoen banaketak eragina du pobreziaren irismenean eta sakontasunean.
- **Pobreziarako arrisku handia duten kolektiboak: atzerritarrak, haurrak, guraso bakarreko familiak** (emakumeak edo 45 urtetik beherakoak buru dituztenak) eta **diru sarrera minimoak dituzten adinekoak.**
- **Desberdintasun sozioekonomikoak populazioaren osasunean.**
- Lurralde desberdintasunak bizi itxaropenean.
- 33.600 pertsona inguruk uste du bere osasuna txarra edo oso txarra dela (bitik ia batek du 75 urte edo gehiago).
- **Bost donostiarretik batek izan ditzake antsietate eta/edo depresio sintomak.**
- **Alkoholarekin eta drogekin dauden arazoak**, kuantifikagaitzak.
- **Etxebizitzarekin lotzen diren problematikek** gizarte eta lurralde kohesioan dute eragina, eta **gizarte bazterketako faktore garrantzitsu bat** dira.
- **Gizarte transferentzien eraginkortasuna pobrezia larriaren murrizketan.**
- Gero eta **eskari** eta presio handiagoa **gizarte zerbitzuen gainean.**
- **Hiriko ekialdeko zonan metatzen dira langabezia tasarik handienak, baita luzaroko langabe eta atzerriko langabe kopururik handienak ere.**
- **Lan merkatuaren prekarietateak** (ordainsari txikiak, kontratatzeko modu berriak, behin-behinekotasunak, lanaldi partzialak,…) enpleguaren inklusio ahalmena higatu du.
- **Langabeziak eragin handiagoa du zenbait kolektiborengan**; itxuraz, zenbait faktorek bat egiten du horiengan (prestakuntzak, adinak, generoak).
- Donostiako **langabezia tasak** Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako **batez bestekoen azpitik** daude eta erreferentziako hirien eta lurraldeen balioetatik urrun.




LAGUNAK
DO FESTA
O VASCO



02
JARDUERA EKONOMIKOA, GARAPEN IRAUNKORRERAKO BALDINTZA

Ekonomia eta dinamismo ekonomikoa

- Ekonomiaren ezaugarriak
- Enpresa jarduera eta haren egitura sektoriala
- Populazio aktiboa, enplegua eta lan merkatua

Hirian finkatuta dauden eta garapen bidean dauden sektoreak

- Merkataritza
- Gastronomia, ostalaritza eta turismoa
- Kultura eta sormena
- Enpresentzako zerbitzuak eta zerbitzu aurreratuak
- Jakintzako zerbitzu intentsiboak eta I+G


Ekonomia eta dinamismo ekonomikoa

Ekonomiaren ezaugarriak

Ekonomia, aberastasuna. BPG

- Donostia **zerbitzu hiria** da, turismo eta merkataritza jarduera bizia duena, ongi garatutako hirugarren sektoreko eta industriako lurralde baten hiriburua.
- **Jarduera ekonomikoari** dagokionez, hiriak urtean 7.361 milioi euroko aberastasuna sortzen du gutxi gorabehera (sortutako BPGa, Donostia Sustapenaren zenbatespena, 2016rako datua). Hiriaren garapen ekonomikoa ahalbidetu duen dinamismo ekonomikoa moteldu egin da krisialdi ekonomikoaren ondorioz; dena den, BPGak azken urteetan izandako bilakaerak susperraldia erakusten bide du.
- Donostiako **biztanleko BPGa** (39.495 €/pertsona, 2016an) Estatuko handienetako bat da eta gainerako euskal hiriburuen gainetik dago. (Iturria: Donostia Sustapena).

BPG-AREN BILAKAERA DONOSTIAN



Iturria: EUSTAT. Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

BPGA ZERBITZU SEKTOREAN OINARRITZEN DA GEHIENBAT

BPGAK MANTENDU EGITEN DU BERE HAZKUNDEA, 2013AN UNERIK BAXUENA IZAN ZUEN KRISIALDIAREN ONDOREN

- **BPGaren banaketa sektorialaren** arabera (2015), jarduera ekonomikoa, enplegua bezalaxe, dibertsifikazio maila adierazgarria erakusten duen zerbitzu sektorean oinarritzen da (% 85,7).
- Beste enpresa batzuentzako zerbitzu gisa bildutako jarduerek BPGaren % 26,8 ekartzen dute; atzetik datoz merkataritza eta konponketa (% 11,9), ostalaritza (% 5,9), osasun jarduerak eta hezkuntza (% 12,6 eta % 12,2 hurrenez hurren), administrazio publikoa (% 8,3) edo gizarte zerbitzuak (% 2,6).
- Industria jarduerak BPGaren % 5,6 inguru ekartzen du 2015ean, dibertsifikazio sektorial handiarekin, eta eraikuntza sektorearen ekarpena ere antzekoa da (% 5,5), egitura hori oso gutxi aldatu baita azken hamarkadan, eta lehen sektorearena, aldiz, hutsaren hurrengoa besterik ez da (% 0,1) (Iturria: Donostia Sustapena).

DONOSTIA. BPG-AREN BANAKETA. 2015



Iturria: Donostia Sustapena, Donostiako Estrategia Bulegoak landua










Ekonomia, aberastasuna. BEG

- BEGa (uneko prezioak milaka €-tan, 2015) 6.072.903 mila € da; kopuru hori Bilbokoa (9.720.819 mila €) eta Gasteizkoa (7.235.838 mila €) baino handiagoa da eta % 2,8ko igoera izan du aurreko urteaz geroztik (2014).
- Sektorekako banaketa bat dator hirugarren sektoreak BEGaren % 88,7 hartzen duen zerbitzu hiri batekin: merkataritzak % 20 hartzen du, administrazio publikoak, hezkuntzak, osasunak eta gizarte zerbitzuek % 26,6, eta gainerako zerbitzuek % 42,8. Industria jardueraren barruan, Donostiako manufaktura industriak % 3,6ko ekarpena egiten dio bertako BEGari eta energiaren sektoreak % 1,8koa.
- Donostiako BEGaren pisuak (2015ean) Donostialdeko guztizkoaren % 61,8 hartzen du; bereziki adierazgarria da adierazitako esparruan zerbitzu sektorean duen pisua (Donostiak % 71,3ko ekarpena egiten dio eskualdeko BEGari sektore horretan). Banaketa hori hiriaren tipologiari dagokio (haren barruan, nabarmentzekoa da, halaber, hiriak edizioaren, irudiaren, soinuaren eta TBaren azpisektorean (% 73,2) eta informatikakoan (% 70,2) duen pisua). Eraikuntzaren sektorean eskualdeko % 48,7 ekartzen du, industrian % 20,8 eta lehen sektorean % 18,5. Erreferentziako hiriei begiratuta ikus daiteke desberdintasun nabarmenak daudela Bilborekin (haren BEG globalak % 40,5 hartzen du eskualdean, % 46 zerbitzuetan eta % 11,9 industrian) eta Gasteizekin (guztizkoaren % 93,7, zerbitzuen % 94,8 eta industriaren % 91,8) (Iturria: EUSTAT).

BEGA GAINERAKO EUSKAL HIRIBURUENA BAINO TXIKIAGOA DA ETA DONOSTIALDEKO GUZTIZKOAREN % 62 HARTZEN DU, OSO BEREZIKI ZERBITZU SEKTOREAN

BEG-AREN BANAKETA DONOSTIAN, 2015



Iturria: EUSTAT, Donostiako Estrategia Bulegoak landua

Enpresa ehuna eta haren bilakaera

- Donostiako ekonomia **enpresa ehun oso dibertsifikatuan** (batez ere enpresa txiki eta ertainek osatzen dute) eta jarduera ekonomiko bizian (18.888 establezimendu gutxi gorabehera 2017an) oinarritzen da (Iturria: DIRAE, EUSTAT).
- MikroETE-en bolumena (bat eta bederatzi langile arteko enpresak) nabarmentzen da, guztizkoaren % 92,7 hartzen baitute 2017an; horiei ETE-en % 5,5 gehitu behar zaie. Enpresa handiak (50 langile edo gehiago) hiriko establezimenduen % 1,4 dira (horietatik 7k 500 enplegatu edo gehiago dituzte).
- **Nortasun juridikoari** dagokionez, 2017an establezimenduen erdiak baino gehiago (% 53,9) pertsona fisikoei (autonomoak) dagozkie, % 30 sozietate mugatuei, % 9,5 beste sozietate eta elkarte batzuei dagozkie, % 4 sozietate anonimoei eta gainerako % 1,8 beste forma juridiko batzuei.
- **Jarduera ekonomikoaren bilakaerak** aditzera ematen du, azken urteetako establezimendu kopuruaren arabera, krisialdi ekonomikoaren inpaktuaren ondoriozko jarduera galeraren joera aldatzen ari dela: joera hori gelditu egin da 2014. urteaz geroztik, eta establezimendu kopuru globalean igoera txikia izan dela egiaztatu da. Hala eta guztiz ere, 2017ko 18.888 establezimenduak ez dira iristen krisialdiaren aurreko kopuruetara (2008an 22.862 establezimendu kontabilizatu ziren). Hala, 2008 eta 2017 artean orotara 3.974 establezimendu galdu dira Donostian (horrek esan nahi du % 17,4 egin dutela behera).


- Bildutako azken datuek aditzera ematen dute guztizko establezimendu kopuruak behera egin duela berriz ere 2017an (86 establezimendu gutxiago azken urtean), 229 mikroETE galdu izanak eraginda (zehazki, langile bateko edo biko establezimenduak); alabaina, gainerako establezimendu tipologien tamainaren araberako bilakaerak hazkunde estentsiboa erakusten du geruza guztietan (Iturria: EUSTAT):
- **Tamaina** txikieneko establezimendu tipologiek intentsitate handiagoarekin jasan dute krisialdi ekonomikoa: mikroETE-ek % 18,3ko establezimendu galera izan dute (2008 eta 2017 artean), eta galera are handiagoa izan da langile bat edo bikoen artean (Δ–% 20,2) eta hiru eta bost langile artekoen artean (Δ–% 11,8); aitzitik, tamaina handieneko enpresek (50 langile edo gehiago) handitu egin dute establezimendu kopurua aldi horretan bertan (Δ% 1,2).
- Donostiako **industria establezimenduen** batez besteko tamaina (enplegatu kopurua) 6,2 da 2017an. Bilboko batez bestekoa (5,4) baino handixeagoa da eta urrun dago Gipuzkoako (14,8), Euskal Autonomia Erkidegoko (15,1) eta Gasteizko (22,3) batez bestekoetatik.
- Establezimendu galera intentsitate handiagokoa izan da sozietate mugatuetan (Δ–% 38 2008 eta 2017 artean), sozietate anonimoetan (Δ–% 29,5) eta autonomoen artean (Δ–% 18,2), guztizko batez bestekoaren gainetik.

ENPRESA EHUN DIBERTSIFIKATUA

10 ENPRESATIK 9 ETEAK ETA MIKROETEAK DIRA


ORAINDIK ERE NABARITZEN DA KRISIALDIAREN INPAKTUA ESTABLEZIMENDU GALERAN

DONOSTIAKO ESTABLEZIMENDUAK TAMAINAREN ARABERA. 2017



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

DONOSTIAKO ENPRESA JARDUERAREN BILAKAERA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Auzo eskalako begirada

- Donostiako jarduera ekonomikoaren lurralde banaketari dagokionez, Erdialdea (% 23,6), Gros (% 12,7) eta Amara Berri (% 12,1) dira establezimendu kopuru handiena kontzentratzen duten auzoak, eta haien ondoren daude, neurri txikiagoan, Ibaeta (% 8,3), Antigua-Ondarreta (% 7,6), eta Altza eta Egia (% 6 hurrenez hurren). Establezimendu bolumenaren pisu txikienari dagokionez, aipatzekoak dira Ategorrieta (% 1,5), Ulia (% 1,4) eta bereziki Igeldo (% 0,6) eta Zubieta (% 0,3) (Iturria: Donostia Sustapena).
- Dena dela, **dentsitateari** dagokionez (hots, establezimendu kopuruaren eta populazioaren arteko erlazioa), zerrenda nabarmen aldatzen da: Zubieta (‰ 207,5) da dentsitate handieneko auzoa (populazio bolumen urriaren ondorioz), eta bere atzetik datoz Miramon-Zorroaga (‰ 155,5) eta Erdialdea (‰ 148,4), Loiola (‰ 129,4), Martutene (‰ 119,6) eta Amara Berri (‰ 113,4‰), baita Añorga eta Gros ere (‰ 110); horiek guztiak hiri osoaren batez bestekoaren (‰ 101,8) gainetik daude.

ESTABLEZIMENDUAK AUZOZ AUZO (%) (2016)




Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

ERDIALDEA DA JARDUERA HANDIENEKO AUZOA, ETA URRUN DAUDE GROS ETA AMARA BERRI

ESTABLEZIMENDU KOPURUAK BILAKAERA DESBERDINA IZAN DU KRISIALDIAREN ONDORIOZ


- **Jarduera ekonomikoaren bilakaera**, azken urteetako (2014-2016) establezimendu kopuruaren arabera, desberdina izan da auzo batetik bestera: dirudienez Intxaurrondo izan da aldi horretan establezimendu galera intentsitate handienarekin jasan duena (–55, ia establezimenduen % 6 galduta), eta Egia (–38) eta Erdialdea (–12) dira hurrengoak; dena den, ugariagoak dira establezimendu kopuruaren bilakaera positiboa izan duten auzoak: Amara Berri (72), Añorga (59) eta Antigua (55), berrogeita hamar baino gehiago, Aiete (46), Gros (44) eta Miramon-Zorroaga (36).

ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA (2014-2016)



Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

ESTABLEZIMENDU DENTSITATEA (‰) (2016)



Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Enpresa jarduera eta haren egitura sektoriala

- Donostiako **jarduera ekonomikoaren hirugarren sektoreratzea** establezimenduen espezializazio sektorialean ere islatzen da. Establezimenduen % 88,1 zerbitzu sektorekoak dira, % 8,4 eraikuntzakoak, % 3 industria sektorekoak (industria eta energia) eta gainerako % 0,4 nekazaritza eta abeltzaintzakoak. (Iturria: EUSTAT).
- Merkataritza, garraioa eta ostalaritza zerbitzu sektorearen % 37 dira; izan ere, Donostian 2017an dauden establezimendu guztietatik, hirutik bat (% 33) azpisektore horretakoa da. Jarduera profesionalak % 28,5 dira (establezimendu guztietatik lautik bat), administrazio publikoak, hezkuntzak eta osasunak % 14,6 biltzen dituzte, finantza eta aseguru jarduerek % 3,8, informazioari eta komunikazioei dagozkienek % 3,1, higienizinen jarduerek bezalaxe; gainerako % 9,5 arte jarduerei eta beste zerbitzu batzuei dagozkie.
- Sektoreka, eraikuntza da establezimendu galera intentsitate handienarekin jasan duena (Δ–% 50,2 2008 eta 2017 artean), eta, gero, industria sektorea (Δ–% 27,6) eta zerbitzuak oro har (Δ–% 11,2). Kopuru absolutuetan, alabaina, establezimendu galera handiagoa da zerbitzuetan (–1.105) eraikuntzan (–1.606) edo industrian (–214) baino.

Ezaugarri sektorialak

JARDUERA BAKOITZEKO ESTABLEZIMENDU KOPURUA

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Establezimenduak guztira	**22.862**	**22.322**	**21.151**	**20.395**	**19.616**	**19.128**	**18.767**	**18.870**	**18.974**	**18.888**
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza					101	116	78	81	88	83
Industria eta energia	776	745	729	698	648	618	606	613	591	562
Eraikuntza	3.202	3.008	2.634	2.387	2.107	1.916	1.746	1.705	1.681	1.596
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	7.616	7.426	7.025	6.794	6.644	6.527	6.366	6.333	6.256	6.241
Informazioa eta komunikazioak	577	594	551	544	500	511	502	513	523	509
Finantza eta aseguru jarduerak	689	687	679	686	667	647	676	654	644	635
Higiezinen jarduerak	901	935	859	797	643	543	466	450	517	514
Jarduera profesionalak	5.003	5.044	4.859	4.674	4.654	4.591	4.589	4.656	4.725	4.744
Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna	2.036	2.032	2.050	2.125	2.122	2.162	2.236	2.323	2.382	2.425
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.930	1.851	1.765	1.690	1.530	1.497	1.502	1.542	1.567	1.579


Iturria: EUSTAT, Jarduera ekonomikoen direktorioa. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

ZERBITZU HIRIA

ENPRESA EHUNAREN BILAKAERA DESBERDINA ETA MERKATARITZA JARDUERAREN NOLABAITEKO PISU GALERA

- Zerbitzuen 2008 eta 2017 arteko establezimendu kopuruaren bilakaera negatiboak eragin desberdina erakusten du azpisektoreka: merkataritza, garraioa eta ostalaritza izan da bolumen handiena galdu duena, establezimendu kopurua nabarmen jaitsi baita (–1.606, hau da, Δ–% 18,1); jaitsi egin dira, halaber, higiezinen jarduerak (–387 establezimendu, Δ–% 43), arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk (–351, Δ–% 18,2), informazioa eta komunikazioak (–1.375, Δ–% 8,1), finantza eta aseguru jarduerak (–54, Δ–% 7,8) eta jarduera profesionalak (–259, Δ–% 5,2). Aitzitik, administrazio publikoak, hezkuntzak eta osasunak 389 establezimendu gehiago ditu (Δ% 19,1).
- Azken urtean (2016-2017), **establezimendu galera** (–86) orokorra izan da eraikuntzan (–85), industrian (–29) eta nekazaritzan (–5); zerbitzu sektoreko establezimendu kopuruak gora egin du (33), eta galerak izan dira merkataritzan (–15), informazioan eta komunikazioetan (–14), finantza jardueretan (–9), higiezinen jardueretan (–3) eta beste zenbaitetan; beste azpisektore batzuetan, hala nola jarduera profesionaletan (19), administrazioan (43) eta arte jardueretan (12) gora egin du establezimendu kopuruak.

DONOSTIAKO ESTABLEZIMENDUAK. 2017



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


Enpresa ehuna eta haren bilakaera

- **Establezimendu berrien urteko sorrera tasa** enpresa jardueraren dinamismoa neurtzeko adierazle egokia da. Bilakaera gorabeheratsuaren barruan, establezimendu berrien hazkunde tasak behera egin du arian-arian Donostian krisialdiaren urterik latzenetan. Joera hori alderantzikatu egin zen 2013. urteaz geroztik tasa igo zenean, baina azken urtean behera egin du berriz. Portaera hori orokorrean errepikatzen bide da erreferentziako lurraldeetan.
- Nabarmendu beharra dago, halaber, tasa horren balioak handiagoak direla Donostian (9,1 mila biztanleko 2017an). Izan ere, Gipuzkoako (6,9 mila biztanleko), EAEko (6,82 mila biztanleko), Bilboko (8,3 mila biztanleko) eta Gasteizko (5,6 mila biztanleko) batez bestekoak baino handiagoak dira. Hortaz, Donostiako enpresa ehunak erreferentzia horietakoak baino dinamismo handiagoa duela pentsa daiteke.

DONOSTIA DINAMIKOAGOA ESTABLEZIMENDU BERRIAK SORTZEN

EKINTZAILETZA JARDUERA ESTATUKOA BAINO TXIKIAGOA DA

ESTABLEZIMENDU BERRIEN SORRERA TASA (‰)




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Ekintzailetza

- **Ekintzailetza jarduerak** eta haren enpresa dinamikak lurralde baten dinamismoa eta baliabideak, enplegua eta berrikuntza sortzeko ahalmena testatzen laguntzen dute. Donostiari buruzko informazio kualitatiborik ezean, *Global Entrepreneurship Monitor* proiektuaren EAE-GEM 2016 txostenaren emaitzek argia ematen dute Euskal Autonomia Erkidegoko ekintzailetzaren inguruan. Euskal Autonomia Erkidegoko ekintzailetza jarduerak (**TEA indizea**) egonkortzeko joera du, krisialdi ekonomikoaren ondorioak nabaritu dituen hamarkada irregularraren ondoren; aldi horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko TEA indizea Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa izan da. 2016an, Euskal Autonomia Erkidegoko 18 eta 64 urte arteko biztanleen % 3,3k (% 5,2 Espainian) negozio berri bati ekin diote (3,5 urte baino gutxiagoko antzinatasunekoa); halaber, %4,3k (2015ean % 3,7) adierazi dute hurrengo 3 urteetan ekiteko asmoa dutela (ekintzaile potentzialak).
- Txosten horren arabera, ekintzaile gehienak 35 eta 45 urte arteko gizonak dira, goi mailako prestakuntza eta goi mailako errentak dituztenak; emakumeen ekintzailetza jardueraren indizea gizonen indizearen azpitik mantentzen da denboran zehar, nahiz eta aldea gero eta txikiagoa den. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen ari diren negozioak edo negozio berriak dituzten ekintzaileen % 84,9 zerbitzu sektorean zentratu dira; % 16,7 jakintzako zerbitzu intentsiboak dira.

EAE-KO EKINTZAILETZA JARDUERA



Iturria: GEM, EAE. 2016. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.





Auzo eskalako begirada

- Auzoen araberako **ezaugarri sektorialek** 2016. urtean adierazten dutenez, Erdialdea da establezimenduei dagokienez hirugarren sektorearen pisu handiena duen auzoa (establezimenduen % 94,4 zerbitzu sektorean kokatzen dira); hurbil ditu Gros (% 92,6) eta Amara Berri (% 90,4), eta, neurri txikiagoan, Aiete eta Antigua-Ondarreta (% 89 biak), Egia (% 86,9) eta Ibaeta (% 86,3). Aitzitik, hirugarren sektoreko establezimenduen proportzio txikiena duten auzoak Martutene (% 62,6) eta Altza (% 66,8) dira, Igeldo (% 75,5) eta Loiolarekin (% 78,6) batera (Iturria: EUSTAT).
- Industria sektoreak pisu handiagoa du, establezimenduei dagokienez, Martutenen (% 19,1) eta, aski urrun, Zubietan (% 8,2), Miramon-Zorroagan (% 5,2), Altzan (% 4,6), Añorgan (% 4,8), Ibaetan (% 4,3) eta Igeldon (% 3,6); horiek guztiak hiriko batez bestekoaren (% 3,1) gainetik daude, eta Egia eta Intxaurrondo bat datoz Donostiako batez bestekoarekin (% 3,1).
- Eraikuntzaren sektorearen pisuak udal batez bestekoa (% 8,9) gainditzen du Altzan (% 27,2 hartzen du), Loiolan (% 17,1), Martutenen (% 16,6), Mirakruz-Bidebietan eta Intxaurrondon (% 14,9 biak), Igeldon (% 10,9), Egian (% 9,7) eta Ibaetan (% 9,2).
- Adierazi beharra dago, halaber, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak Igeldon (% 10) eta Zubietan (% 4,9) duen pisua. Gainerako auzoetan, Altzan (% 1,4) eta Martutenen (% 2) izan ezik, hutsaren hurrengoa besterik ez da (% 0,5 Aieten eta Antigua-Ondarretan, Donostiako batez bestekoa, eta txikiagoa gainerakoetan). Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak (landa ekonomia) behera egin du arian-arian azken mende laurdenean, bai maila profesionalean bai osagarri gisa.


ERDIALDEA DA HIRUGARREN SEKTOREKO ESTABLEZIMENDU GEHIEN DUEN AUZOA, AMARA BERRI ETA GROSEKIN BATERA.

MARTUTENE AUZO INDUSTRIALENA DA.

ERAIKUNTZAK PRESENTZIA HANDIAGOA DU ALTZAN, LOIOLAN ETA MARTUTENEN

IGELDO ETA ZUBIETA LANDATARRENAK DIRA

JARDUERA EKONOMIKOAREN BANAKETA, 2016



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


Populazio aktiboa, enplegua eta lan merkatua.

Jarduera eta okupazio tasa

- Jardueraren arabera, 2016an populazioaren (<16) % 48,98 okupatuta dago (76.264 pertsona), % 7 populazio langabeari dagokio eta gainerako % 44 populazio ez aktiboari. Adin taldeen arabera, % 46 25 eta 44 urte arteko pertsonak dira, % 49 45 eta 64 urte artekoak, % 3,6 okupatuta dauden pertsona gazteenak eta gainerako % 1,1 65 urte eta gehiagokoak (Iturria: EUSTAT).
- **Jarduera tasak** bilakaera positiboa izan du 2015 arte, eta 2016an behera egin du (ehuneko –1,28 puntu, 2015eko % 49,62tik 2016ko % 48,64ra). Portaera hori antzekoa da, beherakada txikiagoa izan bada ere, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan eta gainerako euskal hiriburuetan. **Emakumeen jarduera tasa** batez bestekoaren azpitik mantendu da denboran zehar (2016an % 45,91), eta Donostiako tasa globalaren antzeko portaera izan badu ere, arian-arian murriztu egin du aldea (ehuneko 7,12 puntu 2001ean eta ehuneko 2,43 puntu 2016an).

- Donostiako **okupazio tasak** bilakaera gorabeheratsua izan du azken hamarkadetan. 1991n % 39,8ra iritsi zen eta % 51,2raino igo zen 2006an; 2015ean % 49,5 da eta % 48,98raino murrizten da 2016an. Donostiako okupazio tasa Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren (% 48,7) antzekoa da, Gipuzkoakoa (% 49,6) eta Gasteizkoa (% 50,1) baino txikiagoa eta Bilbokoa (% 45,1) baino handiagoa.
- Donostiako **emakumeen okupazio tasa** (% 45,8) gizonena (% 53,3) baino txikiagoa da 2016an. Alabaina, hobera egin du pixkanaka eta laburtu egin dira aldeak (genero etena ehuneko 21,3 puntukoa zen 1996an eta ehuneko 7,4 puntukoa 2016an).


OKUPAZIO TASA (ADIN TALDEAK), DONOSTIA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


- Adin taldeen arabera alde adierazgarriak antzematen dira. 55 eta 64 urte arteko populazioaren okupazio tasak gora egiten du pixkanaka (ehuneko 29,2 puntu 2006 eta 2016 artean), % 61,2ra iritsi arte. Populazio gaztearen (16 - 24 urte) okupazio tasa urriagoa da (2016an % 19), krisialdiaren ondorioak jasan ditu eta.

DONOSTIAKO BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA. 2016




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua

JARDUERA TASA, DONOSTIA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

OKUPAZIO TASAK, DONOSTIA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Enpleguaren eta kontratazioaren bilakaera

- Krisialdi ekonomikoak zuzeneko eragina du enpleguan; lehenik **enplegu sorrera** moteltzen da eta ondoren enplegua galtzen hasten da. Inflexio puntu gisa, 2014an egiaztatzen da enplegua suspertzen ari dela. Izan ere, Donostian urte arteko aldakuntzaren ehunekoa positiboa izan ez ezik, gora egiten du urtetik urtera. 2017an urte arteko aldakuntza % 3,16ra iristen da. Gehikuntza hori urte horretako Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa (% 2,36), Gipuzkoakoa (% 1,83) eta Bilbokoa (% 2,52) baino handiagoa da, baina Gasteizkoa (% 3,53) baino txikiagoa (Iturria: EUSTAT).
- **Kontratuen** bolumenean izandako bilakaera (urtean erregistratutako kontratuak 1.000 biztanleko) gorabeheratsua da, krisialdiaren ondorioak islatzen baitira, bereziki 2008 eta 2010 artean. 2014az geroztik aldaketa nabaritzen da, kontratuen bolumenak gora egiten baitu arian-arian, jarduera handiagoaren ondorioz. Portaera antzekoa da hiru euskal hiriburuetan eta, era berean, EAE osoko batez bestekoaren parekoa da. Dena den, dirudienez susperraldia intentsitate handiagokoa da Donostian (2017an ‰ 619,7), aise gainditzen baitu beste euskal hiriburuetako kontratazioa (Bilbo, ‰ 544,8, eta Gasteiz, ‰ 516,3) eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa (‰ 437,1) eta Gipuzkoakoa (‰ 390,6).

URTEAN ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

2014, ENPLEGURAKO ETA KONTRATAZIORAKO INFLEXIO URTEA. NABARMENTZEKOA DA, ALABAINA, PREKARIZAZIOA AREAGOTU IZANA, EMAKUMEAK NEURRI HANDIAGOAN ERAGINPEAN HARTZEN DITUEN KONTRATU ERROTAZIOA NABARMEN HANDITU BAITA


DONOSTIAKO ENPLEGUA. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


- **Kontratu mugagabeen** bilakaeran antzeman daitekeenez, lanaren prekarizazioa gora egiten ari da behin-behinekotasunari dagokionez, batez ere kolektibo jakin batzuetan. Kontratu mugagabeek Donostian urtean izan duten bilakaerak portaera egonkor samarra erakusten du: 2011 arte behera egin zuen nolabait (% 6) eta gero gora, 2017an % 8,1era iritsi arte. Emakumeen artean, kontratu mugagabeak % 56,3 dira 2017an, ehuneko hori murriztu egin baita azken bosturtekoan (2014an emakumeen kontratuen % 61 ziren). Adierazgarriagoa da populazio gaztearen (30 urte baino gutxiago) kontratu mugagabeen ehunekoak izan duen bilakaera, 2005ean % 44,5 baitziren eta % 34raino jaitsi baitira. **Kontratu errotazioaren indizeak** igoera progresiboa islatzen du, eta generoaren araberako irakurketak pisu handiagoa erakusten du emakumeen artean; gainera, gizonekiko aldeak gora egin du azken urteetan.

URTEKO KONTRATU MUGAGABEAK, DONOSTIA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

KONTRATU ERROTAZIOAREN INDIZEA, DONOSTIA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Enpleguaren banaketa

- Zerbitzu hiria denez, Donostiako **enpleguaren banaketa**, Gizarte Segurantzako afiliazioaren arabera (2017), zerbitzuei dagokie gehienbat (% 84,7, 84.513 enplegu); ondoren daude industria (% 10,6, 3.481 enplegu), eraikuntza (% 4,4, 4.299 enplegu) eta lehen sektorea (% 0,3, 162 enplegu). Banaketa sektorial horren bilakaera oso txikia izan da azken urteetan: zerbitzu sektoreak igoera txikia izan du (% 84,3 hartzen du 2013an), industriaren eta eraikuntzaren kalterako (% 10,9 eta % 4,5, hurrenez hurren, 2013an) (Iturria: EUSTAT).
- 2017an, Donostiako ia hiru enplegutatik bat administrazio publikoari, hezkuntzari eta osasunari dagokio (% 32,4, 29.921 enplegu), eta merkataritza, garraioa eta ostalaritza da hurrengoa (lau enplegutatik bat, % 24,5, 23.024 enplegu). Jarduera profesionalek eta osagarriek (% 20,4, 18.818 enplegu), informazioari eta komunikazioei dagozkien jarduerekin (% 3,5, 3.276 enplegu), finantza eta aseguru jarduerekin (% 2,8, 2.584 enplegu) eta higiezinen jarduerekin batera (% 0,9, 817 enplegu) osatzen dute enpresentzako zerbitzuen multzoa (horiek guztiek, orotara, hiriko enpleguaren % 27,6 hartzen dute, hots, 25.496 enplegu); gainerako % 6,6 arte jarduerei eta beste zerbitzu batzuei dagokie (6.072 enplegu).

- Enpresaren tamainaren arabera, Donostian mikroenpresek sortutako enpleguaren pisua guztizkoaren % 35,8 da 2017an; ehuneko hori Bilbokoa (% 37,9), metropoliko batez bestekoa (% 36,9) eta Gipuzkoako lurraldekoa baino txikixeagoa da eta EAE osoko ehunekoaren (% 35,4) antzeko samarra. Pisu hori txikiagotu egin da arian-arian (2003an enplegu guztiaren % 40,8 zen eta 2017an % 35,8 izatera iritsi da).
- Tipologiari dagokionez, Gizarte Segurantzako afiliazioaren % 35,5 administrazio langileei dagokie, % 34,5 zuzendaritzako langileei, % 20,9 produkzioko ofizialei eta gainerako % 9 langile kualifikatu gabeei eta aprendizei. Aldaketa txikiak izan dira azken urteetan.


ZERBITZU SEKTOREAK ERE PISUA DU ENPLEGUAN (ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK HEREN BAT)

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIO TASA. 2017



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

ENPLEGUAREN BANAKETA SEKTORIALA DONOSTIAN. 2017



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN PROFILA




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Enpleguaren pisuak lurralde banaketa desberdina du Donostian: Erdialdea da lotutako enplegu handiena duena (2016an hiriko enplegu osoaren % 20,3), eta haren atzetik datoz Ibaeta (% 17,9) eta Miramon-Zorroaga (% 11,6) eta urrutixeago Amara Berri (% 8) eta Gros (% 7,2). Aitzitik, enpleguaren ehuneko txikienak hiriaren mendebaldeari dagozkio: Igeldo (% 0,3) eta Zubieta (% 0,7) (Iturria: Donostia Sustapena).
- Enpleguak bilakaera desberdina izan du 2014-2016 hirurtekoan: hiriaren mendebaldeak izan du enplegu hazkunderik handiena, bereziki Erdialdeak (795 enplegu gehiago 2014 eta 2016 artean) eta Ibaetak (564 enplegu gehiago). Neurri txikiagoan bada ere, enpleguak gora egin du Gros (224), Añorga (201), Aiete (180) eta Amara Berri (164) auzoetan ere. Bestalde, aldi horretan enplegua galtzen duten auzo gehienak hiriaren ekialdean daude: Martutene (–180 enplegu), Egia (–88), Mirakruz-Bidebieta (–94) eta Altza (–19).

Auzo eskalako begirada


DONOSTIAN ENPLEGUAK BANAKETA DESBERDINA DU. MENDEBALDEKO AUZOEK ENPLEGUAN GORA EGIN DUTE ETA EKIALDEKOEK BEHERA

ENPLEGUA AUZOZ AUZO (%) (2016)



Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

ENPLEGATUTAKO PERTSONA KOPURUAREN BILAKAERA (2014-2016)



Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Lan merkatuaren bilakaera

- **Aldaketa sozioekonomiko eta teknologikoak** eragin erabakigarria izaten ari dira lan merkatu gero eta globalizatu eta teknifikatuagoan, non informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, gauzen Internet eta 4.0 industria errealitate bihurtu diren.
- Arestian adierazi den **populazioaren zahartze** progresiboak ziur aski zuzeneko eragina izango du aktiboa izan daitekeen populazioaren murrizketan epe laburrean, populazio kohorteak (orain populazio piramidearen oinarrian daude eta murritzagoak dira pertsona kopuruari dagokionez) lan merkatuan sartzen diren eta gaur egungo populazio aktiboa erretiro adinera hurbiltzen den heinean (egungo tasa eta aurreikuspenek aditzera ematen dute ordezkapen arazoak izango direla eta iragartzeko modukotzat jotzen da lan merkatuan populazio immigrantea sartzeko premia).
- *Gipuzkoako enplegu eta kualifikazio beharrei buruzko 2018ko inkestak* aurreikusten duenez, **kontratazioak gora** egingo du (urtean 7.000 bat enplegu berri Gipuzkoa osorako), hedapenak, jarduera berriek eta abar eraginda. Horrez gain, 3.900 lanpostutan **erretiroen eta/edo txandakatzeen ondorioz** izango diren **ordezkapenek** 3.900 enplegu inguru ekarriko dituzte. Adierazten du, halaber, kontratatzen duten Gipuzkoako enpresen ia laurdenek zailtasunak dituztela behar dituzten lanbide profilak aurkitzeko (Iturria: ADEGI).

ZALANTZA ETA ZIURGABETASUN HANDIAK LAN MERKATUAN

- **Jakintzaren gizarteak** prestakuntza egokian, malgutasunean, diziplina aniztasunean eta gizarte trebetasunetan, “trebetasun bigunetan” (*soft skills*) oinarritutako **gaitasunak** eskatzen ditu (Iturria: Munduko Foro Ekonomikoa, Lanaren etorkizuna). Enplegu eredu berriek bultzada handiagoa hartzen dute, enpresa errealitate berrien eta elkarlaneko ekonomiaren garapenarekin eta langileen mugikortasun handiagoarekin batera.
- Aldi berean, krisialdi ekonomikoak eta kontratazioa erraztera eta malgutzera bideratutako liberalizazio neurriek **enpleguaren zati baten prekarizazioa** ekarri dute, orokorrean gora egin baitute aldi baterako lan kontratuek eta lanaldi partzialak (prekarizazio horrek eragin handiagoa du emakumeen artean).
- **Prestakuntza** lan merkatuaren eskarietara **egokitzeari** dagokionez, gogora ekarri behar da zein garrantzitsuak diren etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza iraunkorra. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide heziketa dualaren garrantzia nabarmendu behar da. Izan ere, Gipuzkoan Lanbide Heziketako 1.200 ikaslek 700 euskal enpresatan osatzen dituzte ikasketak.
- **Etengabeko prestakuntzari** dagokionez, Europar Batasunak ezartzen du gutxienez 25 eta 64 urte arteko biztanleen % 15ek prestakuntza ekintzetan parte hartu beharko luketela 2020an (Europako 2020 Estrategiaren helburuak). Euskal Autonomia Erkidegoaren helburua % 17 erdiestea da. EAEn 2017an ikaskuntza iraunkorrean parte hartzen duten biztanleen (25-65 urte) ehunekoa (% 12,20) Estatuko batez bestekoa (% 9,40) eta Europakoa (EB28, % 10,80) baino handiagoa da, baina Europako iparraldeko herrialdeetako batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa (guztiak daude % 26tik gora, Suedia buru dela, % 29,6) (Iturria: EUSTAT. EIS Adierazleen Panela). Donostiako 2011ko datuak hobexeagoak dira: helduen % 18,5ek etengabeko prestakuntzako ekintzetan parte hartzen dute (% 17,6 Bilbon eta % 18,3 Gasteizen) (Iturria: Donostiako Gizarte Inklusiorako Diagnostikoa).


Donostia testuinguruan: hirien benchmarkina

- Estatuko erreferentziako hiriei dagokienez, Donostiako 2016ko **jarduera tasa** (% 54,1) haietako gehienen azpitik dago; izan ere, Gijón (% 51,9) eta Santander (% 52,9) dira Donostiako jarduera tasa baino txikiagoa duten bakarrak. Bilbok (% 54,1) eta Oviedok (% 54,3) Donostiako balioen antzekoak dituzte, Girona (% 62,5) edo Zaragoza (% 59,2) bezalako hirietatik urrun (Iturria: INE).
- Europako eskalan (2014), Donostiako jarduera tasa (% 53,5) oso urrun dago hiri hauei dagozkien tasetatik: Norwich (% 75,2) edo Utrecht eta Zürich (biak % 71,1), Tromsø (% 70,4), Oxford (% 70,9), Berna (% 70,3) edo Bristol (guztiak % 70etik gora). Adierazi beharra dago hiri horietan guztietan emakumeen jarduera tasa nabarmen txikiagoa dela: % 47,8 Donostian, % 62,9 Norwichen, % 67,2 Oxforden edo % 64 Bristolen (Iturria: EUROSTAT).
- **Populazio okupatuari (20-64) dagokionez**, populazio aktiboaren aldean (2015), Donostiak ehunekorik handiena du (% 90,88) Estatuko erreferentziako hirien artean, eta Gasteiz (% 87,9) eta Bartzelona (% 87,5) dira hurrengoak.
- **Zerbitzuetako eta industriako enpleguak** erreferentziako hirien tipologia taxutzen laguntzen du: Gironak (% 94,3) erakusten du zerbitzuetako pisurik handiena, Bartzelonarekin (% 90,5) eta Valentziarekin (% 91,8) batera, Donostiaren (% 89,2) gainetik, non industriako enplegua (% 5,3) urrun baitago Gijón (% 18,4), Gasteiz (% 17,6) edo Zaragoza (% 10,9) bezalako hirietatik.

	Bartzelona	Bilbo	Donostia	Gijón	Girona	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
20-64 urteko okupatuak, populazio aktiboaren gainean (%) (2016)*	87,45	83,7	**90,88**	81,04	84,27	83,57	85,86	84,22	76,83	81,46	87,86	84,58
Jarduera tasa (%) (2016) (*)	58,03	54,16	**54,13**	51,92	62,54	54,34	55,33	52,92	58,39	57,21	57,17	59,24
Zerbitzuetako enpleguaren proportzioa (%) (2015)	90,47	85,84	**89,17**	73,58	94,26	91,17	88,83	88,85	87,89	91,83	78,11	82,85
Industriako enpleguaren proportzioa (%) (2015)	4,94	7,04	**5,32**	18,4	2,43	3,69	6,08	6,61	4,67	2,64	17,62	10,89

Iturria: INE, Hiri adierazleak. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.
(*) Populazio aktiboaren kontzepzioa desberdina da eta EUROSTATen adierazlera egokitzen da

JARDUERA TASA. EUROPAKO HIRIAK (2014)



Iturria: EUROSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua, EUROSTAT abiapuntu hartuta


Hirian finkatuta dauden eta garapen bidean dauden sektoreak

Merkataritza

Merkataritza jarduera

- Sektore ekonomikoen artean **merkataritzaren** garrantzia eta mugimendua nabarmentzen da. Nagusiki merkataritza hiri tradizionala da eta bere eragin eremuak gainditu egiten du eremu metropolitarra eta Iparralderaino eta Akitaniaraino iristen da.
- **Merkataritzak**, adierazik zabalenean (handizkako merkataritza, txikizkako merkataritza, konponketa zerbitzuak, garraioa, ostalaritza eta sukaldaritza), Donostiako jardueraren % 33 hartzen du; pisu hori mantendu egiten da krisialdi ekonomikoaren ondorioak gorabehera (beherakada nabarmena establezimendu kopuruan: 2008an 7.616 establezimendu eta 2017an 6.241, hots, bilakaera Δ–% 18,1 izan da) (Iturria: EUSTAT).
- Intentsitate handiko merkataritza, kultura eta aisia bizitzari esker, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko bidaiari ugari erakartzen ditu. Sektoreak gaur egun hiriko jardueraren % 14,7 hartzen du (2017ko establezimendu kopuruan). Izan ere, negozio berriak irekitzeko eta autoenplegurako aukera onak dituen sektoretzat hartu izan da tradizionalki (batez ere krisialdia baino lehen).

TXIKIZKAKO MERKATARITZA, DONOSTIA




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

HIRU ESTABLEZIMENDUTATIK BAT MERKATARITZAKOA DA

MERKATARITZAK GOGOR JASAN DU KRISIALDI EKONOMIKOAREN ERAGINA

- **Txikizkako merkataritza jarduerak** krisialdiaren inpaktua jasan du (hasi zenetik murriztu egin establezimendu eta enplegu kopurua), baita kontsumo ohituretan izan diren aldaketen (*online* erosketa…) eragina eta populazioaren zahartzeari eta belaunaldi aldaketari dagozkionak ere.
- 2008an txikizkako merkataritzako 3.513 establezimendu zeuden erregistratuta eta 2017an 2.769 establezimendu. Txikizkako merkataritzako establezimenduen erroldan izan den beherakada progresiboa eta etengabea izan da (2008 eta 2017 arteko bilakaera negatiboa Δ–% 18,7 izan da), baina dirudienez beherakada hori moteltzen ari da azken urteetan (Iturria: EUSTAT).
- Hala eta guztiz ere, **txikizkako merkataritza eskaintza** zabala da. Hiriak batez besteko merkataritza dentsitate handia du (1.000 biztanleko establezimendu kopuruan neurtua; Donostiak 2017an ‰ 14,3 du eta bilakaera negatiboa izan du: 2011n ‰ 15,85 eta 2003an ‰ 16,56), Bilbokoa (2017an ‰ 13,64) baino handixeagoa eta Gasteizkotik (‰ 10,16) eta EAEko batez bestekotik (‰ 11,26) aski urrun.

TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN DENTSITATEA, DONOSTIA (‰)




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Txikizkako saltegien gaineko presioak gora egin du, bereziki Erdialdean, kate handiei lotutako establezimenduak ireki izanaren ondorioz. Horrek eragin nabarmena du zonaren berezitasun galeran, lurzoruaren prezioen igoeran… Horren guztiaren ondorioz, era berean, murrizten ari da nortasuna eta merkataritza aniztasuna. Hizpidera ekarri beharra dago hurbileko merkataritzak oinarrizko ekipamendu gisa duen garrantzia, populazio egoiliarraren beharrak asetzeari dagokionez; hiriko zona jakin batzuetan zuzkidura estrategikoa da.
- Merkataritza kate handien sarrerak eragina du, bestalde, fiskalitateari eta zerbitzu aurreratuei dagozkien itzuleretan, kate handi horiek beste eskualde edo estatu batzuetan baitituzte egoitza nagusiak.
- Nabarmentzekoa da, era berean, merkataritzaren eta turismoaren arteko erlazioa, hiriko erdialdeko auzoetako txikizkako merkataritza sektorearen zati bat turismora bideratuta dago eta.

Auzo eskalako begirada merkataritzan


- **Txikizkako merkataritza eskaintzak** 2.769 negozio biltzen ditu 2017an; horietako asko saltegi tradizionalak eta familiarrak dira, saltegi txikiak. Ia horien erdiak Erdialdean (% 38,4, 1.063 establezimendu) eta Grosen (% 18,4, 512 establezimendu) daude; horien atzetik daude Amara Berri (% 11,6, 323 establezimendu), Antigua (% 6,9, 193 establezimendu) eta Altza (% 5,6, 55 establezimendu). Txikizkako merkataritza eskaintza txikiena duten auzoak Miramon-Zorroaga (4 establezimendu, hots, % 0,1) eta Igeldo (2 establezimendu, % 0,1) dira (Iturria: Donostia Sustapena).
- Establezimenduen eta populazioaren arteko erlazioari dagokionez, Erdialdea (‰ 48,8 establezimendu 2016an) eta Gros (‰ 27,5) Donostiako **txikizkako merkataritza dentsitatearen** batez bestekoaren gainetik daude eta Añorga haren parean (‰ 14,3); Igeldok (‰ 1,8), Aietek (‰ 1,9) eta Ategorrieta-Uliak (‰ 2,4) dituzte baliorik txikienak.
- Erdialdeak ia **txikizkako merkataritzako enpleguen** erdiak kontzentratzen ditu (3.356 enplegu 2016an); gero Gros (1.094 enplegu), Amara Berri (835) eta Intxaurrondo (727) daude, eta Loiola (24 enplegu) eta Miramon-Zorroaga (31) dira kopuru txikienak dituztenak.

TXIKIZKAKO MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUAK. 2016




Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

TXIKIZKAKO MERKATARITZAN ENPLEGATUTAKO PERTSONAK. 2016



Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN DENTSITATEA (‰) (2016)



Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.





Gastronomia, ostalaritza eta turismoa

Gastronomia eta turismoa

- Donostiako gastronomia hiriaren kulturaren eta nortasunaren garrantzi handiko osagaia da. Haren garrantziak eta ospeak nazioarteko ezagumendua merezi izan dute eta mundu osoan duen erakargarritasuna finkatzen laguntzen dute. Bertan aurki daiteke mundu osoko biztanleko Michelin izarren kontzentrazio handienetakoa, 17 Michelin izar (hiru izarreko hiru jatetxe), eta *Basque Culinary Center* (Espainiako lehenengo Gastronomia Zientzien Unibertsitatea).

			Culinary Scene	Quality of Service	Restaurants/10,000	% of Fast Food Outlets	Diversity of Cuisine	Vegetarian and Vegan Options	Rating of High end restaurants	Quality of Street Food	Affordability (with PPP)	Affordability forVisitors	Hours Worked at Min. Wage to Afford a Dinner for 2	Total
Ranking	Ciudad	Country	Input of Critics			Accessibility and Variety				Quality		Affordability		
1.	**DSS**	**Spain**	**10.00**	**9.50**	**36.56**	**2.65**	**7.95**	**5.99**	**10.00**	**2.98**	**7.82**	**6.08**	**5.42**	**8.09**
2.	Tokyo	Japan	9.50	8.80	90.32	0.74	9.47	2.01	9.82	2.67	6.95	2.44	5.60	7.98
3.	New York City	United States	9.10	8.20	10.96	15.31	8.88	9.11	9.08	8.04	10.00	4.06	3.27	7.81
4.	Barcelona	Spain	9.60	8.10	51.53	5.50	8.93	6.55	8.30	4.55	7.56	5.36	5.78	7.72
5.	Singapore	Singapore	8.90	8.20	16.93	6.21	9.44	5.05	8.42	5.56	9.84	2.95	10.40	7.58
6.	Paris	France	8.70	7.50	73.26	2.59	8.20	6.12	9.78	3.28	7.12	2.16	4.92	7.54
7.	Madrid	Spain	9.40	8.50	29.40	2.91	7.90	4.81	8.33	2.67	7.83	6.84	5.23	7.47
8.	Lima	Peru	9.60	8.50	2.86	3.55	8.04	5.53	8.45	7.25	7.20	8.06	14.92	7.44
9.	London	United Kingdom	8.90	9.20	20.67	12.90	9.12	8.08	8.08	4.48	7.24	2.70	4.76	7.41
10.	Munich	Germany	8.10	9.00	20.92	2.97	8.26	7.56	8.54	3.62	8.34	4.80	3.96	7.31


Iturria: www.caterwings.co.uk.

- Hainbat faktore dira Donostia hiri gastronomiko nagusi gisa finkatzen laguntzen dutenak. Horien erakusgarri, Caterwings enpresak egindako 2017ko helmuga gastronomiko onenaren analisian (estatistika datuak eta aditu gastronomikoak oinarri hartuta), Donostia da 100 hirien sailkapenaren buru, hainbat alderdi baloratu ondoren: sukaldaritzako agertokia, zerbitzuaren kalitatea, sukaldaritza eskaintza (dentsitatea, ‰), janari lasterreko establezimenduen presentzia, sukalde aniztasuna, aukera beganoak eta begetarianoak, goi mailako lokaletako janariaren kalitatea, kaleko janariaren kalitatea, eta bertakoentzako zein kanpotarrentzako eskuragarritasuna (errentaren arabera) (Iturria: www.caterwings.co.uk).
- Posizionamendu hori “euskal sukaldaritza berriaren” parte izan ziren sukaldari belaunaldi handi horren ondoriozkoa da. Haatik, hauteman da, salbuespen ezagunak izan ezik, ez dagoela txandakatzerik eta sukaldaritza tradizionaleko jatetxeen eskaintza galtzen ari dela. Nolanahi ere, diagnostiko sakonagoa behar da eta estrategia gastronomikoa formulatu beharko da hirian.
- Hiri turistikoa da, ostalaritza eskaintza zabala eta askotarikoa duena. **Ostalaritzako eta sukaldaritzako** 1.364 establezimendu daude 2017an (hirian dauden establezimendu guztien % 7,2). 2008az geroztik (1.377 establezimendu) bilakaera negatiboa izan du, arian-arian behera egin baitu establezimendu kopuruak, joera horren inflexio urte izan zen 2014 arte. Izan ere, urte horretatik aurrera establezimenduak urtero gehitzen dira, eta kopurua 2008ko balioetara hurbiltzen da (2008 eta 2017 artean Δ–% 0,9) (Iturria: EUSTAT).
- Ostalaritza jarduera hori (ostalaritza eta sukaldaritza), mila biztanleko 7,3 establezimenduko batez besteko dentsitatearekin 2017an, Bilbokoa (7,5) baino txikixeagoa da eta Gasteizko (5,8) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (6,2) batez bestekoaren gainetik dago.
- Sektoreak gutxi gorabehera 7.700 pertsonari ematen die enplegua 2016an (Donostiako enpleguaren % 7,6); jatetxeetan, janari postuetan eta edari establezimenduetan (tabernak, kafetegiak…) enpleguak 6.314 pertsona hartzen ditu (establezimenduko 5,4 pertsona batez beste). Hotelek eta antzeko ostatuek 1.264 pertsonari ematen diete enplegua (establezimenduko 7,2 pertsona batez beste). (Iturria: Donostia Sustapena).

- Sukaldaritza establezimendu eta zerbitzuek 1.164 establezimendu biltzen dituzte 2017an (hiriko establezimendu guztien % 6,2): 468 jatetxe eta janari postu, 669 taberna eta kafetegi eta beste zerbitzu batzuetako (otordu-zerbitzuak…) 27 establezimendu. 2008an eskaintza 1.238 establezimendukoa zen eta bilakaera negatiboa izan du (Δ–% 6) 2008 eta 2017 artean (2014tik aurrera kopuruak etengabe egin du gora) (Iturria: EUSTAT).


AZKEN URTE HAUETAN, GASTRONOMIA IZAN DA HIRIAREN ARRAKASTAREN ZUTABEETAKO BAT. ETORKIZUNERAKO ESTRATEGIA BAT FORMULATU BEHARKO DA, LORTU DEN POSIZIONAMENDUA BALIATUTA SEKTOREAK HIRIAN DITUEN ERRONKAK AZTERTUKO DITUENA

OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUAK, DONOSTIA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

OSTALARITZA ETA SUKALDARITZA, DONOSTIA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.










- Auzoei dagokienez, ostalaritzaren banaketa desberdina ikusten da auzo batetik bestera: Erdialdeak establezimenduen ehunekorik handiena kontzentratzen du (% 34,1, 452 establezimendu 2016an), eta ondoren daude Gros (% 15,1, 204 establezimendu), Amara Berri (% 10,4, 133 establezimendu), Antigua (% 6,9, 92 establezimendu) eta Altza (% 5,9, 79 establezimendu); pisurik txikiena Añorgari eta Miramon-Zorroagari dagokie (% 0,7, 9 establezimendu) (Iturria: Donostia Sustapena). 1.000 biztanleko ratioaren araberako dentsitateak (ostalaritzako establezimenduen dentsitatea) bestelako irudia islatzen du, auzo zehatz bakoitzaren berezitasunak gogoan izan behar dira eta.

Ostalaritza. Auzo eskalako begirada


TURISMO JARDUERAREN ETENGABEKO HAZKUNDEA NAHITAEZ UZTARTU BEHARKO DA TURISMO EREDU IRAUNKORREKO EREDU BATEKIN, HERRITARREKIKO ETA NATURA ETA HIRI INGURUNEAREKIKO BIZIKIDETZA EGOKIA AHALBIDETZEKO, HIRIAREN BIZI KALITATEA ETA BEREZKO NORTASUNA MANTENDUKO DITUEN ALDI BEREAN

OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUAK. 2016



Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

OSTALARITZAREN DENTSITATEA (‰) (2016)



Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Turismoa

- Donostiako garapen turistikoa hiriak berezko dituen natura, hiri eta kultura baliabideetan eta kalitate handiko zerbitzu eta instalazioetan oinarritzen da. Zenbait mendetako tradizioa du kalitateko helmuga turistiko gisa, eta bere erakargarritasuna baloratu eta egiaztatzen duten sari ugari eskuratu ditu dagoeneko: Europako hondartzarik onena eta munduko 6.a (Tripadvisor Travellers' Choice, 2018); Europako 5. helmuga turistikorik onena (European Best Destinations, 2017); nazioarteko kongresuen Espainiako helmuga lehenetsia (Kongresu eta Konbentzioen Nazioarteko Elkartea - ICCA); Euskal Autonomia Erkidegoko helmugarik onena biltzarkideen iritziz (Eusko Jaurlaritzaren IBILTUR MICE, 2014); SICTED kudeatzailerik onena (FITUR azokan bikaintasun turistikoari laguntzeko zerbitzua baloratzen du, 2013); kalitate turistikoko helmugarik onena (SICTED, 2010) (Iturria: Donostia Turismoa & Convention Bureau). Ildo berean, Exceltur elkartearen UrbanTUR 2016 azterketaren arabera, Donostia laugarren hiria da Estatuko helmuga turistikoen sailkapen globalean, eta 200.000 biztanle baino gutxiagokoen artean hobekien baloratua gainera.
- Turismo jardueraren hazkunde nabarmenak turismo eredu iraunkorra garatzeko erronka aurkezten dio hiriari, herritarrekiko eta natura eta hiri ingurunearekiko bizikidetza egokia ahalbidetzeko, hiriaren bizi kalitatea eta berezko nortasuna mantenduko dituen aldi berean.
- Espazioaren turismo erabilera selektiboa da, eta urte sasoiko pilaketa eta masifikazio turistikoko arazoak ditu eremu jakin batzuetan, batez ere Parte Zaharrean, Kontxa pasealekuan edo Boulevard zumardian, nahiz eta presentzia turistikoa gero eta gehiago nabarmentzen den Gros edo Tabakalera bezalako beste eremu batzuetan.

Gastronomia eta turismoa

- Hotel eskaintza globala (hotelak eta bestelako ostatuak, landetxeak…) zabala eta askotarikoa da, eta establezimendu kopurua beherakada txikiren batekin mantendu da krisialdia hasi zenetik: hotel eskaintzak 101 hotel establezimendu zituen 2011n (18 hiru izar eta gehiagokoak eta 83 izar batekoak edo bikoak eta pentsioak), eta 141 establezimendu 2017an (20 hiru izar eta gehiagokoak eta 121 izar batekoak edo bikoak eta pentsioak). Datu horiek hotel plazen gorakadaren eragina izango dute, horizonte hurbilean hotelak eta pentsioak irekitzea aurreikusten baita (20 hotel eta bi mila plaza inguru).
- Eskainitako plazak (plaza/egun) 28.491 dira 2017an (17.303 hiru izar eta gehiagokoak eta 11.187 izar batekoak edo bikoak). Hortaz, hiriko ostatu turistikoetako eskaintza mila biztanleko 39,48 plazakoa da batez beste, hau da, Bilbokoa (mila biztanleko 25,48), Arabako hiriburukoa (mila biztanleko 14,94) eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa (mila biztanleko 20,9) baino handiagoa.
- Adierazi beharra dago hiriko ostatu eskaintza nabarmen transformatu dela azken urteetan bitartekaritza plataformen etorrerarekin, ostatu turistikoen eskaintzak eta eskariak ere nabarmen egin baitute gora. Erabilera turistikoko etxebizitzekin zuzeneko erlazioa duten alderdiak dokumentu honen IV. atalean aztertuko dira.






Donostia testuinguruan: hirien benchmarkina

- Estatuko erreferentziako hiriei dagokienez, Donostia (mila biztanleko 41,9 plazako eskaintza 2015ean) Bartzelonaren (mila biztanleko 49,3) atze-atzetik dago establezimendu turistikoetan erabilgarri dagoen plaza kopuruari dagokionez, eta bere atzetik daude Santander (mila biztanleko 38), Sevilla (35,3) eta Valentzia (30,7); gainerako hiriak urrun saman daude eskaintzari dagokionez.
- Turismo jarduerari dagokionez (1.000 biztanleko urteko ostatu gau turistikoen kopurua neurtuta), Bartzelona da, berriz ere, kopuru handienak dituena (mila biztanleko 11.990,7 ostatu gau), eta gero Donostia (7.289,6) eta Sevilla (7.279,5). Gainerako hiriek proportzio txikiagoa dute (Bilbok, esaterako, 4.728,8) (Iturria: INE).

TURISMO OSTATUKO PLAZAK



Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistikoen inkesta. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


	Bartzelona	Bilbo	Donostia	Gijón	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
Urteko ostatu-gau turistikoak (mila biztanleko) 2015	11.990,7	4.728,8	7.289,6	3.220,3	3.976,8	3.333,9	4.860,3	7.279,5	5.282,2	2.325	2.516,1
Establezimendu turistikoetan erabilgarri dagoen plaza kopurua (mila biztanleko) (2015)	49,28	23,45	41,90	25,76	26,70	19,79	38,02	35,25	30,72	16,02	16,68

Iturria: INE, Hiri adierazleak. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Turismoa eta ostalaritza

- Turismo jardueraren garapena aldekoa izaten ari da oso: **bisitari** kopuruak gora egiten du urte batetik bestera.
- Hiriak 622.407 bisitari/turista hartu zituen 2016an, Europako Kultura Hiriburutza ospatu zen urtean (bidaiari kopurua % 30,6 igo da arian-arian 2011. urteaz geroztik). 2017an, hiriburutzaren ondorengo urtean, joerak bere horretan jarraitu du, hiriak urte horretan 640.628 bisitari/turista hartu baititu. Hortaz, hazkundea % 34,4koa izan da 2011-2017 aldian). Atzerriko bisitari kopuruak igoera nabarmena izan du, bisitarien % 54 izan baitira 2017an (% 77,2ko gehikuntza 2011-2017 aldian), Estatutik datozen bisitarien proportzioak (bisitarien % 46) izan duena baino askoz ere handiagoa (gehikuntza apalagoa, % 4,7koa, 2011-2017 aldian) (Iturria: EUSTAT).

DONOSTIAKO BIDAIARIEN SARRERA. OSTATU GAUAK



Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistikoen inkesta. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


BISITARIEN/TURISTEN ETA OSTATU GAUEN GEHIKUNTZA, MILA PERTSONAKO PLAZA RATIO HANDIEKIN. ATZERRITARREN EHUNEKOAREN IGOERA ADIERAZGARRIA

- **Ostatu gauetarako** erabilitako datuek antzeko portaera adierazten dute: 2016an 1.265.546 ostatu gau izan ziren eta 2017an 1.293.880. Osatu gauen bilakaera progresiboa izan da: % 36,1 igo dira 2011-2017 aldian. Jatorriaren arabera, 2017an ostatu gauen % 43,3 Estatutik etorritako pertsonei dagozkie eta gainerako % 56,7 atzerritik etorritakoak dira (2011-2017 aldian ostatu gauetan izandako gehikuntza askoz handiagoa izan da atzerria jatorri dutenen artean (Δ% 81,2) Estatua jatorri dutenen artean (Δ% 2,7) baino).
- Halaber, ostatu gauen igoera askoz ere adierazgarriagoa izan da pentsioetan eta izar bat eta hiru arteko hoteletan (2017ko ostatu gauen % 65; % 66,4ko gehikuntza 2011-2017 aldian), hiru izar eta gehiagoko hoteletan baino (ostatu gauen % 35; % 21,9ko gehikuntza 2011-2017 aldian).
- **Hotel okupazioa**, plazen araberako okupazio mailari dagokionez, % 63,2koa da 2017an (Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren (% 54,2) eta gainerako euskal hiriburuetakoaren gainetik: Bilbon % 60,7 eta Gasteizen % 50,7). 2011-2017 aldian % 13,7 igo da. Urte berean, **logelen araberako okupazio maila** % 73,1ekoa izan da (% 75,5 hiru izar edo gehiagoko hoteletan eta % 69,2 pentsioetan eta izar bat eta hiru arteko hoteletan) eta antzeko gehikuntza izan du aldi horretan bertan (2011-2017 aldian Δ% 14,2).

Turismoa


- Donostia, hiri turistiko gisa finkatua, lehen mailako helmuga turistikoa da, eta gero eta atzerriko bisitari gehiago hartzen ditu (frantsesak, jakina, baina baita iparramerikarrak, australiarrak, britainiarrak edo alemanak ere, eta Japonia edo Errusia bezalako beste puntu batzuetatik datozen pertsonen presentzia ere nabarmen handitu da. Izan ere, Estatuko bisitari kopurua baino handiagoa da azken urteetan.
- Arrazoien artean daude, besteak beste, **erakargarri gastronomikoa** (inkestatutakoen % 25ek adierazten dute (Basquetourren Ibiltur azterketaren arabera) gastronomia dela Donostia helmuga turistiko gisa hautatzeko motibazio nagusia), “city-break” helmuga egokia izatea (% 26), “eguzkia eta hondartza” (% 16) edo kultura helmuga aproposa izatea (kultura eta ekitaldiak, % 12).

DONOSTIAN EGINDAKO KONGRESUAK ETA KONBENTZIOAK



Iturria: SS Convention Bureau, Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

DONOSTIARA BIDAIATZEKO MOTIBAZIO NAGUSIA 2014 (%)



Iturria: Basquetour, Ibilitour Aisia. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- **Biltzar eta azoka turismoari (MICE)** dagokionez, biltzar jarduera (kongresuak, konbentzioak eta jardunaldiak) finkatu egin da arian-arian ekitaldi kopuruari, iraupenari eta ordezkariei dagokienez.
- Dirudienez, azken urteetako bilakaera atzean uzten ari da krisialdi ekonomikoaren ondorioak (nabarmentzekoa da 2012an izandako jarduera garrantzitsua, urte horretan 37.899 ordezkari bildu zituzten 154 ekitaldi izan baitziren). 2016an 42.209 ordezkari bildu zituzten 147 biltzar ekitaldi egin ziren. Ekitaldiek 2,69 eguneko iraupena izan zuten batez beste. Azken urteetako bilakaerak erakusten duenez, ekitaldi kopurua % 75 igo da 2008-2016 aldian. 2017rako datuak okerragoak dira, baina espero zitekeena 2016an, kultura hiriburu izanik, erregistratutako igoeraren ondoren (111 ekitaldi 2017an eta 147 izan ziren 2016an; alabaina, ordezkarien kopuruan aldea ez da hain handia izan, 38.380 eta 42.209, eta azoka kopuru bera izan da, 30).


Kultura eta sormena

- Hiriaren erakargarrien artean kultura nabarmentzen da, alderdi bikoitzean: kultura sektorearen dinamismoa, nortasunez hornitua, sustraituta eta nazioartean proiektatuta dagoen kultura agertokia, kultura azpiegitura eta ekitaldi nagusien **erakarmen** handiarekin batera (urtean milioi erdi pertsona inguruk bisitatzen dituzte museo eta kultura ekipamendu nagusiak; jendetza hori kultura ekitaldi nagusiek biltzen dutenaren antzekoa da).
- Kultura jarduera, haren zuzkidurak eta herritarrek bertan parte hartzea hertsiki lotuta daude hiri baten bizi kalitatearekin (alderdi hori egoki jasotzen da dokumentu honen IV. atalean).
- **Musika ekitaldiek**, hala nola Jazzaldiak eta Musika Hamabostaldiak, urtez urte finkatzen dute beren ospea, eta nabarmen hazi dira orokorrean, eta 2001. urteaz geroztik bertaratutakoen kopurua bikoiztera ere iritsi dira. **Zinemaldietan** (Nazioarteko Zinemaldia, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Giza Eskubideen Zinemaldia edo Surfilm Festibala) ikusle kopuruak gora egiten jarraitzen du pixkanaka. Izan ere, krisialdi ekonomikoaren aurreko mailak ia berreskuratu direla esan daiteke.
- **Nazioarteko Zinemaldia** Film Ekoizleen Elkarteen Nazioarteko Federazioaren (FIAPF) kategoria gorenekoa da (A kategoria); 2017an egindako 65. edizioan eutsi egin die bere garrantziari eta nazioarteko erakargarriari, eta 3.911 akreditazio, 45 herrialdetatik etorritako komunikabideak eta 174.312 ikusle bildu ditu (Iturria: Zinemaldia).
- Heineken Jazzaldiak, Estatuko jazzaldi zahar eta garrantzitsuenetakoak, 156.500 ikus-entzule bildu ditu 2017an. Erakarmen handiko beste ekitaldi eta jaialdi batzuen artean, nabarmentzekoak dira Aste Nagusia (1.140.000 bertaratu 2017an, gutxi gorabehera aurreko urtean baino % 7,9 gehiago), Olatu Talka (33.000 bertaratu 2017an) edo dFERIA (13.000 bertaratu) (Iturria: Donostia Kultura).
- San Telmo Museoa berriz irekitzea (136.000 bisitari 2017an), Tabakalera irekitzea edo Musikeneren egoitza berria eraikitzea, era berean, oso lagungarriak izan dira hirian kultura jarduerak gora egiteko.
- Kultura hiriburutzarako hautagaitzak eta, gero, Europako Kultura Hiriburu izendatzeak eta 2016. urtean Europako Kultura Hiriburu izatea ospatzeak berak nazioarteko proiekzio handiagoa eman diote Donostiaren kultura nortasunari, hirian kultura jarduera bultzatu duten aldi berean. 2016an kultura hiriburutzarekin zuzenean erlazionatuta zeuden 2.476 jarduera egin ziren hiri osoan zehar sakabanatuta, nahiz eta kontzentrazio handiagoa izan zuten Egia auzoan (% 22,5, Tabakalera izanik kokaleku pribilegiatuetako bat), Parte Zaharrean (% 19) eta Grosen (% 11).

Turismoa eta kultura

JAIALDIEK ERAKARPEN AHALMEN HANDIA IZATEN JARRAITZEN DUTE, KRISIALDIAREN ONDORIOZKO BEHERAKADAREN OSTEKO GEHIKUNTZAREN ONDOREN. AZKEN URTEETAN NOLABAIT EGONKOR MANTENTZEN ARI DA

DONOSTIAKO NAZIOARTEKO ZINEMALDIA. BILDUTAKO JENDEA



Iturria: Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


Kultura eta sorkuntza industriak

- Adierazitakoarekin bat, kultura sektorearen garapena, oro har, intentsitate handikoa izan da 2001. urtetik krisialdi ekonomikoa hasi arte. Kultura enpresen kopuruak, ikus-entzunezkoen sektoreko enpresek edo sorkuntza industria esaten zaienen multzoak hazkunde nabarmena izan zuten eta, gero, krisialdiko urte latzenetan, beherakada adierazgarria izan zuten jarduera bolumenean (bai establezimendu kopuruan bai enpleguan). Azken urteetan igotzen ari dira.
- **Sorkuntza eta kultura industrien** jarduerak % 3 eta % 5 arteko ekarpena egin zion EAEko BPGari 2014an; proportzio hori % 7 zen Europar Batasunean (Iturria: INNOBASQUE). 2016an 14.459 enpresa zeuden Euskal Autonomia Erkidegoan sorkuntza eta kultura industria gisa sailkatuta, establezimendu guztien % 9 ziren eta euskal biztanleen % 8ri ematen zieten enplegua (70.000 pertsona inguru).
- Donostian, 2016an, 3.397 establezimendu (hiriko guztizkoaren % 17,9) sorkuntza eta kultura industrietakoak ziren. Krisialdi ekonomikoaren inpaktua establezimendu kopuruaren bilakaeran islatzen da (negatiboa 2008 eta 2014 artean). Halere, azken urteetan kopurua igotzen hasi dela ikus daiteke, baina ez da iristen krisialdiaren aurreko mailara. 2008-2016 aldiko bilakaerak saldo negatiboa du (Δ–% 11,1) (Iturria: EUSTAT).

Sorkuntza industrien sektorea 15 azpisektore hauek osatzen dute: arkitektura, diseinua, moda, eduki digitalak eta ikus-entzunezkoak, zinema, bideo jokoak, musika, arte eszenikoak, ikusmen arteak, publizitatea eta marketina, kultura ondarea, artisautza, edizioa eta hizkuntzaren industriak.

SORKUNTZA INDUSTRIAK DONOSTIAKO ESTABLEZIMENDUEN % 17,9 DIRA


DONOSTIAKO SORKUNTZA INDUSTRIAK



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Sorkuntza industrien barruan, egokia izan daiteke **ikus-entzunezkoen eta eduki digitalen sektoreari** erreparatzea. Sektorea garatzera bideratutako jarduketek (PI@ - Ikus-entzunezkoen eta Eduki Digitalen Berrikuntza Gunea sortzea eta sektorearen tokiko klusterra bultzatzea) eta joera eta aurrerabide teknologikoek, hirian ezarrita dagoen jarduerarekin batera, hazkunde ahalmen nabarmena iragartzen diote sektoreari. 2008an ikus-entzunezkoen sektoreko 521 establezimendu zeuden Donostian, eta 2017an 451 establezimendu (behin-behineko datua); 2008-2017 aldian bilakaera negatiboa izan da beraz (Δ–% 13,4). Sektoreak hiriko establezimenduen % 2,4 hartzen ditu 2017an (Iturria: EUSTAT).

DONOSTIAKO IKUS ENTZUNEZKOEN ETA EDUKI DIGITALEN SEKTOREA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Donostialdeko **ikus-entzunezkoen eta eduki digitalen sektoreko klusterrak** % 3,4ko ekarpena egiten dio hiriko BPGari (Donostia Sustapenaren 2013rako zenbatespenen arabera) eta 2.454 enplegu sortzen ditu (horien % 40,1 emakumeei dagozkie) (Iturria: Donostia Sustapena).
- Sorkuntza ekonomiaren eta tokiko aukera nitxoen garapenaren barruan, hirian **modaren kluster** bat bultzatzeko lanean ari dira. Modaren azpisektoreak 999 establezimendu zituen 2016an, merkataritza eta industria establezimenduak zenbatuta (2008an 1.192 ziren), hots, Donostiako establezimendu guztien % 5,5, eta zuzenean 2.750 pertsonari ematen zien enplegua (enplegu guztiaren % 2,6) (Iturria: Donostia Sustapena).







Enpresentzako zerbitzuak eta zerbitzu aurreratuak


Enpresentzako zerbitzuak eta zerbitzu aurreratuak

- Oro har, enpresa zerbitzuen sektoreko jarduerek sektore dinamikoa eratzen dute hirian. Jarduera horren barruan, **enpresentzako zerbitzu aurreratuak** deritzenak (bezeroen, hots, beste industria edo zerbitzu enpresen jarduerarako bitarteko elementuak diren zerbitzuak egiten dituztenak) estrategikoak dira industria lurralde batean dagoen zerbitzu hiri batean. Izan ere, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzen laguntzen dute (zerbitzuak egiten dizkieten enpresena), garapen ekonomikoa eta berrikuntza ahalbidetzen dute eta, era berean, epe ertainean hazteko aukera handiak ditu, industria eta zerbitzu sektoreak berregituratzen diren heinean.
- Era berean, goi mailako kualifikazioko langileei enplegua ematen dieten eta teknologia berrien erabilera intentsiboa egiten duten jakintzako jarduera intentsiboak dira.
- Enpresarekin konektatutako **zerbitzu aurreratu** horien jarduerak, 5.099 establezimendurekin (2017ko behin-behineko datua), establezimendu guztien % 27 hartzen ditu Donostian (zerbitzu guztien % 30,6), industria ingurune aurreratuan dagoen hirugarren sektoreko hirian (Iturria: EUSTAT).

Enpresentzako zerbitzu aurreratuek honako hauek hartzen dituzte barnean: produktu eta prozesu ingeniaritzak, ikerketa, IKT zerbitzu aurreratuak, ingurumen ingeniaritzak eta zerbitzuak, ikerketa eta garapena, teknologikoak ez diren jardueretako ingeniaritzak/aholkularitzak…

DONOSTIAKO LAU ESTABLEZIMENDUTATIK BAT ENPRESEI ZERBITZU AURRERATUAK EGITEN ARITZEN DA

DONOSTIAKO ENPRESENTZAKO ZERBITZU AURRERATUAK



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua *2017, behin-behineko datuak.

- Oro har, sektore horrek jarduera eta hazkunde handia izan du azken hamarkadetan, baina krisialdi ekonomikoak eragina izan zuen establezimendu kopuruan, eta murrizketa handia izan zuen 2009 eta 2012 artean (orduan iritsi zen 4.765 establezimendu izatera). Azken urteetako zifrek susperraldirako joera erakusten dute: 2015ean 4.981 establezimendu kontabilizatu ziren, eta 2017an 5.099 (behin-behineko datua). Errefe-rentziako aldirako (2008-2017) bilakaera % 1,3ko gehikuntza izan dela zenbatetsi da (Iturria: EUSTAT).

Jakintzako zerbitzu intentsiboak eta I+G


Jakintzako sektore intentsiboak

- **Jakintzako sektore intentsiboek** (enpresa jarduera horietan gutxienez langileen % 33k goi mailako prestakuntza dute, hots, unibertsitatekoa/graduondokoa) pisu handia dute hirian. Izan ere, orotara Donostiako establezimenduen % 42,4 hartzen dituzte 2016an (8.053 establezimendu).
- Horien barruan, kopuruari dagokionez, jakintzako merkatu zerbitzu intentsiboak (jarduera juridikoak, zientifikoak eta teknikoak, enpresa aholkularitza, arkitektura eta ingeniaritza, saiakuntza eta analisi teknikoak, publizitatea…) nabarmentzen dira: 3.949 enpresa inguru, hiriko jakintzako zerbitzu intentsiboen % 48.
- Jakintzako sektore intentsiboen bilakaera krisialdi ekonomikoaren eraginpean egon da. Halere, 2012. urteaz geroztik gora egin du jarduera sektore horretako establezimendu kopuruak (Δ% 3,6), eta berreskuratu egin da krisialdiaren aurreko enpresa bolumena (7.797 establezimendu jakintzako sektore intentsiboetan 2008an; 2008-2016 aldian Δ% 3,3). (Iturria: EUSTAT eta Donostia Sustapena).

Jakintzako sektore intentsibo-KIBS (Knowledge Intensive Business Services) deritzenek honako hauek hartzen dituzte barnean: edizio jarduerak, zinema jarduerak, bideo jarduerak eta telebista prometakoak, soinu grabazioa eta musika edizioa, irrati eta telebistako programazio eta emanaldien inguruko jarduerak, telekomunikazioa, programazioa, aholkularitza eta informatikarekin erlazionatutako beste jarduera batzuk, informazio zerbitzuak, jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak, egoitza nagusietako jarduerak, enpresa kudeaketako aholkularitza jarduerak, arkitekturako eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak, saiakuntza eta analisi teknikoak, ikerketa eta garapena, publizitatea eta merkatu azterketak…


JAKINTZAKO SEKTORE INTENTSIBOEK JARDUERAREN % 42 HARTZEN DUTE

DONOSTIAKO JAKINTZAKO ZERBITZU INTENTSIBOAK



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

JAKINTZAKO JARDUERA TRINKOEN KONTZENTRAZIOA. @ JARDUERAK.




Iturria: bertan landua, MUDS, Bartzelonako Hiri Ekologiaren Ikasgela abiapuntu hartuta

I+G establezimenduak

- **I+G jarduerek**, oro har, pisu handiagoa hartzen dute Gipuzkoan eta EAE osoan. Jarduera horren zati garrantzitsu bat Donostian garatzen da, nahiz eta enpresei dagokienez kopurua apala izan. EUSTATen Jarduera ekonomikoen direktorioaren arabera 2017an 117 I+G establezimendu daude hirian (behin-behineko zifra), hots, Gipuzkoako azpisektorearen % 53,4 eta Euskal Autonomia Erkidego osoaren % 24,8.
- Establezimendu kopuru zenbatetsia (117) enpresei zuzendutako zerbitzu aurreratuen establezimenduen % 2,3 da hirian, eta Donostiako establezimendu guztien % 0,6. Azken urteetan izandako bilakaerak (146 establezimendu 2008an) aditzera ematen duenez, jarduerak % 19,9 egin du behera 2008-2017 aldian (Iturria: EUSTAT).
- Afiliazioaren arabera, I+G establezimenduek 1.699 pertsonari ematen diete enplegua (2016an hirian zeuden enplegu guztien % 1,7). Jarduera horretan enpleguak bilakaera positiboa izan du, 2013-2016 aldian % 7,3ko gehikuntza zenbatetsia izan du eta (Iturria: Donostia Sustapena).

I+G ENPRESEK DONOSTIAKO ENPRESEI ZUZENDUTAKO ZERBITZU AURRERATUEN % 2,3 HARTZEN DITUZTE

DONOSTIAKO I+G ESTABLEZIMENDUAK



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua * 2017, behin-behineko datuak.



Oinarrizko adierazleak

	2001	2007	2016
BPG (€)	5.038.369 (2004)	6.324.868 (2009)	7.361.000
Biztanleko BPGa (€/pertsona)	21.582 (2000)	28.819 (2005)	39.496
BPG (EAE = 100)	105 (2000)	108 (2008)	113 (2012)
Establezimendu kopurua	22.862 (2008)	20.395 (2011)	18.8788 (2017)
Txikizkako merkataritzako establezimenduen kopurua	3.513 (2008)	3.159 (2011)	2.769 (2017)
Txikizkako merkataritzaren dentsitatea (mila biztanleko)	16,6 (2003)	18,1 (2007)	14,3 (2017)
Ostalaritzaren eta sukaldaritzaren dentsitatea (mila biztanleko)	7,1 (2003)	7,4 (2007)	7,3 (2017)
Hotel eskaintza. Establezimendu kopurua (1 eta 2*) + (≥ 3*)	43+14 (2001)	83+18 (2011)	121+20 (2017)
Bidaiarien sarrera. Ostatu gauen kopurua		950.560 (2011)	1.293.880 (2017)
Okupazio maila (logelen arabera)		63,2 (2011)	73,1 (2017)
Kongresuak, konbentzioak. Ekitaldi kopurua	84 (2008)	154 (2012)	147 (2016)
Sorkuntza industriak. Establezimendu kopurua	3.822 (2008)	3.394 (2012)	3.397 (2016)
Zerbitzu aurreratuak. Establezimendu kopurua	5.033 (2008)	4.765 (2012)	5.099 (2017)
Jakintzako sektore intentsiboak. Establezimendu kopurua	7.793 (2008)	7.517 (2012)	8.853 (2016)
I+G establezimenduen kopurua		146 (2008)	117 (2017)
Merkataritza elektronikoa egiten duten enpresak (IKTak erabiltzen dituztenen %)		22,1 (2008)	28,7 (2015)

Hausnarketarako puntuak

- BPGa zerbitzu sektorean oinarritzen da gehienbat
- BPGak mantendu egiten du bere **hazkundea**
- BEGa gainerako euskal hiriburuena baino txikiagoa da eta eskualdeko guztizkoaren % 62 hartzen du.
- **Enpresa ehun dibertsifikatua** (10 enpresatik 9 ETEak eta mikroETEak dira)
- Oraindik ere nabaritzen da **krisialdiaren inpaktua establezimendu galeran**
- **Erdialdea da jarduera handieneko auzoa**, eta urrun daude Gros eta Amara Berri
- Establezimendu kopuruak bilakaera desberdina izan du krisialdiaren ondorioz
- Zerbitzu hiria
- Enpresa ehunaren bilakaera desberdina eta **merkataritza jardueraren nolabaiteko pisu galera**
- Donostia **dinamikoagoa establezimendu berriak sortzen**
- **Ekintzailetza jarduera Estatukoa baino txikiagoa** da
- Erdialdea da hirugarren sektoreko establezimendu gehien duen auzoa, Amara Berri eta Grosekin batera. Martutene auzo industrialena da. Eraikuntzak presentzia handiagoa du Altzan, Loiolan eta Martutenen. Igeldo eta Zubieta landatarrenak dira
- **Zerbitzu sektoreak** ere **pisua du enpleguan** (Administrazio Publikoak heren bat)
- 2014, enplegurako eta kontrataziorako inflexio urtea
- **Enpleguaren lurralde banaketa desberdina** Donostian
- Lan merkatuan argitu beharreko kontuak (…)



- **Azken urte hauetan, gastronomia izan da hiriaren arrakastaren zutabeetako bat.** Etorkizunerako estrategia bat formulatu beharko da, lortu den posizionamendua baliatuta sektoreak hirian dituen erronkak aztertuko dituena
- Turismo jardueraren etengabeko hazkundea nahitaez uztartu beharko da **turismo eredu iraunkorreko** eredu batekin, herritarrekiko eta natura eta hiri ingurunearekiko bizikidetza egokia ahalbidetzeko, hiriaren bizi kalitatea eta berezko nortasuna mantenduko dituen aldi berean
- **Bisitarien/turisten eta ostatu gauen gehikuntza**, mila pertsonako plaza ratio handiekin. **Atzerritarren ehunekoaren igoera adierazgarria**
- **Jaialdiek** erakarpen ahalmen handia izaten jarraitzen dute, krisialdiaren ondoriozko beherakadaren osteko gehikuntzaren ondoren. Azken urteetan nolabait **egonkor mantentzen ari da**
- **Hiru establezimendutatik bat merkataritzakoa da**
- Merkataritzak gogor jasan du **krisialdi ekonomikoaren eragina**
- **Sorkuntza industriak Donostiako establezimenduen % 18 dira**
- **Donostiako lau establezimendutatik bat enpresei zerbitzu aurreratuak** egiten aritzen da
- **Jakintzako sektore intentsiboek jardueraren % 42 hartzen** dute
- **I+G enpresek** Donostiako **enpresei zuzendutako zerbitzu aurreratuen % 2,3** hartzen dituzte







03
ZIENTZIA, EZAGUTZA AURRERATUA ETA BERRIKUNTZA

Ezagutzaren eta berrikuntzaren ekosistema

- Berrikuntzaren euskal estrategia
- Giza baliabideak eta berrikuntza

Zientziaren eta berrikuntzaren hiria

- Berrikuntzaren tokiko sistema
- Ingurune erraztailea. Azpiegiturak
- Espezializazio adimenduna


Ezagutzaren eta berrikuntzaren sistema

Berrikuntzaren euskal estrategia

Berrikuntzaren ekosistema

- Euskal Autonomia Erkidegoak zenbait hamarkadatako ibilbidea egin du industria oinarri sendoa bermatzen eta garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatzen, inbertsio publiko handiak egiteko eta Zientzia eta Teknologia Sistema (parke teknologikoak, ikerketa zentroak eta erakundeak eta berrikuntzari laguntzeko eragile teknologikoak, I+G inbertsioak… oinarri hartuta) bultzatzeko estrategiaren bitartez. Izan ere, horrek sustatu du "berrikuntzaren euskal ekosistema" esaten zaionaren sorrera.
- *Regional Innovation Scoreboard* 2017 (Europako Berrikuntza Adierazleen Panela, 2017koa, Europako Batzordearena) indizearen azken emaitzen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa berrikuntza handiko eskualdeen taldean dago (talde horretako beheko mailan), eta kalifikazio horretan mantentzen ari da urteen joan-etorrian. Panel hori lantzeko analizatutako aldagai guztien artean, EAErako dimentsio positiboenak giza baliabideak, ikerketa sistema erakargarria eta berrikuntzaren aldeko ingurunea dira.

ESKUALDEKO BERRIKUNTZAREN ADIERAZLEEN TAULA, 2017



Iturria: European Commission. Regional Innovation Scoreboard

- Txostenetik ondoriozta daitekeenez, eskualde berritzaileenak herrialde berritzaileenetan daude, baina berritzaile moderatu gisa kalifikatutako herrialdeetan ere badaude eskualde berritzaileak; kasu horretan daude, hain zuzen ere, Piemonte eta Friuli-Venezia-Julia eskualdeak Italian, Bratislava eskualdea Eslovakian eta Euskal Autonomia Erkidegoa Espainian. Eskualdeko berrikuntza ahalbidetzen duten faktoreen artean nabarmen daitezke: berrikuntza sistema orekatua ezartzea, inbertsio publiko eta pribatuen maila egokia konbinatuta, kalitateko hezkuntza eta ikerketa oinarria, enpresen, ikerketa zentroen eta ikastetxeen arteko garapenerako lankidetzarekin edo berrikuntza elkarte eraginkorrekin batera; berrikuntzaren inpaktu ekonomikoa produktu berritzaileen salmenta eta esportazio gisa adierazi behar da, baita, jakina, enplegu moduan ere. Bestalde, funtsezko teknologia erraztaileetako espezializazioak eskualdeko berrikuntzaren errendimendua ahalbidetzen du, bereziki fabrikazio teknologia aurreratuen esparruetan, material aurreratuetan, industria bioteknologian edo fotonikan.
- Berrikuntzaren euskal sistema lehen mailako **azpiegitura eta ekipamendu sarean** eta erakunde publiko eta pribatuen inplikazioan bermatzen da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea (ZTBES) zabala da eta ongi finkatuta dago. Izan ere, *Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren (ZTBP Euskadi 2020)* eta *Espezializazio Adimenduneko Euskal Estrategiaren* (RIS3 Euskadi) ardatz nagusietako bat da.
- Sare hori erakunde publikoek edo ia publikoek (hots, batez ere funts publikoekin finantzatuak) osatzen dute, baina erakunde eta enpresa pribatuek ere parte hartzen dute (beren I+G unitate korporatiboen bitartez…). Sektore pribatuak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean betetzen duen eginkizuna da, hain zuzen, berrikuntzaren euskal ekosistemaren alderdi esanguratsua. Haren barruan, 16 zentro teknologikoak eta IKZk partzuergo publiko batean antolatzen ari dira 2018an, beren koordinazioa hobetzeko eta nazioarteko proiekzioa eta dimentsioa areagotzeko.
- Nabarmendu beharra dago zein garrantzitsuak diren baliabide horien kontzentrazioa eta horien artean sortzen dituzten sinergiak. 2014. urtean 2.684 pertsona arduraldi osoan ari dira lanean I+Gn ZTBES sarean (% 42,2 emakumeak dira; proportzioak gora egin du azken bosturtekoan, 2010. urtean emakumeak % 39,3 ziren eta). ZTBES sarean lan egiten duten langileen artean, 1.871 ikerketan aritzen dira (% 69,7) eta, horien artean, hirutik bat (% 38,7) emakumezko ikertzaileak dira (ehuneko hori zertxobait igo da 2010. urteaz geroztik, orduan emakumezko ikertzaileak % 36,5 ziren eta). ZTBES sarearen barruko I+G gastua 189.642 mila €-koa da 2014. urtean. Gastu horren beheranzko bilakaeran krisialdi ekonomikoak sektore horretan izan duen inpaktua islatzen da (218.762 mila € 2010. urtean) (Iturria: EUSTAT).
- ZTBES sarearen lurralde banaketa kontuan izanik, Gipuzkoa da ZTBES sareko azpiegitura eta eragile teknologiko gehien dituen lurraldea (2018. urtean % 55,4; ikus I. eranskina).
- Alabaina, lurralde banaketa eta pisua, haien tipologiaren arabera, desberdina da: **oinarrizko eta bikaintasunezko ikerketa zentroei** dagokienez, 9 zentroetatik 4 (% 44,4) Gipuzkoan daude (BCBL elkartea - Basque Center on Cognition Brain and Language; Donostia International Physics Center; MPC ikerketa elkartea - Materials Physics Center eta Basque Center for Macromolecular Design and Engineering, POLYMAT Fundazioa). Euskal lurraldean dauden unibertsitate guztiek **unibertsitateetako ikerketa egiturak** dituzte Gipuzkoan (nahiz eta batzuk gainerako euskal lurraldeekin partekatzen dituzten). Adierazi beharra dago, halaber, Gipuzkoan presentzia nabarmena duten **ardatz anitzeko zentro teknologikoen** (% 80 Gipuzkoan daude) edo zientzia, teknologia eta berrikuntzaren **zabalkunderako eragileen** proportzioa (% 85,7 Gipuzkoan; sektore pribatuaren eta Mondragon Korporazioaren pisua adierazgarria da).

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREA (ZTBES)

	EAE guztira	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Donostia	Donostia (%)
Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren zabalkunderako eragileak	7	6		1	4	57,1
Eskaintza/eskari bitartekaritzako eragileak	10	6		4	2	20,0
Eragile bereziak	3			3		0
Oinarrizko eta bikaintasunezko ikerketa zentroak	9	4		5	4	44,4
Ikerketa kooperatiboko zentroak	4	2	1	1	2	50,0
Ardatz anitzeko zentro teknologikoak	10	8		2	4	40,0
Zentro teknologiko sektorialak	6	3	1	2	2	33,3
Unibertsitateetako ikerketa egiturak	9	9		3	5	55,6
Osasun ikerketako institutuak (OII)	2	1		1	1	50,0
Osasun arloko I+G erakundeak	4	2		2	2	50,0
I+G unitateak	57	26	9	22	6	10,5
ZTBES guztira	121	67	11	46	32	26,4
Guztira (%)	100	55,4	9,1	38,0	26,4	26,4

Iturria: https://apps.euskadi.eus/aa40paWebPublicaWar/webPublicaJSP/aa40painicio.do?idioma=eu. (2018ko irailean kontsultatua).
Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Nabarmentzekoa da, halaber, **sareko ikerketa kooperatiboko zentroen** (2) eta **zentro teknologiko sektorialen** (3) erdiak lurralde horretan kokatzen direla, **enpresetako I+G unitateen** kopurua bezalaxe (ia guztien erdiak, 57etatik 26); ildo horretan bertan, **osasun ikerketako institutuen eta osasun arloko I+G erakundeen erdiak eta eskaintza/eskari bitartekaritzako eragileen** % 60 Gipuzkoan kokatzen dira. Aipatu beharra dago, bestalde, **"eragile berezi"** esaten zaien guztiak (3) Bizkaian daudela.
- Era berean, ZTBES sareko zentro eta eragileen presentzia garrantzi handikoa da Donostian (guztizkoaren % 26,4, hogeita hamarretik gora; izan ere, sare horretako erakundeen kontzentraziorik handiena duen euskal udalerria da) (Iturria: bertan landua, http://www.spri.eus/euskadinnova/es/innovacion-tecnologica/vasca-ciencia-tecnologia-innovacion/168.aspx abiapuntu hartuta). Horri, gainera, sarean ez dauden baina aurrerago aztertuko den Donostiako berrikuntzaren ekosistema eratzen laguntzen duten aktibo ugari gehitu behar zaizkio.
- "Berrikuntzako aktiboek" azken urteetan izan duten igoera garrantzitsua neurri handi batean ahalbidetu dute berrikuntzaren eta garapenaren inguruan egindako ahalegin adierazgarriak, ikerketa azpiegituretan egindako inbertsioek eta I+Gko gastuaren hazkunde nabarmenak.

Ikerketan eta berrikuntzan egindako ahalegina


- Europa 2020 Estrategiaren esparruan, I+Gko gastua, BPGaren ehuneko gisa neurtua, % 3an ezartzen da 2020. urterako helburu gisa. 2016. urtean, EB28ko I+Gko batez besteko inbertsioa BPGaren % 2,03ren baliokidea da, Espainiakoa % 1,19 eta Euskal Autonomia Erkidegoa, berriz, % 1,82. Gipuzkoan, zenbatespenen arabera, % 2,3 da eta Donostialderako jasotako azken datuaren arabera (2015), eskualdeko I+Gko batez besteko inbertsioa % 2,03 da, Austria (% 3,09) edo Suedia (% 3,25) bezalako herrialdeetatik urrun (Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT).
- Adierazi beharra dago, alabaina, **I+Gn egindako ahaleginak (BPGaren ehuneko gisa)** bilakaera izan duela azken hamarkadan zehar Euskal Autonomia Erkidegoan: etengabe Estatuko batez bestekoaren gainetik kokatuta, Europako batez bestekoaren gainetik hazi da, 2008. urtean EB28ko batez besteko inbertsioa gaindituta, eta 2012 arte eutsi dio hazkundeari (BPGaren % 2,09 hartzen du, Europako batez bestekoa % 2,02 denean), eta urte horretatik aurrera alderantzikatu egiten du joera, eta inbertsio ahaleginak behera egiten du pixkanaka, 2016. urtean % 1,82ra iritsi arte (Europako batez besteko inbertsioa, aldiz, % 2,03 da urte horretan). Hala, 2014. urtetik aurrera EB28ko batez bestekoaren azpitik kokatzen da, baina Estatuko batez bestekotik urrun.
- Antzeko portaera ikus daiteke Gipuzkoan BPGaren ehunekoan neurtutako I+Gko inbertsioan. Hala eta guztiz ere, EB28ko batez bestekoaren gainetik mantentzen da aldi osoan. 2001. urtean BPGaren % 1,44 zen eta 2008. urtean % 2,23, 1990eko hamarkadaren erdialdera areagotzen hasi zen I+Gko ahaleginarekin jarraikiz, 2012. urtean % 2,62ra iristeko; urte horretatik aurrera behera egiten du 2015 arte (BPGaren % 2,25), eta 2016. urtean gora egiten du pixka bat, BPGaren % 2,30era iritsi arte.







HIRIAN ETA LURRALDEAN I+G+B ARLOKO INBERTSIOA ESPONENTZIALA IZAN DA 2001ETIK 2012RA ARTE, ORDUZ GEROZTIK BEHERA EGIN ZUEN 2016RA ARTE, ETA HORTIK AURRERA BERRIRO EGIN DU GORA

I+G+B-KO INBERTSIOA (BPG-AREN %) (2005-2016)



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua Donostia = Donostialderako datua

I+G-KO GASTUA (BPG-AREN %) (2016)




Iturria: EUSTAT, I+G jardueren inkesta, eta EUROSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- I+Gko inbertsioak BPGan duen pisuaren bilakaera desberdina da Europan. Finlandia, Danimarka edo Suedia bezalako herrialdeetan behera egiten du nolabait, eta beste batzuetan, hala nola Austrian, Alemanian edo Herbehereetan, gorantz jarraitzen du; EB28ko batez bestekoak egonkor jarraitzen du azken urteetan.
- Termino absolutuetan, EAEko I+Gko gastuak igoera progresiboa izan du 2012 arte, gero gastuak behera egin du 2015 arte, eta 2016an berriz gorantz. Aldi osoaren analisiak (2001-2016) % 108,5eko gehikuntza adierazten du; Gipuzkoan inbertsioak % 152,8 egin du gora; gehikuntzaren ehunekoa askoz ere handiagoa da Bizkaikoa (Δ% 94,4) eta Arabakoa (Δ% 59,2) baino (Iturria: EUSTAT).


- Donostiaren kasuan, azken hamarkadako inbertsio ahalegin horretarako erabili diren zifrak % 2,4 eta % 3,1 artean mugitzen dira (aldatu egiten dira kontsultatutako iturrien arabera). Udal BPGaren gaineko pisua murriztu egin da azken urteetan. Era berean, ahalegin ekonomikoa, inbertsioaren beraren zenbatekoa (I+Gko barneko gastua), murriztu egin da 2011. urteaz geroztik (222.343 mila €). Halere, Donostia Sustapenaren azken datuek adierazten dute nolabait ere suspertu egin dela 2015. urteko datua (194.227 mila €). Azken bosturtekorako bilakaera (2011-2015) Δ–% 12,6 dela zenbatetsi da (Iturria: EUSTAT eta Donostia Sustapena).
- EAEn, 2016. urtean, **gauzatze sektorearen** araberako banaketan, % 75,4 enpresei dagokie, % 7,1 administrazio publikoari eta gainerako % 17,5 goi mailako irakaskuntzari. Desberdintasunak detektatzen dira lurralde batetik bestera: Gipuzkoan gastu nabarmen handiagoa dago enpresetan (% 82,8; Bizkaian % 68,4 eta Araban % 76,6), administrazio publikoaren kalterako (% 3,7; Bizkaian % 9,5 eta Araban % 10,1), eta, neurri txikiagoan, goi mailako irakaskuntzan (% 22,1; Bizkaian % 9,5 eta Araban % 13,3).

EAE-KO I+G+B-KO GUZTIZKO INBERTSIOA (2001-2016)



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua

EAE-KO I+G+B-KO BARNE GASTUA (2001-2016)




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua

- Donostiako I+Gko barne gastuen gauzatze sektorearen araberako banakatzeak (2015) islatzen duenez, ehunekoen pisu handiagoa dago enpresetan (% 61,2), hirian I+Gn inbertitutako hiru eurotatik ia bi enpresa pribatuetan gauzatzen baitira; ehuneko hori, alabaina, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako batez bestekoa baino txikiagoa da; ildo berean, goi mailako irakaskuntzako gastua (% 30,7) Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako batez bestekoaren bikoitza da ia. Administrazio publikoak % 8 ekartzen du eta gehiago hurbiltzen da arestian aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko ehunekora (% 7,1); bikoiztu egiten du Gipuzkoako ehunekoa (Iturria: EUSTAT eta Donostia Sustapena).

- EAEko I+Gko barne gastuaren bilakaerari eta banaketari dagokionez, adierazi beharra dago, lehenik, administrazio publikoetako inbertsioa dela gehikuntza ehunekorik handiena izan duena (2001-2016 aldian Δ% 426,1 EAEn eta Δ% 497,3 Gipuzkoan). Nabarmentzekoa da, gainera, Gipuzkoan enpresetan izan den igoera (Δ% 145,5; EAEn Δ% 96,6 eta Bizkaian Δ% 73,3) (Iturria: EUSTAT).
- Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko I+Gko barne gastuaren finantzaketaren jatorriak antzekotasunak ditu, nolabait ere, EB28ko batez bestekoarekin konparatuta (2015. urteko datuak). Finantzaketa pribatuak funtsen % 56 hartzen ditu EAEn (EB28n % 57), finantzaketa publikoak % 37 (EB28n % 32 batez beste) eta nazioarteko finantzaketak gainerako % 8 (EB28n % 11 batez beste) (Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT).
- Funtsen jatorriari dagokionez (2016. urtean), EAEn enpresak dira jatorri nagusia, funtsen % 55,7 enpresei baitagokie (Gipuzkoan % 58,6, Araban % 59,8 eta Bizkaian % 52,3). Administrazio publikoaren inbertsioak % 33,5 hartzen du EAEn, txikiagoa da Gipuzkoan (% 29,7) eta handiagoa Bizkaian (% 37). Goi mailako irakaskuntzaren inbertsioak % 3,1 hartzen du EAEn. Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuetatik datozen funtsak % 0,3 dira eta atzerritik datozen funtsak % 7,4 (Iturria: EUSTAT).
- Funtsen jatorriaren araberako Donostiako I+Gko barne gastuaren (2015. urtean) irakurketa xehatuak aditzera ematen duenez, hiriko I+Gko barne gastuaren % 47k administrazio publikoan du jatorria (ehunekoa EAEko edo Gipuzkoako batez bestekoa baino nabarmen handiagoa da), % 34,5 enpresetatik eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuetatik dator; pisua Euskal Autonomia Erkidegoko edo Gipuzkoako batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa da. Goi mailako irakaskuntzaren ekarpena (% 5,4) Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino handixeagoa da; nabarmentzekoa da, era berean, funtsen % 13,1 atzerritik datozela (ehunekoa EAEko eta Gipuzkoako batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da) (Iturria: Donostia Sustapena).
- Diziplina zientifikoei dagokienez, Donostiako barne gastuaren (2015) % 54,1 ingeniaritzei dagokie, % 21 zientzia zehatzei, % 13,4 medikuntza zientziei, % 11 gizarte zientziei eta gainerako % 0,7 nekazaritza zientziei. Pisu handiagoa egiaztatu da, gainera, ikerketa aplikatuan eta garapen esperimentalean, oinarrizko ikerketaren kalterako. Azpimarratu beharra dago, era berean, harreman estuagoa behar dela unibertsitateko ikerketaren eta enpresa ehunaren zuzeneko beharren artean.

I+G-KO BARNE GASTUA, FUNTSEN JATORRIAREN ARABERA (2016)




Iturria: EUSTAT eta Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

* Donostiako 2015eko datuak

Giza baliabideak eta berrikuntza

Pertsonak, prestakuntza, talentua

- Ezagutzaren eta berrikuntzaren sistemaren alderdi esanguratsuenetako bat **giza kapitalean** datza. Pertsonen prestakuntza eta trebakuntza egokia pisu handiko faktorea da ekosistema horren garapenean. Izan ere, antza denez, talentua detektatzea, atxikitzea eta erakartzea nazioarteko mailan erreplikatzen den ildo estrategikoa da.
- Dokumentu honen lehen kapituluan donostiarren prestakuntza aztertu da, eta erreferentziako hiri eta lurraldeekin konparatu da. Hortaz, hemen labur-labur aipatuko dugu euskal biztanleen goi mailako prestakuntza, eta, bereziki, donostiarrena: **hirugarren hezkuntza** (goi mailako ikasketak amaituta) duten biztanle gazteak (30-34 urte) % 60,7 dira Donostian (2014. urtean); gainerako euskal hiriburuetako eta EAEko batez bestekoa (2016. urtean % 56,9) eta EB28ko batez bestekoa (% 39,1) baino handiagoa da (Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT).
- 25-34 urteko biztanle taldearen barruan, 2017. urtean **gradudun doktore berrien** proportzioa % 2,24 da Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunean. Estatuko (% 1,91) eta EB28ko (% 1,85) batez bestekoaren gainetik dago, baina Eslovenia (% 3,55), Danimarka (% 3,245) edo Erresuma Batua (% 3,03) bezalako herrialdeetatik urrun. Adierazgarria da, halaber, **ikaskuntza iraunkorrean** parte hartzen duten 25 eta 64 urte arteko biztanleen ehunekoa: % 12,2 EAEn, Estatuko (% 9,4) eta Europako (EB28, % 10,8) batez bestekoaren gainetik, baina Europako iparraldeko herrialdeetatik oso urrun: Suedia (% 29,6), Danimarka (% 27,7) edo Finlandia (% 26,4%).










GOI TEKNOLOGIAKO SEKTOREETAKO ENPLEGUA.
EUROPAKO ESKUALDEAK (2016)




Iturria: EUROSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua, EUROSTAT abiapuntu hartuta.

- Zientzia eta teknologiako giza baliabideen analisiak (populazio aktiboaren ehunekoetan aurkeztua) pisu handieneko eskualdeen banaketa ezagutzera ematen du, eta horien artean dago EAE (% 56); aditzera ematen du, halaber, profil aurreratuko hirugarren sektoreko jardueren eta I+G zentro publiko eta pribatuen nolabaiteko kontzentrazioa, neurri handi batean estatuaren kapitala duten eskualdeekin eta ingurune zientifiko-teknologiko aurreratuak dituzten eskualdeekin bat datorrena. EB28ko batez bestekoa % 46 da (Espainia batez bestekoaren azpitik dago, % 43,4), Europako iparraldeko herrialdeetatik (Suedia % 57,9 edo Finlandia % 56,9) eta Erresuma Batutik (% 56,9) urrun (Iturria: EUROSTAT).
- Euskal Autonomia Erkidegoan I+Gn aritzen diren pertsonak arduraldi osoko 18.271 pertsonaren baliokide dira 2015. urtean (horien % 39,7 Gipuzkoan, hots, 7.230 pertsona). Arreta Donostian jarrita, Euskal Autonomia Erkidegoan I+Gn aritzen diren sei pertsonatatik bat hiri horretan aritzen da (3.017 AOB langile). Bestalde, generoaren araberako bereizketa adierazgarria nabarmendu beharra dago I+G esparruan EAEn: EUSTATen datuen arabera (I+Gn aritzen diren AOB langileei buruzkoak), emakumeak % 35,2 besterik ez dira (genero etena txikiagoa da Donostiaren kasuan, non I+Gn aritzen diren AOB langileen % 46,9 emakumeak baitira); azpimarratzekoa da, halaber, goi mailako irakaskuntzan (gauzatze sektore gisa) I+Gn aritzen diren emakumeak % 50,2 direla.

- Donostian I+Gn aritzen diren langileen eta ikertzaileen ehunekoa beste euskal hiriburuetakoa baino handiagoa da. Alor zientifikoari dagokionez, langile horiek nabarmen kontzentratzen dira ingeniaritzetan (% 55) eta, neurri txikiagoan, zientzia zehatzetan (% 20), medikuntza zientzietan (% 13) eta gizarte zientzietan (% 12). Sektore pribatuak Donostian I+Gn aritzen diren pertsonen % 45,4ri ematen die lana, % 39,1ek goi mailako irakaskuntzan garatzen dute jarduera eta gainerako % 15,5ek zentro edo erakunde publikoetan (Iturria: EUSTAT eta Donostia Sustapena).
- 2015. urtean EAE osoan I+Gn aritzen diren pertsonen % 66,4 ikertzaileen kolektibokoak dira (12.089 pertsona), eta, I+Gn aritzen diren langileen multzoaren antzeko generoaren araberako banaketarekin, % 35,5 emakumeak dira (Donostian genero etena txikixeagoa da, AOB langile ikertzaileen % 41,3 emakumeak baitira).

GOI TEKNOLOGIAKO SEKTOREETAKO ENPLEGUA. EUROPAKO ESKUALDEAK (2016)



Iturria: EUROSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua, EUROSTAT abiapuntu hartuta.

- Aipatu beharra dago, 2016. urterako erabilgarri dauden EAE osoko datuek adierazten dutenaren arabera, behera egin dutela I+Gn aritzen diren pertsonen kopuruak (17.898 AOB) eta ikertzaile kopuruak (11.915,5 AOB). Halere, analizatutako aldiko (2001-2016) bilakaera globalak aditzera ematen duenez, gora egin dute I+Gko langileen kopuruak (Δ% 68,5) eta ikertzaile kopuruak (AOB) (Δ% 105,1).
- Nabarmendu beharra dago, argigarria baita, EAEko 9 ikertzailetatik bat, gutxi gorabehera, Donostian edo haren ingurunean dagoela. Zenbatespenen arabera, hirian 2015. urtean 3.294 pertsona aritzen dira ikerketan (azken hamabost urteetan jarduerak izan duen gehikuntza globalaren isla) (Iturria: EUSTAT eta Donostia Sustapena).

Zientziaren eta berrikuntzaren hiria

Berrikuntzaren tokiko sistema

Ingurune aproposa

- Donostiako berrikuntza estrategia euskal estrategiarekiko modu osagarrian garatzen da, berrikuntzarako aukerako ingurunearen garapena oinarri hartuta (berrikuntzaren "ekosistema"), zeina bermatzen baita lurraldean kokatutako azpiegituretan, pertsonen gaitasunean eta "Espezializazio Adimenduneko Estrategian", tokiko aktiboetan oinarritutako goraka ari diren sektoreak bultzatuta, eta nabarmenduta, arestian adierazi den moduan, ikus-entzunezkoen sektorea, energia berriztagarriak eta energia eraginkortasuna, laguntza teknologiak…, "tokiko klusterren edo mikroklusterren" modura, hartara sinergiak sortzeko eta berrikuntza eta ezagutza tokiko enpresaburuei eta hiriari transferitzeko modua bilatzeko.
- Ingurune horretan, arestian aipatutako ZTBES sareko eragileak ezinbestekoak dira, eta hor azpimarratu beharra dago sektore pribatuak betetzen duen eginkizun adierazgarria, baita administrazioaren maila guztien mende dauden erakunde ia publikoek betetzen dutena ere.
- Ildo horretan bertan, **unibertsitateak** ere funtsezkoak dira tokiko garapenerako. Hiriak titulazio eskaintza zabala du bertako unibertsitateetan: Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), Deustuko Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitatean (Tecnun) eta Basque Culinary Centre-an (Mondragon Unibertsitateko Gastronomia Zientzien Fakultatean). Nabarmendu behar da ikerketan, gizarte dinamizazioan, lehiakortasunaren hobekuntzan eta enpresa berrikuntzan egiten duten ekarpena. Ikastetxe horien maila ere nabarmendu behar da: UPV/EHUk nazioarteko bikaintasuneko campus aitorpena du Euskampus proiektuarekin (Tecnaliarekin eta Donostia International Physics Center-arekin EAEren RIS espezializazio adimenduneko estrategian lerrokatutako proiektuan parte hartuz), eta Deustuko Unibertsitateak Aristos Campus Mundus proiektuan parte hartzen du, Comillaseko Unibertsitatearekin eta Ramon Llull Unibertsitatearekin batera, Georgetown University, Boston College eta Fordham University ikastetxeekin elkarlanean.
- Aurrez aditzera eman den moduan, Donostiako populazioak **prestakuntza maila handia** du; gero eta handiagoa da unibertsitate ikasketak dituztenen kopurua. Lau donostiarretik ia batek, 53.373 donostiarrek (2015eko datuak), egin dituzte unibertsitate ikasketak: 38.517 donostiarrek goi mailako unibertsitate ikasketak eta beste 16.856 donostiarrek erdi-goi mailakoak (2011); kopuru hori duela hogei urtekoen ia bikoitza da (29.806 ziren 1991n eta 47.568 ziren 2001ean).
- Gipuzkoako **ikasle unibertsitarioen** kopuruak, 20.028 pertsona 2014/2015 ikasturtean (% 49,2 gizonezkoak eta % 50,8 emakumezkoak) arian-arian behera egin du, eta horretan faktore demografikoa hartu behar da kontuan; ikasle unibertsitarioen kopuruan (24.033 ikasle izan ziren 2000/2001) etengabeko beherakada izan da 2000/01 eta 2010/11 ikasturteen artean (-Δ% 26ko bilakaera) eta zertxobait egin du gora 2010/2011 eta 2014/2015 ikasturteen artean (Δ % 12).

- Gipuzkoan, 2015ean, **doktoregoa prestatzen ari diren ikasleak** % 4,5 dira. 2014/2015 ikasturtean, horien % 52,2 gizonezkoak ziren eta % 47,8 emakumezkoak (iturria: EUSTAT). Erantsi behar da, Euskal Herriko unibertsitateetara sartzen diren ikasle gehienak emakumezkoak direla (% 51,5 oro har); emakumezkoentzako aukera nagusiak dira osasun zientziak (% 76,1 dira emakumezkoak), artea eta giza zientziak (% 60,4 dira emakumezkoak) eta gizarte zientziak eta zientzia juridikoak (% 56 dira emakumezkoak); aitzitik, zientziek (% 48,4 dira emakumezkoak) eta batez ere ingeniaritzek eta arkitekturek (% 25,3 dira emakumezkoak) dute gizonezkoen proportzio handiena.
- Hiriko enplegu eskaintza eta hirian garatutako jarduerak populazioaren prestakuntzarekin bat badatoz, adierazi behar da **jakintza**, berez, **aukera** dela hiriko **jarduera aurreratuak garatzeko**.
- Hiriak ibilbidearen helmuga duen zientzia eta berrikuntza garatzeko aukerako ingurune horren deskribapen laburrarekin jarraitzeko, Donostian eta inguruetan kokatzen diren kluster sektorialak ere aipatu behar dira: Gaia klusterra (Euskal Autonomia Erkidegoko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea, 200 enpresak baino gehiagok osatzen dutena); MLC ITS Euskadi klusterra (Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasun eta Logistika Klusterra, 103 bazkide dituena); Langune klusterra (Hizkuntzen Industriaren alorreko Euskal Herriko enpresen elkartea, 35 erakunde baino gehiago biltzen dituena); eta Clusterpapel (Euskadiko Paperaren Klusterra, hogeita hamar enpresa elkartu baino gehiago dituena).
- Bestalde, Donostia Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren ezagumendua izan duen lehen hirietako bat izan da: **Zientziaren eta Berrikuntzaren Hiria saria** eman zion 2011. urtean eta berritu egin zion 2014. urtean eta 2018. urtean, eta zientziaren eta berrikuntzaren hirien “Innpulso” sarean parte hartzen du.
- Azpimarratzekoa da, halaber, tokiko administraziotik berrikuntza esparru guztietan sustatzeko egiten den ahalegina, hainbat ekimenen bitartez: enpresa ekimen berritzaileak bultzatzea eta erakartzea, enpresak kokatzeko azpiegitura berriak sortzea eta lehendik daudenak handitzea, talentuaren trakzio ahalmena areagotzea, energia berriztagarriekin, mugikortasunarekin eta gizarte berrikuntzarekin erlazionatutako ekimenak eta proiektu pilotuak…
- Zenbatespenen arabera, Donostiako Udalak 2016. urterako guztizko aurrekontuaren % 22 bideratzen du (11.911.826 euro) berrikuntzaren inguruko inbertsioetara (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoaren zenbatespena, Donostiako Udalaren informazioa).


D
S
CIUDAD
S
DE LA
CIENCIA
EUSKAMPUS
Y LA
IKUSI
INNOVACIÓN


IBAETA. UNIBERTSITATE CAMPUSA - UPV/EHU
• CSIC-EHU Materialen Fisika Zentroa
• UPV/EHUko Konputazio Zientzia eta Adimen Artifiziala Saileko ikerketa taldea
• Donostia International Physics Center - DIPC
• BERC Polymat
• CIC Nanogune
• Joxe Mari Korta I+G+b Zentroa
NAFARROAKO UNIBERTSITATEA, TECNUN - CEIT
AIETE
Talent House
TABAKALER
Deustuko
Unibertsitatea
CEMEI
BELARTZA
ZUATZU.
ENPRESA PARKEA
PI@ - IKUS ENTZUNEZKOEN ETA EDUKI DIGITALEN BERRIKUNTZA GUNEA
ZIBERSEGURTASUNEKO ZENTRO AURRERATUA
BCC-BASQUE
CULINARY CENTE



BERRIKUNTZAREN TOKIKO EKOSISTEMA:


Unibertsitateak
Ikerketa zentroak
Zentro teknologikoak
Parke teknologikoak
Enpresa guneak
Tokiko mikroklusterrak

Ingurune erraztailea. Azpiegiturak

Gipuzkoako parke teknologikoa

- Gipuzkoako Parke Teknologikoa (Miramonen) eta bere ingurunea garapen ekonomikoan eta lurraldeko ezagutza aurreratuaren, teknologiaren eta berrikuntzaren sisteman funtsezkoak diren zentro eta eragileetako asko kontzentratzen dituen enklabea da.
- 238.671 m²-ko azalera eraikigarriarekin, 2017. urtean parkeak 131 enpresa hartzen ditu (2008. urtean 70 enpresa zeuden bertan) eta 4.709 langileri ematen die lana. Enpresa horiek hainbat arlotan espezializatuta daude: material berriak, IKTak, telekomunikazioak, multimedia, ikus-entzunezkoak, medikuntza, biologia molekularra, elektrokimika, mikro eta nanoteknologia edo enpresa zerbitzuak, guztiak ere neurri handi batean Euskadi RIS3 estrategiarekin bat datozen esparruetako erreferentziako jarduerak.
- Parke teknologikoan lan egiten duten pertsona guztien % 38,1 (1.807 pertsona) I+G plantillakoak dira, erdiak goi mailako tituludunak dira eta % 13k 30 urte baino gutxiago dituzte.
- Lurraren % 70,5 okupatuta dago, baita espazio eraikiaren (eraikinen) % 75 ere (Iturria: Gipuzkoako Parke Teknologikoa).

GIPUZKOAKO PARKE TEKNOLOGIKOKO ENPRESAK



Iturria: Gipuzkoako Parke Teknologikoa, 2016ko urtekaria

GIPUZKOAKO PARKE TEKNOLOGIKOA ZIFRETAN

Instalatutako enpresak	131*
Plantilla orotara	4.739*
I+G plantilla	1.807
30 urte baino gutxiagokoak	% 13
Goi mailako tituludunak	% 50,9
Fakturazioa orotara (milioi €)	1.008
Lur urbanizatua guztira (m²)	432.076
Lur urbanizatu librea (m²)	127.593
Lurren okupazio maila	% 70,47
Eraikitako eraikinak (m²)	252.095
Parkearen jabetzako eraikinak (m²)	36.397
Eraikinen okupazio maila	% 75

Iturria: Gipuzkoako Parke Teknologikoa, 2016ko urtekaria (*) Inkubagailuak barne

Ingurune erraztailea: azpiegiturak

- Donostian administrazio publikoak bultzatuta dauden jarduera ekonomikoetarako garapen eta azpiegituren artean, mintegiak eta enpresa parke espezializatuak nabarmen daitezke (Iturria: SPRI eta Donostia Sustapena):
  - Zuatzu Enpresa Parkea, titulartasun publiko partekatukoa, ingeniaritzari, teknologiari, softwareari eta sorkuntza ekonomiako (ikus-entzunezkoen sektorea, arkitektura, diseinua eta abar) jarduerei lotutako zerbitzu jardueretan espezializatzen ari da; 158 bat enpresa eta 2.500 enplegu inguru hartzen ditu.
  - CEMEI - Enpresa Berritzaileen Udal Zentroa (20.000 m²): 9 lokal ditu 180 eta 500 m² arteko enpresa erdiindustrial garbientzat eta 49 lokal 55 eta 200 m² arteko bulegoak ezartzeko. Gaur egun 77 enpresa hartzen ditu (gutxi gorabeherako okupazioa % 80 da).
  - ZENTEK, IKTBen sektoreko enpresei zuzendua (20 eta 50 m² arteko 22 lokal), 25 enpresa ditu eta % 91ko okupazioa; Democenter, energia berriztagarrien eta energia eraginkortasunaren inguruko enpresei zuzendua (30 eta 50 m² arteko 12 lokal); Belartza, Gizarteratzeko Enpresen Udal Zentroa (Belartza poligonoan, hiru modulu eta zerbitzuak ditu, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonei enplegua eskaintzen dietenak; 10 lokal ditu, okupatuta guztiak); eta Bidebieta Zerbitzu Enpresak (20 eta 40 m² arteko 15 lokal).
  - BIC Berrilan - Gipuzkoako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroaren egoitza berria, Arbide dorreen ondoan kokatua, Miramon Parke Teknologikoan (7.000 m², bost solairutan banatuta). Nabarmentzekoak dira enpresa berrien eremua eta “bioinkubagailua”.

ENPRESAK —BATEZ ERE OINARRI TEKNOLOGIKOKOAK— SORTZEKO ETA TALENTUA ERAKARTZEKO AZPIEGITURA HANDIA ETA EKIMENAK MANTENTZEN DIRA

- Aipatzekoak dira, halaber, jarduera nitxo estrategikoetara berariaz bideratutako beste zentro batzuk, berrikuntzaren tokiko estrategiatik bultzatuak eta guztiak ere energia eraginkortasun handiko diseinu bioklimatikoari jarraikiz eraikiak:
  - PI@ - Ikus-entzunezkoen eta Eduki Digitalen Berrikuntza Guneak 8.694 m² ditu bi eraikinetan banatuta (50 eta 300 m² arteko 67 bulego); 96 enpresa hartzen ditu eta Zuatzu Enpresa Parkean dago.
  - ENERTIC, 27 poligonoan. Energia berriztagarrien eta energia eraginkortasunaren sektore estrategikoa hiriarentzat sustatzera eta bultzatzera bideratua (13.000 m² baino gehiago) eta Energia Berriztagarrien eta Energia Eraginkortasunaren Klusterraren egoitza.
- Talentuaren Etxea (ikertzaileentzako egoitza), bestalde, “talentua” erakartzeko estrategiaren barruan kokatzen da. Horretarako, 80 apartamentu eta zenbait zerbitzu ditu, ikertzaileei hirian integratzen laguntzeko, eta profesional horiek bereganatzeko prozesuan ere laguntzen du.

Ingurune berritzailea: enpresak

- Berrikuntzaren tokiko ekosistemaren berezko parte bat enpresak dira; aurreko kapituluan ezagutza aurreratuarekin eta berrikuntzarekin zuzenean erlazionatutako jarduera arloak aipatu dira (I+Gn aritzen diren enpresak, enpresentzako zerbitzuen eta zerbitzu aurreratuen enpresak, sorkuntza eta kultura industriak, eta jakintzako sektore intentsiboak). Horren osagarri, atal honetan ibilbide laburra egingo da Donostiako enpresa ehunaren inguruan, berrikuntza prozesuen ikuspegitik begiratuta.
- 2016. urtean Donostiako 10 langile edo gehiagoko enpresen % 32,8k (hirutik batek) berrikuntza prozesuak garatu dituzte (prozesuak eta/edo produktuak eta/edo zerbitzuak hobetzera bideratuak); arrakastaz amaitu diren berrikuntzak egin dituzten Donostiako 10 langile edo gehiagoko enpresak % 26,3 dira 2015. urtean. 2008. urteaz geroztiko bilakaera desberdina izan da (enpresa berritzaileen ehunekorik handiena 2013. urtean egiaztatu da: % 36,25), eta 2008-2015 aldian enpresa berritzaile horien proportzioa ehuneko 2 puntu igo da. (Iturria: Donostia Sustapena).
- 2015. urtean berrikuntza teknologikoaren jardueretarako gastua 192,3 milioi eurokoa izan da (Donostiako 10 langile edo gehiagoko enpresetan). Banaketa kontuan hartuta, % 77,8 barneko I+G prozesuetara bideratzen da, % 6,6 makineria eta/edo teknologia eskuratzera, % 5,4 diseinu ekintzetara bideratzen da, % 5,1 kanpoko I+G zerbitzuak kontratatzera, eta gainerako % 5 prestakuntza prozesuetara eta/edo merkaturatzera.


Espezializazioa bultzatzea

- Enpresa garapenaren, garapen teknologikoa bultzatzearen eta berrikuntzaren aldeko apustuan, hirian finkatuen dauden jarduerak “berrasmatzera” bideratutako estrategia garatzen ari da Donostia (hala nola turismoa eta merkataritza jarduera, baina baita enpresentzako zerbitzu aurreratuak, ikus-entzunezkoen sektorea eta IKTen sektorea ere), goraka ari diren jarduerak bultzatzearekin konbinatuta.
- Ildo horretan, Donostiak euskal zientziaren eta teknologiaren politikatik bultzatutako jarduera arloak (hala nola biozientziak eta nanozientziak) sustatzen ditu, lurraldean sustraituta daudenak, tokiko lehia abantailak baliatzeko asmoz, ezagutza eta talentua erakartzeko ekintzekin konbinatuta; aldi berean, eta Udalaren Donostia Sustapena sozietatearen bitartez, garapena bultzatzen du aukera arloetan edo nitxo estrategikoetan (hala nola teknologia asistiboak, energia berriztagarriak, ikus-entzunezkoen eta eduki digitalen sektorea, surfa edo nekazaritzako elikagaiak), aipatutako tokiko mikroklusterren bitartez (gaur egungo aktiboak eta ezaugarriak identifikatuta, enpresak eta baliabideak konektatuta, eta espezializazio arlo horien garapena erraztuko duten sinergiak sortuta).

Espezializazio adimenduna


LURRALDEAN BIOZIENTZIEN ETA NANOZIENTZIEN ARLOKO EKIMENAK BADAUDE ERE, EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA SAKONDU BEHARKO DA ETA SEKTORE HORIEK SUSTATZEA AHALBIDETUKO DUTEN EKIMENAK INDARTU BEHARKO DIRA, AZKEN URTEETAKO ESPERIENTZIA KONTUAN IZANIK

- Ildo horretan, Donostiako enpresa garapenaren, garapen teknologikoaren eta berrikuntzaren aldeko apustua arestian aipatutako Espezializazio Adimenduneko Euskal Estrategian (RIS3 Euskadi) kokatzen da. Estrategia horren hiru arlo edo “lehentasun estrategikoak” (fabrikazio aurreratua, biozientziak/osasuna eta energia) eta lau “aukera esparruak” (elikadura, ekosistemak, habitat hiritarra eta sorkuntza industriak), dokumentu honetan zehar zerrendatzen den moduan, hiriaren estrategia eta aktiboetan aurki daitezke: Donostiako CEIT-IK4, Cidetec, Vicomtech, Tecnalia, Biodonostia, Basque Culinary, nanoGUNE, DIPC eta biomaGUNE zentroek, besteak beste, pisu adierazgarria dute 7 esparru horietan.
- Aipatzekoa da, halaber, Donostiak elikaduraren “aukera esparruan” duen protagonismo nabarmena, nazioarteko erreferente baita gastronomian, Basque Culinary Center edo GuztiONA Nekazaritzako Elikagaien Klusterra bezalako aktiboekin, baita sorkuntza eta kultura industriei dagokienean duen partaidetza ere (Tabakalera, San Telmo, Etxepare Institutua, jaialdiak…), ekosistemak bezalako beste aukera esparru batzuk ahaztu gabe (hor aipa daitezke Kutxa Ekogunea edo Cristina Enea fundazioa…), edo arestian aipatutako fabrikazio aurreratuari buruzko aipamena: Clusterpapel, GAIA, AFM, Eskuin edo Addimat.
- Ondoren zehatz-mehatz aipatuko ditugu energia edo biozientziak bezalako lehentasun estrategikoko arloak.









Biozientziak

- Euskal Autonomia Erkidegoan biozientziak garatzeko egindako apustutik abiatuta (Biobasque Estrategia 2000. urtean abiarazi zen), eta gero RIS3 estrategiarekin bat egin ondoren esparru hori etorkizun handiko hazkundea izaten ari da autonomia erkidego osoan, zientzia eta teknologiari eta enpresa garapenari dagokienez. Horren emaitza da ikerkuntzaren arloko komunitatearen eta sortzen diren enpresen hazkunde progresiboa.
- Erabilitako informazioaren arabera, EAEn ikerketa eta/edo bioteknologiako jarduerak egiten dituzten erakundeak 94 dira 2015. urtean (2009. urtean 70) eta 88 enpresa bioteknologiko daude (bikoiztu egin dira 2007 eta 2015 artean).
- Aldi berean, sektore horretan I+Gn aritzen diren langileak 1.891 dira (2007. urtean 1.114), 1.256 bat AOB langile. Euskal Autonomia Erkidegoan I+Gn aritzen diren langileen % 6,9 ordezkatzen dituzte, eta % 57 emakumeak dira.
- Ikerketan aritzen diren 1.416 pertsonak kolektibo horren % 74,9 ordezkatzen dute. Aipatu beharra dago biozientzietako ikertzaileen % 59,3 emakumeak direla (Iturria: Biobasque eta EUSTAT).
- Donostiak sektore horretan duen ahalmenaren erakusgarri dira biozientzietan eta bioteknologian lan egiten duten zentroen kontzentrazio berezia eta Miramon inguruan dagoen EAEko ospitale konplexurik handiena. Bertan zenbait ezagutza arlo biltzen dira, bioteknologiarekin eta ikerketa jarduerarekin bat egiten duten diziplinetan ahalmen handia dutenak potentzial handiko arloetan (diagnostikoa, birsortze medikuntza…). Biodonostia institutuaren eginkizuna garrantzi handikoa da.
- Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago lurraldean zientzia eta teknologiako eragile gutxi dagoela biozientzien arloan, trakzio enpresen parte hartzea txikia dela eta produktibitate zientifikoa handitzeko premia dagoela.

Nanozientziak

- Nanoteknologien sektorearen presentzia, hasiberria izan arren, ahalmen nabarmenekoa da. NanoBasque estrategiako enpresen direktorioan erregistratuta dauden enpresen % 60,3 (41 enpresa) Gipuzkoako lurraldean kokatzen dira; gainera, horietako 11 Donostian daude.

Tokiko mikroklusterrak

- Ikus-entzunezkoen eta eduki digitalen sektoreko klusterra edo PI@ - Ikus-entzunezkoen eta Eduki Digitalen Berrikuntza Gunea hirian finkatuen dauden mikroklusterretako bat da. Donostian pisua eta ibilbidea duen sektore batean bermatua, enpresa presentzia nabarmenarekin, aldi berean sorkuntza eta kultura industrien sektorearen trakzio ardatzetako bat da.
- Arestian aipatutako Euskadi 2020-Euskadi RIS3 Estrategiako espezializazio handiko trakzio jarduerekin bat etorriz, energia berriztagarrien jarduera sektorea (barnean hartzen ditu energia berriztagarriak eta balio kate osoan dauden enpresak eta jarduerak: energiaren produkzioa, transformazioa eta banaketa) hirian ahalmen handia duen arlo estrategikoa da. Erabilitako informazioaren arabera, energia berriztagarrien sektoreko 9 establezimendu Donostian finkatuta daude, eta Energia Berriztagarrien eta Energia Eraginkortasunaren Klusterrak 98 enpresa biltzen ditu (2013. urteko datuetan). Zenbatespenen arabera, klusterreko enpresek 3.206 enplegu sortzen dituzte eta horien % 30 zuzenean egotz dakizkieke energia berriztagarriei (971 enplegu) (Iturria: Donostia Sustapena).
- Smart Klusterra finkatu egin da 2017. urtean eta hiriko 2016-2020 Smart Planean kokatzen da; 91 eragile ditu gutxi gorabehera eta Energia Berriztagarrien eta Energia Eraginkortasunaren Klusterrarekin estekatzen da Tokiko Energia Eraginkortasunaren Planaren estrategietan eta, besteak beste, SmartKalea bezalako proiektuetan.
- Goraka ari diren sektoreen artean Surf City Donostia Klusterra aipa daiteke, 2011. urtean sortua. 64 enpresa ditu eta tokiko enpresak sustatzera eta haien lehiakortasuna hobetzera bideratutako ekintzak garatzen ditu.



- Laguntza soluzioen sektorea (teknologia asistiboak): adineko pertsonen eta/edo desgaitasuna dutenen bizi kalitatea hobetzeko produktu eta zerbitzuetan eta enpleguaren eta balio ekonomikoaren sorkuntzan berritzen duen eta goraka ari den sektore gisa konfiguratzen da.
- Donostiako Modaren Klusterra, sorkuntza eta kultura industria deritzenen barruan, 2015. urtean sortzen da. Modaren sektoreak 1.000 enpresa hartzen ditu, zuzeneko 2.750 enplegu, guztizko enpleguaren % 2,63. Klusterra 123 enpresak osatzen dute (2017): diseinatzaileak, enpresak, jantzigintza edo prestakuntza.
- GuztiONA Nekazaritzako Elikagaien Klusterra 2006. urtean jarri zen abian, 130 eragilerekin; Villa Yeyetten du egoitza. Tokiko nekazaritza eta arrantzaren produkzio sektorea merkataritza, ostalaritza eta turismoarekin lotzea planteatzen du, baita produktuen tratamenduetako berrikuntza teknologikoarekin, Klima 2050 Estrategiarekin, tokiko elikagaiak sustatzeari dagokionez, eta RIS3 euskal estrategiarekin ere.












UNIVEX

Oinarrizko adierazleak

	2001	2009	2016
Unibertsitate ikasketak amaituta dituzten biztanleen % (10 urte baino gehiagokoak)	21,5	32,2 (2010)	34
Gutxienez Bigarren Hezkuntzako ikasketak amaituta dituzten biztanleen %	49,5	68,98 (2010)	72,3
Zientzia, teknologia eta ikerketako eragileak	22	34	30 (2018)
I+Gko gastua (Gipuzkoako BPGaren %)	1,44	2,23 (2008)	2,22
I+Gko gastua (Donostialdeko BPGaren %)	2,47 (2001)	2,7 (2012)	2,23
I+G jardueretan aritzen diren langileak	3.893 (2008)	4.824 (2011)	4.692 (2015)
Ikertzaileak	2.987 (2008)	3.224 (2011)	3.294 (2015)
Parke Teknologikoko enpresa kopurua	39 (2003)	70	131
Parke Teknologikoko langile kopurua	1.730 (2003)	2.840	4.709
Zuatzu Enpresa Parkeko enpresa kopurua	86 (2003)	109 (2008)	158 (2012)
Goi mailako ezagutzako zerbitzu enpresen kopurua	7.797 (2008)	7.517 (2012)	8.053 (2017)
I+G enpresa kopurua	146 (2008)	81 (2012)	117 (2017)
Establezimendu berritzaileen % (berrikuntza prozesuak garatu dituztenak)	24,3 (2008)	35,5 (2011)	26,3 (2015)

Hausnarketarako puntuak

- 2017ko Europako Batzordeko *Regional Innovation Scoreboard* **Europako Berrikuntza Adierazleen Panelaren** azken emaitzen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa dago berrikuntza handiko eskualdeen taldean (talde horren behealdean) eta urteak dira sailkapen horretan dagoela. Panel hori lantzeko analizatutako aldagai guztien artean, EAErako dimentsio positiboenak **giza baliabideak, ikerketa sistema erakargarria eta berrikuntzaren aldeko ingurunea** dira.
- Hirian eta lurraldean **I+G+b arloko inbertsioa esponentziala** izan da 2001etik **2012ra arte**, orduz geroztik **behera egin zuen 2016ra arte, eta hortik aurrera berriro egin du gora**.
- **Gipuzkoa lurralde liderra da EAEn I+G+b arloko inbertsioen hazkundean, 2001/2016 aldian,** bai termino globaletan, bai enpresei dagokienez.
- Donostian **I+Gn aritzen diren langileen eta ikertzaileen ehunekoa beste euskal hiriburuetakoa baino handiagoa da**.



- Gipuzkoako **ikasle unibertsitarioen** kopuruak, 20.028 pertsona 2014/2015 ikasturtean (% 49,2 gizonezkoak eta % 50,8 emakumezkoak) arian-arian behera egin du.
- **Parke teknologikoko** enpresen **kopuru ia bikoiztu** egin da **hamar urtetan**. Dena dela, **hurrengo hamarkadarako arlo horretako hazkunde arazoak** planteatu dira, okupazio mailari eta etorkizuneko zabaltzeei erreparatuta.
- Enpresak —batez ere oinarri teknologikokoak— sortzeko eta talentua erakartzeko azpiegitura handia eta ekimenak mantentzen dira.
- Lurraldean **Biozientzien eta Nanozientzien** arloko ekimenak badaude ere, **egungo egoeraren azterketa sakondu beharko** da eta sektore horiek sustatzea ahalbidetuko duten ekimenak indartu beharko dira, azken urteetako esperientzia kontuan izanik.
- Ildo berean, urteetan zehar mikro-klusterren bidez egindako espezializazio ekimenen esfortzua aipatzea, Modaren sarrera berriarekin.







04
HIRIKO BIZI KALITATEA

Hirigintza eta etxebizitza

- Hiri ingurunea (hiri sistema eta haren morfologia)
- Bizitegi ingurunearen ezaugarriak. Etxebizitza

Zuzkidurak eta azpiegiturak

- Oinarrizko ekipamenduak
- Jarduerak eta ohiko erabilerako zuzkidura
- Kultura, kirola, aisialdia, berezitasuna

Bizi kalitatea


- Segurtasuna. Hiriko delituak
- Zarata
- Erakargarritasuna eta nortasuna.

Sarrera

Hiriko bizi kalitaterako hurbilketa

- Hiri baten bizi kalitatea aztertzea lan korapilatsua da; dimentsio anitzeko kontzeptu bat da: hiri dimentsioa, ingurumenekoa, soziala, ekonomikoa, mugikortasunekoa, hiritarren pertzepzioarekin lotzen dena, gobernantzakoa…
- Atal hau hiriaren bizi kalitatearekin lotura estua duten hiri izaera handieneko alderdietan oinarrituko da, zentzu zabalean hartuta. Hiri espazioan biltzen dira, eta hiri espazioan garatu ahal izango dira, herritarren ongizaterako beharrezkoa diren jarduerak, betiere hiriaren berezitasunean zerikusia duten elkarreraginen barruan.
- Eztabaida terminologiko kontzeptualetan eta planteamendu teorikoetan sartu gabe, komeni da Maslow-k egindako gizabanakoaren beharren edo eskarien hurbilketa gogoraraztea (Maslow-ren piramidean laburbiltzen dena). Izan ere, hurbilketa hori berrinterpretatu da eta ingurunera eraman da, elkarrekin lotuz hiri ingurunearen kalitatea eta hiri bizitzaren kalitatea. Horretarako, hiri espazioaren baldintzak eta hiriaren bizi kalitatea eta erakargarritasuna ebaluatzen eta preziatzen edo laidoztatzen lagunduko duten alderdi subjektiboak nabarmendu behar dira, jakina hirian bizi direnen edo lan egiten dutenen edo hiria bisitatzen dutenen beharren eta pertzepzioen arabera.
- Ildo horretan, aipa daitezke Richard Floridaren planteamenduetatik (*Who's your city?,* 2008, liburuan ingurune urbanizatu batean pertzepzio eta eskaera pertsonalei buruzko gogoeta egin zuen) Charles Landry-ren hurbilketetara (sormen hiri baten osagaiei buruzko *The creative city. A toolkit for urban innovators*, 2009 liburuan), tartean direla bizi kalitatearen adierazle sistemak (ikus, adibidez, EUROSTATek eta, haren eskutik, INEk ezarritakoak) edo UN-Habitat-en adierazle orokorragoak (*Urban Indicators Guidelines,* 2009) —adierazle objektiboen eta subjektiboen artean lotzen dira hiri bateko bizi kalitateko dimentsioak—. Hiri ingurunea eta haren ezaugarriak sistema horren garrantzi handiko alderdiak dira.

MASLOW PIRAMIDEA



Iturria: Hagerty, M. (1999). Testing Maslow's hierarchy of needs: National quality-of-life across time. Social Indicators Research, 249-271. Elaboración Oficina de Estrategia DSS.

BIZI KALITATEAREN ADIERAZLEAK (EUROSTAT / INE)



Iturria: http://www.ine.es/infografias/calidadvida/index_es.html .

HIRIKO BIZI KALITATEAREN DIMENTSIOAK



Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Hirigintza eta etxebizitza

Hiri ingurunea

Hiri sistema. Lurraldearen okupazioa


- Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren arabera, udal barrutiak 6.094,3 ha ditu, eta horietatik 1.838,6 ha hiri lurzorukoak dira (% 30,17) eta 124,4 ha lurzoru urbanizagarri gauzatuak dira (% 2,04); hartara, udal barrutiaren % 32,21 lurzoru urbanizatu gisa kalifikatuta dago. Hedatze hazkundea mantsotu dela ematen du, baita eten egin dela ere. 2011z geroztik garatutako hirigintza jardunak jada urbanizatuta zegoen lurzoruan egin dira. Etorkizunera begirako planteamendua gehiago hurbiltzen da hiri trinko batera, hiri kokalekuen sakabanaketaz aldenduta, betiere lurzoruaren kontsumo iraunkorragoaren alde eta hiri sistemaren funtzionaltasunaren alde.
- Azken hamarkadetan, gora egin du lurzoruaren okupazioak, lurzoru artifizializatuan neurtuta (hau da, etxebizitza, azpiegiturak edo ekipamenduak eraikitzeko okupatutako lurzoruan neurtuta), udal lurzoruaren % 42,78ra iritsi arte. Azken hirigintza garapenak Zubietako Eskusaitzetakoa (2011) eta Arbaizenekoa dira (2017) (Iturria: Donostiako Udala, Ingurumen Saila, Iraunkortasunari buruzko urteko txostena).
- Udal lurraldearen gaineko hiri presioa bolumen eraikiaren eta lurzoru azaleraren proportzioan azter daiteke. Donostia, oro har, hiri trinkotasun ertaineko hiria da (hektarea bakoitzeko 44,8 etxebizitzako balioarekin 2016an, balio txiki samarra). Trinkotasun eta dentsitate handieneko zonak dira Erdialdea, Gros, Amara Berri eta Egia; auzo horiek dentsitate handiko hiri trazadura dute (Iturria: Informazioko Udal Unitatea).

DONOSTIAKO LURZORU ARTIFIZIALIZATUA



Iturria: Donostiako Udala. Ingurumen saila. Iraunkortasunari buruzko urteko txostena, 2017

TRINKOTASUNA. ETXEBIZITZAK/HEKTAREA




- Zehazki, Alde Zaharrak eta Kortazar zabaldurak, Ekialdeko zabaldurak eta Grosek modu trinkoan okupatzen dute hiria, baita zabaldura berriak, Amara Berrik, ere —sorrera berriagoa du—. Trinkotasun eta eraikuntza dentsitate txikiagoa dute Antiguak, Benta Berrik eta Matiak, baita Altza auzoaren zatirik handienak, Mirakruz-Bidebietak eta Bera-Berak (Aieten). Konplexutasun orografikoak baldintzatzen du udal lurraldearen gainerakoaren garapena, hein handi batean bederen; udal lurraldearen gainerakoa trinkotasun txikikoa da eta eraikuntza dentsitate txikiarekin garatzen da hiri lurzoruaren zatirik handienean (Iturria: Informazioko Udal Unitatea).

Donostiako hiri sistema

- Ondoren, **lurzoruaren okupazioa** aztertuko da, bolumen eraikiaren eta herritarrek erabiltzeko espazio publikoaren arteko erlazioaren bidez. Herritarrek erabiltzeko espazio publiko horiei egonaldiko espazio ere deitzen zaie, hau da, harremanetarako eta jolasteko espazioak eta berdeguneak dira (5 metrotik gorako espaloiak, oinezkoentzako eremuak, etxadiko barne espazioak, bulebarrak, pasealekuak, parkeak, plazak, lorategiak eta basoguneak).
- Eraikuntza dentsitateko eredu orekatua (jarduerarekin eta hiri sistemaren antolamenduarekin lotzen diren espazioak) elkarbizitzako espazio publikoen proportzio egokiarekin konpentsatu beharko da, "dentsifikazio" efektua moteltzeko eta trinkotasuna arintzeko; hartara, hiri metaketako eta saturazioko arazoak saihestuko dira eta zentzua emango zaie hiri bizitzaren funtzioei (**trinkotasun zuzendua**).
- Informazioko Udal Unitateak eta Bartzelonako Hiri Ekologiako Ikasgelak Donostiako auzoak aztertu zituzten. Begirada horren kontzeptuzko esparruaren araberako trinkotasun zuzenduko balio egokiak aintzat hartuta (pertsona, biztanle eta/edo langile bakoitzeko 10 eta 25 metro arteko azalera eraikia), aditzera eman behar da auzo bakar batek ere ez dituela gainditzen gomendatutako balio maximoak (50 metrotatik gora herritarren erabilerako espazio publikoaren urritasuntzat jotzen da); aitzitik, kontrasteko hiria izanik, eta eraikuntza dentsitate txikiko hiri lurzoruaren proportzio handia duenez gero, auzoen erdiak baino gehiago gomendatutako balio minimoen azpitik daude (10 metrotatik behera, hiri ehunaren laxotasuna, hiri tentsiorik eza eta funtzionalitate txikia adierazten du) (Iturria: Informazioko Udal Unitatea).


TRINKOTASUN ZUZENDUA, 2017



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Unitate txikiagoen araberako begirada xehatuago batek trinkotasun balio bereziki handiak (50 metrotik gorakoak) erregistratzen ditu Altzan: Larratxon eta Eskalantegin (dentsitate garbi handia eta egonaldirako espazio publikoen gabezia), baita Molinaon ere (batik bat, egonaldirako espazio publikoaren gabeziagatik). Aitzitik, adierazlearen helburu minimoaren (10 metro) azpitik daude Miramon, Puio-Lanberri, Tolaregoia, Lugaritz, Arbaizenea, Zubieta, Oriamendi, Amasorrain eta Atotxa Erreka (bizitegi eraikiko bolumen txikia eta, hartara, espazio sinplifikatuegiak) (Iturria: Informazioko Udal Unitatea).

TRINKOTASUN ZUZENDUA. ESPAZIO ERAIKIAREN ETA ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIOAREN ARTEKO OREKA




Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea

Donostia berdea

- Hiriak bi milioi eta erdi m^2 berdegune du (parkeak, lorategiak,....), eta arras gainditzen ditu biztanleko m^2 berdeguneko ratioen arloko gomendioak (Osasun Mundu Erakundeak 10 eta 15 m^2-ko ratioak proposatzen ditu). Donostian, 2009an, **parkeek, lorategiek eta hiriko berdeguneek** biztanleko 34,9 m^2-ko **azalera okupatzen zuten**. Oso atzetik zeuden Euskal Autonomia Erkidegoko beste hiriburuen ratioak (4,94 eta 21,4 m^2/biztanle Bilborako eta Gasteizerako, hurrenez hurren), baita Donostialdekoak ere (18,4). Izan ere, 2009an, Donostiako hiri lurzoruaren % 59,5 parkeek, lorategiek eta hiriko berdeguneek okupatzen zuten (Bilbon % 13,3 eta Gasteizen % 16,9) (Iturria: EUSTAT). Informazioko Udal Unitateak emandako ratiorik eguneratuenen arabera, 2017an Donostiako biztanle bakoitzeko berdeguneen batez bestekoa 69 m^2/biztanle da.
- **Auzoen araberako begirada** desberdina da, nahiz eta gehienetan ratioek nabarmen gainditzen duten 10 m^2/biztanle helburu desiragarria, salbu Gros auzoan (emaitzarik apalena, 0,54 m^2/bizt.) eta Amara auzoan (6,12 m^2/bizt.). Beste muturrean, Igeldok oso batez besteko handia du 2.226 m^2/biztanle (Mendizorrotzi esker).
- Bizitegi **unitate txikien** araberako analisiak erakusten du zer zonak dituzten biztanle bakoitzeko berdegune gabeziako arazoak. Grosen, Erdialdean eta Amara Berrin metatzen dira 5 m^2/biztanleko minimora iristen ez diren zona horietako gehienak: Amezti (0), Portutxo (0), Zubieta (unitate txikia) (0), Alde Zaharra (0,025), Gros (unitate txikia, 0,50), Eskalantegi (1,09), Sagues (1,40), Atotxa (1,57), Iruresoro (2,17), Loiola hirigunea (2,43), Aldakoenea (3,15), Mirakontxa (3,25), Molinao (3,73), Martutene (unitate txikia) (4,00), Gune Erromantikoa (4,06), Intxaurrondo Zaharra (4,39) eta Lorea (4,98). Aditzera eman behar da unitate txiki horietako batzuek ertzetan berdegune adierazgarriak dituztela (Alde Zaharrak, Gune Erromantikoak, Atotxak, Iruresorok), edo landagune handiez inguratuta daudela edo oso hurbil dituztela: Ameztik, Zubietak edo Saguesek.


BIZTANLE BAKOITZEKO BERDEGUNEAK, 2017



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

DONOSTIA BIZTANLE BAKOITZEKO BERDEGUNE RATIOEN OSO GAINETIK DAGO, GROSEN ETA AMARAN SUSPENDITZEN DUEN ARREN

ESPAZIO BERDEA (M²/BIZTANLE)



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea


Pertsonak/lurraldea erlazioa. Pertsonen masa kritikoa

- Hiriak konplexutasun eta antolamendu tentsio maila egokia izateak eta behar besteko populazioa edo pertsonen masa kritikoa izateak (220-300 pertsona/ha) baldintzatzen du hein handi batean hiri bizitza handiagoa edo txikiagoa izatea. Masa kritikoak adierazten du hiri espazio berean biltzen den pertsona kopurua (bertan bizi den populazioaren eta lan egiten duten langileen batura).
- Hirian balio egokiak dituzten hiri espazioak dira etxebizitza eta jarduera dentsitate gehien duten espazioak, non pertsonen eta hiri espazioaren arteko proportzioak ahalbidetzen dituen pertsonen eta jardueren arteko trukeak eta harreman berriak, baita ezinbesteko hiri funtzioen garapen zuzena ere (garraio publikoaren zuzkidura edo oinarrizko ekipamenduen zuzkidura, esate baterako).
- Aitzitik, emaitza okerreneko zonetan familia bakarreko etxebizitza edo etxebizitza atxikiak dira nagusi, hau da, dentsitate txikiko eta merkataritza jarduerarik gabeko eremuak; hortaz, sortzen diren hiri espazio horietan ezin da ezinbesteko hiri funtzioak behar bezala garatzeko adina populazio bildu.

PERTSONAK/LURRALDEA ERLAZIOAREN DENTSITATE ETA BANAKETA DESBERDINA

- **Eremu zentralek** dituzte emaitzarik onenak, nahiz eta modu desberdinean izan: Gros, Gune Erromantikoa, Alde Zaharra, Amara Berri, Iruresoro eta Atotxa unitate txikiek dituzte baliorik handienak, eta soberan betetzen dute helburu desiragarria eta guztietan gainditzen da 400 pertsona/ha balioa. Aitzitik, Mirakontxa pasealekuak (72) eta Tolaregoiak (28) dituzte baliorik txikienak.
- Tarteko eremuek balio txikiagoak dituzte, baina alde handiak daude unitate txiki batzuetatik beste batzuetara: Matiak, Benta Berrik eta Loreak balio egokiak dituzte (hiruak hiriaren mendebaldean), baita Loiola hiriguneak, Larratxok, Bidebietak eta Eskalantegik ere (hiriaren ekialdean). Aitzitik, Aiete osoan, Intxaurrondon eta Ategorrieta-Ulian, eta Arriola, Itsasargia- Erregenea, Lorategi Hiri, Txomin, Mirakruz gaina eta Molinao unitateetan balioak txikiagoak dira.
- Edonola ere, landaguneetan eta hiri inguruetan daude hiriko baliorik txikienak: Igeldon (99), Añorga Txikin (107) eta Martutenen (171) balio txikiak jaso dira, baina 100etik hurbil edo gaindituta; gainerako unitate txikietan balioak are txikiagoak dira, eta hiriko muturreko balioak jaso dira Atotxa Errekan (3) eta Ioyolan (6).

PERTSONEN MASA KRITIKOA




Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea

Bizitegi ingurunearen ezaugarriak

- Etxebizitzak oso eragin handia du pertsonen bizi kalitatean, eta gizarte bazterketako faktore ere izan daiteke. Etxebizitza da donostiarren kezka nagusietako bat. Bizitegi ingurunea alderdi erabakigarrietako bat da hiri baten garapenean eta hiriko bizi kalitatean.
- Atal honetan zenbait zertzelada aurkeztuko dira, labur-labur islatzeko Donostiako etxebizitzaren ezaugarri nagusiak, etxebizitzaren arloko problematika eta epe ertainerako erronkarik premiazkoenak. Zorroztasun handiagoa nahi izanez gero, *Udal Etxebizitza Planaren* Diagnostiko Txostenera eta Estrategiako Hasierako Proposamenera jo beharko da (2018ko martxoan aurkeztu zen).
- 2016an Donostiako **etxebizitza parkean** 90.977 etxebizitza finkatu zeuden, EUSTATen etxebizitza estatistikaren arabera; hala ere, udal katastroak beste kopuru bat jaso zuen 2017an, 88.675 etxebizitza. Berriro ere aditzera eman behar dira datuen gabeziaren berezko zailtasunak edo, kasu honetan, erreferentziako errolda bakarra ez egotea. Etxebizitzen kopurua Δ% 14 gehitu zen 2001 eta 2011 artean, INEk 88.325 etxebizitza kontabilizatu zituenean. Informazio iturri eguneratu baten bidezko bilakaera serierik ez izateak eragozten digu bilakaera horretan sakontzea.
- Etxebizitzen % 99,8 familia etxebizitzak dira eta gainerako % 0,2 etxebizitza kolektiboei dagokie. Familia etxebizitzen barruan, etxebizitzen % 84,4 etxebizitza nagusiak dira eta % 15,6 etxebizitza nagusi ez diren familia etxebizitzak dira (Iturria: EUSTAT).En los diferentes entornos de la ciudad pueden apreciarse las diversas etapas de su desarrollo urbano y residencial, destacando especialmente las áreas más centrales en cuanto a calidad ambiental, arquitectónica y urbana, siendo también las zonas más emblemáticas y representativas de la actividad financiera y comercial.
- Hiriaren ingurune desberdinetan hiri eta bizitegi garapenaren etapak ikus daitezke; ingurumen, arkitektura eta hiri kalitatearen alorrean eremurik zentralenak nabarmentzen dira, eta eremu horiek dira, hain zuzen ere, finantza eta merkataritza jardueraren zonarik enblematikoenak eta adierazgarrienak.
- Eraikuntza morfologiaren banaketan nabarmentzen da, batik bat, zabalduraren tipologia; Erdialdea, Amara Berri, Antigua, Egia eta Gros auzoen zatirik handienean bereizgarria da zabalduraren tipologia. Halaber, Alde Zaharreko antzinako hiriguneko tipologia nabarmendu behar da. Dentsitate txikiko etxebizitza Miramon-Zorroagan eta Antiguan dago, eta Ibaetan eta Igeldon etxebizitza bakartua da bereizgarria. Erdialdea, Antigua, Aiete eta Martutene auzoen zatirik handienak tipologia mistoa du, eta Altzan eta Intxaurrondon multzo irekiko eraikuntza da nagusi (Altzan multzo ireki garaia).

DONOSTIAKO ETXEBIZITZA PARKEA, 2017



Iturria: Donostiako Udala, Etxegintza. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Etxebizitza parkearen **auzoen araberako banaketan**, nabarmentzen dira Amara Berri (% 16) eta Erdialdea (% 15), eta atzetik daude Gros (% 11) eta Altza (% 10); lau auzo horiek Donostiako bizitegi parkearen erdia baino gehiago biltzen dute. Aitzitik, Landerbaso, Zubieta, Igeldo, Miramon-Zorroaga auzoek dituzte etxebizitza ehunekorik txikienak (lauen artean ez dira udalerri osoaren % 2ra iristen) (Iturria: Donostiako Udala. Etxegintza).

Etxebizitzaren banaketa eta ezaugarriak


BIZITEGI INGURUNE ETA ERAIKUNTZA MORFOLOGIA DESBERDINAK, ZONEN ARABERA

Donostiako etxeen ezaugarriak

- Donostian 77.058 etxe kontabilizatu ziren 2017an, Udal Etxebizitza Planean jasotzen denaren arabera.
- Aurreko datuek (Iturria: EUSTATen populazio eta etxebizitza errolda) erakusten dute 1991 eta 2011 artean etxeen kopuruak nabarmen egin zuela gora (Δ% 45,1, 1991ko 54.278 etxeetatik 2001eko 65.398 etxeetara eta 2011ko 79.286 etxeetara).
- 2017ko Donostiako etxeen banaketaren araberako azterketak erakusten du Donostiako etxe gehienak Amara Berrin (12.584 etxe, udalerriko etxe guztien % 16,3), Erdialdean (10.076, % 13,1), Grosen (8.305, % 10,8) eta Altzan (8.246, % 10,7) metatzen direla. Etxeen banaketan pisu txikiena duten auzoak dira Landerbaso (6 etxe, % 0,01), Zubieta (115 etxe, % 0,15), Igeldo (391 etxe, % 0,5) eta Miramon-Zorroaga (581 etxe, % 0,75) (Iturria: Etxegintza).
- Donostiako etxeen batez besteko tamaina (etxean bizi diren pertsonen kopuruan neurtuta) etxe bakoitzeko 2,4 pertsonakoa da —behera egin du azken hamarkadetan (2001ean 2,75 pertsona ziren)—; Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa antzekoa da (2,5 pertsona 2016an).
- Donostiako auzoen artean aldeak daude; nabarmentzekoak dira Miramon-Zorroaga (3,5 pertsona), Igeldo eta Aiete (biak 2,8) eta Ategorrieta-Ulia (2,7), guztiak hiriko batez bestekoaren gainetik, baita Ibaeta, Añorga, Loiola, Zubieta, Intxaurrondo eta Altza ere (guztiak 2,5); batez besteko tamainarik txikienak neurtu dira Grosen, Erdialdean eta Landerbason (2,2 pertsona).


BIZITEGI METAKETA HIRIKO ERDIALDEKO ETA EKIALDEKO AUZOETAN. ETXEKO BATEZ BESTE 2,4 PERTSONA

DONOSTIAKO ETXEAK, 2017



Iturria: Donostiako Udala, Etxegintza. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

DONOSTIAKO ETXEAREN BATEZ B. TAMAINA, 2017



Iturria: Donostiako Udala, Etxegintza. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


Etxebizitzaren ezaugarriak

- Donostiako etxeen % 30,4an pertsona bakarra bizi da (**pertsona bakarreko etxeak**), etxeen % 29,7an 2 pertsona bizi dira, % 38,3an hiru eta bost pertsona artean bizi dira; 1.231 etxetan (% 1,6) sei eta bederatzi pertsona artean bizi dira eta 66 etxetan (% 0,09) hamar pertsona edo gehiago (Iturria: Donostia Sustapena).
- Donostiako etxeen **auzoen araberako banaketan** nabarmentzen dira, pertsona bakarreko etxeen ehunekoagatik, Erdialdea (% 39,3), Gros (% 34,8) eta Egia (% 31,7); aitzitik, Miramon-Zorroagan (% 16,9), Aieten eta Añorgan (biak % 22,7), Igeldon (% 25,1) eta Altzan (% 25,2) daude pertsona bakarreko etxeen ehunekorik txikienak. Era berean, aditzera eman behar da Landerbasoko 6 etxeetatik erdian pertsona bakarra bizi dela (Iturria: Etxegintza).
- Donostiako etxebizitzen **batez besteko antzinatasuna** 47,6 urte ingurukoa zen 2015ean; Bilbon 49,6 urtekoa eta Gasteizen 31,5 urtekoa zen, eta Donostialdean 39,1 urtekoa dela zenbatetsi da (Iturria: EUSTAT). Nabarmentzekoa da etxebizitzen % 6,75 (5.202 etxebizitza) 1900. urtearen aurrekoak direla (117 urte baino gehiago dute) eta hirutik batek (% 32,7k) 57 urte baino gehiago duela (1960. urtearen aurrekoak dira). 1969-1981 aldikoak dira etxebizitzen % 35,6 eta % 10,4 milurteko berrian eraiki dira (Iturria: Etxegintza).
- Donostiako **etxebizitzen batez besteko azalera** 85 m^2-koa zen 2016an, Gasteizko batez besteko azalera baino pixka bat txikiagoa (85,2 m^2) eta Bilboko (82 m^2) eta Donostialdeko (83,8 m^2) batez besteko azalera baino handiagoa (Iturria: EUSTAT).
- Donostian etxeen azalera eta etxe horietan bizi diren pertsonen kopuruaren arteko erlazioa aztertuta, biztanle bakoitzeko batez besteko azalera eraikia 47,93 m^2-koa da. Auzoen araberako begiradak Altzako 40,22 m^2/bizt. eta Miramon-Zorroagako 65,93 m^2/bizt. arteko urkila erakusten digu; Antigua, Ategorrieta-Ulia, Erdialdea, Gros, Igeldo eta Miramon-Zorroaga auzoak udalerriko batez bestekoaren gainetik daude (baita Zubieta ere, 75,33 m^2/bizt.).
- Hiri Antolamenduko Plan Bereziak biztanle bakoitzeko azalera minimoa 25 m^2-tan finkatu du eta proportzioz kanpokotzat jo du biztanle bakoitzeko 75 m^2 gainditzea. Donostiako populazioaren % 8,6k biztanle bakoitzeko 75 m^2 baino azalera handiagoa du (etxebizitzen % 17,4) (Iturria: Etxegintza, Udal Etxebizitza Plana).






FAMILIA ETXEBIZITZAK, BERTAN BIZI DIRENEN KOPURUAREN ARABERA, 2016




Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

DONOSTIAKO PERTSONA BAKARREKO ETXEAK, 2017



Iturria: Donostiako Udala, Etxegintza. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

DONOSTIAKO ETXEBIZITZETAN ANTZINATASUNA, 2017




Iturria: Donostiako Udala, Etxegintza. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Etxebizitza eta irisgarritasuna

- Donostiako etxebizitzen **batez besteko konfort** indizea 74,1ekoa zen 2011n (100 oinarri); Bilboko (70,8) eta Donostialdeko (71,3) batez bestekoaren gainetik zegoen eta Gasteizko batez bestekoaren 5 puntu azpitik (Iturria: EUSTAT).
- Etxebizitzen **irisgarritasunak** eragin erabakigarria du pertsonen —batez ere dibertsitate funtzionala duten pertsonen— eguneroko bizimoduan. Ildo horretan, erantsi behar da 65 urte edo gehiagoko populazioaren kolektiboa gero eta handiagoa dela, baita 80 urte edo urte gehiagokoen kolektiboa ere. Bizitegi ingurune irisgarri baten elementu garrantzizkoenen artean nabarmentzen da igogailuak edukitzea altuerako eraikinetan. Donostian igogailurik gabeko 12.646 etxebizitza (% 16,4) kontabilizatu dira, eta etxebizitza horietan 29.045 pertsona (% 15,6) bizi dira; horietatik, 9.443 etxebizitza (% 12,3) 2. solairuko edo goragoko etxebizitzak dira eta horietan 21.655 pertsona bizi dira (populazioaren % 11,6) (Iturria: Udal Etxebizitza Planaren Diagnostikoa).
- Igogailurik gabeko 2. solairuko edo goragoko etxebizitzetan bizi diren pertsonen **auzoen araberako banaketan**, eraginpean dagoen populazio ehunekorik handienak dituzte Altzak (% 26,6), Martutenek (% 25) eta Intxaurrondok (% 24); batik bat, hiriko ekialdeko populazioa dago irisgarritasun arazo horren eraginpean, eta hiriko batez bestekoaren gainetik daude, halaber, Egia (% 18), Ategorrieta-Ulia (% 14,7), Erdialdea (% 13,5) eta Mirakruz-Bidebieta (% 12,2). Unitate txikien araberako banaketak ehuneko horiek ñabarmentzen ditu eta arreta jartzen du Loiola, Txomin, Portutxo, Olete, Arria eta Intxaurrondo Berri unitate txikietan, eraginpean dagoen populazio ehunekorik handienekin. 65 urteko eta gehiagoko pertsonen presentzia, eta are gehiago 80 urteko eta gehiagoko pertsonena (batez ere bakarrik bizi direnean) aintzat hartu beharreko beste inguruabar bat da: ehunekorik handienak metatzen dira Altzan (% 6, eta 80 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan % 2), Intxaurrondon (% 5,7 eta % 2,1), Martutenen (% 5,4 eta % 1,7) eta Egian (% 4,5 eta % 1,75).
- Irisgarritasuneko arazoekin batera, kontuan izan behar da, halaber, etxebizitzak pertsonen bizi zikloaren baldintzetara eta eskaeretara egokitu beharra. *Udal Etxebizitza Planaren Diagnostikoan* "gehiegizko" tamainako etxebizitzetan bakarrik bizi diren adineko pertsonak aipatzen dira, batzuetan kalteberatasun eta iraunkortasun txikiko baldintzetan bizi baitira.


PERTSONAK IGOGAILURIK GABEKO ETXEBIZITZETAN (2.SOLAIRUA EDO GEHIAGO, 2017)



Iturria: Donostiako Udala, Etxegintza. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

PERTSONAK IGOGAILURIK GABEKO ETXEBIZITZETAN (2.SOLAIRUA EDO GEHIAGO, 2017)


pertsonen %a



Iturria: Donostiako Udala, Etxegintza. Donostiako Etxebizitza Plana.

PERTSONAK IGOGAILURIK GABEKO ETXEBIZITZETAN (2.SOLAIRUA EDO GEHIAGO, 2017)

pertsonen %a



Iturria: Donostiako Udala, Etxegintza. Donostiako Etxebizitza Plana.










Erabilera turistikoko etxebizitza

- Donostiako etxebizitzaren testuinguruan, erabilera turistikoko etxebizitzak ere aztergai dira. Erabilera aldaketak (etxebizitzatik ostatu turistikorako edo bizitegia ez den beste erabilera batzuetarako aldaketak) bizitegi merkatuan presioa areagotzea ekartzen du; aldi berean, eta inguruabar jakin batzuetan, jarduera horren berezko ondorioek gatazka egoerak eragin ditzakete ohiko egoiliarrekin.
- Erabilera turistikoko etxebizitzak dira jabeak hirugarren batzuei, zuzenean edo zeharka eta prestazio ekonomiko baten truke, aldi bateko egonaldi baterako lagatzen dizkienak, behin eta berriz. Informazioko Udal Unitateak kuantifikatu ditu, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza turistikoen erregistroaren bitartez (2017).

ERABILERA TURISTIKOKO ETXEBIZITZA, 2017




Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea.

- Erabilera turistikoko etxebizitzen udalerriko batez bestekoa % 1,39koa da. Balio hori Informazioko Udal Unitateak —Bartzelonako Hiri Ekologiako Ikasgelarekin elkarlanean— helburu minimotzat jotzen dituen parametroen barruan dago, baina ez helburu desiragarriaren barruan (Iturria: Informazioko Udal Unitatea).
- Auzoen araberako begiradak oso bestelako errealitatea eskaintzen du, helburu desiragarria (erabilera turistikoko etxebizitzak % <1,0) hiriko auzo guztietan betetzen da, salbu Erdialdean (% 4,795), Grosen (% 2,89), Antiguan (% 1,51) eta Igeldon (% 1,02); izatez, Erdialdean eta Grosen erabilera turistikoko etxebizitzaren pisua oso gainetik dago.
- Unitate txikien ikuspegitik ere egoera oso desberdina da, hiriaren zati handi batek ez du etxebizitza turistikorik (Errondo, Etxadi, Pagola, Buenavista, Larratxo, Molinao, Morlans, Manteo, Añorga Txiki, Intxaurrondo Iparraldea, Miramon, Zubieta,...) eta, aldiz, metaketa oso handia da Alde Zaharrean (% 5,66), Mirakontxa Pasealekuan (% 5,64), Gune Erromantikoan (% 4,95), Saguesen (% 4,90) eta Urumea Pasealekuan (% 4,35).

ERDIALDEAN (% 4,79), GROSEN (% 2,89), ANTIGUAN (% 1,51) ETA IGELDON (% 1,02), ETXEBIZITZA TURISTIKOEN ERABILERA GAINONTZEKO AUZOEKIN ALDERATUZ OSO ALTUA DA, HIRIKO MEDIA (% 1,39) IZANEZ.

ERABILERA TURISTIKOKO ETXEBIZITZA, 2017



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Erabilera turistikoko etxebizitza

2011N, DONOSTIAKO ETXEBIZITZEN % 6,26 HUTSIK ZEGOEN, AZTERTUTAKO HIRIEN ARTETIK GASTEIZEK SOILIK DU ETXEBIZITZA HUTSEN PROPORTZIO TXIKIAGOA (% 5,08)


- Etxebizitzaren egoera erreferentziako hirien testuinguruan jartzean oso bestelako ikuspegia lortzen dugu, eskura dauden datuak aintzat hartuta: 2011n, 1.000 biztanleko etxebizitza ratioak tarteko puntu batean kokatzen du Donostia; soilik Gijonek, Oviedok eta Gasteizek dute Donostiako familien proportzioa baino proportzio handiagoa (‰ 412,7, 2016. urtean) (Iturria: INE).
- Hirian **pertsona bakarreko familien** ehunekoa (% 30) Gasteizkoa, Santanderrekoa, Bartzelonakoa edo Oviedokoa baino pixka bat txikiagoa da (guztiak daude % 31 inguru); alderik handienak daude pertsona bakarreko familien ehuneko txikiena duten Sevillarekin (% 26) eta Zaragozarekin (% 28).
- Familien **batez besteko tamaina** Gijongo 2,31 eta Girona eta Sevillako 2,65 artean dago; Donostia erdialdean dago, familia bakoitzeko 2,43 pertsonarekin.
- 2011n, Donostiako **etxebizitzen** % 6,26 **hutsik** zegoen, Gasteizek soilik du etxebizitza hutsen proportzio txikiagoa (% 5,08).
- Europako hirien begiradak, aldiz, argi eta garbi islatzen du Europaren iparraldean eta hegoaldean bizitegi eredu desberdinak daudela (Iturria: EUROSTAT).
- **Pertsona bakarreko familien** ehunekorik handienak Alemaniako eta Holandako hirietan ematen dira; muturreko balioak neurtu dira Gröttingen (Alemania, % 68) eta Groningen (% 61) hirietan. Izatez, % 50etik gorako ehunekoak dituzten 45 hirietako gehienak Alemaniakoak eta Holandakoak dira. Aitzitik, pertsona bakarreko familien ehuneko txikieneko hiriak (% 20tik behera), hogeita hamar inguru dira (aztertutako 900 hirietatik), eta gehienak Portugalgoak eta Espainiakoak dira, eta, hein txikiagoan, Italiakoak edo Poloniakoak; ehuneko txikieneko hiriak dira Paredes (% 10) eta Guimarâes (% 13), biak Portugalen.
- Familiaren batez besteko tamainari dagokionez, familien batez besteko tamaina (pertsonetan) 2 pertsonatik beherakoa duten hiri gehienak Alemaniakoak eta Holandakoak dira (eta, askoz ere hein txikiagoan, Finlandiakoak, Frantziakoak edo Austriakoak); muturrean Alemaniako Greisfswald hiria dago (1,6 pertsona). Aitzitik, tamaina handieneko familien ehuneko handiena duten (pertsonen kopuruari dagokionez) hirien artean (3 pertsona baino gehiago), gehienak Espainian eta Portugalen daude, eta guztien buru Pozuelo de Alarcón hiria dago (3,2 pertsona).

	Bartzelona	Bilbao	Donostia	Gijon	Girona	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
Familiak 1.000 biztanleko (‰ bizt.) 2016	409,1	418,0	**412,7**	436,5	377,0	424,6	392,4	408,8	379,6	395,9	424,0	410,7
Familien batez b. tamaina (pertsona kop.) 2016	2,46	2,4	**2,43**	2,31	2,65	2,36	2,59	2,46	2,65	2,53	2,37	2,55
Pertsona bakarreko familiak, guztien artean (%)	30,66	29,5	**30,17**	31,49	27,8	31,12	29,97	30,95	25,95	29,6	31	28
Etxebiz. konbentzionalak, errolda (‰ bizt.) 2011	502,1	460,9	**474,4**	530,2	490,5	548,8	455,6	513,7	479,7	526,2	464,4	484,5
Hutsik dauden etxebizitzen proportzioa (%) 2011	10,88	7	**6,26**	11,25	14,18	15,02	8,65	11,62	14,29	13,62	5,08	10,75

Iturria: INE, Hiri adierazleak. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzaren beharrari eta eskariari buruzko 2015eko inkestaren arabera, Donostiako familien % 7,3k adierazi dute ohiko bizilekua aldatzeko beharra (5.240 familiek) eta % 10,7k etxebizitza birgaitu beharra; aldi berean, 18 eta 44 urte arteko 8.414 pertsonak (populazioaren % 14k) lehen etxebizitza eskuratzeko beharra adierazi du.
- Aurrez aditzera eman den bezalaxe, etxebizitza eskuratzea etxebizitzaren prezio handiarekin baldintzatuta dago, hein handi batean bederen; beti izan da herritarren kezka eta eskari nagusietako bat (etxebizitza beharrari buruzko inkestaren arabera), eta inguruabar hori are larriagoa da ekonomia eta finantza egoeraren ondorioz. Etxebizitza zentzuzko prezioan eskuratzeko zailtasuna da herritarren pertzepzioari buruzko inkestetan okerren balioztatzen den alderdia (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa, 2017). Behar-beharrezkoa da etxebizitza bilatzen duten herritarrak, hala nola emantzipatzeko asmoa duten gazteak, prezio eskuragarriagoak dituzten beste udalerri mugakide batzuetara bideratzearen zailtasuna.
- Etxebizitzaren prezioaren bilakaerari erreparatuta, krisialdi ekonomikoaren ondoriozko nolabaiteko beherakada atzean geratzen ari dela ematen du; oraingoz, prezioak krisialdiaren aurreko mailetara iritsi dira. Etxebizitza libre erabiliaren batez besteko prezioa 4.420 €/m² ingurukoa da, eta etxebizitza libre berriaren prezioa 4.967 €/m² ingurukoa (Iturria: Donostia Sustapena, Eusko Jaurlaritzaren higiezinen eskaintzari buruzko inkestan oinarrituta). Alokairuaren batez besteko prezioak gorabehera txiki batzuekin mantendu dira hamarkada honetan.
- Hiriaren espazioan banaketa argia dago etxebizitzaren prezioari erreparatuta, zonarik merkeenen artean daude, hiriaren ekialdean, Altza (1.874 €/m²), Martutene, Intxaurrondo, Mirakruz gaina eta Bidebieta, eta zonarik garestienak dira Erdialdea eta Ondarreta (Mirakontxa pasealekuan 10.174 €/m²-ra iristen da) (Iturria: Etxegintza).

DONOSTIAKO ZONARIK GARESTIENAK ETA MERKEENAK.
URTEKO BATEZ BESTEKO PREZIOAREN ARABERA (€/M²). 2017



Iturria: Donostiako Udala, Etxegintza.

Erabilera turistikoko etxebizitza

18 ETA 44 URTE ARTEKO 8.414 PERTSONEK ADIERAZI DUTE LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO PREMIA DUTELA

DONOSTIAKO ZONARIK GARESTIENAK ETA MERKEENAK, 2017.
BATEZ BESTEKO PREZIOA €/M²

Garestienak	€/m²	Merkeenak	€/m²
Mirakontxa pas.	10.174	Intxaurrondo	2.169
Ondarreta2	7.280	Bidebieta	2.051
Erdialdea	5.687	Martutene	1.895
Mirakontxa	5.469	Mirakruz gaina-Arriobi	1.884
Ondarreta 1	5.451	Altza	1.874


Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Etxebizitza

- Bizitegi eraikuntzako jarduera nabarmen mantsotu da krisialdi ekonomikoarekin, bai etxebizitza libreari dagokionez, bai babes publikoko etxebizitzari dagokionez; nolanahi ere, 2015. urteaz geroztik jarduera lehengoratzen ari dela egiaztatu da. Hiri garapenaren esparruan proiektatutako etxebizitza parkeak babes publikoko bizitegi parkea gehitzeko aukera emango du —babes ofizialeko etxebizitzekin eta etxebizitza tasatuekin—.
- Udal Etxebizitza Planaren Diagnostikoan jasotzen denaren arabera, eta Eusko Jaurlaritzak emandako datuak abiapuntu izanik, 2017. urtean 9.600 eskaera kontabilizatu ziren; eskaera horien % 71,5 Donostian erroldatuta dagoen populazioaren eskaera espedienteak izan ziren (6.863) eta gainerako % 28,5 (2.737 eskaera) Donostian bizi den populazioaren eskaera espedienteak. Donostian erroldatuta dagoen populazioaren etxebizitza babestuko eskaeretan, hauteman da behera egin duela erosketa eskaerak eta gora egin duela alokairu eskaerak; 2017an, espedienteen % 72,3 alokairuari zegozkion (2013an % 49 izan ziren) eta % 27,2 erosketari (2013an % 51 izan ziren). Erantsi behar da etxebizitza babestuko espedienteen % 46an titularrak emakumeak direla, % 34an gizonak direla eta % 20an biak direla titular.
- Etxegintzan jasoarazi diren etxebizitza babestuko eskaerek bilakaera gorabeheratsua izan dute; 2012an puntu goren bat lortu zuten 3.785 eskaerarekin, eta gero behera egin zuen, berriro gora egiteko, 2017ko 3.835 eskaerataraino.
- Hutsik dauden etxebizitzei eta horiek udalerrian duten banaketari buruz gogoeta egin beharko da. Udal Etxebizitza Planaren Diagnostikoaren arabera Donostian ustez 3.885 etxebizitza daude hutsik, batez ere Erdialdean (ia lau etxebizitzatik bat, % 23), Amara Berrin (% 17), Grosen (% 15), Antiguan (% 9), Altzan (% 8) eta Egian (% 7). Unitate txikiei erreparatuta, bereziki deigarria da Gune Erromantikoan (% 16), Amara Berrin (% 15,5) eta Grosen (% 14).


DONOSTIAN ERROLDATUTA DAGOEN POPULAZIOAREN ETXEBIZITZA BABESTUKO ESKAERETAN, HAUTEMAN DA BEHERA EGIN DUELA EROSKETA ESKAERAK ETA GORA EGIN DUELA ALOKAIRU ESKAERAK.

ETXEGINTZAN ALTAN DAUDEN ETXEBIZITZA BABESTUKO ESKAERAK



Iturria: Donostiako Udala. Etxegintza. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

ERAIKUNTZA LIZENTZIA DUTEN ETXEBIZITZAK



Iturria: Donostiako Udala. Ingurumen Salia. Iraunkortasunari buruzko urteko txostena.

DONOSTIAN HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK



Iturria: Donostiako Udala. Donostiako Etxebizitza Plana






Zuzkidurak eta azpiegiturak

Laguntza, gizarte eta osasun ekipamenduak

Ekipamendu zuzkidurak

- Hiriko bizi kalitatea oinarrizko zerbitzuen eskuragarritasunaren eta hiriko bizitza aberasten duten zerbitzu osagarrien mende dago. Donostiak laguntza ekipamendu komunitarioen zuzkidura zabala du, baita prestakuntza, osasun, aisialdi, kultura eta kirol ekipamenduen zuzkidura zabala ere. Azpiegitura horiek funtsezko elementuak dira lurralde eta gizarte kohesioan eta orekan.
- Lehenik, **osasun ekipamenduak eta osasun zentroak** nabarmendu behar dira, horien kopurua modu progresiboan gehitu da. Balioztatu behar da horien presentzia egokia izatea populazioaren eskariaren proportzioan eta hurbiltasun mailaren arabera. Txertatu den mapak 600 metro baino hurbilago estaldura duen populazioa islatzen du, eta gorriz islatzen dira parametro hori betetzen ez duten zonak. Eremu zentraletako populazioak hurbilago ditu ekipamendu horiek; Erdialdean, Egian eta Grosen populazioaren % 90ek baino gehiagok 600 metro baino hurbilago ditu ekipamenduak.
- Gizarte arretako eskaerek gora egin dute, baita **gizarte zerbitzuen** kopuruak eta tipologiak ere; ez, ordea, eskaeraren proportzio berean. 2016an, hiriak gizarte zerbitzuetako 376 zentro zituen, eta horien artean zerbitzu tekniko orokorreko 24 zentro, 72 elkarte, 53 eguneko zentro, orientazio zentro bat, 160 egoitza, 15 lanerako eta enplegu bereziko zentro eta askotariko beste 51 zentro (Iturria: EUSTAT). Hurbiltasun mailari dagokionez, populazioak 300 metro baino gutxiagora duen estaldura islatzen du mapak. Parametro horren barruan populazio ehuneko handiena duten auzoen artean daude Egia (% 82,2), Erdialdea (% 78,6), Gros eta Altza. Irisgarritasun estaldura horrekin populazio gutxien duten auzoak dira Igeldo, Mirakruz-Bidebieta, Zubieta, Loiola, Aiete eta Añorga (Iturria: Informazioko Udal Unitatea).

OSASUN ESTABLEZIMENDUAK, 2016




Iturria: Donostia Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

GIZARTE ZERBITZUETAKO ZENTROAK




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

OSASUN ZENTROAK



Iturria Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea.

GIZARTE ONGIZATEKO ZENTROAK




Iturria Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea.

- Osasun eta ospitale asistentziaren gaineko **herritarren balorazioa** 10etik 7,5ekoa izan zen 2017an; 2008ko aurreko pertzepzio inkestarekin alderatuta balorazioa hobetu da (6,6). Ongizate eta gizarte laguntzako zerbitzuek 10etik 6,8ko balorazioa izan zuten, eta pixka bat gora egin dute 2008tik (6,2) (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa).
- Eskariaren estaldurari dagokionez, gizarte zerbitzuen kasuan, aztertutako datuak 2011koak dira, eskuratu ditugun azkenak; hala ere, eta zuzkidurari dagokionez, erantsi behar da gizarte zerbitzuetako zentroen kopuruak gora egin duela (Δ% 24,5eko gehikuntza 2011-2016 aldian) (Iturria: EUSTAT).

- Hirugarren adinekoentzako egoitza zentroetako plazen eskaintzak, zuzentzen zaion kolektiboari dagokionez (65 urte edo gehiagoko biztanleen ‰a), behera egin du erreferentziako azken urte hauetan (adineko populazioa plazen eskaintza baino erritmo biziagoan hazi da). 2011n eskaintza (‰ 57,7) Bilboko, Gasteizko eta Donostialdeko batez besteko eskaintzaren gainetik dago. Bestalde, Donostiako populazioaren arabera, adinekoentzako eguneko zentroen eskaintzak (‰ 11) behera egin du, erreferentziako hirien gainetik jarraitzen badu ere.
- Bestalde, desgaituentzako egoitza zentroetako plazen eskaintzak (‰ bizt.) eta kolektibo horri zuzendutako eguneko zentroetako plazen eskaintzak modu progresiboan egin dute gora, eta erreferentziako hirien ratioetatik oso gora daude.
- Adierazi behar da egoitza zentroetako eta eguneko zentroetako okupazio maila (% 94,9 eta % 94,8 hurrenez hurren) oso handia dela Donostian eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste hiriburuen gainetik dagoela.


3. EDINEKOENTZAKO EGOITZA ZENTROETAKO PLAZAK

65 urte edo gehiagoko biztanleen ‰a



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


DESGAITUENTZAKO EGOITZA ZENTROETAKO PLAZAK



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


3. ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROETAKO PLAZAK

65 urte edo gehiagoko biztanleen ‰a




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

DESGAITUENTZAKO EGUNEKO ZENTROETAKO PLAZAK




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

EGUNEKO ZENTROETAKO OKUPAZIO MAILA
(3. ADINA EDOTA DESGAITASUNA)



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

EGOITZA ZENTROETAKO BETETZE MAILA
(3. ADINA EDOTA DESGAITASUNA)




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Ohiko erabilerako ekipamenduak

- **Herritarrek erabiltzeko espazio publikoak** (pasealekuak, ranblak, parkeak eta plazak) hiriko oinarrizko ekipamenduaren parte dira, hiria "bizitzeko aukera" ematen duten aldetik, eguneroko jarduerak bertan garatzen diren aldetik, pertsonen joan-etorrietarako eta elkarreraginetarako espazioak diren aldetik, eta aisialdirako eta atsedenerako espazioak diren aldetik, ahaztu gabe plangintzako (hiri antolamenduko) hiri espazioak artikulatzeko betetzen duten zeregina. Espazio publikoa, beraz, hiriari nortasuna eta izaera ematen dion elementuetako bat da, eta lotura estua du hiriko bizi kalitatearekin.
- Herritarrek espazio publikoekin duten gogobetetasun mailak eragin nabarmena du norberaren ongizatean. Donostiarrek 10etik 6,8 punturekin balioztatzen dituzte Donostiako espazio publikoak (2017an inkesta erantzun zutenen % 87,4 pozik edo oso pozik zeuden), eta bereziki gazteen (16 eta 29 urte artekoen) balorazio ona nabarmentzen da, 7,2 punturekin. Gehitu behar da Urban Audit-aren Europako hirien konparazioan batez besteko balorazioa 6,5ekoa dela (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa).
- Informazioko Udal Unitateak egindako analisiak biztanleko 74 m²-ko batez bestekoa ezartzen du, nahiz eta espazio publiko horren zati handi bat lurzoru urbanizaezinetan kokatutako berdeguneak izan (Mendizorrotz, Ulia, Lau Haizeta) (Iturria: Informazioko Udal Unitatea).

Herritarrek erabiltzeko espazio publikoa

HERRITARREK ERABILTZEKO ESPAZIO PUBLIKOA,
BIZTANLE BAKOITZEKO, 2017




Iturria: Donostia Udala. Informazioko Udal Unitatea. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

HERRITARREK ERABILGARRI DUTEN ESPAZIO PUBLIKOARI DAGOKIONEZ, AUZO GUZTIEK GAINDITZEN DUTE BIZTANLE BAKOITZEKO 10 M²-KO ESPAZIO PUBLIKOA, ETA GEHIENEK GAINDITZEN DUTE BIZTANLE BAKOITZEKO 20 M²-KO HELBURU DESIRAGARRIA. GROSEK DU EMAITZARIK TXIKIENA (10,3 M²/BIZT.)

- **Auzoen araberako banaketak** agerian uzten du auzo guztiek gainditzen dutela biztanle bakoitzeko 10 m²-ko espazio publikoa (horixe da, hain zuzen ere, Informazioko Udal Unitateak eta Bartzelonako Hiri Ekologiako Ikasgelak egokitzat jotako helburu minimoa), eta gehienek biztanle bakoitzeko 20 m²-ko helburu desiragarria ere gainditzen dute. Grosek du emaitzarik apalena (10,3 m²/bizt.) eta Igeldok handiena (2.249 m²/bizt.).
- Eskala bat behera eginda, **unitate txikien** begiradak agerian utzi du zona batzuetan herritarrek erabiltzeko espazio publikoko gabeziak daudela (proposatutako ratioei jarraituz): Eskalantegik (2,73 m²/bizt.) eta Larratxok (2,78 m²/ bizt.), Altzan, dituzte emaitzarik txarrenak, eta horiekin batera Oletak (8,87m²/ bizt.), Iruresorok (3,35 m²/ bizt.), Patxillardegik (6,80 m²/ bizt.), Loiola hiriguneak (6,89 m²/ bizt.), Bidebietak (7,29 m²/ bizt.), Amara Zaharrak (7,4 m²/ bizt.) eta Grosek (unitate txikia, 9,1 m²/ bizt.). Guztiek dituzte proposatutako minimoaren azpiko ratioak.

ERABILERA HERRITARREKO ESPAZIO PUBLIKOA



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea


- Donostiako ezaugarritze eta bilakaera demografikoak interes berezia eransten dio jaiotza tasaren bultzadari. Garrantzi berezia hartzen du familientzat lagungarriak diren ekipamenduen eta haurrak eta gazteenak hirira egokitzen laguntzen duten ekipamenduen eskaintza egokitzeak.
- Ildo horretan, Haur Hezkuntzako unitateen proportzioak (‰ bizt. 0 - 2 urte) gora egin du azken hamarkadan, nahiz eta 2016an behera egin zuen (‰ 4,9ra arte). Ratio hori Bilboko (‰ 3,2), Gasteizko (‰ 3,7) eta Donostialdeko (‰ 4,6) batez bestekoen gainetik dago.
- Igeldo, Miramon-Zorroaga eta Aiete auzoek dituzte ikastetxe batetik 300 metrora baino gehiagora bizi den populazio ehunekorik handienak (horien populazioaren bi heren baino gehiago); zehazki, Gune Erromantikoko, Bera Berako, Amasorraingo, Ondarretako, Arriolako eta Txomingo zati batzuek nolabaiteko gabeziak dituzte ikastetxeekiko hurbiltasunari dagokionez, mapan islatzen den moduan.
- Espazio publikoaren parte diren jolas eremuen banaketa urriagoa da Gune Erromantikoko, Amasorraingo, Benta Berriko eta Igarako zati batzuetan. Era berean, mapan islatzen den haurtzaindegien banaketak agerian uzten du hiriko zona batzuetan hurbilen dagoen haurtzaindegira 300 metro baino gehiagoko distantzia dagoela, hala nola Groseko, Gune Erromantikoko, Alde Zaharreko, Amara Berriko, Erriberetako, Bera Berako, Benta Berriko, Ondarretako, Arriolako, Amasorraingo, Aldakoeneko, Intxaurrondoko, Herrerako, Buena Vistako eta Eskalantegiko zona batzuetan.

JOLAS EREMUAK



Iturria: Donostia. Informazioko Udal Unitatea.


HAUR HEZKUNTZAKO UNITATEAK (0 - 2 URTEKO BIZT. ‰)



Fuente: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

HAUR HEZKUNTZAKO UNITATEEN PROPORTZIOAK (‰ BIZT. 0 - 2 URTE) GORA EGIN DU AZKEN HAMARKADAN (‰ 4,9), ETA BILBOKOAREN (‰ 3,2) EDO GASTEIZKOAREN GAINETIK (‰ 3,7) JARRAITZEN DU

IKASTETXEAK




Iturria: Donostia. Informazioko Udal Unitatea.

HAURTZAINDEGIAK



Iturria: Donostia. Informazioko Udal Unitatea.

OHIKO ERABILERAKO JARDUERAK



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea

- Oinez iristeko distantzian (5 eta 10 minutu artean) ohiko erabilerako jardueren, hau da, hurbiltasuneko saltokien proportzio egokia izatea oso lagungarria da hiriko bizi kalitaterako (farmazia, okindegia, supermerkatua, elikadura denda, arrandegia, harategia, fruta eta barazki denda 300 metrora; elikadura azoka 600 metrora). Gros eta Erdialdea auzoek dute zuzkidurarik onena.






Kultura

Kultura, kirola, aisialdia

- Kultura eskaintzak (ekipamenduak eta jarduerak) garrantzi berezia hartzen du hiri baten erakargarritasunean; Donostiak kultura ekipamenduen garrantzi handiko eskaintza publikoa eta pribatua du (±122): liburutegiak, museoak, auditorioak, antzokiak eta kultur etxeen sarea (10 kultur etxe Donostiako auzoetan barrena banatuta, udal esku hartze soziokultural publikoaren zati handi bat metatzen duena). Eskaintza horren barruan, Tabakalera aipatu behar da (2015ean ireki zen), hiriaren kultura eta sormen erreferente berria den aldetik. Era berean, 18 liburutegien sarea nabarmendu behar da (udal sare hori Euskadiko irakurketa publikoko sarearen barnean hartzen da). Udal liburutegien sare horrek onarpen handia du herritarren artean, eta gero eta erabiltzaile gehiago du (135.698 bazkide eta 901.785 erabiltzaile izan ziren 2017an) (Iturria: Donostia Kultura).
- Horrez gain, Donostiako Udalak agerpen handia du eta jarduera trinkoa garatzen du kultura eragile gisa, eta azken urteotan presentzia eta jarduera hori areagotu du, 2016ko Europako Kultura Hiriburutzaren inguruan egindako lanak bultzatuta (hiriburutzaren urtean 5.000 jarduera baino gehiago egin zen). Olatu talka jaialdia nabarmendu da, jaialdiaren beraren berezitasunagatik zein parte hartzeagatik (174 jarduera eta 33.000 parte hartzaile izan ziren 2017an, 2016ko kopuruak baino pixka bat apalagoak).
- Halaber, kultur etxeen esparruan askotariko jarduerak sustatzen dira, eta gero eta jende gehiago bertaratzen da kutur etxeetara; 2017an 7.000 jarduera baino gehiago egin zen. Azkenik, Donostia Kulturak bazkideen kopurua pixkanaka gehitu du; 65.329 erabiltzaile izan ziren 2010ean eta 100.461 erabiltzaile 2017an (hau da, Δ% 53,8 gehitu da). Erabiltzaileen % 77,7 donostiarrak dira, gainerakoak batez ere Donostialdekoak; generoari erreparatuta, % 60 emakumeak dira eta % 40 gizonak.
- Auzoen banaketari erreparatuz gero, hornikuntza kulturalak 300m baino gutxiagotara (estaldura sarbide xede) duen biztanleriaren proportzioa, auzo batetik bestera nabarmenki aldatzen da. Mapak, hurbiltasun-maila hau betetzen ez duten guneak islatzen ditu (Iturria: UMI-a).
- Herritarrek 10etik 6,97 punturekin balioztatu dituzte kultura espazioak 2017ko Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkestan (hala ere, 2008ko balorazioa baino balorazio txikiagoa da, 7,12). Aisialdiko eskaintza, berriz, 6,3 punturekin balioztatu dute (5,5 puntu izan ziren 2008an) (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa).

KULTURA ZENTROAK ETA EKIPAMENDUAK




Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea

Kirol ekipamenduak


- Donostiak kirol jardun handia du, jarduera kopuru handiarekin. 2011n 31.358 parte hartzaile izan ziren kirol jardueretan eta 2016an 35.577 (hau da, Δ% 13,5eko gehikuntza izan zen) (Iturria: Informazioko Udal Unitatea).
- Udalerriko 122 kirol instalazioetan (udal kiroldegiak,…) 3,14 milioi sarrera izan zen 2016. urtean, eta Δ% 16ko gehikuntza izan zen 2011-2016 aldian; era berean, "kirol txartelaren" 48.453 erabiltzaile daude, eta 2008tik Δ% 23,5eko gehikuntza izan da. Bestalde, 2016an 10.416 federatu lizentzia zeuden. Nabarmendu behar da 16 urtetik gorako populazioaren erdiak kirol jardueraren batean parte hartzen duela. Bestalde, hiriak zenbait kirol diziplinetan duen proiekzioa finkatu du, esate baterako surfean, maratoietan,…
- Mapan islatzen da hiriaren barruan kirol instalazioek duten banaketa, 600 metro baino gutxiagora duten populazioaren ehunekoari dagokionez. Auzoen arabera, Igeldok eta Miramon-Zorroagak dute ratio horren barruan populazio ehunekorik txikiena.

DONOSTIAKO KIROL EKIPAMENDUAK, 2017



Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


DONOSTIAKO KIROL EKIPAMENDUAK, 2016



Iturria: Donostiako Sustapena, Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Herritarrek 10etik 6,46 punturekin balioztatu dituzte kirol ekipamenduak, 2017ko Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkestan (6,07 punturekin balioztatu zituzten 2008an) (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa).

KIROL ZENTROAK




Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea

Azpiegiturekiko eta ekipamenduekiko hurbiltasuna

- Ondorio gisa, ekipamenduen lurralde banaketaren hurbiltasuna aztertzean, 300 metroko hurbiltasun eremua hartu da aintzat. Aditzera eman denez, zerbitzuekiko eta ekipamenduekiko hurbiltasunaren arloko estaldura on bat, hau da, garraiobiderik erabili gabe ekipamenduetara hurbildu ahal izatea oso lagungarria da herritarren bizi kalitaterako.
- Baterako ibilbidetik, ondoriozta daiteke donostiarren erdiek 4 ekipamendu mota dituztela, gutxienez, adierazitako erradioaren barruan; egoerarik ohikoena da horrelako hiruzpalau ekipamendu tipologia eskura izatea 300 metroko erradioaren eremu horretan. Populazioaren % 17k ditu ekipamendu horiek guztiak eskura 300 metroko hurbiltasuneko eremu horren barruan, eta populazioaren % 3k ez du ingurune horretan inolako ekipamendurik.
- Baterako hurbiltasuneko mapak oso balio positiboak islatzen ditu hainbat eremutan (5 edo 6 ekipamendu batera), hala nola Matian eta Benta Berrin (Antiguan), Alde Zaharrean, Egiako gune zentralean, Gros eta Manteo arteko mugan (Ategorrieta-Ulian) eta Altzako gune zentralean.
- Auzorik periferikoenek, ordea, hurbiltasuneko balio txikiagoak dituzte (0-2 ekipamendu): Igeldok, Ibaetak, Aietek, Añorgak, Zubietak, Miramon-Zorroagak, Martutenek edo Loiolak.
- Azkenik, nabarmen daitezke, batetik, Altza, auzo periferikoa baina populazio handia eta hurbiltasun balio onak dituena, eta, bestetik, Amara Berri, hurbiltasuneko ekipamenduen zuzkidura hobea izan beharko lukeena zentraltasunagatik eta populazio handieneko auzoa izanik.

EKIPAMENDUEN BANAKETA (300 METROKO HURBILTASUN EREMUA)



Iturria: Donostiako Udala. Garapen Iraunkorreko Hiri Eredua

Ekipamenduen banaketa, horiekiko hurbiltasun eremua adierazita (300 metroko hurbiltasun erradioa)

Hiriko bizi kalitatea

Segurtasuna

Delituak


- Donostia hiri “segurua” da. 2017an, mila biztanleko 31,3 delitu tasa izan zen, Bilbokoa baino askoz ere txikiagoa (‰ 61,1) eta Gasteizkoa baino txikiagoa (‰ 38,0); Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa ‰ 37,4koa da. Edonola ere, Gipuzkoako batez besteko delitu tasa baino zertxobait handiagoa da.
- Denborarekin, delitu indizea gehitu egin da; azken urteotan nolabait mantendu den arren, azken urtean gora egin du 1.000 biztanleko delituen ehunekoak Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunean, eta hiru hiriburuetan ere bai. Izatez, aztertutako 2003-2017 aldian delitu indizearen gorakada orokorra izan da eta Donostiaren kasuan are handiagoa (ehuneko 6,1 puntu) (Iturria: EUSTAT).

Segurtasun pertzepzioa

- Pertzepzioari buruzko inkesten arabera, herritarrei, oro har, hirian seguru daudela iruditzen zaie (10etik 7,72 puntutan balioztatzen dute segurtasuna), eta iritzi horrek gora egin du 2008ko inkestako emaitzekin alderatuta (6,46). Urban Audit-eko erreferentziako hirien batez bestekoaren aldean, Donostian segurtasunak balorazio hobea lortzen du (10etik 6,6 puntukoa da Urban Auditeko batez bestekoa) (Iturria: Donostiako Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkesta, 2017 eta 2008, eta Urban Audit).
- Segurtasunari dagokionez, aipatu behar da generoaren araberako segurtasunaren pertzepzio desberdina, gizonen artean emakumeen artean baino handiagoa da segurtasun pertzepzioa (7,95 gizonen artean eta 7,5 emakumeen artean) (Iturria: Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkesta, 2017 eta 2008).

HIRIA SEGURU SAMARRA DA, ETA DELINKUENTZIAKO BALIO TXIKIAK ETA EGONKORRAK DITU. HERRITARREK ERE SEGURU IKUSTEN DUTE BEREN BURUA

DELITU INDIZEAREN BILAKAERA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Donostiako gizonen eta emakumeen egoerari buruzko diagnostikoak (2013) adierazten duenez, hirian segurtasun eza sentitzen duten emakumeen proportzioa gizonen proportzioa baino handiagoa da (emakumeen % 62k eta gizonen % 32k), eta emakumeek gizonek baino hiru aldiz maizago sentitzen dute segurtasun eza. Emakumeek segurtasun eza sentitzen duten lekuak izaten dira haien auzoa (% 35), pasabideak (% 39), aparkalekuak (% 17), autobus geralekuak (% 12), eta etxean bertan (% 11). Emakume askok segurtasun eza sentitzen dute bakarrik joateagatik (% 47), gauez irteteagatik (% 44), argi gutxi egoteagatik (% 35), emakume izateagatik (% 27) edo haien adinagatik (% 10).

DONOSTIAKO PUNTU KRITIKOEN MAPA, 2017



Puntu kritikoen mapak hiriko lekurik problematikoenak adierazten ditu, betiere udalaren sailarteko taldeak eta herritarren segurtasun pertzepzioak definitutako irizpideen arabera.

Zk.	Kokalekua	Arrazoia
01	Aldapeta-San Bartolome 25	Zona Escondida-escaleras
02	Zona San Roque	Zona Escondida-escaleras
03	Kapitañene	Entorno conflictivo
04	Entorno cementerio-aparc. Matiguxtegi	Zona Aislada
05	Apeadero Atxgorrieta	Entorno conflictivo
06	Paso subterraneo de Oleta	Paso subterraneo
07	Paso subterraneo de Herrera	Paso subterraneo
08	Manteo	Entorno conflictivo
09	Pasadizo Carlos I	Paso Subterraneo
10	Ciudad Jardin	Paso bajo vertiente
11	Parada Baserria	Zona poco transitada-difícil de ser vista
12	Estación Herrera-Bidebieta	Zona Escondida
13	Zona Izturta	Zona Escondida-entorno conflictivo
14	Aldakoenea	Zona Escondida-escaleras-entorno conflictivo
15	Tunel de Egia	Paso Subterraneo

Zk.	Kokalekua	Arrazoia
15	Tunel de Egia	Paso Subterraneo
16	Alto de Errondo	Zona Aislada
17	Paseo de Herrera	Zona poco transitada-difícil de ser vista
18	Parque de Harria	Zona poco transitada-difícil de ser vista
19	Paso Subterraneo de la acera Katalina Ekizagi	Paso Subterraneo
20	Calzada Vieja de Ategorrieta	Zona poco transitada-difícil de ser vista
21	Camino de Garbera-Larrabo	Paso Subterraneo
22	Accesos Colegio La Anunciata	Paso Subterraneo-zona escondida
23	Camino Ikastola Ibai	Zona Escondida
24	Tunel Zorroaga 34	Paso Subterraneo
25	Escalera Bectan 13-Kapitañene	Zona Escondida-escaleras
26	Ascensores Buena Vista	Zona Escondida
27	Zona Casares - Amizahar	Zona Aislada
28	Berra 19-Casares 7	Zona Escondida
29	Berra 25- Casares 61	Zona Escondida


Zk.	Kokalekua	Arrazoia
31	Jai Alai	Zona poco transitada-difícil de ser vista
32	Ulia	Zona poco transitada-difícil de ser vista
33	Julimaserre	Zona poco transitada-difícil de ser vista
34	Morlans Berri	Portales mal ubicados-difícil de ser vista
35	Zona que une Carlos I - Padabines	Muchos recovecos, poco iluminado. Zona
36	Tunel de Maldatxo	Tunel, difícil de ser vista y oida, poco ilum
37	Paseo Mundaiz	Zona poco transitada-difícil de ser vista
38	Ascensores de Larratxo	Ascensores opacos -difícil de ser vista
39	Paseo de Larratxo	Zona poco transitada-difícil de ser vista
40	Paseo de Urki	Zona poco transitada-difícil de ser vista
41	Camino Palacio Miramar	Zona poco transitada-difícil de ser vista
42	Tunel C/Ermita	Paso Subterraneo
43	Rampa Txomin	Paso Subterraneo
44	Patxitxardegi	Mal iluminado, zona escondida



Hiriko zarata

- Zarata da herritarren bizi kalitatean eta, hedaduraz, hiriko bizi kalitatean eragina izan dezakeen beste faktore bat. Donostiako **zarataren analisian** eguneko eta gaueko zarata neurtu dira, hainbat adierazleren bitartez.
- B8 adierazlearen arabera (fatxadetako zarata aztertzen du 4 metroko altueran), Donostiako populazioaren % 11 (20.174 pertsona) dago gomendatzen diren zarata mailak (65 dBA eguneko 24 orduetan) baino zarata maila handiago baten eraginpean, eta, ILGR adierazlearen arabera (fatxadaren altuera osoan aztertzen du zarata), populazioaren % 8 dago eraginpean; bi kasuetan, eraginpean dagoen populazioa jaitsi egin da 2012. urteaz geroztik (populazioaren % 32 eta % 28 hurrenez hurren). Gauez, unerik kaltegarrienean, populazioaren % 12 dago eraginpean (20.012 pertsona dago 55 dBA-tik gorako zarata mailaren eraginpean) (Iturria: Ingurumen Saila).

HIRIKO ZARATA



Iturria: Donostiako Udala. Ingurumen Saila








HIRIKO ZARATA

INGURUMEN ZARATAREN INDIZEEK HOBERA EGIN DUTE AZKEN URTEOTAN, POPULAZIOAREN % 8 DAGO ZARATAREN ERAGINPEAN



Iturria: Donostiako Udala. Ingurumen Saila.

- Kaleko zarata da ingurumen zarataren sorburu nagusia eta horren barruan bide trafikoaren ondoriozko zarata (errepideetako trafikoarena, trenbideetakoa eta industriakoa askoz ere txikiagoa da). Trafikoa berrantolatzeko eta/edo trafikoarekiko esposizioa murrizteko mugikortasunaren arloko ekintzek emaitzak hobetzen dituzte.
- Herritarrek 10etik 5,89 punturekin balioztatu dute hiriko zarata mailarekiko gogobetetasuna (inkesta erantzun dutenen % 25ek adierazi dute ez daudela pozik zarata mailarekin), balorazioa zertxobait hobetu da 2008. urtetik hona (5,75). Baloraziorik txarrena egin dute Alde Zaharrean bizi diren pertsonek (3,72), Loiola - Txomin Enean bizi direnek (4,74) eta Erdialdean bizi direnek (4,58) (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa, 2017ko Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkesta).





Berezitasuna


Erakargarritasuna eta nortasuna

- Atal honetan ondoriozta daitekeenez, populazioaren araberako dimentsioaren, hiri diseinuaren eta zuzkiduren arteko proportzioak hiriko bizi kalitatea gehitzen du. Donostiak paisaia edertasuna du ezaugarri, baita hiri eta ingurumenaren arloko eta zuzkiduren arloko kalitatea eta hiri morfologiaren oreka.
- Hiri morfologiarekin, azpiegiturekin eta zuzkidurekin lotzen diren faktoreez gain, hiri baten bizi kalitatean hein handi batean esku hartzen duten faktore ukiezinak ere aipatu behar dira. Elementu ukiezin horien garrantzia nabarmentzeak hiriaren erakargarritasuna eta berezitasuna areagotzen du. Hiri bilakaera historikoak, kultura dimentsioak eta tokiko nortasunak, besteak beste, izaera bereizia eransten diote hiriari, eta gero eta gehiago balioztatzen da hori. Herritarrek bereziki balioztatzen dute hiriaren tamaina, irisgarritasuna, jendea, segurtasuna, lasaitasuna eta erosotasuna, baita edertasuna, paisaia ingurunea (hondartzak, itsasoa, ibaia, mendia,..), berdeguneak, hirigintza eta kultura jarduera —eransten den irudian ikus daitekeen moduan.

EUROPAKO KULTURA ETA SORMEN HIRIEN MONITOREA
Aztertutako dimentsioak

KULTURA ZIRRARAGARRIA	SORMEN EKONOMIA	INGURUNE MESEDEGARRIA
• Kultura ekipamenduak • Kultura erakargarritasuna eta parte hartzea	• Langile sortzaileak eta ezagutzan oinarritutakoak • Adimen jabetza eta berrikuntza • Sormenaren alorreko enplegu berriak	• Giza kapitala eta prestakuntza • Irekiera, tolerantzia eta konfiantza • Tokiko eta nazioarteko irisgarritasuna • Gobernantza eta araudia

EUROPAKO KULTURA ETA SORMEN HIRIEN MONITOREA.
Aztertutako dimentsioak



Iturria: Cultural Creative Cities Monitor (European Commision)

ZER DA DONOSTIAN/AUZOAN GEHIEN BALIOESTEN DUZUNA?



- Kultura dinamismoak lotura estua du hiri baten bizitzaren zenbait dimentsiorekin; ildo horretan, interesgarria da Europako Batzordeak kultura eta sormen hiriei buruzko analisiaren ikusmoldea aipatzea (Europako 167 hiri aztertu zituen). Kulturarekin eta sormenarekin lotzen diren dimentsioen elkarreragina —azpian adierazten diren dimentsioen artekoa alegia— oso lagungarria da hiriaren dinamismorako eta erakargarritasunerako, baita bizi kalitatea hobetzeko ere. Azterketa horrek giza kapitala, prestakuntza, tolerantzia eta konfiantza balioztatzen ditu Donostian, baita inguruneko gobernantza, kultura erakargarritasuna eta parte hartzea, eta sormen jardueretako eta ezagutzan oinarritutako jardueretako langileak ere.
- The Academy of Urbanism nazioarteko erakundeak ematen dituen The Urbanism Awards 2016 sarietan Donostia izendatu zuten 2016ko Europako Hiri, beste bi finalistak garaitu ondoren, Bolonia eta Stockholm.
- Sari hori emateko askotariko alderdiak ebaluatzen dira: hirigintza alderdiak (plangintza, hiri diseinua, bizitegi arloa, ekipamenduen eta azpiegituren zuzkidura), ingurumen alderdiak, gizarte alderdiak, alderdi berritzaileak, gobernantzakoak eta nortasunekoak. Horretarako, egiaztatze bisita teknikoak egiten dituzte eta adituak elkarrizketatzen dituzte.



DONOSTIA – SAN SEBASTIÁN
THE ACADEMY OF URBANISM
EUROPEAN CITY OF THE YEAR



EBALUATU BEHARREKO DIMENTSIOAK

- Kultura eta sormena
- Baliabide eta ekipamendu publikoen hiri diseinua, kudeaketa eta mantentzea
- Gizarte inklusioa eta ekitatea
- Partaidetza publikoaren/pribatuaren erabilera efektiboa
- Hiriaren gobernantza










Oinarrizko adierazleak


	2001	2009	2016
Familia etxebizitza	77.748	84.729 (2006)	90.977
Etxebizitza nagusia (%)	85,1	82,9 (2006)	84,4
Etxebizitzaren konfort indizea	74,1	75,1 (2006)	74,1 (2014)
Etxebizitza babesturako eskaerak	2.279 (2002)	2.291	3.895 (2017)
Eraikuntza lizentziak (libreak/okupatuak)	518 / 926 (2003)	60 / 185	0 / 709 (2017)
Lurzoru urbanizatua (%)	23,6 (2005)	33	32,2 (2017)
Lurzoru artifizializatua (%)	32,6 (2007)	34 (2010)	42,78 (2017)
Parkeen eta lorategien azalera (m²/pertsona)	23,24 (2005)	34,9 (2008)	69 (2017)*
Donostiako bizi kalitatearen gaineko herritarren gogobetetasuna (0-10)	8,85 (2005)	8,96 (2008)	9,13 (2017)
Segurtasun sentimendua. Inkesta (0-10)	8,8 (2005)	7,7 (2008)	7,72 (2017)
Segurtasuna. Delitu tasa (‰)	‰ 25,5 (2003)	‰ 32,2 (2007)	‰ 31,3 (2017)
Gizarte laguntzako ongizate zerbitzuen gaineko gogobetetasuna. Inkesta (0-10)	5,5, (2005)	6,24 (2008)	6,8 (2017)

Hausnarketarako puntuak

- Hiriak **hiri trinkotasun maila ertaina** du.
- Haatik, trinkotasun zuzenduari erreparatuta (hau da, espazio eraikiaren eta erabilera publikoko espazioaren orekari erreparatuta) egoera bestelakoa da, **auzo batzuek trinkotasun maila handia dute** (Altzak edo Larratxok, adibidez) eta beste batzuek (Miramon, Puio eta abarrek) **desiragarria dena baino askoz ere ratio txikiagoa** dute.
- **Hiria biztanle bakoitzeko berdegune ratioen oso gainetik** dago, Grosen eta Amaran suspenditzen duen arren.
- **Pertsonak/lurraldea erlazioaren dentsitate eta banaketa desberdina** (masa kritikoa).
- Bizitegi metaketa hiriko erdialdeko eta ekialdeko auzoetan. **Etxeko batez beste 2,4 pertsona.**
- **Etxebizitza** parkeak batez beste **47,6 urteko antzinatasuna** du, Bilbokoak baino gutxixeago (49,6), baina Gasteiztikoa urrun dago (31,5)
- Erdialdean (%4,79), Grosen (% 2,89), Antiguan (% 1,51) eta Igeldon (% 1,02), **etxebizitza turistikoen erabilera gainontzeko auzoekin alderatuz oso altua** da.
- 2011n, **Donostiako etxebizitzen % 6,26 hutsik** zegoen, aztertutako hirien artetik Gasteizek soilik du etxebizitza hutsen proportzio txikiagoa (% 5,08).
- **18 eta 44 urte arteko 8.414 pertsonek adierazi dute lehen etxebizitza eskuratzeko premia dutela**
- Donostian erroldatuta dagoen populazioaren etxebizitza babestuko eskaeretan, hauteman da **behera egin duela erosketa eskaerak eta gora egin duela alokairu eskaerak**.
- **Gizarte ekipamenduen eta osasun estalduren** (600 metrotara) **kopuruaren hazkunde eutsia** edo gizarte zerbitzuen kopuruarena (300 metrotara), zentzuzko kopuruetan, baina hobetzeko aukerarekin.



- Auzo guztiek gainditzen dute biztanle bakoitzeko 10 m²-ko espazio publikoa. (UMIk eta Bartzelonako Hiri Ekologiaren Agentziak zehazten duten gutxieneko egokia) eta gehienek gainditzen dute biztanle bakoitzeko 20 m²-ko helburu desiragarria. **Grosek du emaitzarik txikiena** (10,3 m²/bizt.)..
- Haur Hezkuntzako **unitateen proportzioak (‰ bizt. 0 - 2 urte) gora egin du azken hamarkadan (‰ 4,9)**, eta Bilbokoaren (‰ 3,2) edo Gasteizkoaren gainetik (‰ 3,7) jarraitzen du.
- Ekipamenduak. Azken urteetan gauzatu diren azpiegiturei (San Telmo Museoa edo Tabakalera) eta Kutxaren eraldaketaren ondorioz, kultura esparruaren eredua eta eskaintza berriz hausnartzea behar da.
- **Kirolaren esparruan, etengabe ari da hazten pertsonen parte hartzea**. Ildo horretan, 16 urtetik gorako populazioaren erdiak parte hartzeko kirol jardueraren bat egiten du.
- **Donostiako populazioaren erdiak, gutxi gora-behera, 4 ekipamendu tipologia du eskura 300 metroko erradioaren barruan**. Nabarmen daitezke, batetik, Altza, auzo periferikoa baina populazio handia eta hurbiltasun balio onak dituena, eta, bestetik, Amara Berri, zentraltasunagatik eta populazio handieneko auzoa izanik hurbiltasuneko ekipamenduen zuzkidura hobea izan beharko lukeena.
- **Hiria seguru samarra da**, eta delinkuentziako balio txikiak eta egonkorrak ditu. Herritarrek ere seguru ikusten dute beren burua.
- **Ingurumen zaratako indizeek hobera egin** dute azken urteotan, populazioaren % 8 dago zarataren eraginpean.







05
INGURUMENA ETA IRAUNKORTASUNA

Ingurumen estrategia

- Ingurumen ibilbidea
- Klima 2050 Estrategia

Ingurumen egoera

- Igorpenak
- Baliabideen kudeaketa

Ingurumen estrategia

Ingurumen ibilbidea


Donostia iraunkorragorantz

- Garapen iraunkorraren esparruan, Donostiak ibilbide luzea egin du ingurumen iraunkortasunaren aldeko konpromisoan; 1998. urtean *Aalborg-eko Gutuna (Europako Hirien Gutuna Garapen Iraunkorraren Bila)* sinatu zuenez geroztik, ingurumen iraunkortasuna kudeatzeko tresnak garatzen aritu da.
- *Agenda 21eko Tokiko lehen Ekintza Plana* 1998an ezarri zen, eta gaur egun Agenda 21eko Tokiko IIII. Ekintza Plana (2015-2022) dago indarrean.
- 2008an, *Klima Aldaketaren Kontra Borrokatzeko Planak* (KAKBP 2008-2013) hirian sortutako berotegi efektuko igorpenak murrizteko neurri zehatzen zerrenda jaso zuen, bereziki garraioa eta bizitegia bezalako sektoreetatik sortzen direnei bideratuak. 2009an hiri ereduari eta etorkizun iraunkorra ziurtatzeko erronkei buruzko gogoeta estrategikoa egin zen, *Hiri Berdea 2030 ingurumen estrategiarantz* aurrera egiteko.
- 2010ean Europar Batasuneko *Covenant of Mayors* sinatu zen, energia berriztagarrien proportzioa handitzen den aldi berean, energia kontsumoa eta berotegi efektuko igorpenak murrizteko konpromisoarekin (erreferentziako urtetik aurrera berotegi efektuko gasak gutxienez % 20 murriztea).
- *Energia Iraunkorrerako Ekintza Planak* (*Tokiko Ekintza Planaren* barruan eta KAKBPan kokatua) aurrezpena, energia eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera erdiesteko estrategia integratua ekarriko duen energia eredu berria garatzea du xede.





- Azpimarratzeko modukoak dira, halaber, herritarren artean baliabideen zentzuzko erabilera, energia aurrezpena, energia berriztagarrien erabilera eta hondakinen murrizketa eta birziklatzea eta kudeaketa hobea sustatzeko ekintzak, horretarako prestakuntza, sentsibilizazio eta sustapen kanpainak eginda eta nahitaez bete beharreko ordenantzak ezarrita (esate baterako, *Eraikinen Energia Eraginkortasunari eta Ingurumen Kalitateari buruzko Ordenantza*, 2009koa).
- 2014an Europako *Mayors Adapt* ekimena abian jarri zen, klima aldaketari aurre egiteko egokitzapen estrategia landu beharra zekarrena; ildo berean, *Compact of Mayors* - Klimaren Aldeko Alkateen Konpromisoak (2015) hiru zutabe batzen ditu: berotegi efektuko gas igorpenak murrizteko neurri eraginkorrak hartzea; hiria klimaren aldaketetara egokitzea; eta energia segurua, iraunkorra eta eskuragarria lortzera bideratutako jarduketa ildoak ezartzea. 2017an Mayors Adapt eta Compact of Mayors ekimenak bat egitearen ondorioz, Klimaren eta Energiaren Aldeko Alkateen Ituna sortzen da, Donostiaren atxikimendua duena. 2017an, halaber, *Klima Aldaketari Aurre egiteko Egokitzapen Plana* onartzen da, klima aldaketaren ondorio diren arrisku eta kalteberatasunen analisia abiapuntu hartu eta egokitzeko estrategia lantzen duena.
- Eta 2018an *Klima 2050 Estrategia* onartzen da, hurrengo hamarkadetan ingurumen iraunkortasunaren inguruan garatu beharreko ekintza ildoak jasotzen dituena.




- EUSTATen Udalmap Udal Informazioko Sistemak islatzen duenez, Donostiako udal azaleraren % 32,89 **baso azalera** gisa kalifikatuta dago 2016an. Proportzio hori Gasteizkoa (% 31,06) baino handixeagoa da eta aise gainditzen du Bilbokoa (% 19,71); bestalde, baso azalera publikoa % 6,3 zen 2005ean eta % 9,87raino igo da 2016an (Iturria: EUSTAT). Baso azalera horren tipologiaren edo kalitatearen analisian sartu gabe, zuhaitz masen azalera nabarmendu beharra dago, hiri presioa arintzen duten eragile klimatikoak baitira, ziklo hidrologikoaren funtsezko piezak, eta klima aldaketaren aurkako borrokan atmosferako gas trukean funtsezko eginkizuna betetzen duten karbono hustulekuak.
- Garapen iraunkorrari dagokionez, lehen sektoreko jardueraren garrantzia nabarmen daiteke, nahiz eta sektore horretako establezimenduen arabera gero eta pisu txikiagoa izan. Izan ere, 2012an Donostiako establezimenduen % 0,51 lehen sektoreko jardueretan aritzen ziren eta 2017an proportzioa % 0,44ra jaitsi da. (EAEko batez bestekoa establezimendu guztien % 3,43 da, Donostialdean % 1,34, Gasteizen % 1,14 eta Bilbon % 0,19). (Iturria: EUSTAT).

- Oraindik egiteko bidea geratzen bada ere, urteetan zehar garatu diren estrategiek hiriaren ingurunea eta ingurumen kalitatea hobetzen lagundu dute, hiri "berdeagorantz", iraunkorragorantz transformatzeko bidean aurrera egiteko.
- Ildo horretan, positibotzat jotzen da herritarren sentsibilitate handiagoa eta, oraindik apala bada ere, **ingurumena kudeatzeko sistema** duten erakunde publikoak gero eta gehiago izatea (ia berrogeita hamar enpresak lortu dituzte ingurumen ziurtagiriak, bai Ekoskan, bai ISO 14001). Donostiako Udalaren barruan, zenbait zerbitzuk ingurumena kudeatzeko sistemak ezarri dituzte (Donostiako hondartzek ISO 14001 eta EMAS ziurtagiria dituzte 2003. urteaz geroztik; Paco Yoldi eta Bidebieta kiroldegiek eta Agenda 21 eta Klima Aldaketako Zerbitzuaren bulegoek, Cristina-Enea parkean kokatutakoek, Ekoscan arauan oinarritutako ingurumena kudeatzeko sistemak ezarri dituzte; eta Ulia Gazte Aterpetxeak Europako etiketa ekologikoa dauka) (Iturria: Donostiako Udala, Ingurumen Saila).
- Inkestatutako biztanleen % 74ri (4tik 3) ongi edo oso ongi iruditzen zaie Donostia klima aldaketaren aurka borrokatzen duen hiri iraunkorra izatea. Baieztapen horri 6,28 puntu eman dizkiote, 10 punturen gainean, 2017an (Iturria: Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta).
- Hiriaren **E2020DSS estrategian** eta, modu nabariagoan, horren eguneratzean, ingurumenean eta klima aldaketan jartzen da arreta, eta ekintza ildoek energia, mugikortasuna eta hirigintza hartzen dituzte ardatz. Horrez gain, klima aldaketaren aurreko hiriaren erresilientzia bultzatzen da eta ekonomia zirkularraren bidezko garapenari bultzada berriak ematea zein garrantzitsua den nabarmentzen da.

Donostia iraunkorragoranzko bidea

- Klima Aldaketari Aurre egiteko Egokitzapen Estrategia lantzeko prozesuak 2014. urtean *Mayors Adapt* ekimenarekin bat egitean hartutako konpromisoan du jatorria.
- 2017an onartutako Egokitzapen Planak klima aldaketaren ondorio diren arrisku eta kalteberatasunen analisia egiten du zenbait alderdiri dagokionez: olatuek eta itsas mailaren igoerak ingurune eraikiaren gainean duen inpaktua; ibai eta euri uholdeen arriskua eta ingurune eraikiaren eta saneamendu sareen gainean duten inpaktua; bero boladen eta tenperatura igoeraren arriskua eta gizakien osasunaren eta biodibertsitatearen gainean duten inpaktua.

UHOLDEEN ERAGINPEKO GUNEEN MAPA



- Egokitzapen estrategia hori lantzean egokitzapen neurriak eta zuzenean esku hartzekoak (naturan oinarritutako soluzioak ingeniaritza obrarekin konbinatuta), sentsibilizazio neurriak eta prebentzio neurriak (alarma sistemetan, prestakuntzan, kontzientziazioan eta sentsibilizazioan oinarrituak) kontuan izan dira.
- Barne zeharkakotasuna mantendu dela nabarmendu beharra dago, egokitzapenari buruzko sailarteko batzordearen (bertan parte hartzen dute Ingurumen Zuzendaritzak, Proiektu eta Obren Zuzendaritzak, Hirigintza Zuzendaritzak, Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuak, Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritzak, Donostia Sustapenak, Gizarte Ongizatearen Zuzendaritzak eta Estrategia Bulegoak) eta eragile publiko eta pribatuen inplikazioaren bitartez.

BERO BOLADEK GIZA OSASUNAREN GAINEAN DUTEN KALTEBERATASUNA












KLIMA 2050 Estrategia

- Klima 2050 Estrategiak (onartua) Donostiak dituen erronka, aukera eta erresistentzietan sakontzen du, hurrengo hamarkadetan ingurumen iraunkortasunaren inguruan garatu beharreko oinarriak eta ekintza ildoak finkatzen dituen aldi berean.
- Berotegi efektuko gasak igortzeko prozesuen eta prozesu horiek bizimoduan txertatzearen ikuspuntutik aurre egiten dio klima aldaketari. Aldaketarako esku hartzea prozesuen eraginkortasuna teknologiaren bitartez hobetzera eta gure bizimodua transformatu behar duten gizarte eta kultura aldaketetara bideratzen da.
- Nabarmentzekoa da estrategiaren gobernantza, udal mailako egitura iraunkorra abiapuntu hartuta (klima aldaketari aurre egiteko estrategiaz eta egokitzapenaz arduratua) eta eragile publiko eta pribatuak eta herritarrak prozesuan zehar inplikatuta.
- Gaingiroki, klima estrategia **5 ardatzetan** egituratzen da: informazioa (komunikazioa, parte hartzea, adostasuna), bizimodua (portaerak, ohiturak, jarrerak, kultura), lurraldea (azpiegiturak, eraikuntzak, ekosistemak), teknologia (energia, diseinua) eta araudia (esparru instituzionala, ekonomikoa eta fiskala).
- **Ekintza esparruak**, laburbilduz, honako hauek dira: okupazioa (plangintza eta lurzoruaren erabilerak, lurzoruaren artifizializazioa geldiarazteko eta azalera berdea handitzeko); mugikortasuna (pertsonena eta salgai fluxuena, barneko joan-etorri motorizatuetan garraio publikoa % 60raino bultzatzeko); produkzioa (ondasun kontsumoa eta hondakin sorrera: ekonomia zirkularra eta nekazaritza jarduera bultzatzea; hondakin sorrera murriztea); eraikuntza (azpiegitura eta eraikuntzen erabilera eta mantentzea; irizpide bioklimatikoak); eta energia (aprobetxamendua eta sorkuntza; “deskarbonizatzea”; energia berriztagarriak bultzatzea).


DONOSTIAKO 2050 ESTRATEGIA KLIMA












Ingurumen egoera

Igorpenak

Berotegi efektuko gasen (BEG) igorpenak


- Klima aldaketaren aurkako borrokari eta berotegi efektuko gasen igorpena murriztearen inguruko Europako 2020 Estrategiaren helburuei dagokienez, Donostiaren helburua 2020. urterako % 20 murriztea da (1990eko mailak erreferentzia hartuta), Europar Batasunaren antzekoa (2016ko Parisko Klimaren Aldeko Gailurraren ondoren, gas horien igorpenak murrizteko helburuak % 40ra igo dira 2030. urterako eta % 80 eta % 95 artean 2050. urterako). Orientazio moduan, Donostian 2012. urterako zenbatetsitako igorpenak (116,7) (oinarri urtea 1990 = 100) Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa (101,1) eta Europakoa (82,1) baino handiagoak dira, baina Estatuko batez bestekoaren azpitik daude (122,5).
- *Iraunkortasunari buruzko urteko txostenaren* igorpenei buruzko datuen arabera, 2007. urteaz geroztik biztanleko igorpenak % 22,7 inguru murriztu dira (2007-2015). Biztanleko BEG igorpenak ehuneko 1,97 puntu murriztu dira industriako igorpenak kontuan hartzen badira; horiek kontuan hartzen ez baditugu, murrizketa txikiagoa izan da: ehuneko –0.8 puntu.

DONOSTIAKO CO_2 IGORPENEN INBENTARIOA




Iturria: Ingurumen Saila, Donostiako Udala. Iraunkortasunari buruzko urteko txostena

JARDUERAREN ARABERAKO IGORPENAK, 2015



Iturria: Ingurumen Saila, Donostiako Udala, Klima 2050 Estrategia. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

BIZTANLEKO BEG IGORPENAK




Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Mugikortasunak (dokumentu honen hurrengo atalean aztertuko da) igorpenen % 40,2 sortzen ditu, ia industria jardueraren (% 28,2) eta zerbitzu jardueraren (% 13,5) batura bezainbeste; bizitegi jarduerak igorpenen % 12,6 sortzen ditu eta hondakinei dagokie gainerako % 5,2 (Klima 2050 Estrategia).

BEG IGORPENAK MURRIZTEKO IBILBIDEA

Klimagatik eta Energiagatik egindako Alkateen Munduko Ituneko 2030 marko berriaren arabera.



Iturria: Ingurumen Saila, Donostiako Udala. Klima 2050 Estrategia.




Baliabideen kudeaketa

Airearen kalitatea

- Osasunaren Mundu Erakundeak airearen kutsadura identifikatzen du osasunerako arrisku handiena duen ingurumen arrisku gisa. Izan ere, 400.000 heriotza goiztiar baino gehiago eragin zituen Europan 2010ean. Hiriko airearen kalitatea sufre dioxidoaren (SO_2) kontzentrazioaren, partikula esekien (PM_{10} eta $PM_{2,5}$), nitrogeno dioxidoaren (NO_2) kontzentrazioaren eta ozonoaren (O_3) eta karbono monoxidoaren (CO) kontzentrazioaren arabera sailkatzen da, eta neurketak honela kategorizatzen dira, onenetik txarrenera: oso ona, ona, hobe daitekeena, txarra eta oso txarra.
- Donostiaren kasuan, airearen kalitatea ona edo oso ona dela baloratu da neurketa egunen % 95,8an, *Iraunkortasunari buruzko urteko txostenean* jasotzen denaren arabera. Mapek airearen kalitate mailen zenbatespena aurkezten dute, estazio finkoetan egunero (udaldian besterik ez) egiten diren NO_2, PM_{10} eta ozono neurketak abiapuntu hartuta. Estazio bakoitzerako indize globala bat dator portaerarik txarrena erakusten duen kutsatzailearen indize partzialarekin (Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila).

URTEAN AIREAREN KALITATE ONA EDO OSO ONA DUTEN EGUNEN EHUNEKOA, NEURKETA ESTAZIOAREN ARABERA




Estazioa / Estación	Sailkapena / Clasificación	Egunak/urtean / Días/año
Avda. Tolosa	Oso Ona Muy Buena	54
	Ona Buena	294
Puio	Oso Ona Muy Buena	78
	Ona Buena	275
Easo	Oso Ona Muy Buena	133
	Ona Buena	216
Ategorrieta	Oso Ona Muy Buena	121
	Ona Buena	234

Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena


Datuak µg/m³-tan	Añorga	Ategorrieta	Tolosa hiribidea	Easo	Puio
NO_2 (oso ona)	27,85	40,85	25	39,47	45,45
O_3-8H (ona)	93,43	83,09	90,56	86,34	93,33
PM_{10} (oso ona)	12,99	13,42	13,18	14,18	15,03

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila


UDALERRIKO GEHIENEZKO PM_{10} KONTZENTRAZIO



UDALERRIKO GEHIENEZKO O_3-8H KONTZENTRAZIO




UDALERRIKO GEHIENEZKO NO_2 KONTZENTRAZIO



Ura


- **Uraren kalitatea** gogobetegarritzat jotzen dute hornidura urari dagokionez (edateko ur gisa kalifikatu da gutxienez analisien % 95ean) (Iturria: Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila).
- Donostiako herritarrek 8,04 puntu eman dizkiote uraren kalitateari, 10 punturen gainean (inkestatutako biztanleen % 95 gustura edo oso gustura daude) (Iturria: Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta).
- Biztanleko ur kontsumoa etengabe jaitsi da, nahiz eta azken urteetan beherakada mantsotu egin den. Izan ere, bilakaera Δ–% 39,2 izan da 2001 eta 2017 artean, neurri handi batean hornidura sarean egin diren hobekuntzen ondorioz (ihesak desagerraraztea, hodiak berritzea…) (Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena).
- 2017. urteko biztanle eta eguneko 206 litroko kontsumoaren % 1,9 fakturatu gabeko urari dagokio (baimendutako udal kontsumoak kontuan izan gabe), % 19,9 udaleko industria kontsumoari (egonkor samar mantendu da analizatutako aldian zehar, murrizketa txikiarekin), eta gainerako % 65,5 etxeko kontsumoari dagokio. Etxeko kontsumoa murriztu egin da litrotan aldi horretan, zenbait gorabeherarekin, baina guztizko kontsumoa baino neurri txikiagoan; hori dela eta, handitu egin da guztizko kontsumoarekiko pisua (2008an kontsumoaren % 55,5 zen eta 2017an % 65,5) (Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena). Adierazi beharra dago, bestalde, EUSTATen datuen arabera (datuak ez datoz bat Donostiako Udaleko Ingurumen Sailak Iraunkortasunari buruzko urteko txostenean jaso dituenekin, seguruenik kalkulu metodologian desberdintasunak daudelako), Donostiako guztizko ur eskaria Bilbokoa eta Gasteizkoa baino handiagoa da, eta horien eskariaren gainetik egon da hamarkada osoan zehar.

UR KONTSUMOA



Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

GUZTIZKO UR ESKARIA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Hiri hondakinak (HHS)

- **Baliabideen kudeaketari** dagokionez, esan daiteke, oro har, nolabaiteko hobekuntzak antzematen direla hondakinen tratamenduan eta herritarren kontzientziazioan.
- Egiazta daitekeenez, **sortutako HHS** kopuruak behera egin du oro har. 2003an biztanle eta eguneko 1,29 kg sortu ziren, 2012an biztanle eta eguneko 1,19 kg (krisialdi ekonomikoaren ondorioak kontuan hartu behar dira), 2013an berriz gora egin zuen eta bolumena berriz jaitsi zen 2015 arte (biztanle eta eguneko 1,18 kg). Eta berriz gora egin ondoren, 2017an HHSen urteko tasa biztanle eta eguneko 1,20 kg-koa dela zenbatetsi da (Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa biztanle eta eguneko 1,4 kg inguruan dabil). Aintzat hartutako aldian (2003-2017) murrizketa globala ehuneko 0,09 puntukoa izan da (Iturria: Ingurumen Saila, *Iraunkortasunari buruzko urteko txostena*).
- Adierazi beharra dago, halaber, biztanle eta eguneko 1,20 kg horren herena baino gehixeago (% 37,5) **gaika biltzen** direla: biztanle eta eguneko 0,45 kg inguru 2017an. Gaikako bilketaren ehuneko hori gero eta handiagoa da: 2003an biztanle eta eguneko 0,37 kg zen, hots, HHS guztien % 28,7. Horiek horrela, hondakinen kudeaketa mugatua da benetan: 2017an gaika biltzen dira sortutako hiri hondakin solidoen % 38, eta ehuneko hori egonkor mantentzen da 2015. urteaz geroztik (2008an eta 2003an % 33 eta % 28 ziren, hurrenez hurren; 2003 eta 2017 artean ehuneko 10 puntu igo da gaikako bilketaren ehunekoa). Ildo berean, proportzionalki murriztu da **zabortegira doan ehunekoa**: 2003an HHS guztien % 72 ziren, 2008an % 66ra jaitsi zen eta 2015etik 2017 arte % 62an mantendu da.
- 2017an **gaika bildutako HHSen banaketak** adierazten duenez, % 33,9 papera eta kartoia dira, % 23,5 beira, ontziek % 14,9 hartzen dute, materia organikoak % 16, zurek eta hondakin berdeek % 6,5, eta gainerako % 5,2ak hainbat hondakin hartzen ditu: arropa, aparatu elektronikoak eta elektrikoak, pilak, olioa, txatarra eta abar.

HIRI HONDAKINEN (HHS) TASA



Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena.
Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

MATERIA ORGANIKOAREN BILKETA



* Soilik Gros eta Amara auzoak
Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena.
Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


- Biohondakinen bilketak gora egin du ezarri zenez geroztik (4.912.600 kg 2017an), eta bilakaeran ikus daiteke bolumenak behera egin duela azken urtean (200 kg). Ildo horretan, aipatzekoa da biohondakinak biltzeko borondatezko sistemari atxiki zaizkion Donostiako familien inplikazioa. Sistema 2011. urtean hasi zen, edukiontziak Grosen eta Amaran jarrita, 3.609 familiarekin (auzo horietako familien % 21); 2017. urtean, dagoeneko hiri osora hedatuta, 24.184 familia (% 31) eta era askotako 1.627 enpresa eta saltegi hartzen ditu sistemak. Horri, gainera, auzo konpostajea (114 familiak parte hartzen dute programan) eta autokonpostaje jarduera (773 etxe) gehitu behar zaizkio.
- Donostiako herritarrek 6,61 puntu eman dizkiete HHSak gaika biltzeko sistemari, garbiguneei eta birziklatzeari 2017. urtean, 10 punturen gainean (inkestatutako biztanleen % 81 gustura edo oso gustura daude) (Iturria: Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta).

Energia kontsumoa

- Energia kontsumoa arian-arian igo da 2001etik 2009ra (2001-2009: Δ% 22,8), eta ondoren eskaria jaitsi egin da 2009 eta 2014 artean; kontsumoaren beherakada hori (bai etxeko kontsumoa, bai industria eta zerbitzuetakoa), beste zenbait faktoreren artean, krisialdi ekonomikoaren ondorio izan daiteke. 2014-15ean kontsumoak berriz gora egiten du eta gero berriz behera. Analizatutako aldian (2001-2017) kontsumo globalak % 7,6 egin du gora. Kontsumo horren 2017ko banaketak (aurreko urteetako banaketaren antzekoa) adierazten duenez, kontsumitutako biztanleko 3.651 kW-en % 53,3 zerbitzuei dagozkie, % 34,3 etxeko kontsumoari eta % 13,3 industria jarduerari (Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena). Bilbo eta Gasteizekin konparatuz gero, Donostiako urteko kontsumo elektrikoa bi hiriburuen erdibidean kokatzen da, bai bilakaerari bai biztanleko kontsumoari dagokionez (Iturria: EUSTAT).
- Gas kontsumoak goranzko bilakaera gorabeheratsua izan du: 2003. urtean kontsumoa 533.203.838 kW/h zen eta 2017. urtean 732.568.488 kW/h (% 37,4 egin du gora 2003-2017 aldian). 2017ko biztanleko 3.624 kW-en banaketari dagokionez, % 41 etxeko kontsumoari dagozkio, % 27,4 industriari eta % 31,6 zerbitzuei (Iturria: *Iraunkortasunari buruzko urteko txostena*).
- **Energiaren azken kontsumoko energia berriztagarrien kuotaren** inguruko Europako 2020 Estrategiaren helburuei dagokienez (oinarri urtea 2005 = 100), Donostiako kontsumoaren ehunekoa, 2014an % 7an zenbatetsia (EAErako % 7,5), Estatuko eta Europako batez bestekoetatik urrun dago (% 15,4 eta % 15, hurrenez hurren, 2013an).
- Halaber, Europako 2020ko Estrategiaren **energia eraginkortasuna** % 20 **hobetzeko** helburuari dagokionez, arestian adierazi den moduan, 2009an *Eraikinen Energia Eraginkortasunari eta Ingurumen Kalitateari buruzko Udal Ordenantza* onartu zen, eraikin berrien eta eraberritutakoen energia errendimendua bermatzeko, herri lanen lizitazioen baldintzetan irizpide bioklimatikoak eta energia eraginkortasunari buruzkoak sartuta.




ELEKTRIZITATE KONTSUMOAREN TASA




Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

URTEKO KONTSUMO ELEKTRIKO TOTALA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

ENERGIA ZIURTAGIRIA DUTEN ETXEBIZITZAK




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Gainera, gero eta etxebizitza gehiagok dute energia ziurtagiria (2008an ‰ 6,9 ziren eta 2015ean ‰ 195,9). Igoera intentsitate handikoa izan da 2013tik aurrera. Horrez gain, 2015ean Donostian energia ziurtagiria zuten etxebizitzen tasa Bilbokoa (‰ 163,4) eta Gasteizkoa (‰ 152,5) baino nabarmen handiagoa zen (Iturria: EUSTAT).

Energia berriztagarriak


- Maila estrategikoan energia eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien apustua egiten ari da, gora egiten ari den jarduera sektorea den aldetik. Hor aipa daiteke *Energia Berriztagarrien eta Energia Eraginkortasunaren Klusterraren* sorrera eta sustapena, ia ehun erakunde biltzen dituena (Donostialdeko sektoreko enpresak eta hogeitik gora eragile eta erakunde publiko eta pribatu); ENERTIC zentroa (Energia Berriztagarrien eta Energia Eraginkortasunaren Sektorerako Enpresa eta Berrikuntza Zentroa) ildo horretan kokatzen da (Iturria: Donostia Sustapena).
- Horren guztiaren isla da energia iraunkorraren produkzio sistemen ezarpen progresiboa, oraindik hasiberria bada ere. Horien produkzioa gorabeheratsua izan da urteetan zehar, baina gora egin du analizatutako aldian: 2008an 6.682.253 kW/h zen eta 2017an 9.159.342 kW/h (2008-2017: Δ% 37,07) (Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena).
- Donostian 2017an dauden energia berriztagarrien instalazioak, funtsean, hainbat iturritako energia berriztagarrien instalazioei dagozkie: biogasa, eguzki energia fotovoltaikoa, biomasa, geotermia eta eguzki energia termikoa (Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena).

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN PRODUKZIOA




Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena

INSTALATUTAKO EGUZKI TERMIKO AZALERA




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

INSTALATUTAKO POTENTZIA FOTOVOLTAIKOA




Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

INSTALATUTAKO HAIZE POTENTZIA



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Zehazki, eguzki energia fotovoltaikoa jardunean dauden udal instalazio fotovoltaikoetatik dator: sarera konektatutako 25 instalazio dira (755,3 kWp-ko potentzia dute 2017an). Donostian instalatutako eguzki azalera (10.000 biztanleko 40,3 m^2 2015ean) oso gutxi handitu da 2008az geroztik eta Gasteizen instalatutako azaleratik (10.000 biztanleko 197,8 m^2) urrun dago. Adierazi beharra dago biogas produkzioak gorabehera nabarmenak izan dituela, besteak beste, San Marko zabortegiaren inguruabarren ondorioz. Izan ere, ez da zaborrik bota 2008az geroztik eta zigilatzeko eta ixteko proiektua gauzatzen ari da (2014ko produkzioaren beherakada instalazioan izandako geldialdi bati dagokio); bestalde, biomasa bidezko energiaren produkzioak gora egin du (batez ere etxebizitzetan) laguntza publikoei esker (Iturria: Iraunkortasunari buruzko urteko txostena).







Oinarrizko adierazleak

	2001	2009	2016
Lehen sektoreko establezimenduak (%)	% 0,51 (2012)	0,43 (2015)	0,44 (2017)
Hondakinen sorkuntza (HHS/kg/bizt./egun)	1,29 (2003)	1,34	1,20 (2017)
HHSen gaikako bilketa (%)	28	33	38 (2017)
Ur kontsumoa (l/bizt./egun)	339	246	211
Airearen kalitatea (kalitate “oneko” eta “oso oneko” egunen %)	96,16 (2005)	98,63 (2008)	94 (2017)
CO_2 igorpenak (tCO_2/biztanle)	8,5 (2005)	8,3 (2009)	6,3 (2014)
Energia kontsumoa. Elektrizitatea (kW/bizt.)	3.500	4.192	3.624 (2017)
Instalatutako eguzki azalera termikoa (m^2/10.000 bizt.)	14,82 (2004)	38,55 (2008)	40,33 (2015)
Energia eraginkortasunaren ziurtagiria duten etxebizitzak (‰)	1,23 (2004)	6,9 (2008)	195,9 (2015)
Instalatutako haize potentzia (kW/10.000 bizt.)	0 (2006)	0,3 (2010)	0,4 (2015)

Hausnarketarako puntuak


- Klima aldaketaren aurreko ibilbide orriak funtsezko dokumentuak ditu. 2017an onartu zen Klima **Aldaketari Aurre Egiteko Egokitzapen Plana** eta 2018an onartu zen **Klima 2050 Estrategia**.
- Klima aldaketaren ondorio diren arriskuak eta kalteberatasunak hainbat arlotakoak dira: **olatuek eta itsas mailaren igoerak ingurune eraikiaren gainean duen inpaktua; ibai eta euri uholdeen arriskua eta ingurune eraikiaren eta saneamendu sareen gainean duten inpaktua; bero boladen eta tenperatura igoeraren arriskua eta gizakien osasunaren eta biodibertsitatearen gainean duten inpaktua.**
- **Mugikortasunak igorpenen % 40,2** sortzen ditu, ia industria jardueraren (% 28,2) eta zerbitzu jardueraren (% 13,5) batura bezainbeste; bizitegi jarduerak igorpenen % 12,6 sortzen ditu eta hondakinei dagokie gainerako % 5,2. Datozen urteetarako karbono igorpenak murrizteko konpromisoak (2030ean % 40 gutxiago) beteko badira, bereiziki esku hartu beharko da mugikortasuna gisako esparruetan edo energia efizientzia handiagoa lortu beharko da (eraikinak energiaren arloan birgaitzearen ondorioz, esate baterako).
- **Airearen kalitatea ona edo oso ona dela baloratu da neurketa egunen % 95,8an.**



- **Uraren kalitatea gogobetegarritzat jotzen da hornidura urari** dagokionez. Kontsumoari erreparatuta, 2001. urteaz geroztik kontsumoak nabarmen egin du behera; alabaina, azken urteetan joera mantsotu da, sarearen optimizazioari esker.
- 2003az geroztik **murriztu egin dira biztanle bakoitzeko sortutako hondakinak, baina 2012tik murrizketa hori minimoa** da. Biztanle bakoitzeko sortutako hondakinen % 37,5 soilik biltzen dira gaika, eta ehuneko hori oso urrun dago posible eta beharrezkoa den ehunekotik.
- **2001-2017 aldian energiaren kontsumoa Δ% 7,6 gehitu** zen. % 7 soilik zen berriztagarria.
- **Energia iraunkorraren** produkzio sistemen ezarpen progresiboa, oraindik hasiberria bada ere. Horien produkzioa gorabeheratsua izan da urteetan zehar, baina **gora egin du analizatutako aldian** (2008-2017: Δ% 37,07).




SPECIAL
TAXI



06
GIZARTE ERLAZIONATUA: MUGIKORTASUNA ETA KOMUNIKAZIOA

Tokiko mugikortasuna, metropolitarra, eskualdekoa eta globala

- Eskualdeko eta nazioarteko irisgarritasuna
- Barne mugikortasuna

Komunikazioa eta nazioartekotzea

- Informazioaren teknologiak
- Ingurunearekiko erlazioa eta nazioarteko proiekzioa

Tokiko mugikortasuna, metropolitarra, eskualdekoa eta globala

Eskualdeko eta nazioarteko irisgarritasuna

Kokaleku estrategikoa eta mugikortasun globala

- Kokalekuagatik, Donostiak, Europako errepide zein trenbide bidezko garraio sarean, eginkizun handia bete dezake, Madril – Paris – Arku Atlantikoa **konexioaren gune logistiko** gisa, baina oraindik ez da horretarako ahalmen osoa garatu.
- 100 kilometroko erradioan, Donostiak 5 aireportu ditu: Donostiako/Hondarribiko aireportua, Biarritzeko aireportua, Bilbo/Loiuko aireportua, Iruñea/Noaingo aireportua eta Gasteizko aireportua.
- Hurbileko inguruneko hiru merkataritza aireportuak, bi itsas portuak —Bilbokoa eta Pasaiakoa (Donostiako eta Gipuzkoako portu naturala)— eta inguruko hiru plataforma logistikoak (CTV, Aparcavisa eta Zaisa, Irunen), errepide sarearekin eta trenbide sarearekin (Eusko Trenbideak eta RENFE) osatzen dira. Trenbide bidezko komunikazio sistemak baldintzatzaileak ditu, hala nola Europarekiko konektagarritasuna (trenbide zabalera...). Bestalde, abiadura handiko trena pertsonen eta salgaien mugikortasunerako beste agertoki bat izango da eta irismen handiko inpaktua izango du euskal hiriburuen erlazio sisteman.
- Mugikortasun globalak gora egin du azken hamarkadetan, gorabehera batzuk tarteko. **Salgaien garraioari** eta garraio modalitateari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunean (2014rako datuak), trafikoen % 75,4 errepidez egiten dira (Europar Batasunaren batez bestekoa % 54,4 da), % 22,5 itsas garraio bidez egiten dira (Europar Batasunaren batez bestekoa % 33,2 da) eta % 2,1 trenbidez egiten dira (Europar Batasunean % 12,3 da). Aire garraioak ez du pisu handirik. Mugikortasun iraunkorragoa bultzatuko bada, gaur egungo azpiegiturak optimizatu beharko dira, intermodalitatea indartu beharko da eta garraiobide iraunkorragoak sustatu beharko dira (Iturria: Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gida Plana).

KOKALEKU ESTRATEGIKO AZPIGARATUA

◆ 5 AIREPORTU
- Donostia
- Biarritz
- Bilbo
- Iruñea
- Gasteiz

■ 2 PORTU
- Pasaiako portua
- Bilboko portua

● 3 PLATAFORMA LOGISTIKO
- TRENBIDE SAREA
- ERREPIDE SAREA




Azpiegitura handiak

- Azken hamarkada hauetan, garraio azpiegitura handietako trafikoak bilakaera gorabeheratsua izan du.
- **Pasaiako portuan**, salgaien trafikoak behera egiten jarraitzen du; 2003. urteaz geroztik beherako joera nagusitu da garraiatutako salgaien bolumenean, jarduera pixkanaka galtzearen ondorioz batik bat —krisialdi ekonomikoak eragin handia izan du—; haatik, 2013 eta 2015 artean salgaien trafikoak gora egin du. Horrez gain, aditzera eman behar da txatarraren trafikoa modu progresiboan galdu dela. 2017an salgaien trafiko globala 2,9 milioi tonara iritsi zen (Iturria: Estatuko Portuak).
- Epe ertainera begira, erakundeek aurreikusi dute portura iristeko trenbide azpiegituretan eta portuan bertan hobekuntzak egitea. Hobekuntza horiei esker, logistika hobetu nahi da, portuko gaueko trafikoa erraztu nahi da eta portuaren bitartez ibilgailuen inportazioa gehiago indartu nahi da. Azken kopuruei erreparatuz gero, ikus daiteke 2018ko lehen hiruhilekoan % 3 egin duela gora salgaien bolumenak, aurreko urteko kopuruekin alderatuta, eta ibilgailuen inportazioa ere indartu dela, % 1,3 egin du gora aurreko datuekin alderatuta. Horrez gain, tren bagoien garraioa ere nabarmendu behar da (CAF).
- **Donostiako Aireportua** (Hondarribia) ere bilakaera gorabeheratsua izaten ari da. Baldintzatzaile teknikoen, krisialdi ekonomikoaren inpaktuaren eta kostu txikiko konpainien presentziaren eta inguruabarren gainetik, aldi jakin batzuetan izan den eskaintza/konpainia berrien presentziak isla izan du bidaiarien trafikoan; izatez, nabarmendu behar da 2005 eta 2008 artean izan zen gorakada eta gainbehera, eta, batik bat, 2007ko bidaiarien bolumena, 466.457 —urte sasoiko gehikuntza horiek ez dira grafikoan islatzen—. 2000-2017 aldirako analisiak erakusten digu -Δ% 0,69ko jarduera galera izan dela bidaiari kopuruari dagokionez. 2017an 281.859 bidaiari izan zen (Iturria: AENA).


PORTU JARDUERAREN ETA AIRE TRAFIKOAREN BEHERAKADA

PASAIAKO PORTUKO TRAFIKOAREN BILAKAERA



Iturria: Estatuko Portuak, Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

AIREPORTUKO AIRE TRAFIKOAREN BILAKAERA




Iturria: AENA, Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Eskualdeko mugikortasun metropolitarra

- Trenbide bidezko garraioan, aurreikusten diren eta garatzen ari diren jardunek inpaktu handia izango dute eskualdeko eta metropoliko mugikortasunean, baita hirian bertan ere:
  - Lugaritzeko geltokiaren eta Amarako geltokiaren arteko lotura, Ondarretako eta Kontxako (Erdialdean) geltoki berrien bidez garatuko dena, betiere Euskotrenek kudeatzen duen Donostialdeko metroaren (topoaren) barruan.
  - Abiadura handiko linearen eraikuntza, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak lotuko dituena (Administrazio Zentrala eta Eusko Jaurlaritza). Era berean, Frantziako eta Estatuko lineekin lotuko denez gero, Abiadura Handiko Trenaren bidezko loturaz gain, ahalbidetuko du Frantziako sarearekin zuzeneko trafikoak sortzea, Baionarekin zein Parisekin konektatzeko. 2017ko apirilean eman zaie hasiera hirugarren trenbide erreia gauzatzeko lanei. Hirugarren errei horrek aukera emango du Frantzian erabiltzen den Europako zabalerako sarearekin konektatzeko. Hirugarren errei hori 2019ko udan gauzatuta egotea aurreikusten zen, baina eraikitzailearekin izan diren arazoen ondorioz, ezinezkoa izango da eta, diagnostiko hau idazteko unean, ezin da bestelako datarik finkatu.
  - Geltokia gaur egungo ADIFen geltokian kokatuko da. Proiektu horrek Tabakaleraren ondoko espazioa eraldatzen lagunduko du eta hiriko puntu estrategiko horri intermodalitate handiagoa emango dio.
- Era berean, aditzera eman behar da Altzako eta Intxaurrondoko geltokiak irekitzearekin, Loiolako geltoki berria eraikitzearekin eta Euskotrenen lineak bikoiztearekin, tokiko eta metropoliko garraio publiko ez kutsatzailea indartu eta optimizatu dela eta, hartara, dBusek egiten duen zerbitzua osatu dela —erabilera tasa handiak ditu hurrengo epigrafean xehatzen den bezalaxe—.

TRENBIDE BIDEZKO MUGIKORTASUNA BETE-BETEAN SARTUTA DAGO TRANSFORMAZIO PROZESUAN, MUGIKORTASUNEAN INPAKTU HANDIA IZANGO DUTEN BI EKIMENEN BIDEZ. TOPOAREN/METROAREN LUGARITZ/AMARA KONEXIOA ETA ONDARRETAKO ETA KONTXAKO GELTOKI BERRIAK, ETA ABIADURA HANDIKO TRENA IRISTEA ETA ATOTXAKO GELTOKIAREN ERALDAKETA



- 2016ko *Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunari buruzko Azterketaren* arabera, Donostian egunero kanpotik hirirako 114.881 desplazamendu egiten dira. Desplazamendu horien % 91k Gipuzkoa dute abiapuntu, batez ere Donostialdea (% 57,9) eta Bidaso Beherea (%13,3). Donostiara iristen diren gainerako desplazamenduetatik % 3k Bizkaia dute jatorria (4.521 desplazamendu, eta horietatik hirutik bik Bilbo dute jatorria), % 1,7k Araba dute jatorria eta % 3,3 Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpokoak dira (3.786 desplazamendu).
- Donostia abiapuntu eta helmuga duten joan-etorri horien garraio modalitateari dagokionez, 2016an, joan-etorrien % 91,1 garraio motorizatu bidez egin ziren, joan-etorrien % 4,5 multimodalak izan ziren eta % 4,2 joan-etorri motorizatu gabeak izan ziren (bizikletaz % 3,6 edo oinez % 0,7). Joan-etorrien % 61,1 auto bidez egin ziren, gero % 18,9 autobus bidez (hiri barneko eta hiriarteko linea erregularrak eta eskatu ahalako zerbitzuko autobusak) —Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen arteko ehunekorik handiena—. Trenbide bidezko joan-etorriak % 10,1 izan ziren.

DONOSTIAN SORTUTAKO ETA DONOSTIAK ERAKARRITAKO JOAN-ETORRIEN BANAKETA (BARNEKOAK GABE)

	SORTUTAKO JOAN-ETORRIAK	ERAKARRITAKO JOAN-ETORRIAK	GUZTIRA	%
Motorizatu gabea				
Oinez	4.004	3.819	7.823	3,6
Bizikleta	666	850	1.516	0,7
Guztira	**4.669**	**4.669**	9.338	**4,2**
Motorizatua				
Automobila	64.823	69.615	134.438	61,1
Motoa	1.170	1.170	2.340	1,1
Errepideko garraio kolektiboa	20.432	21.098	41.530	18,9
Trenbidea	9.725	12.538	22.263	10,1
Guztira	**96.150**	**104.421**	200.571	**91,2**
Multimodala	**4.170**	**5.792**	**9.962**	**4,5**
Guztira	**104.989**	**114.882**	219.871	**100**

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016, lan egunetan
Sortutako joan-etorriak - Donostia jatorria dutenak eta kanpora zuzentzen direnak
Eratorritako joan-etorriak - Kanpoan jatorria dutenak eta Donostia helmuga dutenak
Errepideko garraio kolektiboa – Eskatu ahalako autobusetako joan-etorriak eta hiriko eta hiriarteko autobusetako zerbitzu erregularreko lineetan egindakoak.


DONOSTIARAKO JOAN-ETORRI GEHIENEK GIPUZKOA DUTE ABIAPUNTU ETA BITIK BATEK DONOSTIALDEA. BOSTETIK HIRU KOTXEZ EGITEN DIRA

Barne mugikortasuna

Eskualdeko mugikortasun metropolitarra

- Turismoari dagokionez, eta zehazki Donostiako Turismo Bulegoa bisitatu dutenek hirira iristeko erabilitako garraio modalitateari dagokionez, 2017an, automobila izan zen gehien erabili zen garraiobidea (% 56) —nahiz eta zertxobait behera egin duen, 2007an % 60 izan baitzen—, ondoren datoz autobusa (% 16) —hau ere murriztu da, 2009an % 26 izan baitzen—, hegazkina (% 9) eta trena (% 8). Gutxiago erabili ziren autokarabana (% 3), bizikleta edo oinez (Iturria: Donostia Turismoa).

DONOSTIARAKO SARBIDE MOTA, 2017



Iturria: Donostia Turismoa, Donostiako Estrategia Bulegoak landua.


Mugikortasun iraunkorrerantz

- Hiria mugikortasun iraunkorrerantz aurrera egiten ari da, garraio publikoa indartuz eta garraiobide “berdeagoak” sustatuz —eta horiek hiri bilbean integra daitezen sustatuz—, hala nola oinezkoen ibilbideak edo bidegorriak.
- Estrategien artean, nabarmendu behar da, lehenik, *Mugikortasun Iraunkorrerako eta Segururako Plana*. Planak inbertsio handiak aurreikusten ditu garraioko udal zerbitzuaren hobekuntzan eta efizientzian (etengabeko ordezkapen/berrikuntza jarraitua, garraio flota “garbia”, linea berriak, zerbitzuko hobekuntzak eta abar). Horrekin batera, bizikletaren erabilera, “30eko eremuen” sorrera eta oinezkoentzako eremuen sorrera sustatzen du edo zerga murrizketak aplikatzen dizkie ibilgailu hibridoei eta elektrikoei, zerga ordenantzen bitartez. Era berean, mugikortasun bertikalaren arloko jarduerak (igogailuak,…) ere azpimarratu behar dira, eta, arlo horretan, 2017ko *Mugikortasun Bertikalari buruzko Plan Gidaria* nabarmendu behar da.
- KLIMA 2050 estrategiaren onarpenak beste bultzada bat eman dio mugikortasun iraunkorrari, hiriko karbono emisioak murrizteko tresna gisa. Agertoki berri horretan, lehentasuneko helburu bihurtu dira mugikortasun publiko ez kutsatzailea eta mugikortasun pribatuaren murrizketa eta eraldaketa.



- Herritarren sentsibilitate handiagoak garraio publikoaren eta joan-etorri motorizatu gabeen gero eta erabilera handiagoa ekarri beharko luke. Haatik, aditzera eman behar da garraiobide bat edo beste bat aukeratzeko erabakia ez datzala kulturaren eta kontzientziaren faktore hutsetan, beste faktore batzuek ere eragin handia baitute, hala nola hiriaren tipologiak, pertsona bakoitzaren ezaugarriek eta beharrek eta, jakina, garraio publikoaren eskaintzaren egokitzapenak, aparkalekua aurkitzeko aukerak eta egunean zenbait jardueratara edo kokalekutara hurbildu behar izateak.
- Donostian barneko joan-etorrien (% 50) zati handi bat oinez egiten da (% 91), edo bizikletaz (% 8,3), batez ere etxetik lanerako edo ikaslekurako tartea 2 kilometrotik beherakoa denean. Hiriaren eskalari eta bizilekuaren eta zerbitzuen eta ekipamenduen arteko "hurbiltasunari" esker, joan-etorri handirik egin gabe funtziona dezake hiriak.
- Joan-etorri motorizatuen barruan, % 64 ibilgailu pribatuan egiten dira (% 79,6 norberaren autoan edo partekatuan, % 14 motoan eta % 1,3 taxian). Garraio kolektibo bidezko joan-etorri motorizatuak batez ere autobusez (% 91,8) egiten dira eta gero trenez (% 8,2) (Iturria: Eusko Jaurlaritza, Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016).
- Bestalde, adierazi behar da, gutxi gorabehera, lan egiten duten lau donostiarretik hiruk (16 urteko edo gehiagoko populazio landunak, 2011n % 34,6) eta ikasten duten lau donostiarretik hiruk (16 urteko edo gehiagoko populazio ikasleak, % 33,7) udalerriaz kanpo egiten dutela (Iturria: EUSTAT).

DONOSTIA BARNEKO JOAN-ETORRIEN BANAKETA




Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.
Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016, lan egunetan

- 2017ko Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkestaren arabera, kontsultatutako pertsonen % 90,8 pozik daude edo oso pozik daude hiriko garraio publikoarekin, eta 10etik 7,7ko balorazioa ematen diote. Balorazio hori *Urban Audit* inkestan jasotako Europako hirien batez bestekoa baino handiagoa da (10etik 6,64). Aditzera eman behar da Donostiako herritarren balorazioa 2008ko inkestakoa baino hobea izan dela (6,46). Errepide bidezko konexioek 10etik 7,07ko balorazioa dute eta trenbide bidezko konexioek 6,47koa. Edonola ere, herritarrak ez daude pozik hiriaren aireportu konexioekin (10etik 4,93ko balorazioa) eta egoiliarrentzako aparkalekuekin (10etik 4,22ko balorazioa) (Iturria: Donostiako Estrategia Bulegoa).

Garraio publikoa

- Aditzera eman den moduan, autobusa da hiri barneko joan-etorrietarako garraiobide kolektibo nagusia. Hiri autobusaren erabilerak gora egin zuen 2017an (urteko bidaia kopuruari dagokionez) 28,4 milioi bidaiarira arte (28.402.059 bidaiari hain zuzen ere); hazkunde hori progresiboa izan zen 2011ra arte —urte horretan 29 milioi bidaiari izan zen—; ondoren, erabiltzaile bolumenak behera egin zuen 2013ra arte, eta gero joera alderantzikatu da berriro ere. Emakumeek gizonek baino gehiago erabiltzen dute autobusa; 2017an, autobusa garraio txartelarekin erabili zuten pertsonen % 67 emakumezkoak izan ziren eta % 33 gizonezkoak.
- Azken urteetan hiri autobusaren erabileran izan diren gorabeherek lotura izan dezakete ordezko garraiobide publikoen eskaintza hobetzearekin, hala nola Intxaurrondoko eta Herrerako tren geltoki berriekin (Euskotren) edo Gipuzkoako garraio publikoan tarifak integratzearekin.
- Dbus udal garraio konpainiak eskaintzen duen zerbitzuak oso balorazio positiboa jaso du herritarrengandik, eta autobus "ekologikoak" ere baditu, autobus elektrikoak nabarmenduz. Konpainiaren ibilgailuen % 100ek plataformak dituzte mugikortasun murriztuko pertsonen irisgarritasuna errazteko, baita aire girotua ere. Eskaintza zabala (30 linea egunez eta 9 gauez).

GARRAIO PUBLIKOA. DONOSTIAKO HIRI AUTOBUSA



Iturria: Mugikortasun Saila, Bizikletan Behatokia, Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

- Izatez, Donostia estatuan liderra da hiri autobusen erabileran, eta hiriak du biztanle bakoitzeko bidaiari erlaziorik onena (165 joan etorri biztanleko eta urteko). 2007an eta 2015ean Dbus hautatu zuten Espainiako garraio publikoko konpainiarik onena: AENORen ziurtagiria lortu du zenbait kalitate ildotan (hiri garraioko zerbitzuetan kalifikazio hori duen Estatuko lehen hiria da) eta Eusko Jaurlaritzaren, Emakunderen, ziurtagiria ere badu (2010), konpainiaren antolamenduan eta zerbitzugintzan genero berdintasunaren alde hartutako konpromisoaren ondorioz.
- Zerbitzugintza generoaren ikusmoldetik hobetzera zuzentzen diren jardunen barruan, nabarmendu behar da 2018ko ekainean abian jarriko den proiektu pilotua, gaueko zerbitzuetan emakumeentzako eta 18 urtetik beherakoentzako "eskaripeko geldialdiak" ezartzeko proiektu pilotua alegia.

Bizikleta bidezko joan-etorriak


- **Bizikleta** gero eta gehiago **erabiltzen** da (joan-etorrien kopuruak % 301 egin du gora 1998tik 2017ra). Gorakada hori bidegorrien edo bizikleta bideen sareak izan duen garapenaren ondorioa izan da, hein handi batean bederen; izatez, 2005ean sareak 10.000 biztanleko 1,43 kilometro zuen eta 2015ean 10.000 biztanleko 3,9 kilometro (guztira 73,2 kilometro bidegorri).
- Donostiako bidegorri sarea pixkanaka handitu da eta gaur egun guztiz integratuta dago hirian. Bidegorri bereiziak bide luzera osoaren % 63 dira, oinezkoekin batera erabiltzeko tarteak % 11 dira (tarte horietako puntu batzuetan gatazkak sortu dira) eta ibilgailu motorizatuarekin batera erabiltzeko tarteak % 26 dira (Iturria: Ingurumen iraunkortasunari buruzko txostena). Herritarrek 10etik 6,63 punturekin balioztatu dute bidegorri sarea, 2017ko Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkestan.

DONOSTIAKO BIDEGORRI SAREA 2017




Iturria: Ingurumen iraunkortasunari buruzko txostena, 2017.

DONOSTIAKO BIZIKLETA BIDEZKO JOAN -ETORRIAK



Iturria: Mugikortasun Saila, Bizikletan Behatokia, Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

DONOSTIAKO BIDEGORRI SAREAREN HEDADURA



Iturria: Mugikortasun Saila, Bizikletan Behatokia, Donostiako Estrategia Bulegoak landua.






Motorizazioa

- Donostiako ibilgailu motorizatuen parkea modu progresiboan hazi da, baina gorabeherekin (batez ere autoen kopuruan, eta besteak beste krisialdiaren ondorioz). 2017an 111.261 ibilgailura iritsi zen; ‰ 596ko motorizazio indizea lortu zen eta ehuneko 10 puntu egin zuen gora 2008 eta 2017 artean. Ibilgailu horien artean kontabilizatzen dira 75.218 turismo eta 26.285 moto. Motoen kopuruan izan den gorakada ere nabarmendu behar da. ‰ 141eko indizera iritsi da, eta 2008-2017 aldian ehuneko 8 puntu egin du gora (Iturria: Mugikortasun Saila)

Hirien Benchmarkina

- Erreferentziako hiriei erreparatuta, ikus daiteke 2011n lanera joateko desplazamenduaren batez besteko iraupena 18 eta 28 minutu artekoa zela, hirien osotasunerako. Dena dela, kontuan izan behar da hiri bakoitzaren dimentsio eta ezaugarri geografikoak eta ekonomia jarduera. Donostian beharrezkoak diren ia 20 minutuak Bartzelonako, Sevillako edo Valentziako batez besteko desplazamendu denboren azpitik daude, eta Santander, Iruñea, Gasteiz edo Girona hirietakoa baino gehiago da.
- Lanerako joan-etorrietarako garraio modalitateari dagokionez, eta Bartzelonan izan ezik (% 29), erreferentziako gainerako hirietan populazioaren % 40k baino gehiagok autoa erabiltzen du lanera joateko (Gasteizko % 40tik Valentziako % 49,5era). Donostiako batez bestekoa (% 41,4) multzo horretako txikienetako bat da.
- 2011n, lanerako joan-etorrien % 16,2 oinez egiten ziren Donostian. Erreferentziako hirien artetik Oviedok (% 18,7), Gironak (% 19,7) eta, batik bat, Gasteizek (% 23,5) gainditzen dute ehuneko hori. Gainerako hirietatik, Sevillan (% 7,9), Valentzian (% 7,1) eta Zaragozan (% 9,2) neurtu dira lanerako joan-etorriak oinez egiten dituen populazioaren ehunekorik txikienak.
- Lanera joateko garraio publikoaren erabilera bereziki adierazgarria da Bartzelonan (% 27,7) eta Sevillan (% 26), eta atzetik dago Bilbo (% 20). Donostia, lanera joateko garraio publikoaren erabileran, bitarteko proportzio batean dago (% 15,1), Zaragozaren azpitik (% 16,8); eta ehunekorik txikienak dituzte Gijonek (% 11,8) eta Gironak (% 11). Valencia (7,1%) y Zaragoza (9,2%) tienen los menores porcentajes de población que se desplaza a pie a trabajar.

	Bartzelona	Bilbo	Donostia	Gijon	Girona	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
Lanera autoz egiten diren joan-etorriak (%) 2011	28,95	47,52	**41,36**	47,41	45,15	44,45	48,32	48,24	44,41	49,51	40,28	46,89
Lanera oinez egiten diren joan-etorriak (%) 2011	17,53	10,21	**16,24**	15,97	19,69	18,7	15,24	14,2	7,89	7,13	23,53	9,23
Lanera garraiobide publikoz egiten diren joan-etorriak (%) 2011	27,72	20	**15,11**	11,82	11,07	12,11	13,43	12,62	25,97	18,64	12,41	16,81
Lanera joateko desplazamenduaren batez besteko iraupena (minutuak) 2011	27,16	22,49	**19,51**	20,36	19,22	20,68	18,07	17,9	23,08	22,04	18,31	23,22

Iturria: INE, Hiri adierazleak. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Garraio iraunkorrerako irisgarritasuna

POPULAZIOAREN % 75EK HIRU SAREETATIK (TRENA, AUTOBUSA ETA BIDEGORRIA) GUTXIENEZ BI ESTALITA DITU ALDI BEREAN. DESBERDINTASUNAK DAUDE AUZO BATETIK BESTERA

- Ibilgailu pribatuaren **ordezko mugikortasun sareetarako irisgarritasuna** funtsezko alderdia da mugikortasun iraunkorra sustatzeko. Donostiako Informazioko Udal Unitateak, Bartzelonako Hiri Ekologiako Agentziarekin elkarlanean, garatutako kontzeptu esparruaren arabera, irisgarritasun ontzat jotzen da populazioa garraio publiko baten geralekura oinez erraz iristen denean; esate baterako, 5 minututan irits daitekeenean autobusaren geralekura (geralekutik 300 metro baino gutxiagora bizi da), 7 minututan irits daitekeenean trenaren geralekura (Euskotrenen edo RENFEren geralekutik 500 metro baino gutxiagora bizi da) eta bidegorri sarera iristeko 2 minutu baino gutxiago behar duenean (300 metro baino gutxiagora bizi da).
- Analisiak islatzen duenez, 2017an, lau donostiarretik hiru irits daiteke ezarritako parametroetan aintzat hartutako hiru sareetatik (autobusa, trena eta bidegorria) bitara, gutxienez. Edonola ere, auzoetan oso bestelako estaldura dago; Igeldok eta Zubietak ez dituzte adierazitako adierazlearen parametroak betetzen eta Aiete (% 53), Altza (% 65), Egia (% 70,5), Martutene (% 57,5) eta Mirakruz-Bidebieta (% 65) udalerriko batez bestekoaren azpitik daude (Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea).

IBILGAILU PRIBATUAREN ORDEZKO GARRAIO SAREETARAKO HURBILTASUNA




Berdez eta horiz, hiru sareetatik (trena, autobusa eta bidegorria) gutxienez bi aldi berean estalita duen populazioa.

* Zubietarako eta Igeldorako estaldura 0 da (ez dago adierazlea betetzen duen populaziorik)

Iturria: Donostiako Udala. Informazioko Udal Unitatea

GARRAIO-SAREETAKO SARBIDEA




Iturria: UMI, DSS.

Mugikortasun segurua

- Donostiako hiriguneko “istripu tasak” oso bilakaera gorabeheratsua izan du urte batetik bestera, trafiko istripuen kopuruari dagokionez. 2003an, 1.000 biztanleko 10,6 istripu izan ziren eta 2017an 11,3 (eta azken bi urteotan gora egin du istripuen kopuruak). 2008an izan zen istripu gehien (‰ 3,6). Konparazioan, Donostiako istripu tasa Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako batez besteko tasa baino handiagoa da (‰ 9,3 eta ‰ 9,2 hurrenez hurren); Gasteizkoa (‰ 20,5) baino txikiagoa da eta Bilbokoa baino handiagoa (‰ 5,2). Donostiak 2003-2017 aldirako islatutako bilakaeran ikus daiteke istripu tasak ehuneko 1,13 puntu egin duela gora (Bilbon ehuneko 0,83 puntu eta Gasteizen ehuneko 15,8 puntu; Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunean ehuneko 0,55 puntu egin du behera).
- Harrapatutako oinezkoen kopuruak, berriz, behera egin du; 2003an ‰ 8,9 izatetik 2017an ‰ 6,2 izatera (‰ 5,2 Bilbon eta ‰ 6,5 Gasteizen; Euskal Autonomia Erkidegorako batez bestekoa, berriz, ‰ 4,6koa da). Aldi horretan, 2003-2017, Donostian izan den bilakaerari erreparatuta, ikus daiteke istripuen bolumenak ehuneko 2,7 puntu egin duela behera (Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako hiriburuetan ere behera egin du).
- Azkenik, aditzera eman behar da 2016an hirigunean izan diren 1.751 istripuen erdiek biktimak izan dituztela. Bestalde, istripuen % 7 oinezkoen harrapaketak izan dira (123 istripu); istripuen % 9,4tan bizikletak nahastuta daude eta % 8,7tan ziklomotorrak.


ISTRIPU TASA GORABEHERATSUA DA…

DONOSTIAN IZANDAKO ISTRIPUETAN HARRAPATUTAKO OINEZKOAK



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

DONOSTIAN IZANDAKO TRAFIKO ISTRIPUAK



Iturria: EUSTAT. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Komunikazioa eta nazioartekotzea

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

IKT-ak eta hiria

- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKTen) presentzia gero eta handiagoa da gizartean eta ekonomia jardueran, eta, teknologia horien ondorioz, oso bizkor eta trinko aldatzen ari dira komunikaziorako eta harremanetarako ohiturak, gizarte portaerak, ekonomia jarduerak eta produkzio sistema bera.
- Komunikazioaren Teknologiek Donostian duten hedapenari dagokionez, egiaztatu da garapen handia izan dela azpiegituretan, teknologia berrietako zentroetan eta wifi konexioan (34 wifi puntu zeuden 2016an) eta herritarrek, batik bat gazteek, Interneten erabilera handia egiten dutela.
- Zehazki, 2018an, Donostialdeko 16 urte eta gehiagoko populazioaren % 78k Internet erabiltzen du (2014an % 67,95ek erabiltzen zuen), gizonezkoen % 80,3k erabiltzen dute (2014an % 73,4k erabiltzen zuten). Emakumeen artean Interneteko erabilera txikiagoa dela ematen du, % 76,8 (2014an % 63,1ek erabiltzen zuten) (Iturria: EUSTAT). Informazioko Udal Unitateak 2016an Donostiarako emandako datuei jarraituz, populazioaren % 72,1ek Internet erabiltzen du.
- Ildo berean, herritarrek, Udalinfo zerbitzuarekin (udal informazioko zerbitzuarekin) komunikatzeko, Internet erabiltzen dute batik bat. 2015ean komunikazioen % 67 izan ziren Internet bidez, % 15 izan ziren telefono bidez, % 11,3 izan ziren mugikorreko app bidez eta % 6,7 izan ziren leihatilan edo aurrez aurre (Iturria: Donostiako Udala). Erantsi behar da, bestalde, 2017ko Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkestaren arabera, inkesta erantzun duten hirutik biren iritziz, Udalak egoki eta behar beste erabiltzen dituela teknologia berriak herritarrekiko harremanetan.






IKT-ak eta enpresak

- IKTen erabileraren adierazle gisa, 2015ean, establezimenduen % 88,4k zuten Interneterako konexioa eta % 97ra arte igotzen zen 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan (Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europar Batasuneko —EB28— batez bestekoen antzeko ehunekoa). Era berean, horien artean % 59,8k web gunea zuten eta 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan % 87,7k zuten web gunea. Horien barruan, saltokietako eta ostalaritzako establezimenduetan ez daude hain hedatuta IKTak; 2015ean, txikizkako lau saltokitik hiruk zuten ordenagailua eta hirutik bik zuten Interneterako konexioa (Iturria: Donostia Sustapena). Informazioko Udal Unitateak emandako daturik eguneratuenen arabera (2016), hiriko enpresen % 90,3k dute Internet eta establezimenduen % 62,3k dute web gunea.
- 2016an, IKTak erabiltzen dituzten enpresen % 34,1ek egiten zuten merkataritza elektronikoa (2008an % 22,1ek egiten zuten); industria establezimenduetan neurtu da jarduera mailarik handiena (% 45,7, 2008an % 28,3 zirenean). Establezimenduek, sarearen bidez, erosketak egiten dituzte batez ere (% 30,5); izatez, establezimenduen % 9,3k soilik egiten dituzte salmentak. Segurtasunari dagokionez, IKTak dituzten establezimenduen % 90,5ek daukate segurtasun neurriren bat (10 langile edo gehiagoko establezimenduen kasuan % 99k daukate segurtasun neurriren bat) (Iturria: EUSTAT).

HIRIAN MERKATARITZA ELEKTRONIKOA EGITEN DUTEN ENPRESAK

Establezimentuen %a



Iturria: Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Ingurunearekiko erlazioa eta nazioarteko proiekzioa

Hiriaren nazioarteko proiekzioa nabarmen gehitu da, zenbait faktoreri esker:

- Hiriko gastronomiaren posizionamendua. Gure sukaldariek nazioartean duten aitorpena; Basque Culinary Center-en sorrera; Japonia gisako herrialdeetara ireki izana, hiriak gastronomiaren arloan duen lidergoaren inguruko argitalpenei esker; Donostia Gastronomika biltzarra; eta abar.
- Indarkeriaren amaiera.
- Turismoaren sektoreak lider diren hedabideekin (CNN, The New York Times, eta abar) ondo bideratu duen komunikazio ekintza.
- Nazioarteko profileko ekitaldiak (Europar Batasuneko ministroen kontseiluaren bilera informala,…).
- 2016ko Europako Kultur Hiriburua
- Askotariko sariak, hala nola, 2016an, Erresuma Batuko Academy of Urbanism erakundeak emandako urteko hiriaren saria.
- Trip Advisor gisako plataformetan turismo helmugari emandako sari ugariak.
- Hiriko ikerketa eta berrikuntza zentroen nazioarteko profila, talentua erakartzen duena eta hiriaren irudia sendotzen duena.
- Nazioarteko sareetan eta proiektuetan parte hartzea.
- ….










CALIFORNIA

Oinarrizko adierazleak

	2001	2009	2016
Motorizazio indizea (ibilgailuak/1.000 biztanle)	520 (2003)	589	584 (2015
Garraio publikoa erabiltzen duten bidaiariak. Dbus	26.482.936 (2002)	28.460.380	28.402.059 (2017)
Bidegorri edo bizikleta bide sarea (Km)	14,9 Km	56,3 Km	73,2 (2015
Egunean bizikletaz egiten den joan-etorri kopurua	4.012 (1999)	11.185	20.754 (2017)
Hiriguneko trafiko istripuak (‰)	17,6	9,33	11,29 (2017)
Hegazkina (bidaiari/urte)	281.000	466.459 (2007)	281.859 (2017)
Portua (salgaien trafikoa). Tn	4.718.000	3.519.673	2.974.355 (2017)
Internet erabiltzen duen populazioa (16 urte eta gehiago) (Donostialdea) (%)		67,95 (2014)	78 (2018)
Merkataritza elektronikoa erabiltzen duten enpresak		21,1 (2008)	34,1 (2018)

Hausnarketarako puntuak

- Kokaleku estrategiko azpigaratua
- **Portu jardueraren beherakada eta, hein txikiagoan, aire trafikoarena.** Portuaren bilakaera kezka iturri da, eta aireportua egoera ezegonkorrean dago, segurtasun araudiaren ondoriozko pistaren murrizketarekin areagotu dena. Beste aireportu plataformek (Loiu edo Biarritz) bilakaera positiboa duten arren, Foronda eta Iruñeko aireportuek jarduera txikia dute. Autobus sistema bidezko Loiuko aireporturako konexioak onak dira, ez ordea Biarritzeko aireportuarekiko konexioa (konexio hori hobetzeko proiektuak daude).
- **Trenbide bidezko mugikortasuna bete-betean sartuta dago transformazio prozesuan**, mugikortasunean inpaktu handia izango duten bi ekimenen bidez. Topoaren/metroaren Lugaritz/Amara konexioa eta Ondarretako eta Kontxako geltoki berriak, eta Abiadura Handiko Trena iristea eta Atotxako geltokiaren eraldaketa, eta Hendaiara arteko hirugarren hariaren eraikuntza horrek aukera emango du Paris/Hendaia ibilbidea egiten duten konboiek Paris/Donostia ibilbidea egiteko.
- **Donostiarako joan-etorri gehienek Gipuzkoa dute abiapuntu** eta bitik batek Donostialdea. Bostetik hiru kotxez egiten dira.



- Donostian, **barneko joan-etorri gehienak (% 50) oinez (% 91) edo bizikletaz (% 8,3)** egiten dira. **Joan-etorri motordunen % 64 pribatuak dira** (% 79,6 norberaren autoan edo partekatuan, % 14 motoa eta % 1,3 taxian).
- **Autobusa** funtsezko garraiabidea da hirian. **Nabarmen egin zuen gora 2011. urtera arte**, eta hurrengo urteetan behera egin zuen, azken urte hauetan berriro gora egiten hasi den arte. Joera horretan garrantzi handia izan du trenbide geltoki berrien eraikuntzak eta sarea optimizatzeko prozesua, adibidez Mugi txartel bateratua abian jartzearen bitartez.
- **Joan-etorriak egiteko** gero eta **gehiago** ari da **bizikleta** erabiltzen eta **bidegorrien sarea modu iraunkorrean** ari da gehitzen.
- **Populazioaren % 75ek hiru sareetatik** (trena, autobusa eta bidegorria) **gutxienez bi estalita ditu aldi berean**. Desberdintasunak daude auzo batetik bestera.
- Istripu tasa gorabeheratsua da…
- **Hiriaren nazioartekotze prozesua** adierazgarria izan da azken urteotan, **baina sakon-sakon aztertu beharko da prozesu hori, hirirako estrategia komuna eta ondo bideratua formulatzeko,** betiere transmititu nahi dugun hiri ereduarekin lotuta. Estrategia hori erakunde eta sektore publikoekin zein pribatuekin elkarlanean prestatu beharko da, hiria nazioartean nola aurkeztuko den optimizatzera begira.



07 Glosarioa

Glosarioa

A

Adierazlea
Zenbait xederekin bildutako datua, batez ere prozesu espezifikoen berezko erabakiak hartzeko, prozesuak monitoretzeko eta prozesuen gauzatze modua mantentzeko edo aldatzeko. Kuantitatiboak izan daitezke (zenbakikoak) eta/edo kualitatiboak izan daitezke (jardunekoak).

Administrazio publikoa
Herrialde baten lege esparruan finkatutako jardueretarako esleitzen diren baliabideak kudeatzeaz (lortzeaz, erabiltzeaz eta kontrolatzeaz) arduratzen diren estatu erakunde guztiak.

Administrazioa
Erakundeek haien baliabideak —giza baliabideak, finantzarioak, teknologikoak edo azpiegituretakoak— lortzeko, erabiltzeko eta kontrolatzeko eta, hartara, erakunde helburuak betetzeko jarraitzen duten prozesua.

Agertokia
Jendaurreko ikuskizun bat antzeztuko den antzoki baten edo beste espazio edo leku baten zati bat da. Plangintzaren ikuspegitik, ordea, egoera desberdinen hipotesi bat da, egungo erabakiek nola eragin dezaketen erakunde baten etorkizunean ulertzen lagunduko duena.

Aginte taula integrala (ATI)
Ikus “komando taula”.

Ahalduntzea
Erakunde bateko kideei ahalordeak emateko prozesua eta, hartara, antolamendu jardun egokirako gaitasunak optimizatzeko prozesua.

Alfabetatze-tasa
Irakurtzen eta idazten dakiten pertsonen (15 urte edo gehiago) ehunekoa; “alfabetatze” hitzaren barne ere trebezia aritmetikoak sartu ohi dira.

Alfabetatze teknologikoak eguneroko bizitzan zein lan-munduan teknologia berriak erabiltzeko ahalmenari egiten dio erreferentzia, eta ez dago pertsonaren hezkuntza-mailari, maila sozialari edo erosteko ahalmenari loturik.

Analisia
Gai bati buruzko azterketa zorrotza, gai hori ezagutzeko edo gai horren arloan jarduteko.

Ardatz estrategikoa
Erakunde baten helburu estrategikoak gauzatzearen zeharkako kontzeptua, xedearen arloko batasuna ematen diona.

AROPE tasa
Pobrezia eta/edo bazterketa arriskuan dagoen pertsona multzoa; Europa 2020 Estrategiari jarraituta pobrezia eta/edo bazterketa arriskuan dauden pertsona horiek ingelesezko AROPE siglarekin izendatzen dira (At Risk of Poverty and/or Exclusión).

Arrakasta faktore kritikoa
Bizi jarduerak dira, egiten ez badira, ez dira definitutako xedeak beteko.

Arrakasta faktorea
Helburu bat betetzera eraman dezaketen jarduerak.

B

Babes publikoko etxebizitza (edo Babes Ofizialeko Etxebizitza)
Prezio mugatuko eta, ia beti, administrazio publikoek partzialki diruz lagundutako etxebizitza. Etxebizitza kontzeptuaren barruan, etxebizitza babestuaren erregimenari eta onurei lotzeko helburuekin, honako hauek sartzen direla ulertzen da: garajeak, trastelekuak, lokalak eta behin betiko kalifikazioaren barne hartuko diren gainerako elementu parekagarriak.

Mota honetako etxebizitzak, era berean, autonomia- edo udal-erregimeneko etxebizitza tasatuak eta babes sozialeko etxebizitzak izan daitezke.

Baliabideak
Behar edo eskakizun bat betetzeko, jarduera bat egiteko edo onura bat sortzeko bitartekoak edo iturriak.

Balio erantsi gordina
Makromagnitude ekonomikoa, arlo ekonomiko jakin bateko ekoizleek sortutako balio erantsia neurtzen duena; azken finean, produkzio prozesuaren urrats desberdinetan ondasunei eta zerbitzuei eransten zaizkien balioak jasotzen ditu. Herrialde baten balio erantsi gordina abiapuntu izanik erraz lor daiteke Barne Produktu Gordina; izatez, oso erlazio estua dute, biak egitate bera neurtzen ari dira eta.

Balioak
Pertsonen portaera gidatzen duten printzipioak edo aginduak, zerikusia dutenak pertsonen existentziari balioa ematen dionarekin, betiere abiapuntu izanik pertsona horientzat munduak izan beharko lukeena, ondo eta gaizki dagoena eta egoera edo inguruabar batzuetan hartu beharreko erabakiak.

Barne Produktu Gordina, BPG
Magnitude makroekonomikoa; aldi jakin batean, oro har urtebete, herrialde edo eskualde baten azken eskariko zerbitzuen eta ondasunen produkzioaren diru balioa adierazten du.

Bategitea
Bi erakunde edo gehiago batzearen edo elkartzearen prozesua, betiere haien jarduerak mantentzeko edo zabaltzeko, edo indar eta baliabide gehiago izango dituen beste erakunde bat sortzeko.

BEGen emisioak
Gizakiaren ohiko jardueretan edo prozesuetan sortutako gas emisioak. Berotegi Efektuko Gasak (BEG) deitzen dira, maila diferentean, atmosferan dagoen gasaren molekula kantitateagatik Berotegi Efektua sortzen laguntzen dutelako.

Berotegi Efektua fenomeno natural bat den arren, ohiko balioen gainean bere kontzentrazioa handitu izanak Berokuntza Globalean eta klima-baldintzen aldaketan (Klima Aldaketa) eragin du.

Hala deitzen diren gasen artean honako hauek daude: ur-lurruna, karbono dioxidoa, metanoa, nitrogeno oxidoak, ozonoa CFCak eta HFCak.

Benchmarkina
Erakunde lehiatzaileen edo antzeko erakundeen jardunbideak eta emaitzak aztertzeko erakundeek egiten duten prozesua, proposatutako helburuekin bat datozen aldaketak, hobekuntzak edo aldakuntzak egiteko xedea duena. Bestearengandik ikasteko printzipioa gauzatzean edota behatutakoa norberaren baldintzetara egokitzean datza.

Bidegorria
Bizikleta-bidea. Bizikletak ibiltzeko behar bezala seinaleztatu duten bide publiko bateko erreia. Azpiegitura hori bizikletek bakarrik edo beste batzuekin (oinezkoak edo ibilgailuak) batera zirkulatzeko presta daiteke.

Bilera turismoa edo MICE
MICE negozio turismorako edo negozio bidaietarako erabiltzen den ingelesezko akronimoa da. MICE: Meetings, Incentives, Conventions and Exhibitions. Bidaiatzearen arrazoia laneko jarduerekin edo jarduera profesionalekin edo elkarte jarduerekin lotzen den turismo korrontea.

Bisitaria
Turismo Mundu Erakundearen arabera, bere ohiko inguruneaz bestelako helmuga nagusi batera urtebete baino gutxiagorako bidaiatzen duen pertsona da, horretarako arrazoia edozein izanik ere (aisialdia, negozioak edo arrazoi pertsonalak izan), salbu bisitatzen den herrialdean edo lekuan egoitza duen erakunde bateko langilea denean.

Bizi itxaropena
Populazio absolutu edo populazio oso batek aldi jakin batean bizi dituen urteen neurria.

Biztanleria aktiboa
Ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko lan bat ekartzen duten pertsona guztiak dira, bai eta momentu horretan enplegurik ez dutenak, baldin eta bila badabiltza eta lan egiteko prest badaude ere. biztanleria aktiboek eta biztanleria langabeek osatzen dute.

Aipatu behar da, estatistika-iturrien arabera, biztanleriaren definizioa aldatu egiten dela kontuan hartutako adin-tarteari dagokionez (16 urte eta gehiagoko pertsonak, adibidez EUSTATen arabera, edo 15 eta 64 urte arteko pertsonak, EUROSTATen arabera).

D

Dentsitate ekonomikoa
Kilometro karratuko, edo populazio jakin baterako, "produkzio ekonomikoko" kantitatea da.

Diagnostiko estrategikoa
Zuzendaritza estrategikoko prozesuaren barruko formulazio estrategiko baten parte den fasea, analisi bikoitz baten bidez —ingurunearen analisiaren bidez (orokorra zein lehiarena) eta barne analisiaren bidez—, une jakin batean, enpresa zer egoeratan dagoen aztertzean datza. Diagnostiko estrategikoaren bitartez, enpresa gauza da etorkizun hurbilean aurre egin beharreko erronkak ezagutzeko, baita erronka horiei arrakastaz aurre egiteko zer aukera duen jakiteko ere.

Diagnostikoa
Egoera baten analisia edo azterketa, gauza edo prozesu baten arazoak, joerak eta/edo beharrak hautemateko.

E

Ebaluazioa
Zerbait edo norbait aztertzeko prozesua, lerrokatzeak, baldintzak eta abar betetzen diren zehazteko, betiere aldez aurretik ezarritako irizpideen arabera.

Egilea
Erakunde edo prozesu batean egiteko jakin bat betetzen duen erakundea edo pertsona.

Ekintza estrategikoa
Erakunde baten estrategia bistaratzeko eta abian jartzeko ardura dutenek lehentasunekotzat jotzen dituzten gaien arloko emaitzetara zuzendutako jarduna.

Ekintza plana
Helburuekin bat eginik, eta jomuga zehatz batzuetarako aurrez ezarritako programa baten barruan, finkatutako jardun multzoa biltzen duen dokumentua.

Ekintza
Emaitzak lortzera zuzentzen diren jardunak egitearen ondorioa.

Ekintzailetza
Termino horren abiapuntua frantseseko entrepreneur hitza da (aitzindari esanahi duena). Pertsona edo erakunde batek lan proiektu bat edo negozio ideia bat irudikatzen eta gauzatzen duen prozesua.

Ekosistema
Izaki bizidunen komunitate batek eta hauek bizi diren inguruneak osatutako sistema biologikoa da, baita euren artean ezartzen den bizi-erlazioa ere.

Berrikuntza-ekosistemaren kontzeptuaren barne hartzen da berrikuntza bat ulertzeko eta gauzatzeko (berrikuntza bultzatzeko ingurune bat) hartu behar diren ekintzen multzoa. Horrek lurralde batetik bestera aberastasuna sortzeko duten ahalmena bereizten du.

Energia berriztagarriak
Iturburu natural ia agorrezinetatik —bertan duten energia kantitateagatik edo bitarteko naturalen bidez birsortzeko duten ahalmenagatik— eskuratutako energia. Energia berriztagarritzat jotzen dira energia eolikoa, geotermikoa, hidroelektrikoa, marea-energia, eguzki-energia, olatuen energia, biomasa, etab.

Energia pobrezia
Energia beharren kostuari aurre egiteko ezintasuna, eta horretan zenbait faktorek izan dezake eragina (familia sarreren gainbeherak edo sarrerarik ezak, energiaren prezio handiak, energia efizientziaren alorrean etxebizitzek duten kalitate txikiak,…).

Energia-eraginkortasuneko ziurtagiria
Energia-ziurtapenak eraikin bat energetikoki kalifikatzen du, okupazio- eta funtzionamendu-baldintza arruntetan eraikin baten energia-eskaerari erantzuteko behar den urteko energia-kontsumoa kalkulatuz (ur beroaren produkzioa, berokuntza, argiteria, hozte-sistema eta aireztatze-sistema barne hartzen ditu).

Energia-ziurtapen prozesua energia-eraginkortasuneko ziurtagiri bat eginez eta energia-etiketa bat esleituz amaitzen da. Etiketa horretan energia-kalifikazioa adierazten da, zazpi letrako kalifikazio-eskala batekin. Eskala hori A letratik (energiaren ikuspegitik eraikin eraginkorrena) eta G letrara (energiaren ikuspegitik eraginkortasun txikineneko eraikina) doa. Ziurtagiri hori derrigorrezkoa da salerosketa- edo alokairu-operazioetan.

Enpresa / Negozioa
Erakunde mota, zeinaren jarduerak ekintzailetza duen ezaugarri, eta publiko jakin baten beharrak edo eskariak aintzat hartu eta merkatuen dinamikaren eraginpean dagoen.

Enpresentzako zerbitzu aurreratuak
Barnean hartzen dituzte produktu eta prozesu ingeniaritzak, ikerketa, IKT zerbitzu aurreratuak, ingurumen ingeniaritzak eta zerbitzuak, ikerketa eta garapena, teknologikoak ez diren jardueretako ingeniaritzak/aholkularitzak…

Erakunde Plan Estrategikoa
Erakunde baten epe ertainerako plangintza estrategikoko prozesua bistaratzen duen dokumentua. Finkatutako helburuen eta jomugen arabera gidatzen du jarduna. Erakundeak bere burua ezagutzeko zeregina da; diagnostiko, monitoretze eta ebaluazio zeregina da, eta eratze dokumentuetan ezarritako xedeak lortzeko ekintzen eta estrategien diseinua nabarmentzen da.

Erakunde publikoa edo gobernu erakundea
Estatuak sortu duen eta Estatuak eta dagozkion legeak arautzen duten erakundea.

Erakundea
Helburu komun batzuek lotzen dituen eta helburu horiek lortzeko lan egitura antolatu batean diharduten pertsonen multzoa.

Eremu metropolitarra
Hiriaren inguruak, betiere hiriaren hedapenak inguruko lurraldeak hartzen dituenean eta hiri zentralarekiko subsidiarioak diren eta elkarreragiten duten beste hirigune batzuk sortzen dituenean. Eremu metropolitarra hiri metaketa eta konurbazio gisa eratzen da.

Erresilientzia
Beste definizio batzuen artean:

Erresilientzia ekologikoa, erkidegoek eta ekosistemek haien egitura eta funtzionaltasun ezaugarriak gehiegi aldatu gabe asaldurak xurgatzeko eta asaldura amaitu denean jatorriko abiapuntura itzultzeko duten gaitasuna.

Erresilientzia soziologikoa, gizarte taldeek kontrako emaitzak gainditzeko eta haien barne loturak berreraikitzeko duten gaitasuna, homeostasi kolektiboa nagusi dadin eta, hartara, haien sinergian bertan porrotik egin ez dezaten.

Errenta pertsonala
18 urte edo gehiago dituen pertsona bakoitzarentzako, bere laneko errentak, ekonomia-jardueren, transferentzien edo gizarte zerbitzuen ondoriozko errentak, eta kapitalagatik —higigarria zein higiezina— jasotakoak batuz kalkulatzen da.

Eskaria
Kontsumitzaileak produktuak, ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko beharra. Lotura du eskaintzarekin (eskuragarritasunarekin) eta prezioen eskalarekin.

Establezimendu berrien sorrera tasa
Establezimendu berrien kopurua 1.000 biztanleko (‰ biztanle).

Estrategia
Xede batera iristeko edo helburuak eta xedeak betetzeko aztertutako prozesuen edo ekintzen multzoa.

Etika
Ingurune jakin batzuetan erakundeen edo pertsonen portaera gidatuko duten balioak, ona edo txarra dena edo zuzena edo okerra dena zehaztuta.

Etorkizuneko agertokia
Balizko etorkizunaren eta etorkizunarekin lotzen diren hipotesien deskribapena.

Ezkontza indize sintetikoa
Aldi baten barruan, eta adin desberdinetan, izandako lehen ezkontzen batura. Une jakin bateko indize horretako balioak modu baliagarrian alderatzen dira ezkongabeen ezkontza tasaren intentsitatearekin —belaunaldien barruan—.

F

Familia-errenta
Adinez nagusi diren eta aztertutako urtean errenta-motaren bat jasotzen duten familia bereko kideen guztizko errenta pertsonalak eranstea.

Familia-etxebizitza
Eraikin bat edo egituraz bertatik bananduta dagoen zati bat okupatzen duen edozein logela edo logela-multzoa eta hauei lotutako espazioak eta, eraiki, berreraiki, eraldatu edo egokitu den moduagatik, pertsona bat edo gehiago bizitzeko prestatu dena, eta erreferentziako datan beste helburu batzuetarako osorik erabiltzen ez dena. Partzialki beste erabilera batzuetarako erabil daiteke (mediku-kontsulta, ile-apaindegia, jostundegia, etab.).

Familia-etxebizitzak estatistikan sartuta daude, erreferentziako datan okupatuak dauden ala ez kontuan hartu gabe, eta honela sailkatuta daude: nagusiak (urte guztietan edo gehienetan pertsona baten edo gehiagoren ohiko etxebizitza gisa erabiltzen dira), bigarren mailakoak (urteko zati batean baino ez dira erabiltzen) eta hutsak (aurri-egoeran edo aurretik aipatutako edozein egoeratan egon gabe, normalean hutsik daude).

Feedback
Atzeraelikadura euskaraz. Pertsona edo erakunde batek, bere ekintzaren ondorio gisa, iruzkinak, iritziak edo zenbatespenak jasotzen dituen prozesua. Elkarreragin horrek ezagutza eta elkarren ebaluazioa sortzen du eta aldaketak eta ikaskuntzak orientatzen ditu.

G

Garapena
Erakunde edo prozesu batek lortzen duen trebezia, hazkunde edo estadio gorena.

Genero-berdintasunaren indizea GBI
Gizonen eta emakumeen ongizatean eta garapen pertsonalean eragiten duten hainbat alderdi garrantzitsutan haien artean oraindik ematen diren desberdintasunak laburtzen dituen adierazle sintetiko bat da.

Euskal Autonomia Erkidegorako, EUSTATek Genero Berdintasunerako Europako Institutuaren (EIGE) metodologia erabiltzen du. Bertan, sei dimentsiotan (enplegua, dirua, ezagutza, denbora, boterea eta osasuna) hierarkikoki egituratutako hainbat adierazle hartzen dira kontuan. Sei dimentsio horiek, aldi berean, 14 azpidimentsiotan zatitzen dira.

Genero-ikuspegiaren integrazioa
Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, helburu eta behar diferenteak sistematikoki kontuan hartzea, desparekotasunak ezabatzeko eta politiketan eta ekintzetan berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketa espezifikoak erantsiz, maila guztietan eta plangintza-, gauzatze- eta ebaluazio-fase guztietan.

Gentrifikazioa
Batzuetan degradazio sintomak izaten dituen hiriko eremu edo ingurune historiko bat okupatu izan duten biztanle edo sektore sozialak bertatik kanporatzeko prozesua, betiere lurzoruaren espekulazioa sortzeko eta liberatzen diren eta gizarte mailan babesik ez duten zona horiek disuasio moduan hartzen dituzten orotariko turismo, finantza edo zerbitzu azpiegiturak erakartzeko.

Germen etorkizun eramaileak / Etorkizuneko seinale ahulak
Txosten ofizialetan ez dauden baina oso argigarriak izan daitezkeen pistak edo oso agerikoak ez diren iradokizunak.

Gini indizea
Corrado Gini estatistikari italiarrak asmatutako desparekotasun neurria. Normalean herrialde baten barruan sarreren arloko desparekotasunak neurtzeko erabiltzen da, baina erabil daiteke edozein banaketa despareko neurtzeko.

Zehazki, bakoitzaren errentaren arabera banatuta biztanleriaren pisu metatuaren eta erabilgarri duten errentaren pisu metatuaren arteko erlazioa da. Normalean 0 eta 1 arteko zenbaki baten bidez adierazten da. Bertan 0 zenbakiak berdintasun perfektua adierazten du (pertsona guztiek diru-sarrera berberak dituzte) eta 1 zenbakiak desparekotasun perfektua (pertsona batek diru-sarrera guztiak ditu eta besteek ez dute sarrerarik). Zenbaiten datuak ehunekotan ematen dira. Bertan gutxieneko balioa 0 da eta gehienekoa 100.

Gizarte erantzukizuna / Gizarte erantzukizun korporatiboa / Enpresaren gizarte erantzukizuna
Enpresen eta erakundeen jardunak, inguruneari balioa eranstera edo gizarte, ingurumen eta hezkuntza errealitateak, besteak beste, hobetzen laguntzera bideratuko direnak. Borondatezkoa izan daiteke edo nazioetako gobernuek nahitaezkotzat finkatua, dagokion araudiarekin.

Gizarte kohesioa
Soziologian, gizarte multzo bateko kideen adostasun maila edo proiektu edo egoera komun baten kide izatearen pertzepzioa. Multzoaren barruan gizarte elkarrekintzaren intentsitatearen neurria da, indize test batekin neur daitekeena edo kasuan kasurako defini daitekeena. Anomiak, hau da, arauetan oinarritzen den portaerak kohesioaren kontra egiten du.

Gobernuz kanpoko erakundea
Irabazi asmorik gabe diharduen erakunde pribatua, eta, nahiz eta publikoa edo gobernukoa ez den, gizartearen sektore jakin batzuk onuratuko dituzten jarduerak egin ditzakeena. Interes komuna duten pertsonez osatuta daude eta hainbat iturritatik lortzen du finantzaketa: partikularrengandik, gobernutik edo fundazioetatik, besteak beste. Ongintzako helburuak izan ditzakete, edo zergak salbuesteko helburuak, edota helburu politikoak, eta gaur egun gizarte zibilaren indar garrantzitsutzat jotzen dira.

H

Hazkunde tasa
Urte tarte jakin batean, kanpoko migrazio mugimenduen, jaiotzen eta heriotzen ondorioz, populazioaren batez bestekoaren igoeraren edo murrizketaren neurria (ez da jaiotza tasarekin nahastu behar).

Hazkunde tasa begetatiboa
Populazio jakin bateko jaiotzen eta heriotzen arteko aldea. Hazkunde begetatiboko edo naturaleko urteko tasa (mila biztanleri dagokiona) kenketa honen emaitza da: jaiotza tasa ken heriotza tasa.

Helburua
Ekintza jakin batzuen bitartez lortu nahi den emaitza kualitatiboa edo kuantitatiboa. Erabakiak gidatuko dituen monitoretze erabilgarrira eta eraginkortasunera begira, helburua finkatzean edo formulatzean emaitza behagarriak hartu beharko dira kontuan, hau da, adierazleen bitartez egiazta eta neur daitezkeen emaitzak.

Heriotza-tasa gordina
1.000 biztanle bakoitzeko heriotza kopuruaren arteko erlazioa (biztanleak (‰ biztanleak).

Hezkuntza erakundea
Lan pedagogikora edo prestakuntza lanera zuzentzen den erakundea. Haren izaera bereziaren ondorioz, eta irabazi asmoz jardun dezakeen arren, haren plangintza eta ebaluazio prozesuetan irizpide ukiezinak, jardun irizpideak eta adierazle kualitatiboak agertzen dira.

HHS - Hiri-hondakin solidoak
Etxe partikularretan, dendetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutako hondakinak, eta arriskutsu gisa kalifikatuta ez dauden eta, euren izaeragatik edo konposizioagatik, aurretik aipatutako tokietan edo jardueretan ekoiztutakoen barne har daitezkeen hondakinak.

Hiri-hondakin gisa ere sailkatzen dira bide publikoetan, berdeguneetan, aisiako eremuetan eta hondartzetan jasotako hondakinak, baita abandonatutako ibilgailuak, tresnak eta altzariak, etxeko animalia hilak, eta eraikuntzako eta etxebizitzak konpontzeko obra txikietan jasotako hondakinak eta zaborrak ere..

Hiri-trinkotasuna
Hiri-eremu jakin batean, eraikitako guztizko bolumenaren eta guztizko lurzoru-azaleraren arteko erlazioa. Lurzoruaren kontsumoari lotutako eraikuntza-dentsitateko ideiara edo eraikuntza-eraginkortasuneko ideiara hurbilketa bat da

Hirugarren sektoreratzea
Hirugarren sektoreko jardueren (zerbitzu sektorearen) gorakadan datzan eraldatze ekonomikoa eta soziala. Hirugarren sektorea ekonomiako sektore nagusi bihurtu arteko gorakada da (populazio aktiboaren ehunekorik handiena lan egiten du hirugarren sektorean eta herrialdeko Barne Produktu Gordinean ehunekorik handiena ekartzen du sektore horrek). Hirugarren sektoreratzeak, beraz, hirugarren sektorea bigarren sektorea (industria) baino ugariagoa izatea eta bigarren sektoreak baino ekarpen handiagoa egitea ekartzen du, baita, maiz, sektore horren berezko lan egiteko modua gainerako sektoreetara hedatzea ere. Sektore horiek hirugarren sektoreratzen ditu.

Holistika
Edozein sistemaren elementuak integralitatean eta elkarren mendekotasunean aztertzea —eta ez modu bakartuan— eta, hartara, elementuen konplexutasuna eta gauzen benetako izaera atzematea eta errealitate ulertzea. Aldeek beraiek baino garrantzi handiagoa hartzen du aldeen arteko erlazioak.

I

I+G, Ikerketa eta Garapena
I+Gk ezagutza erreal gehiago eskuratzeko metodo zientifikoetan oinarritutako jarduera metodiko eta sistematiko guztiak hartzen ditu. Termino hori enpresetako sail espezifiko bat deskribatzeko erabili ohi da eta sail horren helburua da zerbitzuak edo produktuak berritzea.

IKT, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
Hezkuntzaren, komunikazioaren eta informazioaren esparruetan, besteak beste, erabiltzen diren tresna teknologikoak eta/edo informatikoak, jakintzaren eta giza jardueraren esparru askotan eragina izan dutenak.

Ikuspegia
Erakunde bateko kideek erakundearen etorkizunaren gainean duten irudia eta nola gustatuko litzaieken jendeak epe luzera erakundea ikustea. Ikuspegi hori formulatzeari esker, irudi ideala lortzeko lan egiten jarraitzeko motibatu nahi da.

Ingurumen inpaktuari buruzko azterketa
Erakunde jarduerek erakundearen ingurunean izango dituzten ondorioen analisia, ingurunearen gaineko eragin negatiboak saihestearren.

Ingurunea
Pertsona, erakunde edo kolektibo baten inguruko inguruabar saihestezinak, haren jardunean eragina dutenak, hala nola faktore ekonomikoak, ingurumenekoak, ekonomikoak, kulturalak eta sozialak.

Inkesta
Erakunde baten jardueran eragina duten arazoak, beharrak, iritziak eta errealitateak hautematea ahalbidetuko duten datuak biltzeko azterketa mota, betiere erakundearen berezko erabakiak hartzeko helburuarekin.

Inpaktua
Bi elementuren arteko talka, nolabaiteko sarpenarekin. Erakundeen munduan, erakundeen ekintzek onuradunengan duten eragina eta, aldi berean, adierazleak neurtzeko irizpide bat.

Iraunkorra
Gauzen egoera etengabea eta, inguruko baldintza onen ondorioz, behar bezala eusteko aukera. Esate baterako, garapen iraunkorrak adierazten du gizakien produkzio eta ekonomia jarduerek ingurumenean eragin negatiborik ez izatea eta etorkizuneko belaunaldiek ingurumenaz goza dezaten bermatzea.

Itun estrategikoa
Xede komunak lortzeko bi erakunderen edo gehiagoren arteko lotura.

J

Jaiotza tasa gordina
Urte jakin batean izandako jaiotza kopuruaren eta urte horretako batez besteko populazioaren arteko erlazioa. Milako hainbestetan adierazten da eta mila biztanleko jaiotza kopurua islatzen du.

Jakintzako sektore intentsiboak - KIBS (Knowledge Intensive Business Services)
Honako hauek hartzen dituzte barnean: edizio jarduerak, zinema jarduerak, bideo jarduerak eta telebista prometakoak, soinu grabazioa eta musika edizioa, irrati eta telebistako programazio eta emanaldien inguruko jarduerak, telekomunikazioa, programazioa, aholkularitza eta informatikarekin erlazionatutako beste jarduera batzuk, informazio zerbitzuak, jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak, egoitza nagusietako jarduerak, enpresa kudeaketako aholkularitza jarduerak, arkitekturako eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak, saiakuntza eta analisi teknikoak, ikerketa eta garapena, publizitatea eta merkatu azterketak… Barnean dira, halaber, produktu eta prozesu ingeniaritzak, ikerketa, IKT zerbitzu aurreratuak, ingurumen ingeniaritzak eta zerbitzuak, ikerketa eta garapena, teknologikoak ez diren jardueretako ingeniaritzak/ aholkularitzak…

Jarduera
Edozein gizabanakok, erakundek edo kolektibok nahita egindako ekintzen multzoa.

Jarduera tasa
Talde baten jarduera tasa deritza populazio aktiboaren parte diren talde horretako pertsonen proportzioari.

Erroldetan populazioa osoarekiko ere kalkulatu ohi da. Ehunekoetan adierazten da.

Jarraipena
Prozesu bat gauzatzen den bitartean, prozesuaren behaketa zorrotza egitea, erabat gauzatzen dela bermatzeko edo, akatsak hautemanez gero, konponbiderako erabakiak hartzeko.

K

Kalitatea
Objektu, produktu edo prozesu baten nolakotasunei buruzko irizpidea, antzeko beste batzuekin alderatuta eta bikaintasuna lortzera begira.

Kapital soziala
Harremanetako eta parte hartzeko dimentsioen multzoa, eta horien artean daude sare sozialak eta komunitarioak (familiarenak, lagun artekoak, auzokideena,…), pertsonen eta erakundeen gaineko konfiantza, gizarte partaidetza, lankidetza, komunikazioa, kohesioa edo gizarte inklusioa. Bereziki, gizarte edo kolektibo batek baliabideak mobilizatzeko duen ahalmen espezifikoa eta gizarte harremanetarako sareen erabilgarritasuna. Lagungarria da konfiantzaren eta elkarrekikotasunaren bitartez ekintza kolektiboa eta gizarte erantzukizuna sustatzeko. Sare sozialek eta komunitarioek gizartearen onurarako ekintza kolektiboa eta lankidetza errazten dute.

Klima-aldaketa
Hamarkadak edo milioika urte har ditzakeen denbora-epe batean zehar patroi meteorologiko egonkorren aldakuntza. Aldakuntza horrekin batera klima berriro egokitzeko prozesuak ematen dira. Prozesu horiek, askotan, muturreko fenomeno meteorologikoak dakartzate, planetako bizimoduetan aldaketa handiak eraginez.

Azken urteetan klima-aldaketa adierazpenak indarra hartu du giza jarduerek planetaren balantze kimikoan eta fisikoan duten eraginari buruz hitz egiteko. Jokabide horrek planetaren berotze globalean (atmosferan gasen metaketa anormalak eragiten duen “berotegi-efektua” izenekoaren ondorioz) eta, zeharka, planeta beraren klima-baldintzen aldaketan eragingo luke.

Klima-aldaketari buruzko eztabaidaren esparruan, arrasto antropikoak, iristear dauden klima-hondamendi posibleen aurrean alarmak, eta horrek planetan eta izaki bizidunengan izan dezakeen eraginak garrantzi handiagoa hartzen dute.

Kontratu-errotazioaren indizea
Kontratuen kopuruaren eta kontratutako pertsonen kopuruaren arteko erlazioa.

Konfort-indizea (etxebizitza)
Etxebizitzen ezaugarri nagusiak, instalazioak eta zerbitzuak laburbiltzen dituen adierazlea (EUSTAT). Indize hori kalkulatzeko oinarrizko mailako, maila ertaineko eta maila goreneko ekipamenduak hartzen dira kontuan (energia elektrikoa, sukaldea, txorrotako ura, berokuntza, ur bero zentrala, gasa, etxebizitzaren urteak, azalera eta logela kopurua, Internet, telefonoa, igogailua, atariaren irisgarritasuna, garajea, etab.).

Indizea, gehienez, 100 puntukoa izango da eta etxebizitzak konfort-maila baxua duela esaten da indizea 50 puntutara heltzen ez denean; konfort-maila ertaina da indizea 50 eta 75 punturen artean dagoenean; eta konfort-maila altua indizea 75 puntu baino handiagoa denean.

Komando taula / Aginte taula integrala / Balanced Scorecard (BSC)
Robert Kaplan eta David Norton management-aren adituek sortutako kudeaketa metodologia, sistema edo eredua. Helburuen betetze maila neurtzeko, erakundeen lau ikuspegi hartzen ditu aintzat, baita dagozkien adierazleak ere: finantza ikuspegia, bezeroen ikuspegia, barne prozesuen ikuspegia eta ikaskuntza ikuspegia (edo prestakuntzakoa eta hazkundekoa). Laugarren ikuspegi horrek funtsezko garrantzia du.

Kudeaketa
Erakunde edo negozio baten baliabide ukigarriak edo ukiezinak, prozesuak eta jarduerak zuzentzeko prozesua. Erantzukizun karga handia du ezaugarri, eta, beste batzuekin elkarlanean, helburuak lortzeko beharrezkoa den lidergo osagaia eskatzen du. Era berean, eskura dauden elementuak nolabait administratzea eta koordinatzea dakar.

M

Mapa estrategikoa
Erakunde ekintzen ondorioak adierazten dituen gida esparrua edo taula, lortu nahi diren emaitzetara eramango duten bektoreak zein diren argi izateko.

Mendekotasun indizea
Mendekotasuna duten pertsonen (16 urtetik beherakoen edo 64 urtetik gorakoen) proportzioa, lan egiteko adinean dagoen populazioari dagokionez (16 eta 64 urte artean).

Metodologia
Helburu bat edo helburu multzo bat lortzeko erabiltzen diren zentzuzko mekanismoen edo prozeduren multzoa, ikerketa zientifiko bat gidatzen duena. Termino hori zuzenean lotuta dago zientziarekin; haatik, metodologia beste arlo batzuetan ere azal daiteke, hala nola hezkuntzan —metodologia didaktikoa— edo zuzenbidean —metodologia juridikoa—.

MikroETEa
Langile batetik bederatzi langilera dituen enpresa.

Monitoretzea
Zuzenketak egiteko, prozesuak laguntzeko eta erabakiak hartzeko jarduerekin lotuta egiten den behaketa eta kontrola.

Motibazioa
Xede batzuk betetzeko ekintzak egitera eramaten edo bultzatzen duen pertsona baten barne egoera. Pertsona, erakunde edo jarduera batek, sari ukigarriak edo ukiezinak eskainita, beste batzuen ekintza pizten duen prozesua ere bada.

Mugikortasun iraunkorra
XX. mendearen bigarren erdian, ibilgailu partikularrean oinarritutako hiri garraioko ereduaren orokortzeak eragindako ingurumen eta gizarte arazoen gaineko kezkaren ondorioz sortutako kontzeptua.

O

Okupazio tasa
Populazio landunaren eta lan egiteko adinean dagoen pertsona kopuruaren arteko ehuneko erlazioa. (Familien Inkestarako Estatistika Sail Nazionalaren definizioa).

P

Pertsona
Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera, “giza espezieko banakoa”. Egiteko mota batek ezaugarritzen duen nortasun oro ere adierazten du, hala nola “pertsona juridikoa”.

Plana
Helburu bat lortzeko aurrez finkatutako ekintzen multzoa.

Plangintza
Jarduera edo zeregin bat arrakastaz gauzatzeko jomugak eta helburuak ezartzen dituen prozesua. Giza bizitzako prozesu asko aurrez plangintza bat egin ondoren egiten dira. Izaera aurreikusgarria du, eta erabakiak hartzeko ariketa bat ere bada, plangintza egiten duenak aukera sorta baten artean hautatu beharko baitu. Planak eta proiektuak plangintzaren emaitza zehatza dira.

Plangintza estrategikoa
Erakundeen sorrerako postulatuak eta epe ertainerako eta luzerako helburuak gauzatzeko estrategia multzoa. Erakundeak bere burua ezagutzeko tresna bat ere bada, bizi galderei erantzuten baitie (non gaude, nora goaz, norantz jo behar dugu). Galdera horien erantzunek aukera emango dute jakiteko erakundea non dagoen, zer bilatzen duen, nola bilatzen duen eta etorkizunera begira zer ikuspegi duen.

Pobreziako arrisku-tasa
Pobreziako (edo diru-sarrera txikiko) arrisku-tasa honako hau da: pertsonen kontsumo-unitate bakoitzeko batez besteko errenta baliokidearen % 60 baino gutxiagoko errenta garbi baliokidea duten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa.

Medianak —gizabanakoak diru-sarrera txikiena dutenetik handiena dutenera ordenatuta— balioen erdia bere azpitik eta beste erdia gainetik uzten ditu.

Etxeko errenta errenta pertsonal bihurtzeko ELGAren baliokidetasun-eskala zuzendua erabiltzen da. Eskala horren arabera, etxeko lehen pertsona heldua 1ekin haztatzen dute, gainerako pertsona helduak 0,5ekin, eta 14 urtez azpikoak 0,3rekin.

Pobreziako eta bazterketako arrisku-tasa (AROPE) ere ikusi.

Pobreziako eta bazterketako arrisku-tasa (AROPE)
Ingelesezko siglak kontuan hartuz AROPE (at risk of poverty and exclusion) tasa gisa ere ezagutzen den pobreziako eta gizarte-bazterketako arrisku-tasak, gutxienez, ondorengo egoeratako baten eragina jasaten duten pertsonen proportzioa adierazten du:

· Diru-sarrera txikiak edo pobrezia-arriskua (kontsumo-unitate bakoitzeko diru-sarreren % 60ko mediana).

· Gabetze material latza (9 kontzeptuko zerrenda batetik gutxienez 4 ez izatea).

· Lan-intentsitate baxua (0 eta 59 urte arteko pertsonak lan-intentsitatea % 20ren azpitik duten etxetan)..

Pobrezia-tasa larria
Pobrezia-tasa larriak edo zorrotzak honako hau adierazten du: pertsonen kontsumo-unitate bakoitzeko batez besteko errenta baliokidearen % 40 baino gutxiagoko errenta garbi baliokidea duten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa.

Medianak —gizabanakoak diru-sarrera txikiena dutenetik handiena dutenera ordenatuta— balioen erdia bere azpitik eta beste erdia gainetik uzten ditu.

Etxeko errenta errenta pertsonal bihurtzeko ELGAren baliokidetasun-eskala zuzendua erabiltzen da. Eskala horren arabera, etxeko lehen pertsona heldua 1ekin haztatzen dute, gainerako pertsona helduak 0,5ekin, eta 14 urtez azpikoak 0,3rekin.

Politikak
Erakunde bateko kideek, gai espezifikoetan, haien barne jardunei aplikatzen dizkieten gidalerroak. Adibidez: komunikazio politika.

Populazio migratzailea
Erreferentziako unean udalerrien arteko bizitoki aldaketaren bat adierazi zuten pertsonak dira. Populazio migratzailea honako multzo eta azpimultzo hauetan sailka daiteke:

Barne migratzaileak: bizitoki aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko bi udalerrien artekoa da. Gizabanakoen jaiotze lekuari erreparatzen badiogu, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpo jaio eta azken abiapuntua Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri bat dutenen azpimultzoa lor dezakegu, hau da, Euskal Autonomia Erkidegora migratu zuten eta ondoren barne migrazioaren bat egin zuten pertsonen azpimultzoa.

Barne migratzaileak: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren baina Estatuaren gainerako udalerri batetik etorri diren pertsonen azpimultzoa, edo Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko Estatuko udalerri batean bizi diren eta Euskal Autonomia Erkidegotik joan diren pertsonen azpimultzoa.

Immigratzaileak: azken bizitoki aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batera egin duten pertsonak.

Emigratzaileak: abiapuntuko azken bizitokia Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri bat izan eta erreferentzia egunean bizitokia Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpo duten pertsonak —gure kasuan Estatuko gainerako udalerrietan—.

Populazioaren gainzahartzea
Gainzahartze-indizeak edo -tasak 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko 75 urtetik gora dauden pertsonen kopuruari egiten dio erreferentzia.

Kontuan hartu behar da zenbait iturritan erreferentzia 85 urtetik gorako pertsonak direla.

Populazioaren ordezkapena
Populazio itxi bat (migrazio-mugimenduak kontuan hartu gabe), bere bolumena murriztu gabe, denboran mantentzeko behar den gutxieneko ugalkortasunari egiten dio erreferentzia; batez beste, emakume bakoitzeko 2,1 seme-alabatan kokatu ohi da.

Printzipioak
Ekintzak gidatzen dituzten postulatuak, betiere ekintzak eta haien emaitzak koherenteak izan daitezen usteekin, legeekin edo balioekin.

Proiektua
Obra edo prozesu bat zehazteko aldez aurretik egiten diren plan, kalkulu, neurketa, baliabide eta aurreikuspen koordinatuak eta elkarri lotuak biltzen dituen dokumentua.

Prospektiba estrategikoa
Orainarekin alderatuta, gizakiengan eragina duten etorkizuneko aldaketen prozesua, betiere etorkizuna ekarriko duten egintzak behar bezala kudeatzen badira. Bestalde, prospektiba estrategikoa aplikatzen zaio erakundeetako plangintzari, eta aintzat hartzen ditu etorkizuna, joerak eta aldaketa faktoreak ekartzen dituzten germenak hautemateko eta, hartara, etorkizuneko agertoki matematikoak sortzeko metodologia zientifikoak.

L

Lurzoru artifizialdua
Etxebizitzak, azpiegiturak edo ekipamenduak eraikitzeko asmoz, lurzorua kontsumitzeko edo okupatzeko ekintza izendatzeko erabilitako hitza da. “Artifizialtze” kontzeptupean lurzorua inpermeabilizatzea barne hartzen duten ekintzak deskribatzen dira. Oro har, artifizialtzea “lurzorua modu itzulezinean okupatzeko” kontzeptu teknikoaren baliokidea da.

Adierazle gisa hiri-lurzoru osoa barne hartzen du, ondoko hauek kanpoan utziz: hiriko hiri-parke nagusiak; bide-azpiegiturak eta ekipamendu publikoak eta pribatuak; industria bereziek okupatutako azalera; landa-lurzoruko baratzeak eta landa-lurzoruko eraikinak.

Lurzoru urbanizatua
Lurzoru urbanizatutzat jotzen da “hiri-lurzoru” eta “lurzoru urbanizagarri exekutatu” gisa sailkatutako lurzoru-azaleraren batura, hau da, biztanle-guneetako zuzkidura eta zerbitzu propioen sarean legez eta modu eraginkorrean barne hartutakoa (partzela eraikiek edo eraiki gabeek hirigintza-legeriak eskatutako zuzkidurak eta zerbitzuak dituzte edo izan ditzakete, partzelak jada funtzionatzen ari diren instalazioetara konektatzeko obra bakarrik eginez).

Agiri honetan erabilitako adierazleak udalaren guztizko azalerarekiko azalera urbanizatuko ehunekoa biltzen du, exekutatutako lurzoru urbanizagarriko azalera HAPO onartu zenetik metatutako datua dela kontuan hartuz.

S

S 80/S 20 ratioa
Diru gehien irabazten duen biztanleriaren % 20k eta diru gutxien irabazten duen biztanleriaren % 20k jasotako guztizko diru-sarreren arteko erlazioa edo zatidura adierazten du. Desparekotasun ekonomikoko maila erakusteko erabilitako balio estatistiko bat da. Balio altuenek desparekotasun handiagoa erakusten dute

Sinergia
Erakunde jarduerek sortutako ondorioak —guztiak osotasunean eta koordinatuta hartuta— edo emaitza jakin bat lortzeko hainbat eragileren baterako jarduna.

Sistema
Fisikoki edo kontzeptualki elkarrekin lotuta dauden elementuen multzo konplexua.

Sistemen ikuspegia (administrazioari aplikatuta)
Ludwig von Bertalanffy-k 1969an sortutako administrazio analisia. Enpresak sistema bat direnez gero, horien gaineko diziplina anitzeko begirada proposatzen du. Hau da, enpresa osatzen duten eta inguruan dituen azpisistemen gaineko begirada proposatzen du, eta beste edozein sistemari aplika dakizkiokeen printzipioak ondorioztatzen dira. Elkarren arteko mendekotasuna aitortzen du eta, hartara, erakunde batean ezin dira bereizita aintzat hartu finantzak, giza kapitala, merkataritza eta abar. Begirada zientifikoa aplikatzen dio jokabideari eta alderdi kualitatiboa zein kuantitatiboa hartzen du kontuan.

Sorkuntza industria
Sorkuntza industrien sektorea 15 azpisektore hauek osatzen dute: arkitektura, diseinua, moda, eduki digitalak eta ikus-entzunezkoak, zinema, bideo jokoak, musika, arte eszenikoak, ikusmen arteak, publizitatea eta marketina, kultura ondarea, artisautza, edizioa eta hizkuntzaren industriak.

Startup
Teknologia berriekin lotzen diren eta garapen bidean dauden sektoreak edo enpresak, ezaugarri dutenak bultzada berritzailea, energia eta bezeroaren gaineko garrantzia —horrek errendimenduaren hazkunde esponentziala bermatuko du, baita kostu txikietan ere—.

HHS - Hiri-hondakin solidoak
Etxe partikularretan, dendetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutako hondakinak, eta arriskutsu gisa kalifikatuta ez dauden eta, euren izaeragatik edo konposizioagatik, aurretik aipatutako tokietan edo jardueretan ekoiztutakoen barne har daitezkeen hondakinak.

Hiri-hondakin gisa ere sailkatzen dira bide publikoetan, berdeguneetan, aisiako eremuetan eta hondartzetan jasotako hondakinak, baita abandonatutako ibilgailuak, tresnak eta altzariak, etxeko animalia hilak, eta eraikuntzako eta etxebizitzak konpontzeko obra txikietan jasotako hondakinak eta zaborrak ere.

T

Taktika
Helburu bat lortzeko edo jomugara iristeko berariazko modu zehatza.

TEA, Total Entrepreneurial Activity, edo Ekintzailetza Jardueraren Indizea
Ekintzailetza jarduera islatzeko eta GEM (Global Entrepreneurship Monitor) proiektuan parte hartzen duten herrialdeen arteko konparaziorako erabiltzen den indizea.

Trinkotasun zuzendua
Hiri-eremu jakin bateko eraikitako bolumenaren eta herritarrek erabiltzeko espazio publikoaren —egoteko espazioa ere deitzen da— arteko erlazioa. Egoteko espaziotzat jotzen dira 5 metro baino gehiagoko zabalera duten espaloiak, oinezkoen kaleak, zumardiak, pasealekuak, parkeak, plazak, lorategiak eta baso-espazioak (euren ezaugarriengatik pertsonen arteko edo pertsonen eta ingurunearen arteko elkarrekintza laguntzen dutenak).

Eraikitako espazioen eta espazio irekien artean orekarik dagoen ezagutzeko, eta hiri-pilaketa edo -asetasun arazoak eragin ditzakeen gehiegizko trinkotasuna zuzentzeko balio du.

Txikizkako merkataritzaren dentsitatea
Kilometro karratuko, edo populazio jakin baterako, “txikizkako saltoki” kopurua da (mila pertsonako saltoki kopurua).

U

Ugalkortasun indize sintetikoa
Emakume hipotetiko batek bere ugalkortasun bizitzan izango lukeen seme-alaba kopurua adierazten du, betiere haren portaerak bat egiten badu taulan islatzen den adinaren araberako ugalkortasun tasa espezifikoekin.

Ugalkortasun-tasa globala
Adin ugalkorra duten 1.000 emakume bakoitzeko jaiotzen diren haurren kopuruaren arteko erlazioa. Estatistikako helburuetarako adin ugalkorra 15 eta 49 urte bitartekoa da ((‰ emakume).

X

Xedea
Plangintzaren esparruan, erakunde baten izateko arrazoia, egungo ikuspegitik. Ikuspegiarekin batera, bere burua ezagutzeko eta helburuak lortzeko aukera ematen dioten erakunde baten sorrera elementuetako bat da.

Z

Zahartze indizea
Adineko pertsona helduen kopuruaren eta haurren eta gazteen kopuruaren arteko erlazioa. Kalkulua: 65 urte edo gehiagoko pertsonen koefizientea, 15 urte baino gutxiagoko pertsonekiko, bider 100.

Zerbitzua
Subjektu jakin batzuen eskakizunak edo beharrak gogobetetzeko egindako ekintzak.

08 Eranskinak

I Eranskina

Donostia testuinguruan. Hirien benchmarkina

I. KAPITULUA

	Bartzelona	Bilbo	Burgos	**Donostia**	Gijón
Bertan bizi den populazioa (pertsona kopurua) (2016)	1.608.746	345.122	176.608	**186.064**	273.422
0-14 urteko populazioa (%) (2016)	12,6	12,13	14,28	**12,68**	11,36
15-64 urteko populazioa (%) (2016)	65,77	64,25	64,95	**64,45**	64,03
65 urte baino gehiagoko populazioa (%) (2016)	21,63	23,62	20,78	**22,87**	24,6
Populazioaren batez besteko adina (urteak) (2016)	43,56	47,24	44,67	**46,79**	47,91
Jaiotza tasa gordina (‰) (2015)	8,79	7,5	8,5	**8,09**	6
Heriotza tasa gordina (‰) (2015)	9,96	11,43	9,8	**10,8**	12,28

	Bartzelona	Bilbo	Burgos	**Donostia**	Gijón
Nazionalak populazio osoarekiko (%) (2016)	83,45	92,61	93,21	**93,38**	95,54
Nazioan jaioak populazio osoarekiko (%) (2016)	77,52	89,6	90,56	**90,22**	91,46
Atzerrian jaioak populazio osoarekiko (%) (2016)	22,48	10,4	9,44	**9,78**	8,54
Atzerritarrak populazio osoarekiko (%) (2016)	16,55	7,39	6,79	**6,62**	4,46

	Bartzelona	Bilbo	Burgos	**Donostia**	Gijón
Haurtzaindegian dauden 0-4 urteko haurrak, 0-4 urteko populazioari dagokionez (%)	61,27	63,51	48,88	**81,55**	47,76
ISCED 0, 1 edo 2 ikasketa maila gehienez duen 25-64 urteko populazioa (%) Lehen Hezkuntza	28,46	33	34,7	**26,12**	37,94
ISCED 3 edo 4 ikasketa maila gehienez duen 25-64 urteko populazioa (%) Bigarren Hezkuntza	22,34	22,26	23,22	**21,57**	24,02
ISCED 5 edo 6 ikasketa maila gehienez duen 25-64 urteko populazioa (%) Hirugarren Hezkuntza / Unibertsitatea	49,05	44,61	41,72	**51,99**	37,89

	Bartzelona	Bilbo	Burgos	**Donostia**	Gijón
Langabezia tasa (%) 2016	12,52	16,18	12,6	**9,21**	18,83

Girona	Logroño	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
98.255	150.876	220.567	195.650	172.656	690.566	790.201	244.634	661.108
17,24	15,21	12,18	13,95	11,93	15,13	13,83	14,74	14,31
67,73	65,69	66,5	64,22	64,65	66,24	66,04	65,3	65,05
15,03	19,09	21,32	21,83	23,42	18,63	20,14	19,96	20,64
39,59	43,37	46,04	44,53	47,43	42,61	43,84	43,8	44,31
11,24	8,58	7,39	8,48	6,98	9,58	8,28	10,1	9,21
7,62	8,95	10,78	9,45	11,33	9,38	9,52	8,34	9,76

Girona	Logroño	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
81,74	89,01	94,32	90,77	92,9	95,54	87,84	91,46	90,59
78,74	86,14	89,69	83,94	88,67	93,06	83,33	88,5	87,78
21,26	13,86	10,31	16,06	11,33	6,94	16,67	11,5	12,22
18,26	10,99	5,68	9,23	7,1	4,46	12,16	8,54	9,41

Girona	Logroño	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
67,24	51,55	39,21	48,74	55,59	56,84	59,63	67,22	56,72
37,58	38,71	31,69	31,06	35,99	38,76	33,78	36,34	36,58
21,51	23,55	24,66	21,74	24,47	19,98	22,6	20,23	24,24
40,72	37,6	43,53	46,93	39,42	41,11	43,55	43,13	38,83

Girona	Logroño	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
16,53	15,33	16,33	14,15	15,59	23,34	18,66	12,4	15,59

II. KAPITULUA					
	Bartzelona	Bilbo	Burgos	**Donostia**	Gijón
20-64 urteko okupatuak, populazio aktiboaren gainean (%) (2016)*	87,45	83,7	87,35	**90,88**	81,04
Jarduera tasa (%) (2016) (*)	58,03	54,16	57,6	**54,13**	51,92
Zerbitzuetako enpleguaren proportzioa (%) (2015)	90,47	85,84	71,16	**89,17**	73,58
Industriako enpleguaren proportzioa (%) (2015)	4,94	7,04	22,51	**5,32**	18,4

	Bartzelona	Bilbo	Burgos	**Donostia**	Gijón
Urteko ostatu gau turistikoak (mila biztanleko) 2015	11.990,70	4.728,80	4.034,62	**7.289,60**	3.220,30
Establezimendu turistikoetan erabilgarri dagoen plaza kopurua (mila biztanleko) (2015)	49,28	23,45	28,6	**41,9**	25,76

IV. KAPITULUA					
	Bartzelona	Bilbo	Burgos	**Donostia**	Gijón
Familiak 1.000 biztanleko (mila biztanleko) 2016	409,1	418	406,9	**412,7**	436,5
Familien batez besteko tamaina (pertsona kopurua) (2016)	2,46	2,4	2,46	**2,43**	2,31
Pertsona bakarreko familiak, guztien artean (%)	30,66	29,5	30,93	**30,17**	31,49
Etxebizitza konbentzionalak, errolda (mila biztanleko) 2011	502,1	460,9	513,7	**474,4**	530,2
Hutsik dauden etxebizitzen proportzioa (%) (2011)	10,88	7	15,3	**6,26**	11,25

VI. KAPITULUA					
	Bartzelona	Bilbo	Burgos	**Donostia**	Gijón
Lanera autoz egiten diren joan-etorriak (%) (2011)	28,95	47,52	42,08	**41,36**	47,41
Lanera oinez egiten diren joan-etorriak (%) (2011)	17,53	10,21	22,9	**16,24**	15,97
Lanera garraiobide publikoan egiten diren joan-etorriak (%) (2011)	27,72	20	13,15	**15,11**	11,82
Lanerako joan-etorrien batez besteko iraupena (minutuak) (2011)	27,16	22,49	17,4	**19,51**	20,36

Iturria: INE, Hiri adierazleak. Donostiako Estrategia Bulegoak landua.

Girona	Logroño	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
84,27	85	83,57	85,86	84,22	76,83	81,46	87,86	84,58
62,54	57,93	54,34	55,33	52,92	56,39	57,21	57,17	59,24
94,26	82,92	91,17	88,83	88,85	87,89	91,83	78,11	82,85
2,43	9,87	3,69	6,08	6,61	4,67	2,64	17,62	10,89

Oviedo	Logroño	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
3.976,80	3.619,13	3.333,90	4.860,30	7.279,50	5.282,20	2.325	2.516,10
26,7	20,82	19,79	38,02	35,25	30,72	16,02	16,68

Girona	Logroño	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
377	405,7	424,6	392,4	408,8	379,6	395,9	424	410,7
2,65	2,5	2,36	2,59	2,46	2,65	2,53	2,37	2,55
27,8	30,0	31,12	29,97	30,95	25,95	29,6	31	28
490,5	508,7	548,8	455,6	513,7	479,7	526,2	464,4	484,5
14,18	14,99	15,02	8,65	11,62	14,29	13,62	5,08	10,75

Girona	Logroño	Oviedo	Iruñea	Santander	Sevilla	Valentzia	Gasteiz	Zaragoza
45,15	46,05	44,45	48,32	48,24	44,41	49,51	40,28	46,89
19,69	20,74	18,7	15,24	14,2	7,89	7,13	23,53	9,23
11,07	11,17	12,11	13,43	12,62	25,97	18,64	12,41	16,81
19,22	17,43	20,68	18,07	17,9	23,08	22,04	18,31	23,22

II Eranskina

Donostia testuinguruan. Hirien benchmarkina

	Populazioa, guztira (2016)	Populazioa, gizonak (2016)	Populazioa, emakumeak (2016)	Emakumeak 100 gizoneko (2016)
Århus	319 094[3]	156 780[3]	162 314.0[3]	1043
Bartzelona	1 608 746	761 487	847 259.0	111
Baiona	125 992[2]	58 403[2]	67 589.0[2]	1162
Bilbo	345 122	162 732	182 390.0	112
Bolonia	386 663	181 939	204 724.0	113
Bordele	753 601[2]	357 076[2]	396 525.0[2]	1112
Bristol	451 771	226 105	225 666.0	100
Burgos	176 608	84 097	92 511.0	110
City of Edinburgh	502 990	244 716	258 275.0	106
Dublin	516 255[e,5]	252 159[e,5]	264 096.0[e,5]	105[e,5]
Geneva	198 072	95 146	102 926.0	108
Gijón	273 422	128 955	144 467.0	112
Girona	98 255	47 149	51 106.0	108
Ljubljana	288 307	138 564	149 743.0	108
Logroño	150 876	71 766	79 110.0	110
Lyon	1 351 078[2]	644 958[2]	706 120.0[2]	1102
Montpellier	450 051[2]	213 820[2]	236 231.0[2]	1112
Oviedo	220 567	102 292	118 275.0	116
Iruñea	195 650	92 949	102 701.0	111
Plymouth	263 456	131 065	132 391.0	101
Porto	214 579	96 459	118 120.0	123
Salzburgo	146 631[2]	69 279[2]	77 352.0[2]	1122
Donostia	**186 064**	**87 553**	**98 511.0**	**113**
Santander	172 656	79 618	93 038.0	117
Sevilla	690 566	327 866	362 700.0	111
Stavanger	129 191[3]	65 168[3]	64 023.0[3]	983
Stockholm	864 324[5]	423 974[5]	440 350.0[5]	1045
Estrasburgo	477 655[2]	228 057[2]	249 598.0[2]	1092
Tesalonika	315 196[5]	143 813[5]	171 383.0[5]	1195
Trento	117 317	56 200	61 117.0	109
Turku / Åbo	185 908	88 435	97 473.0	110
Valentzia	790 201	377 233	412 968.0	110
Gasteiz	244 634	119 462	125 172.0	105
Viena	1 766 746[2]	850 596[2]	916 150.0[2]	1082
Wiesbaden	276 218	131 901	144 317.0	109
Zaragoza	661 108	317 555	343 553.0	108

Iturria: EUROSTAT, City Statistics. Donostiako Estrategia Bulegoak landua

Populazioaren bilakaera (%) (2015-2016)	Adinaren mendekotasun ratioa (0-19 urteko eta 65 urte eta gehiagoko populazioa / 20-64 urteko populazioa) (2016)	Gazteen mendekotasun ratioa (0-19 urteko populazioa / 20-64 urteko populazioa) (2016)	Adinekoen mendekotasun ratioa (65 urte eta gehiagoko populazioa / 20-64 urteko populazioa) (2016)
%	%	%	%
1.4[3]	54.5[3]	33.7[3]	20.9[3]
0.3	61.9	26.9	35.0
-0.1[2]	78.4[2]	34.0[2]	44.5[2]
0.0	66.0	26.8	39.2
0.1	69.8[1]	25.9[1]	43.9[1]
1.5[2]	63.2[2]	37.5[2]	25.7[2]
1.3	58.1	37.3	20.8
-0.3	66.0	31.5	34.5
1.5	52.5	29.6	22.9
:	50.1[e,5]	31.1[e,5]	19.0[e,5]
1.8	51.4	27.0	24.4
-0.3	65.3	24.6	40.7
0.7	60.2	36.2	24.1
0.4	59.0	29.8	29.2
-0.3	64.2	32.9	31.4
1.3[2]	69.5[2]	42.9[2]	26.6[2]
1.8[2]	63.8[2]	38.4[2]	25.4[2]
-0.6	59.4	25.4	34.0
-0.1	68.2	31.5	36.7
0.5	68.4	38.5	29.9
-1.7[e]	79.1	30.1	49.0
0.5[2]	61.4[2]	28.9[2]	32.5[2]
0.0	**66.7**	**28.6**	**38.1**
-0.7	65.3	26.6	38.7
-0.5	62.7	32.4	30.3
1.3[3]	59.9[3]	40.2[3]	19.7[3]
2.0[5]	54.0[5]	32.4[5]	21.5[5]
0.3[2]	65.4[2]	40.0[2]	25.4[2]
:	60.1[5]	26.0[5]	34.1[5]
0.0	68.2[1]	31.9[1]	36.3[1]
1.1	60.7	28.4	32.3
0.5	62.5	29.8	32.7
0.3	63.8	31.1	32.7
1.5[2]	56.72	30.1[2]	26.6[2]
0.4	65.4	32.4	33.0
-0.6	64.9	30.9	34.0

Oharra:

[1] = 2015eko datuak
[2] = 2014ko datuak
[3] = 2013 data
[4] = 2012ko datuak
[5] = 2011ko datuak
[6] = 2010eko datuak
: = ez dago datu erabilgarririk
[b] = haustura denbora datuen seriean
[d] = atuaren definizioa desberdina da, ikus metadatuak
[e] = zenbatetsia
[p] = behin-behinekoa
[r] = definitu gabe

	Heriotza tasa (‰) (2016)	Jaiotza tasa (‰) (2016)	Haurren heriotza tasa (bizirik jaiotakoen ‰) (2016)
	‰	‰	‰
Århus	7.4[4]	12.6[4]	2.8[4]
Bartzelona	9.7	8.8	1.6
Baiona	10.7[2]	9.[42]	0.9
Bilbo	11.4	7.7	2.3
Bolonia	13.1[1]	8.3[1]	2.8[1]
Bordele	7.2[2]	12.0[2]	3.8
Bristol	7.5	14.0[1]	3.8[1]
Burgos	9.8	8.5	2.7
City of Edinburgh	8.7	10.61	3.8[1]
Dublin	8.1[e,5]	15.8[e,5]	3.2[5]
Geneva	7.1	12.1	2.1
Gijón	12.1	6.1	3.0
Girona	7.2	10.7	3.8
Ljubljana	7.5	9.7	3.6
Logroño	8.7	8.3	1.6
Lyon	6.5[2]	15.7[2]	3.0
Montpellier	6.3[2]	13.0[2]	3.6
Oviedo	10.4	7.2	3.1
Iruñea	9.5	8.4	5.5
Plymouth	9.4	12.1[1]	3.2[1]
Porto	13.6	9.7	2.4
Salzburgo	9.4[2]	9.7[2]	4.9[2]
Donostia	**10.1**	**7.3**	**1.5**
Santander	11.3	6.8	3.4
Sevilla	8.9	9.6	3.3
Stavanger	7.1[4]	13.9[4]	3.4[4]
Stockholm	8.0[5]	15.8[5]	1.8[5]
Estrasburgo	7.4[2]	13.9[2]	4.0
Tesalonika	10.5[5]	22.6[5]	2.0[3]
Trento	9.0[1]	8.7[1]	3.9[1]
Turku / Åbo	9.8	9.8	2.7
Valentzia	9.3	8.4	2.7
Gasteiz	8.1	9.7	2.9
Viena	9.1[2]	10.9[2]	4.5[2]
Wiesbaden	10.[51]	11.4[1]	3.2[1]
Zaragoza	9.4	8.8	3.3

Iturria: EUROSTAT, City Statistics. Donostiako Estrategia Bulegoak landua

	Nazioko populazioa (%) (2016)	Atzerriko populazioa (%) (2016)	Europar Batasuneko atzerriko populazioa (%) (2016)	Europar Batasunaz kanpoko atzerriko populazioa (%) (2016)
	%	%	%	%
Århus	93.0[4]	8.4[4]	3.3[4]	5.1[4]
Bartzelona	83.4	16.6	5.1	11.5
Baiona	95.1[2]	4.9[2]	3.1[2]	1.8[2]
Bilbo	92.6	7.4	1.3	6.1
Bolonia	84.8	15.2	3.2	12.0
Bordele	93.0[2]	7.02	2.6[2]	4.4[2]
Bristol	90.7[b,d,5]	9.3[b,d,5]	5.4[b,d,5]	3.9[b,d,5]
Burgos	93.2	6.8	3.7	3.0
City of Edinburgh	88.0[b,d,5]	12.0[b,d,5]	6.0[b,d,5]	6.0[b,d,5]
Dublin	79.7[e,5]	20.3[e,5]	9.9[e,5]	10.4[e,5]
Geneva	51.7	48.3	31.3	17.0
Gijón	95.5	4.5	1.9	2.6
Girona	81.7	18.3	3.6	14.6
Ljubljana	91.0	9.0	1.2	7.8
Logroño	89.0	11.0	4.7	6.3
Lyon	90.5[2]	9.5[2]	2.4[2]	7.12
Montpellier	91.6[2]	8.4[2]	2.0[2]	6.4[2]
Oviedo	94.3	5.7	2.0	3.7
Iruñea	90.8	9.2	3.4	5.9
Plymouth	95.7[b,d,5]	4.3[b,d,5]	2.6[b,d,5]	1.7[b,d,5]
Porto	96.9[e,5]	3.7d	1.0d	2.7d
Salzburgo	77.8[2]	22.2[2]	8.7[2]	13.4[2]
Donostia	**93.4**	**6.6**	**1.6**	**5.0**
Santander	92.9	7.1	1.8	5.3
Sevilla	95.5	4.5	0.9	3.5
Stavanger	87.1[4]	12.9[4]	7.7[4]	5.2[4]
Stockholm	89.8[5]	10.2[5]	4.4[5]	5.8[5]
Estrasburgo	88.3[2]	11.7[2]	3.8[2]	8.0[2]
Tesalonika	92.1[5]	7.9[5]	1.2[5]	6.7[5]
Trento	88.8	11.2	2.6	8.6
Turku / Åbo	93.8	6.2	2.2	4.0
Valentzia	87.8	12.2	4.1	8.1
Gasteiz	91.5	8.5	1.2	7.4
Viena	75.8[2]	24.2[2]	10.2[2]	14.0[2]
Wiesbaden	82.5	17.5	7.9[e]	9.6[e]
Zaragoza	90.6	9.4	3.6	5.8

Iturria: EUROSTAT, City Statistics. Donostiako Estrategia Bulegoak landua

	Langabezia tasa (%) (2016)	Gizonezkoen langabezia tasa (%) (2016)	Emakumezkoen langabezia tasa (%) (2016)	Jarduera tasa (%) (2016)	Gizonezkoen jarduera tasa (%) (2016)	Emakumezkoen jarduera tasa (%) (2016)
	%	%	%	%	%	%
Århus	3.9[4]	4.2[4]	3.6[4]	60.5[4]	63.2[4]	57.9[4]
Bartzelona	12.5[e]	11.0[e]	14.1[e]	57.5[e]	62.7[e]	52.9[e]
Baiona	14.4[2]	13.6[2]	15.3[2]	52.5[2]	58.2[2]	47.7[2]
Bilbo	16.2[e]	16.4[e]	15.9[e]	53.7[e]	59.8[e]	48.3[e]
Bolonia	7.0[5]	6.8[5]	7.2[5]	52.7[5]	59.0[5]	47.3[5]
Bordele	14.3[2]	14.0[2]	14.6[2]	58.9[2]	63.3[2]	55.0[2]
Bristol	5.1[1]	7.1[1]	2.8[1]	68.0[1]	73.5[1]	62.5[1]
Burgos	12.6[e]	10.0[e]	15.4[e]	56.9[e]	63.1[e]	51.4[e]
City of Edinburgh	5.3[1]	4.4[1]	6.2[1]	62.2[1]	64.6[1]	59.9[1]
Dublin	16.1[e,5]	21.0[e,5]	10.2[e,5]	61.6[e,5]	69.5[e,5]	54.3[e,5]
Geneva	11.4[e]	11.2[e]	11.6[e]	64.0[e]	70.4[e]	58.2[e]
Gijón	18.8[e]	19.6[e]	18.0[e]	51.5[e]	57.4[e]	46.3[e]
Girona	16.5[e]	17.2[e]	15.8[e]	61.7[e]	65.7[e]	58.1[e]
Ljubljana	12.7[d]	12.9[d]	12.4[d]	52.7[d]	58.1[d]	47.8[d]
Logroño	15.3[e]	14.2[e]	16.6[e]	57.3[e]	63.7[e]	51.6[e]
Lyon	14.0[2]	13.7[2]	14.2[2]	59.6[2]	64.6[2]	55.2[2]
Montpellier	17.4[2]	17.4[2]	17.3[2]	56.4[2]	60.5[2]	52.7[2]
Oviedo	16.3[e]	17.4[e]	15.2[e]	53.9[e]	59.8[e]	48.9[e]
Iruñea	14.2[e]	13.2[e]	15.2[e]	54.7[e]	60.5[e]	49.6[e]
Plymouth	6.3[1]	4.4[1]	8.4[1]	62.0[1]	67.2[1]	56.9[1]
Porto	17.6[5]	18.6[5]	16.6[5]	51.3[e,5]	56.6[e,5]	47.0[e,5]
Salzburgo	6.8[2]	7.4[2]	6.1[2]	58.8[2]	64.3[2]	54.0[2]
Donostia	**9.2[e]**	**8.8[e]**	**9.7e**	**53.6e**	**59.9[e]**	**48.1e**
Santander	15.6[e]	15.6[e]	15.6[e]	52.4[e]	59.6[e]	46.4[e]
Sevilla	23.3[e]	22.2[e]	24.7[e]	55.7[e]	63.3[e]	49.1[e]
Stavanger	:	:	:	:	:	:
Stockholm	6.5[5]	6.4[5]	6.5[5]	62.3[5]	64.7[5]	59.9[5]
Estrasburgo	16.0[2]	16.3[2]	15.6[2]	58.1[2]	62.9[2]	53.9[2]
Tesalonika	23.5[5]	23.7[5]	23.3[5]	45.8[5]	54.5[5]	38.75
Trento	5.9[5]	5.1[5]	6.7[5]	54.6[5]	61.5[5]	48.45
Turku / Åbo	16.3	18.4	14.3	57.7	60.3	55.4
Valentzia	18.7[e]	18.5[e]	18.9[e]	56.6[e]	62.6[e]	51.3[e]
Gasteiz	12.4[e]	11.7[e]	13.1[e]	56.6[e]	61.5[e]	52.0[e]
Viena	12.3[2]	13.2[2]	11.3[2]	60.3[2]	66.0[2]	55.2[2]
Wiesbaden	5.7[e]	5.9[e]	5.5[e]	60.3[e]	67.0[e]	54.4[e]
Zaragoza	15.6[e]	13.3[e]	18.1[e]	58.6[e]	64.9[e]	52.9[e]

Iturria: EUROSTAT, City Statistics. Donostiako Estrategia Bulegoak landua

	Etxebizitzaren batez besteko tamaina, bertan bizi direnen kopuruaren arabera (2016)	Pertsona bat bizi den etxebizitza (%) (2016)
Århus	2.1[6]	40.8[4]
Bartzelona	2.4	31.3
Baiona	1.9[2]	47.2[2]
Bilbo	2.4	29.7
Bolonia	1.9	44.7[5]
Bordele	2.0[2]	43.3[2]
Bristol	2.4	29.6
Burgos	2.4	31.0
City of Edinburgh	2.2	33.5
Dublin	2.4[e,5]	30.5[e,5]
Geneva	2.1	46.8
Gijón	2.3	31.6
Girona	2.6	27.9
Ljubljana	2.2[d,1]	41.6[d,1]
Logroño	2.4	30.1
Lyon	2.2[2]	40.6[2]
Montpellier	2.0[2]	43.7[2]
Oviedo	2.3	31.2
Iruñea	2.5	30.4
Plymouth	2.4	28.2
Porto	2.3[5]	30.7[5]
Salzburgo	2.02	46.7[2]
Donostia	**2.4**	**30.3**
Santander	2.4	31.1
Sevilla	2.6	26.1
Stavanger	2.2[3]	41.6[3]
Stockholm	:	:
Estrasburgo	2.1[2]	41.0[2]
Tesalonika	2.1[5]	38.2[5]
Trento	2.2	35.4[5]
Turku / Åbo	1.8	51.1
Valentzia	2.5	29.8
Gasteiz	2.3	31.2
Viena	2.0[2]	44.7[2]
Wiesbaden	1.9[e,4]	44.1[e,4]
Zaragoza	2.5	28.7

Iturria: EUROSTAT, City Statistics. Donostiako Estrategia Bulegoak landua

III Eranskina

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea Gipuzkoan

Oinarrizko eta bikaintasunezko ikerketa zentroak	Kokapena
BCBL ELKARTEA - BASQUE CENTER ON COGNITION BRAIN AND LANGUAGE	Donostia
DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER	Donostia
MPC IKERKETA ELKARTEA - MATERIALS PHYSICS CENTER	Donostia
Basque Center for Macromolecular Design and Engineering, POLYMAT Fundazioa	Donostia

Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren zabalkunderako eragileak	Kokapena
ARKEOLAN FUNDAZIOA	Irun
ELHUYAR FUNDAZIOA	Donostia
GIPUZKOAKO OZEANOGRAFIA FUNDAZIOA	Donostia
EUSKO IKASKUNTZA SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS	Donostia
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA	Donostia
EUSKO IKASKUNTZAREN EUSKOMEDIA FUNDAZIOA	Usurbil

Osasun ikerketako institutuak (OII)	Kokapena
BIODONOSTIA INSTITUTUA	Donostia

Osasun arloko I+G erakundeak	Kokapena
CITA - ALZHEIMER FUNDAZIOA	Donostia
MATIA FUNDAZIOA, INSTITUTU GERONTOLOGIKOA	Donostia

Ardatz anitzeko zentro teknologikoak	Kokapena
CIDETEC FUNDAZIOA	Donostia
VICOMTECH - INTERAKZIO BISUALEKO ETA KOMUNIKAZIOETAKO TEKNOLOGIEN ZENTROAREN FUNDAZIOA	Donostia
CEIT-IK4 ZENTRO TEKNOLOGIKOAREN ELKARTEA	Donostia
LORTEK S.COOP.	Ordizia
IDEKO S.COOP.	Elgoibar
IKERLAN S.COOP.	Arrasate eta Irun
TECNALIA RESEARCH & INNOVATION FUNDAZIOA	Donostia
TEKNIKER FUNDAZIOA	Eibar

Zentro teknologiko sektorialak	Kokapena
AZTI FUNDAZIOA	Donostia
BASQUE CULINARY CENTER FUNDAZIOA	Donostia
MIK S.COOP.	Oñati

Ikerketa kooperatiboko zentroak	Kokapena
CIC NANOGUNE ELKARTEA	Donostia
BIOMATERIALETAKO IKERKETA KOOPERATIBOKO ZENTROA	Donostia

Enpresetako I+G unitateak	Kokapena
FAGOR AOTEK S.COOP.	Arrasate eta Irun
EDERTEK S.COOP.	Arrasate eta Irun
ULMA PACKAGING TECHNOLOGICAL CENTER S. COOP.	Oñati
ALFA INVESTIGACION DESARROLLO E INNOVACION AIE	Eibar
AMETZAGAIÑA AIE	Lasarte
CREATIO - IRIZAR GROUP INNOVATION CENTER AIE	Ormaiztegi
CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO SL	Beasain
SPYRO I MAS D AIE	Donostia
ABC COMPRESSORS TECHNOLOGY CENTRE AIE	Eibar
ETIC-EMBEDDED TECHNOLOGIES INNOVATION CENTER S. COOP.	Arrasate eta Irun
CENTRO DE ENSAYOS Y ANALISIS CETEST SL	Beasain
HISPAVISTA LABS AIE	Donostia
GLUAL INNOVA AIE	Azpeitia
IKERGUNE AIE	Elgoibar
CS CENTRO STIRLING, S.COOP	Aretxabaleta
INFORMÁTICA 68 I+D SL	Donostia
ORONA EIC S. COOP.	
GRUPO WISCO I MAS D SL	Lezo
OBEKI INNOBE AIE	Ibarra
KONIKER S.COOP.	Arrasate eta Irun
INSTITUTO IBERMATICA DE INNOVACION SL	Donostia
CENTRO DE EXCELENCIA PID RD SA	Andoain
IKOR TECHNOLOGY CENTRE SL	Donostia
EGILE INNOVATIVE SOLUTIONS AIE	Mendaro?
SABICOLABS SA	Donostia
ANGULAS AGUINAGA RESEARCH CENTER SL	Irura

Eskaintza/eskari bitartekaritzako eragileak	Kokapena
ISEA S.COOP.	Arrasate eta Irun
IK4 RESEARCH ALLIANCE ELKARTEA	Eibar
MAKINA ERREMINTAREN IKERKETA FUNDAZIOA	Donostia
UZEI - UNIBERTSITATE ZERBITZUETARAKO EUSKAL IKASTETXEA	Donostia
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA ELKARTEA	Andoain
SAIOLAN, S.A.	Arrasate eta Irun

Unibertsitateetako ikerketa egiturak	Kokapena
NAFARROAKO UNIBERTSITATEA - TECNUN	Donostia
DEUSTUKO UNIBERTSITATEA	Bilbo eta Donostia
BASQUE CULINARY CENTER HEZKUNTZA FUNDAZIOA	Donostia
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP.	Arrasate
MONDRAGON UNIBERTSITATEA S.COOP.	Arrasate
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	Bilbo eta Donostia
HUHEZI SCL	Eskoriatza
MU ENPRESAGINTZA S.COOP.	Arrasate eta Irun
DEUSTU FUNDAZIOA	Bilbo eta Donostia

Iturria: https://apps.euskadi.eus/aa40paWebPublicaWar/webPublicaJSP/aa40painicio.do?idioma=eu.
Donostiako Estrategia Bulegoak landua.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

ESTRATEGIA
2030 DONOSTIA/
SAN SEBASTIÁN